

Marcel PROUST

Jean-Baptiste ORPUSTAN-ek euskarara itzulirik

**ARO GALDUAREN BILA**

(III)

**IHESLEA**

(La fugitive)



## IHESLEA

«Albertine Andereñoa joan da!» Gogoan oinazea gogo-jakintza baino zenbat urrunago doan! Duela ephe bat, neure gogoaren ikhertzen ari, uste ukana nuen elgar berriz ikusi gabe berexte hori zela hain zuzen gutiziatzen nuena, eta, Albertine-ek emaiten zauztan atsegin bierartekoen erkidatzean betetzera uzten eninduen gutizien aberastasunarekin (eta hura ene etxean zelako segurtasunak, ene moraleko hertsagailua, utziak baitzituen ene ariman lehenbiziko lekua-ren hartzera, baina Albertine joana zelako berriaren ikastean ezpaitziren gehiago harekin burkidetzan hasten ahal, berehala ezeztatuak zirelakotz), artex aurkitua nintzan, enuela gehiago ikusi nahi egina nuen, enuela gehiago maite. Baina hitz horiek: «Albertine Andereñoa joan da» halako oinazea egina zuten ene bihotzean nun sendi bainuen enuela luzazago ihardoki ahal ukanen; berehala geldi-arazi behar zen, neure aldera xamur ama amatxi hil-urranarenera bezala, banion neure baitan, maite denarendako den borondate on ber harekin: «Euk zekunda bateko pairamena, erremedio bat aurkituko zaik, ago geldirik, ehaute horrela oinazkatua izaitera utziko.» Eta, arestian, atxean oraino joa enuenean, Albertine-ren joaita orobat iduritua baldin bazizatan, gutiziarri ere, ezina zelakotz zela nahasiki sendituz, ideia mota hortan zituen nihauren begiratzeko asmuak, zauri idekiaren gainean ezartzeko, lehen eztigailuak bilatu: «Horrek guziak baliorik batere eztu, orai berean gibelera jin-araziko dutalakotz. Buru-haustea debalde da beraz». «Horrek guziak baliorik batere eztu», enuen hori bakarrik errana, Françoise-ri sendimendu horren emaitera entseatua nintzan ene oinazea haren aitzinean agertzera ez utziz, ze-

ren, hoin bortizki senditzen nuenean ere, ene maitasunak ezpaitzuen ahazten maitasun zorionduna zela iduri ukaitea beharrezkoa zizakola, Albertine maite etzuen eta haren zintzotasuna beti dudan emana zuen Françoise-ren begietan oroz gainetik. Bai, arestian, Françoise ethorri aitzin, uste ukana nuen, ikhertzale zuzen bezala, Albertine enuela gehiago maite, ezer enuela bazterrera uzten; ene bihotzaren zola ontsa ezagutzen nuela uste ukana nuen. Baina gure adimendua, den argia izan dadin, hetaz egina den gaier eztaiteke ohar, eta hetaz aierurik eztu, dembora gehienez hartan dauden izanara airakorretik berexteko ahala duen gertaldi batek gogortzen haste bat jasan-arazia eztaueno. Ene bihotzean argiki banakusala uste ukaitean huts egin nuen. Baina ezagutza hori, izpirituko ikuspen xorrotxenek emanen etzautatena, ekharri berria zizatan, gogor, argi, bitxi, gatz krixtaildu bat bezala, oinazearen bapateko ihardokitzeaz. Ene ondoan Albertine-ren ukaiteko hainbateko ohidura banuen, eta banakusan bapatez Ohiduraren itxura berri bat. Orai arteo ikuspenetako berezitasuna eta ohartzea bera ekhertzen dituen botere ezteuseratzale bezala hartua nuen oroz gainetik; orai jainko berldurgarri bezala ikusten nuen, gure baitan hain lotua, haren aurpegi hain guti ohargarria gure bihotzean hain sartua, nun berexten baldin bada, gutarik baztertzen, abantzu hautemaiten ezkinuen jainko mota horrek bertze edozeinek baino oinaze izigarriagoak jasan-arazten baitauzku eta orduan herioa bezain bortitza baita.

Lehiatuena eskutitzaren irakurtzea zen, gibelera haren jin-arazteko bidez deliberatu nahi nuenaz geroz. Eskupean nituela sendi nuen, iduritzen zaikulakotz, ethorkizunak izaiterik gure gogamenean baizik ezpaitu oraino, in extremis bermoldagarri dela oraino gure borondatearen egintzaz. Baina aldi berean orhoit nintzan ikusiak nituela neureaz bertze indar batzu haren baitan eragin ukaiten eta haien kontra, dembora gehiago emana izan balizata ere, ezer eginen ahal ezpainuen. Orenak oraino joa eztezan zer balio du, han gertatuko denean jeus egin ezpaldin badezagu? Albertine etxean zelarrik, gure berexteko lehen urhatsaren jabe izaitera ontsa deliberatua nintzan. Eta

gero joana zen. Albertine-ren eskutitza ideki nuen. Hunela egina zen:

«Adixkidea, jarraikiko diren hitz bakar hauen zuri ahoz erraitera ez menturatzea barka ezatazu, hain ahula niz, zure aitzinean beti hain beldur izana niz, nun, neure burua bortxatuz ere, ezpaitut egiteko kuraia ukan. Huna zer erran behar ukanen nautzun: Gure artean, bizia ezina bilakatu da; ikusi duzu bertzela ere joan den eguneko zure aharralditik aldatu den zerbait bazela gure adixkidantzan. Gau hartan akomeatu ahal dena egun batzuen buruko ezin antolagarri bilakatuko zen. Hobe da beraz, berriz baketzeko zoria ukan dugunaz geroz, adixkide on berex gaiten; hortako dautzut, maitea, hitz hau igortzen, eta othoizten zitut eni barkatzeko aski ona izan zaiten bihotzmin apur bat egiten badautzut, ukanen dutan gaitzekoa gogoan hartuz. Ene gaixo handia, eztut zure etsai bilakatu nahi, aski gogor izanen zata apurka apurka, eta ontsa laster, zuretako orobat bilakatzea; beraz, ene deliberoa ezin aldatua izanez, Françoise-ren bidez zuri eskutitz hau emanarazi baino lehen, ene malak galdeginak ukanen dauzkot. Goraintzi, neure baitako hoberena uzten dautzut. Albertine.»

Horrek guziak jeus eztu erran nahi, erran nuen, uste nuen baino hobe da ere, ezen, hortarik ezer ezpaitu gogoan, eztu ageriki izkiriatu ukhaldi handi baten joiteko baizik, beldurra ukan dezatan. Lehiatuenaz deliberatu behar da, hori da arratsean Albertine sartua izan dadin. Bontemps-tarrak nitarik diru biltzeko bere ilobaz baliatzen diren jende ohoïn batzu direla gogatzeta trixte da. Baina zer balio du? Behar banu ere, Albertine hemen izan dadintzat, ene fortunaren erdia Bontemps Andereari eman, aski geldituko zaiku, Albertine-ri eta eni, goxoki bizitzeko. Eta aldi berean karkulatzen nuen gutiziatzen zituen iotaren eta Rolls Royce-aren manatzeko astia goiz hartan ukanen nuenez, gehiago gogora eman ere gabe, zalantza osoki gelditurik, hari haien emaita guti zuhur iduritua ahal zizatala. Bontemps Andereak onhar dezan ezpada ere aski, Albertine-ek ezpadauko izabari obeditu nahi eta itzultzeko kondizonetako hemendik goiti osoki bere gain izaitea ezartzen badu, he bada! horrek zenbat ere bihotzmin egin dezatan, utziko daukot; bakarrik jalgiko da, nahiko duen bezala;

sakrifizio batzuen onhartzen jakin behar da, diren bezain mingarriak, gehienik hari atxikia den gauzarendako eta hori da, ene arrazoinamendu zuzen eta zentzugaben arabera goizean uste nuena izanik ere, Albertine hemen bizi dadin. Erran dezaketa, gainera, hari libertate horren uztea osoki mingarri izanen zizatala? Gezurra nerrake. Ainitzetan senditua nuen jadanik nitarik urrun gaitz egitera libertatean haren uzteko oinazea oraino ttipiago zela behar bada enekin, ene etxean aspertzen zela senditzean ukaitea gertatzen zizatan trixtezia mota hura baino. Dudarik gabe, norapait joaitea galdeginen zautan orduan berean, egitera uztea, atsegalekeria antolatu batzu bazirela gogoan, laztagarri izanen zizatan. Baina hari erraitea: «Harrazu gure untzia, edo treina, zoaz ilabete batendako ezagutzen ez tutan horrelako herrira, zer eginen duzun ikasiko ez tutan batera», hori ainitzetan gustatua zizatan nitarik urrun, erkidatzez, hautetsiko ninduelako ideiaz, eta itzultzean zorion ukanen zuela. Bertzela ere, berak ere gutiziatzen du segurki; eztu batere libertate hori nahi, errexki helduko bainiz, egun bakoitz Albertine-ri atsegin berri batzu eskainiz, egunetik egunera, muga zenbaiten ukaitera. Ez, Albertine-ek nahi ukan duena, harekin hastialagoa izan nindadin da, eta oroz gainetik - lehenago Odette Zuanekin bezala - harekin ezkontzera delibera nadin. Behin ezkondu eta, beregain izaiteari, ezta gehiago atxikia izanen, bi-biak hemen egonen gira, hain zoridun! Dudarik gabe, Veneziaz etsitzea zen. Baina hiri gutiziatuenak - eta, Venezia baino ontsa gehiago oraino, Guermantes-ko dukesa, antzokia - hits bilakatzen dira, orobateko, hil, bertze bihotz bati lotuak girenean lokarri hain mingarriaz nun urruntzea debekatzeko baitaiku! Albertine-ek bertzela ere osoki arrazoin du ezkontzeko gauza hortan. Amari berari gibelatze horiek irriegingarri iduritzen zizazkon. Harekin ezkontzea, hori da aspaldidanik egin behar ukanen nuena, hori da egin beharko dutana, horrek dauko izkiria-arazi hitzik berak sinesten ez tuten eskutitza, horren egin-arazteko du egin dezan gutiziatzen dutan bezainbat berak gutiziaten dukeena zenbait orenendako bazterrera utzi: hunara itzultzea. Bai, hori du nahi ukan, hori da haren egintzaren xedea, erraiten zautan ene arrazoin urrikalkorak; baina sendi nuen horren erraitean ene arrazoina jartzten zela beti

hastetik hartua zuen aieruan. Senditzen nuen bada bertze aierua zela egiaztatua izaitetik behin ere gelditua etzena. Dudarik gabe, behin ere etzen bigarren aieru hori aski azkar izana Albertine Vinteuil Andereñoarekin adixkidatua izan zaitekeela garbiki entzun-arazteko. Bizkitartean, nitan berri laztagarri horren hedatzeaz gauditua izana nintzalarik, Incarville-ko garan sartzen ari ginenean, bigarren aierua zen baiezaturik gertatua. Hunek etzuen gero egina Albertine-ek berainik nehoiz ere utz ahal nindezakeela, eni jakin-arazi gabe 'ta hortarik debekatzeko astia utzi gabe. Baina hala ere, biziak egin-arazi berria zautan jauzi handiaren ondotik, onhartu behar nuen egia, fisikari baten aurkintzak, juje baten inkestek, edo erahiltze baten edo iraultza baten azpiez ixtoriolari baten aurkitaldiek haren aitzinean ezartzen gituena bezain berria baldin bazen enetako, egia hori ene bigarren aieruaren aitzin-iragarmen ahulak baino urrunago zoan, baina bururatzen zituena.

Bigarren aieru hori etzen adimenduarena, eta Albertine-ek besarkatua eninduen arratsean ukana nuen beldur izigarria, leihoreen harrabotsa entzuna nuen gauan, beldur hori etzen arrazoinezkoa. Baina - eta jarraikiko denak gehiago erakutsiko du, gertaldi andana batek jadanik seinalatu ahal duen bezala - adimendua ezpada egiaren hatzemaiteko tresna xorrotxena, azkarrena, egokiena, ezta hori adimendutik hasteko arrazoin bat gehiago baizik eta ez ohargabearen asmu batetik, aitzinetik jarri sendimenduetan sinestetik. Biziak gitu, apurka apurka, aldiz aldi, gure bihotzeko, edo izpirituko beharrena dena etzaikula arrazoinamenduak ikasia, baina bertze indar batzuek, ohartzera uzten. Eta orduan, adimenduak berak du, haien nagusitasunari ohartzuz, haien aitzinean amor emaiten, eta haien languntzale 'ta zerbitzari bilakatzea onhartzen. Harekin gudukan gertatzen nintzan ustegabeko zorigaitza, iduri zizatan hura ere (Albertine-ren adixkidantza bi andre emakoiekin bezala) jadanik ezaguna nuela hainbat seinaletan (Albertine-ren erranetan bermatzen zen ene arrazoinaren kontra erranak izan arren) horrela esklabo biritzeaz zuen akhidura, hastioa; seinale horiek, zenbat nituen idatziak, urbeltz ezin ikusi batekin bezala, Albertine-ren ñiñika trixte obedientetan, gorritasun ezin

argigarri batez bapatean gorritu mateletan, bera bapatez ideki zen leihoaren harrabotsean! Dudarik gabe, bururano horien argitzera enintzan menturatua eta haren bapatez joaiteko ideia espesuki moldatzera. Enuen gogoan ukana, Albertine-ren hor izaiteaz heinkatu arima batekin, egun ez mugatu batez nihaurek antolatu abiatze bat baizik, erran nahi da izaiterik gabeko aro batean jarria; beraz abiatze batez gogatzeko lillura nuen bakarrik ukana, osasunean diren jendek herioa gogoan dutenean haren beldur eztirela uste duten bezala, eta egiazki ideia osoki ezezko baten sartzea baizik ez tutenean egiten herioaren hurbiltzeak hain zuzen gaitz lezakeen osasun baten barnera. Bertzela ere Albertine-ek berak nahi ukana zukeen joaiteko ideia mila aldiz gogora jinen ahal zizatan, izan daitekeen molde argienean, garbienean, ezpainuen hortako aieru ukanen nihauri buruz, erran nahi da egiazki, joaite hori zer izanen zen, zer gauza berezia, izigarria, ez ezaguna, zer gaitz osoki berria. Joaite hori, aitzinetik ikusia ukan banu, urtez eta urtez gelditu gabe gogoan ukaiten ahalko nuen, gogoeta horiek orok, elgarri loturik, elgarren iduri ahulena ukanen baitzuten, ez bakarrik indarrean baina itxuran, Françoise-ek: «Albertine Andereñoa joan da» eni erraitean idekia zautan ifernu ezin asmatuarekin. Izanara ezezagun baten itxuratzeko asmuak gai ezagun batzu hartzen ditu eta, horren gatik, eztu itxuratzen. Baina sendimenduak, gorputzekoenak ere, ukaiten du, aire gaixtoaren ilderreka bezala, gertakari berriaren sinadura berezia eta luzaz ezin ezabatua. Eta doi-doi nintzan neure baitan erraitera ausartzen, joaite hori aitzinetik ikusia ukan banu, ahalik enuela behar bada ukanen zuen laztura osoan itxuratzeko, baina, Albertine-ek ikasi balaut ere, ni hari mehatxuka, othoizka, trabatzeko. Veneziako gutizia orai nitarik zein urrun zen! Lehenago Combray-n Guermantes-ko Anderearen ezagutzekoa bezala, gauza bakar bati baizik atxikia enintzan ordua jiten zenean, gambaran amaren ukaiteari. Eta haurzaroaz geroz jasanak nituen antsia guziek zuten, antsia berriaren helean, laster egina haren azkartzera, hartan urtzeko ithotzen ninduen gai berdineko meta batean.

Eiki, horrelako berexte batek bihotzean emaiten duen ukhaldi



azkar hori eta, soinak hartzeko duen ahal izigarri horren bidez, oinazeaz badagiena oinazkatuak izan giren biziko une guzieren arokiea den zerbait, - eiki, urrikiari bere indar gehiena eman nahi daukon emaztea behar bada apur bat hari dagon bihotzeko ukhaldi hori (hain gira bertzeren oinazeaz guti axolatzen), ala alegiazko joaite batean baizik abiatzen ezten emazteak nahi dituelakotz bakarrik kondizone hobe batzu galdegin, ala, betikotz joaitean - betikotz! - jo nahi duelakotz, ala mendekatzeko, ala (utziko duen orhoitzapeneko balioaren abantailan) josten senditua zuen akhidurazko, axolagabezko sare horren bortizki haustekotan, - eiki, bihotzeko ukhaldi hori, baztertuko zela hitzmana ginuen, onez onean berexiko ginela errana. Baina onez onean elgarren uztea ezin gehiago bekan da, elgarrekin ontsa baldin baginen ezpaiginen berexiko. Eta gero harekin axolagabetuena agertzen giren emazteak senditzen du hala ere nahasiki hartaz akhitzean, ohidura ber bati esker, hari gero eta gehiago atxikia izaiten girela, eta gogoan du onez onean elgarren uzteko arrazoin baitezpadakoenetarik bat bertzea abisatuz joaitea dela. Bada, abisatuz, hori trabatuko duela beldur da. Emazte orok senditzen du, gizon baten baitan duen boterea handiago den arau, joaiteko bide bakarra, ihes egitea dela. Ihesle erregina delakotz, horrela da. Eiki, duela guti emaiten zuen akhidura horren eta, joana delakotz, berriz haren ukaiteko den behar eroaren artean bada arteka bat ezin sinetsia. Baina hortako, lan huntan zehar eman arrazoinen eta urrunago emanen direnetarik hara, badira bertze batzu. Lehenik joaitea gertatzen da ainitzetan axolagabea - egiazkoa ala ustezkoa - handiena den orduan, zalantzariaren harat-hunateko gune urrunenean. Emazteak badio bere baitan: «Ez, horrek eztezake gehiago horrelairaun», hain zuzen gizona ezpaita gehiago haren uzteaz baizik mintzo, edo hori gogoan baitu; eta hark du uzten. Orduan zalantzarria bere bertze gune urrunduenara itzultzen baita berriz, arteka handiena da. Zekunda batez gune hortara itzultzen da; aldi bat gehiago, eman diren arrazoin guzieren kontra, hain da natural! Bihotzak joiten du; eta gainera joana den emaztea ezta hor zen hura bera. Haren biziak gure ondoan, gehiegi ezagunak, ikusten ditu bapatez

lotzen haiekin nahi ala ez nahasiko den biziak, eta behar bada haiekin nahasteko gitu utzi. Hala nola nun joan den emaztearen biziko aberastasun berri horrek gibel-ondorio ukaiten baitu gure ondoan zen eta joaitea aitzinetik gogoan zuen emaztearen baitan. Ondoriotzen ahal ditugun eta gurekilako haren bizian, harendako gure akhidura agerigian, gure bekaizkerian ere (horrek egiten baitu emazte andana batez utziak izan diren gizonak abantzu beti molde berean izanak direla bere jitearen gatik eta neurtzen ahal diren ihardokitze beti berdinen gatik: bakoitzak badu trahitua izaiteko molde berezia, marrantatzekoa duen bezala) barne diren gogoko gauza lerroarekin, guretako sobera mixteriozkoa ezten lerro horrekin, bazoakeen ezagutua eztugun bertze gauza lerro bat.

Zenbait dembora bazatekeen harremanetan zela izkirioz, ala elhez, mezuez, horrelako gizonarekin, edo emaztearekin, igurikatzen zuela guhaurek jakin gabeen emana ginuen seinalea hari erraiten: «X. Jauna atzo izan da ene ikusten», X. Jaunarekin hitzartua baldin bazen X. Jaunaren gana joan behar zuen bezperan, hau ene ikustera jinen zela. Zenbat gauza gerta daitezkeen! daitezke bakarrik! Hain ontsa nuen egia moldatzen, baina izan daitekeenean bakarrik, nun egun batez idekia ukanik hutsez ene ohaidetarik batendako egina zen ezkutitz bat, molde hitzartuan izkiritua eta baziona: «Beti seinale baten igurikan Saint-Loup-eko markesaren etxera joaiteko, abisa ezazu bihar telefonaldiz», ihes egiteko xedea bezalako bat bermoldatu bainuen; Saint-Loup-eko markesaren izena etzen hor bertze zerbaiten erraiteko baizik, ene ohaideak Saint-Loup ezpaitzuen ezagutzen, baina hartaz mintzatzen entzuna baininduen, eta gainera, sinadura halako izengoiti bat zen, mintza-molde berezirik batere gabe. Eskutitza bada etzen ene ohaideari hel-arazia, baina bertze izen bat zuen eta gaizki irakurria zizakon etxeko norbaiti. Etzen ohiko hitzetan baina hizkuntza gaixto batean Amerikarsa batena zelakotz, zinez Saint-Loup-en adixkidea hunek ikasi zautan bezala. Eta hizkien moldatzeko Amerikarsa horrek zuen ara bitxiak izengoiti baten itxura emana zaukon izen osoki zuzen baina atzerritar bati. Egun hartan beraz osoki huts egina nuen ene aieruetan. Baina ene baitan gauza horiek, guziak hutsezkoak, elgarri

lotuak zituen adimenduko egitura bera egiaren molde hain zuzena zen, hain ezin aldatua nun, hirur ilabete berantago, ene ohaideak (orduan enekin bere bizi guziaren eremaitea baitzuen gogoan) utzia ukan ninduenan, lehen aldian asmatua nuenaren ara osoki berdinean izan baitzen. Eskutitz bat ethorri zen, lehenbizikoari hutsez emanak nauzkon berezitasun berak zituena, baina aldi huntan zinez seinalearen erran-nahikoa ...

Zorigaitz hori ene bizi guziko handiena zen Eta hala ere, egi-ten zautan oinazea gainditua zen behar bada oraino zorigaitz horren arrazoinen ezagutzeko jakin-nahiaz, Albertine-ek nor zuen gutiziatua, aurkitua. Baina gertakari handi horien ithurburuak ibaienak bezala dira, lur azalean gaindi ibil gaitzke, eztitugu edireiten. Ihes-egitea Albertine-k aspaldi danik horrela gogoan ukana zuena? Eztut erran ene besarkatetik gelditua zen egunetik (hori orduan fazoineria eta omore gaixtoa iduritua zizatalakotz, Françoise-rendako «mutur egi-tea» deitzen zena), ukana zuela ehortzetara joaiteko itxura bat, zutzuta emana, ziapildua, gauza xoilenetan mintzo trixte batekin, mugimenduetan baratz, ehoiz gehiago irriñorik gabe. Eztezaket erran gauza bakar batek kampoarekilako gogaidetasun zerbait phorogutzen zuela. Françoise-ek erran zautan bada gero haren joaiteko bezperagoan haren gambaran sarturik, etzuela nehor aurkitu, erridauak hetsiak, baina harrabotsetik eta aireko usainetik leihoa idekia zela senditzen. Eta, alabaina, Albertine balkoinean aurkitua zuen. Baina ezta ageri hortik norekin solastatzen ahalko zen, eta bertzela ere leihoaren gainera erridau hetsien arrazoina argitzen zatekeen aire-lasterren beldur nintzala bazakielakotz eta erridauek hortarik guti gerizatzen baninduten ere, kampako leihoak hoin goizik idekiak zirela barne-bidetik ikustea Françoise-ri debekatuko zaukotela. Ez, jeus eztut ikusten, gauza ttipi bat ezpada, erakusten duena bakarrik, bezperan, joaita gogoan zuela. Bezperan, alabaina, ni ohartu gabe hartu zuen ene gambaran paketatzeko oihal eta paper andana handi bat, haiekien gau guzian paketatu baitzituen bere mainuko eta gambarako jantzi ezin zenbatuak, goizean abiatzeko. Gauza bakarra da, guzia hori izan zen. Arrats

hartan zor zauztan mila libera abantzu bortxatuz itzuli zauztalako gertakariari eztezoket baliorik eman, horrek berezitik deus eztu, diruko gauzetan ezin gehiago ximena zelakotz.

Bai, paketatzeko paperra bezperan hartu zuen, baina joanen zela etzakien bakarrik bezperatik! Ezpaitzen joan-arazi zuen bihotzmina, baina joaiteko hartua zuen deliberoa, amestua zuen biziari ukho egitekoa, itxura grifiatu hura eman zaukona. Itxura grifiatua, enekin abantzu ozperekin hotza, azken arratsean salbu, hor, ene gambaran nahi zuen baino berantago egonik - haren ganik ustegabetu ninduen beti luzatu nahi baitzuen -, athean erran baitzautan: «Goraintzi, muttikoa, goraintzi.» Baina orduan berean enintzan hortaz axolatu. Françoise-ek errana daut biharamun goizean, bazoala erran zaukonean (baina, gainera, hori akhiduratik ere argi daiteke, soinekoak ezpaitzituena utziak eta gau osoa paketatzen eremana, Françoise-ri galdegin behar zauzkon gauzak ezpada eta bere gambaran eta ikuztegian etzirenak), hain trixte zen oraino, aitzineko egunetan baino hain zut-zutago, hain ziapilduago, nun, «Goraintzi, Françoise» erran zaukonean, Françoise-ek eroriko zela uzte ukan baitzuen. Gauza horiek ikasten direnean, hartzen da orai ibilaldi ttipienetan hain errexki aurkitzen diren guziak baino hainbat gutiago gustatzen zizaikun emaztea, harendako haien uzteaz aiherrin ginazkona, mila aldiz hautetsiko ginuena dela. Ezen hautua ezta gehiago atsegin berezi baten - ohidurarekin, eta behar bada gauzaren bierartekotasunaz, abantzu jeus bilakatua den - eta bertze atsegin batzuen artekoa, horiek gutiziagarri, xoragarri, baina atsegin horien eta horiek baino ontsa azkarrago den zerbaiten, oinazeaz urrikitzearen artekoa.

Arrats huntan Albertine hemen izanen zela neure buruari hitzemaitean, lehiatuenera laster egina nuen eta orai arteo harekin bizi izana nintzanaren ganik ekhendua izaita uste berri batez arthatu. Baina begiratzeko ene asmuak egina zuen bezain lasterrez lan egina ukanik ere, Françoise mintzatu zizatanean zekunda batez sokorririk gabe egona nintzan, eta orai Albertine arratsean hor izanen zela jakin nezakeen, itzultze hori nihauri oraino ikasia enuen ephean senditua nuen oinazea («Albertine Andereñoak bere malak galdegin ditu, Al-

bertine Andereñoa joan da» hitzer jarraikia zizeen ephean), oinaze hori nitan bera sortzen zen berriz, izana zenaren berdina, erran nahi da Albertine-ren itzultzea jakina ukan ezpanu bezala. Bertzela ere behar zuen baitezpada itzuli, baina bere nahitara. Alde guzietarik, urrhats bat egin-arazten zela iduri ukaitea, itzul zadin haren othoiztea helburuaren kontra joanen zen. Eiki enuen gehiago Gilberte-rekin egina nuen bezala hari ukho egiteko indarririk. Albertine-ren berrikus-tea baino gehiago ere, nahi nuena ene bihotzak, lehen baino gaizkiago izanez, gehiago jasan etzezakeen soineko antsiari buru emaita zen. Gero, borondaterik ez ukaiteari ohitzearen bortxaz, izan zadin laneko ala bertze zerbaitetako, herbailago bilakatua nintzan. Baina oroz gai-netik antsia hori ezin erkidagarriki azkarrago bilakatua zen arrazoin andana baten gatik, horietan handiena ezpaitzen behar bada sentsue-tako atseginik enuela ukana Guermantes-ko Anderearekin eta Gil-berte-rekin, baina hek ez egun oroz, oren oroz ikusirik, hortako ahalik eta ondorioz beharrik gabe izanez, haiendako nuen maitasunean, gu-tiago sartzen baitzen Ohiduraren indar neurrigabea. Behar bada, orai ene bihotzak, nahi ukaiteko, eta gogo on osoan oinazearen jasaiteko ezinean, ezpaitzuen izan zaitekeen atherabide bakar bat baizik ikus-ten, baitezpada Albertine-ren itzultzea, behar bada kontrako arthera-bidea (borondatez ukho egitea, emeki emeki etsitzea) elhaberrietako atherabide bat idurituko zizatan, bizian itxuragabea, nihaurek ezpanu lehenago Gilberte-z zenean hori hautatua ukan. Banakien beraz bertze atherabide hori onhartua izan zaitekeela ere, eta gizon bakar batez, berdintsua gelditua bainintzan. Bakarrik aroak bere jokabidea egina zuen, zahartua ninduen aroak, Albertine betiko ene ondoan ezarria zuen aroak ere gure elgarrekilako bizia gineramanean. Baina bederen, hari ukho egin gabe, Gilberte-rendako senditua nuenetik gelditzen zizatana, Albertine-ri itzul zadin galdegin-araziz harendako jostagailu higugarri bat ez nahi izaiteko urgoitasuna zen, nahi nuen itzul zadin horri atxikia nintzala iduri ukan gabe. Demborarik ez galtzeko jeiki nintzan, baina oinazeak gelditu ninduen: lehen aldia zen hura joanez geroz jeikitzen nintzala. Bizkitartean behar nuen lasterrez jantzi Al-

bertine-ren berri galdez etxezainaren baitara joaiteko.

Oinazea, moralari eman ukhaldi baten hedamena, moldez aldatzera emana da; lan-xede batzu eginez, xehetasun batzu galdatuz aira-araziko dela uste da; bere aldakuntza ezin zenbatuetarik iragan dadin nahi da, horrek oinaze garbiaren atxikitzeak baino kuraia gutiago galdegiten baitu; hain da hertsia, hain gogorra, hain hotza iduritzen oinazearekin hartan etzaten giren ohea. Berriz zutik eman nintzan beraz; enintzan gambaran zuhurtasun ezin handiago batekin baizik aitzinatu, eman nintzan Albertine-ren kaderari ez ohartzeko moldez, bere urre-koloreko xapinak haren orpekoetan zapatzen zituen pianolari, erabilia zuen gauza bakar bati, guziek iduri baitzuten nahi zautatela, ene orhoitak erakatsia zauen hizkuntza berezian, haren joaitearen itzulpen bat eman, ixtorio ezperdin bat, bigarren aldian berria jakin-arazi. Baina, haier so egin gabe, ikusten nituen: indarrekin utzi ninduten, jarririk erori nintzan satin urdinezko jargietarik batera, haren margo-axalak, duela oren bat, argi arrai batek lokhartu gambarako erdi ilunbean, egin-araziak baitzauztan amets batzu orduan gartsuki atxikiak, orai nitarik hain urrun. Ondikotz! ehoiz enintzan, minuta hori baino lehen, hartan jarria, Albertine hor zenean baizik. Hortakotz enintzan egon ahal izan, zutitu nintzan; eta horrela, ordu oroz, egiten gitzuten «ni» ezin zenbatu eta xumetarik bat bazen Albertine-ren joaitea oraino etzakiena eta hori jakin-arazi behar zizakona; iragarri behar zizeen - arrotz batzu izan balire 'ta sofritzeko ene sendikortasuna hartua ukan ezpalute bezain gauza bortitza zena -izaite horier guzier gertatua zizaieen zorigaitza iragarri, oraino etzakiten «ni» horier guzier; behar zen hetarik bakoitzak bere aldian lehen aldikotz hitz hauk entzun zitzaizkien: «Albertine-k bere malak galdegin ditu» (Balbec-en ene amarenen ondoan kargatzen ikusiak nituen mala hil-khuxa moldeko hek), «Albertine joan da.» Bakoitzari ikasi behar naukon ene bihotzmina, gertaldi deitoragarri multzo batetik librok hartu ondorio gaitzera eman bat nihundik ezten bihotzmina, baina iduripen berezi, kampotik ethorri eta hautatu eztugun baten berriz phizte artekatu eta nahi gabekoa. Baziren «ni» horietarik batzu aski aspaldi dani berrikusiak enituenak. Behazunez (orraztatzailearen egunean zela

enuen gogoan ukana) ileak motz-arazten nituenean nintzan «ni»-a. Ni hori ahatzia nuen, horren ethortzeak hipaka has-arazi ninduen, ehortzte batean hil berria dena ezagutu duen zerbitzari zahar erretiratu batenak bezala. Gero bapatez orhoitu nintzan, zortzi egunez geroztik, noiztenka harturik izana nintzala nihauri aithortuak enituen izialdura batzuez. Ordu horietan, hizkatzen nintzan alta erranez: «Debalde da, eza, bapatean joan laitekeelako hipotesia gogoan egoitea. Arrazoin-gabe da. Gizon zentzudun eta adimendun bati gomendatzen banu (eta sosegatzeko eginen nuen, bekaizkeriak konfienxia egitea debekatu ezpalauta), hark segurki erranen zautan: «Baina eroa zira. Ezin da.» (Eta, alabaina, ezkinuen liskar bakar bat ukana.) «Arrazoin baten gatik joaiten da. Hori erraiten. Ihardesteko eskubidea emaiten zaitzu. Ezta horrela abiatzen. Ez, haurkeria da. Arrazoingabeko hipotesia bakarra da.» Bizkitartean, egun oroz, goizean joitean hura hor aurkitzen nuenean, arinaldiko hasperen handi-handi bat egina nuen. Eta Françoise-ek Albertine-ren eskutitza emana ukan zautanean, berehala segur izana nintzan ezin izan zaitekeen gauza bakarraz zela, zerbait moldez egun andana bat aitzinetik hautemana nuen joaite hortaz, segurtatua izaiteko arrazoin zuzenak izanik ere. Neure baitan errana nuen, ene etsipenean abantzu ohartasuneko satisfamendu batekin, hatzemana izan eztaitekeela badakien hiltzale batek bezala baina beldur denak eta bapatez bere bitimaren izena paperralde baten buruan badakusanak jin-arazia duen juje inkestariaren etxean...

Ene itxaropen guzia zen Albertine Touraine-ra joana zela, han oro har aski zaindua zen eta berriz ekhar nezan arteo gauza handirik eginen ahal etzuen bere izabaren etxera. Ene beldur handiena zen Parisen gelditua izan zadin, Amsterdam-era joana edo Montjouvain-era, hori da ihes egina ukan zezan haren aitzin-egintzak ikusiak enituen maitaldi zenbaitetara emaiteko. Baina, egiazki, neure baitan Paris, Amsterdam, Montjouvain erraiten, erran nahi da leku bat baino gehiago, izan zaitezkeenak baizik etziren leku batzu nituen gogoan. Albertine-ren etxe aitzinean nexka ttipi behardun bat aurkitu nuen begi handi batzuekin so egin zautana eta hain ona iduritu zizatana nun geldegin bainaukon etzuen ez ene etxera jin nahi, so leialarekilako

xakur bati eginen naukon bezala. Loriatua iduritu zuen. Etxean zenbait demboraz leriatu nuen ene altzoan, baina laster haren han izaitea, Albertine-ren hutsa gehiegi sendi-araziz, ezin jasana izan zizatan. Eta joan zadin othoiztu nuen, bortz ehun liberako billet bat eman ondoan. Eta bizkitartean, gero berehala ene ondoan nexka ttitipi baten ukaiteko gogoetak, nehoiz ez bakarrik izaitekoak norbait ogengaberen sokorrik gabe, Albertine behar bada zenbait dembora itzuli gabe egonen zelako ideia jasaitera utzi ninduen amets bakarra izan zen.

Beraz, Albertine-ren etxezainak ihardetsi zuenean Tourainera joana zela, gutiziatzen nuela uzte nuen egoitza hori orotako laztagarriena iduritu zizatan, hori egiazkoa zelakotz eta lehen aldiko, oraiaren segurtamenaz eta geroaren segurtamen gabeaz oinazkatua, Albertine itxuratzen nuelakotz nitarik berexia nahi ukana zuen bizi berri baten hasten, behar bada luzaz, behar bada betiko, eta lehenago hain usu durduzaturia ninduen ez ezagun hura hartan eginen zuenaren, banuelarik alta horren kampokoa zen begitarte ezti ezin zilatuaren eta bildua nuenaren jabe izaiteko zoriona. Ez ezagun horrek zuen ene maitasunaren zola egiten. Albertine-ek berak etzuen ene baitan izaiterik biziki bere izenaren itxuran baizik, hau, atzartzean arte batzu salbu, ene buru-munetan grabatzera heldu baitzizatan eta egitetik ez gehiago gelditzen. Goratik gogatu ukan banu, ethengabe errepikatuko nuen eta ene elhasturia izanen zen xori batera aldatua izan banintz bezain beti berdina, mugatua, alegiako hura bezalakoa zen xori batera, haren kantuak burutzerik gabe errepikatzen baitzuen gizon zelarik maitatua zuenaren izena. Izen hori bere buruari erraiten da, eta ixiltzen baita, badiduri nork bere baitan idazten duela, bere hatza buru-munetan uzten duela eta hauek behar dutela azkenean, norbait hartan zirri-marratzen jostatu den harresi bat bezala, maite denaren izen milatan berridatziaz osoki eztaliak izan. Gogoan berriz eta berriz idazten da gelditu gabe zorionean gireno, gehiago oraino zorigaitzean girelarik. Eta jadanik jakina denetik jeus gehiago emaiten eztaukun izen horren errepikatzean, beharra beti berphizten senditzen da, baina luzara, akhidura bat. Gorputzeko atseginaz enintzan gogutzen ere



ordu hartan; gogoaren aitzinean enuen ikusten ere Albertine haren itxura, neure baitan alta horrelako zentzordatze baten emailea, enuen haren soina hautemaiten, eta berexi nahi ukan banu ene oinazeari lotua zen ideia - beti zenbait baita bada - , aldizkatuz izanen zen, alde batetik hetan joana zen omorez duda, itzultzeko gogoarekin ala gabe, bertzetik berriz haren ekhartzeko bideak. Bada behar bada erran-nahi berezi bat edo egia bat gure antsia eratzikitzen daukogun emazteak hartan dadukan leku ezin ttipiangoan. Hura bera gauza gutitako baita alabaina hortan; abantzu orotako da, horrelako gertaldiek lehenago hartaz sendi-arazi dauzkiguten eta ohidurak hari lotu dauzkon bihotz-hundiduretako, antsietako heda-bidea. Hori ontsa phorogutzen duena da (zorionean sendi dugun asperra ere baino gehiago), jende haren beraren ikustea edo ez ikustea, hartaz estimatua izaita ala ez, gure menean haren ukaitea ala ez, zenbatetarano orobat idurituko zaikun galde horren egiterik (hain debaldekoa nun ezpaitugu gehiago eginen ere) eztugunean gehiago ukanen jende hari berari doakonaz baizik - bihotz-hunkiduretako eta antsietako heda-bidea ahatzia izanik, hari lotzen den zerbait bezala bederen, ezen berriz hedatu ahal da, baina bertze norbaitera aldaturik. Aitzinean, hari zenean oraino lotua, uste ginuen gure zoriona jende hari berari zagokola: gure antiaren bururatzeari zagokon bakarrik. Ordu hartan gure gogo-gordea guhaur baino ikusle argiagoa zen beraz, emazte maitearen itxura hain ttipia eginez, guhaurek behar bada ahatzia ginuen itxura, gaizki ezagutzen ahal ginuena eta bierartekoa zela uste, gehiago ez igurikatzeko haren berraurkitzeari gure bizia bera zagokokeen izigarrikeria lazkarrian. Emaztearean itxurako arau ttipi-ttipiak, maitasuna hedatzen den araren ondorio zuzen eta beharrezkoa, maitasun horren izantza nork bere baitakoaren alegoria argia.

Albertine hartan joana zen gogoa bere diplomaziako lana armadaren erakustaldi baten bidez presta-arazten duten jendalden idurikoa zatekeen. Etzatekeen joana ene ganik bizimolde hobe batzuen, libertate, aberastasun gehiagoren ukaiteko baizik. Beraz, gu bietarik irabaziko zuena, ni izanen nintzan, igurikatzeko indarra ukan banu,

ezer etzuela ukaiten ikusiz, barainik itzuliko zen orduaren igurikatze-koa. Baina kartetan, gerlan, hor irabazteak baitu bakarrik balio, enganioari iharduk daiteke, izanarak eztira maitasunak eta bekaizkeriak egiten dituzten hek berak, oinazea aipatu ere gabe. Igurikatze-ko, «irauteko», egun andana batez Albertine nitarik urrun uzten baldin banuen, aste zenbaitez behar bada, hondatzen nuen urte bat baino gehiagotan ene helburua izana zena: libertatean oren batez ez haren uztea. Ene oharpen guziak debaldekoak gertatzen ziren, uzten baldin banaukon nahi zuen bezainbat ene trompatzeko erretasuna; eta, azkenean, amor emaiten bazuen, bakarrik izana zen dembora enuen gehiago ahazten ahalko, eta, azkenean irabazten banuen ere, iraganean, erran nahi da ezin erremediatuki, garhaitua izanen nintzan.

Albertine-ren itzul-arazteko bidez den bezainbatean, are gehiago zuten ongi heltzeko zoria nun berriz deitua izaiteko esperanzan joana zelako baldintzak itxura gehiago ukanen baitzuen. Eta, dudarik gabe, Albertine-ren zintzotasunean sinesten etzuten jendendako, Françoise-rendako behazunez segurki, itxura hori bazuen. Baina ene arrazoinarendako, omore gaixto batzuen, egonara batzuen argibide bakarra, nik jeus jakin baino lehen, hark hartua zuen behin betiko joaite baten xedea zela iduritua baitzizakon, neke zen, joaite hori orai egina izanez, alegia egite bat baizik etzela sinestea. Ene arrazoinarendako diot, ez enetako. Alegia egina zuelako baldintza are gehiago beharrezkoa bilakatzen zizatan nun itxura gutiagokoa baitzen, eta itxuran galtzen zuena indarrean irabazten baitzuen. Burua lezearen hegian ikusten girenean eta Jainkoaz utzia girela iduritzen, ezta gehiago haren ganik mirakulu baten aiduru egoiteko dudan egoiten.

Aithor dut hortan guzian polizarietan ezaxolena izan nintzala nahiz minberena. Baina Albertine-ren ihesiak etzauztan itzuliak bertze batzuez haren zain-arazteko ohidurak ekhenduak zauztan gaitasunak. Enuen gauza bat baizik gogoan: bilatze horren ezartzea bertze baten gain. Bertze hori Saint-Loup izan zen, onhartu baitzuen. Hainbertze egunetako antsia bertze baten eskuetara utziak bozkarioa eman zautan eta harrotu nintzan, ongi heltzeaz segur, eskuak bapatez lehen

bezala idor bilakatuak eta Françoise-ek «Albertine Andereñoa joan da» erraitean bustia ninduen izerdi hartarik gabe.

Orhoitzen da Albertine-rekin bizitza deliberatu nuenean eta harekin ezkontzea ere, haren atxikitzeke zela, zer egiten zuen jakiteko, Vinteuil Andereñoarekilako bere azturen berriz hartzera ez uzteko. Balbec-en hori jakina ukaneko urradura laztagarrian, gauza osoki natural bat bezala errana ukan zautanean, eta heldu nintzanean, osoki naturala zizatala iduri ukaitera, ene aieru gaitzenetan asmatzeko nehoiz aski ausart izanen enintzan gauza hori, nahiz bizian ordu arteo senditua nuen bihotzmin handiena zen. (Ustegabegarri da nola bekaizkeriak, beti ari delarik hutsezko aieru ttipi batzuen egiten, asmu guti duen egiaren aurkitzeaz ari behar denean.) Maitasun horrek bada, gaizki egitera Albertine-ren ez uzteko behar batetik sortua oroz gagnetik, geroan atxikia zuen bere hastapeneko hatza. Harekin izaiteak munta guti zuen, «ihesari eman jendea» hunara edo hara joaitetik debeka ahal nezan ber. Hortarik debekatzeko, harekin zoazenen begier, kompainiari nindagon eta, arratsean salakeriaño on bat egin zezataten ber, ene khexuak omore onean ezeztatzen ziren.

Neure buruari baieztatua ukanik, zer ere egin behar banuen, Albertine arratsean berean etxera itzulia izanen zela, François-ek Albertine joana zela erraitean (orduan ene gogo hatzemanak joaite hori behin betikoa izanen zela ephe batez uste ukana zuelakotz) egina zautan oinazea geldi-arazia nuen. Baina gelditaldi baten ondotik, bere bizi menpekotasunik gabekoaren olde batez, hastapenako oinazea nitan berriz bere baitarik jiten zenean, beti berdin laztagarria zen, arratsean, berean Albertine-ren itzul-arazteko ene agiantza konsolagarriaren aitzinekoa zelakotz. Eztituko zuen erranaldi hori, ene oinazeak etzakien. Itzultze hortara heltzeko biden ezartzeko, aldi batez oraino, ez horrelako eginara bat ehoiz ongi heldua zelakotz, baina Albertine maite nuenez geroztik beti hartua nuelakotz, maite enuela bezala egitera kondenatua nintzan, haren joiteaz enintzala oinazkatua bezala, hari gezur erraiten jarraituzera kondenatua nintzan. Haren itzul-arazteko bidetan are gehiago gemendun izaiten ahal nintzan nun

nihaurek hartaz etsi egina nuela iduri ukanen bainuen. Albertine-ri goraintzietako eskutitz baten izkiribatzea xedatzen nuen hartan haren joaitea behin betikoa bezala hartuko bainuen, Saint-Loup igorriko nuelarik Albertine lehenbailehen itzul zadin bortizkienik Bontemps Anderearen hertsatzera. Dudarik gabe Gilberte-rekin ikasia nuen, hastean alegiazkoa eta azkenean egiazkoa bilakatzen den axolagabe bateko eskutitz batzuen lanjerra. Eta ikasi horrek debekatu beharko zautan Gilberte-ri izkiribatuak nauzkon eskutitzen molde bereko batzuen izkiribatzea. Baina ikasia deritzotena ezta guharen begietan gure jiteko berezitasun baten agerpena baizik, naturalki berriz agertzen dena, eta are gehiago azkarki agertzen nun guharendako aldi batez jadanik argian ezarria baitugu, hala nola nun lehen aldi gida-tua ginduen mugimendu bere baitarik egina orhoitzapenaren aholku guziez azkartua gertatzen baita. Hartarik ihes egitea gehienik neke den jabetze gizatarra, jendendako (eta bere hutsetan hisitzen diren eta haien larritzen jarraikitzen duten jendaldendako ere), nor berak eginez jabetzea da.

Saint-Loup, Parisen zela bainakien, nitaz ordu berean manatua izan zen, lasterrez jin zen, lehenago Doncières-en zen bezala lehiatua eta eragingarria, eta berehala Touraine-ra joaitea onhartu zuen. Behar zuen Châtellerault-era jautsi, Bontemps Anderearen etxea erakuts-arazi, Albertine jalgia izan zadin igurikatu ezagutzen ahalko baitzuen. «Baina erraiten dukan nexka gazteak ezagutzen nik beraz?» erran zautan. Erran naukon enuela uste. Urhats horren egiteko xedeak bozkarioz bete ninduen. Hastapenean nihauri hitzemanu nuena-rekin kontra-molde osoan zen alta: Albertine bila-arazten nuela iduri ez ukaiteko akomeatzea; eta horrek nahi ala ez itxura hori ukanen zuen. Baina «egin behar ukanen zenarekin» bazuen nik igorri norbaitek Albertine ikusiko, eta behar bada ekharriko zuela erraitea haizu uzten zautalako abantail ezin estimagarria. Eta ene bihotzean argiki ikusten jakin ukana banuen hastapenean, itzalean gorde atherabide hori eta lastimagarri iduritzen zizatana zen pairamenezko atherabide-a aitzinduko zuela ikusten ahalko nuena, eta nahi ukaitera deliberratua nintzana, borondate eskasez. Saint-Loup-ek ustegabetua iduri

baitzuen jadanik negu oso batez nexka gazte bat ene etxean bizi izana izaitiaz nik hari ezer errana ukan gabe, bertzalde Balbec-eko nexka gazteaz aintzetan mintzatua baitzizatan eta ihardesten bainaukon: «Baina hemen bizi da», ene konfiencia eskasaz gaitzua izanen zen behar bada. Egia da Bontemps Anderea Balbec-er mintzatuko zizakola behar bada. Baina haren joaitiaz, jiteaz, sobera ezin-egonean nintzan, bidaia horren ondoriak gogoan egon ahal izaiteko. Albertine ezagutua ahal ukaiteko aldiz (Doncières-en aurkitua zuenean hari so egitetik deliberratu ki begiratu a zen), guziek ziotenaz, hainbat aldatua zen eta loditua nun horrek itxura guti baitzuen. Galdegin zautan Albertine-ren potretik enuenez. Lehenik ez ihardetsi nuen, nunbait han Balbec-eko demboran egina zen ene argazkitik abiatuz, Albertine-ren ezagutzeko aldia ukan etzezan, bagonean erdi ikusia baizik etzuelarik alta. Baina gogoari eman nuen azken argazkian jadanik Balbec-eko Albertine-tik Albertine bizi a orai zen bezain bertzelakoa izanen zela, eta etzuela argazkian izaitean baino hobeki ezagutuko. Hura bilatzen nuen batean, eskua ezteki bekokian ibiltzen zautan, konsolatzeko moldez. Ene baitan asmatzen zuen bihotzminak emaiten zaukon penaz hunkia nintzan. Lehenik Rachel-en ganik berexia bazen ere, orduan senditua zuena etzen oraino hain urrun mota hortako oinazendako adixkidantza bat, urriki berezi bat ukan etzezantzat, zuk duzun eritasun bera duen norbaiti hurbilago senditzen ziren bezala. Gero hainbat atxikimendu bazuen enetako nun ene oinazez gogatzea ezin jasana baitzizakon. Hartzen zuen beraz horiek emaiten zauztanarendako gorromio eta mirestezko nahaste bat. Iduri zizakon izaite hain goren bat nintzala nun uste baitzuen, bertze norbaiten meneko izaiten banintzan, horrek ere osoki gorena izan behar zuela. Gogatzten nuen bada Albertine-ren argazkia pollita arkitulo zuela, baina ezpainuen hala ere uste agure troiarrer Helenak eman zauen bihotz-hunkidura eginen zaukola, bilatzen nuen batean banion lañoki: «Ho! badakik, ez ideiarik ukan, lehenik argazkia txarra duk, eta gero hura bera ez ustegabegarria, eztuk edertasun bat, ontsa gixakoa duk oroz gainetik. - Ho! ba, miragarria izan behar dik», erran zuen khartsutasun laño eta zintzo batekin holako etsipenean eta nahasmenean ezartzen ninduen

izaitearen itxuratzea bilatuz. «Hiri gaitz emaitiaz aiherrak, baina ere uste ukaiteko zian hi bezala azkazal punttetarano erdergile batek, hik orotan ederra maite huenak eta hainbateko amodioarekin, emazte baten baitan aurkituko huenean bertze bat baino gehiago sofritzeko aitzinetik egina hintzala.» Argazkia aurkitua nuen azkenean. «Miragarria da segurki», zion berriz Robert-ek, eskaintzen naukon argazkia ezpaitzuen ikusia. Bapatez ikusi zuen, ephe batez eskuetan atxiki. Haren begitarreak erakustera uzten zuen baldidura bat zurruntasunerano zoana. «Hori duk, maite dukan nexka gaztea?» erran zuen azkenean harridura ene gaitzitzeko beldurraz hezia zen doinu batekin. Bertzerik etzuen erran, hartua zuen eri baten aitzinean ukaiten den itxura arrazoinetzko eta zuhurra - eri hori ordu arteo norbait ohargarri eta zure adixkidea izana baliz ere, baina gehiago holakorik ezer eztena, ezen, erotasun osoaz joa izanik, mintzo zaizu agertua zakon izaite zerutar batez eta ikustera jiten jarraitzen zakonaz zuk, gizon sanoak, han goltxoin bat baizik ikusten eztuzun lekuan. Robert-en ustegabea berehala hartu nuen, eta haren ohaideak emana zautana zela, hartan jadanik ezagutzen nuen emazte bat aurkitu nuelako eta Robertek Albertine nehoiz ikusia etzuela uste zuelako ezperdintasunarekin. Baina badateke batak eta bertzeak jende bakar batean ikusten ginuen ezperdintasuna berdin handia zela. Albertine-ri so nindagonean Balbec-en ikuspeneko sendipener, gostuko, usaineko, hunkitzeko sendipen batzuen gaineratzen hasia nintzan dembora urrun zen. Geroztik, sendipen barnatuago, eztiago, ezin mugatuago batzuek gaineratuak zitezteen, gero sendipen mingarri batzuek. Hots Albertine etzen gehi-ago, inguruan elhurtu den harri bat bezala, ene bihotzeko eremutik iragaiten zen gaitzeko eraikuntza baten erdigune egilea baizik. Robertek, sendipen metatze hori guzia ezin ikusia baitzizakon, etzuen horren ondar bat baizik hartzen ni aldiz ohartzera uzten eninduena.

Albertine-ren argazkia ikusia zuenean Robert baldi-arazia zuena etzen agure troiarren zentzordatzea Helena iragaiten ikusten zutenean eta erraiten:

*Gure gaitzak eztu haren so bakar bat balio,*

baina osoki kontrakoa eta erran-arazten duena: «Nola, horrendako du hoinbertze odol gaixto egin, hoinbertze griña, hoinbertze erokeria!» Aithortu behar da bada maite dugun norbaiten bihotzminak eman dituen, haren bizia nahasi, batzuetan heriotzea ekharri duen norbaiten ikustean den ihardokitze mota hori agure troiarrena baino ezin gehiago usuago dela, eta ororen erraiteko, ohikoa. Ezta hori bakarrik maitasuna nor berarena delakotz, eta, sendi eztugunean, bazterera utzi ahal ukaitea eta bertzeren erotasunaz filosofia egitea natural zaukulakotz. Ez, hori da, horrelako oinazeak emaiten dauzkun heinera heldua denean, emaztearen begitartearen eta maitalearen begien artean jarri diren sendipenen eraikuntza (inguratzen duen eta elhur zafla batek ithurri bat bezala gordetzen duen gaitzeko arraultze mingarria) jadanik aski urrun bultzatua delakotz, maitalearen soak gelditzen diren gunea, han bere atsegina eta bihotzminak aurkitzen dituen gunea, bertzek ikusten duten gunetik izan dadintzat egiazko iguzkia haren argi tinkatuak zeruan ikus-arazten daukun gunea bezain urrun. (Zer izanen zen, nexka gazte bat zenaren argazkiaren orde, Robertek ohaide zahar baten argazkia ikusi balu?) Eta, ustegabetze horren ukaiteko, eztugu ere hainbertze damu egina duenaren ikuste beharrik lehen aldiko. Ainitzetan hura ezagutzen ginuen osaba Adolphek Odette ezagutzen zuen bezala. Orduan ikuspegiko ezperdintasuna hedatzen da ez bakarrik soineko itxurara, baina nortasunera, bakoitzaren baliora. Maite duena oinazkatzen duen emaztea beti neska ona izana dela hartaz axolatzen etzen norbaitekin, horrek itxura ainitz badu, Odette, Zuanendako hain gaixtoa, ene osaba-bitxi Adolpherentako «gorraxtaz jantzi andere» gixakoa izana zen bezala, ala ere hura maite duenak haren delibero bakoitza, jainko batena bezainbat beldurrekin, aitzinetik karkulatzen duen jendea, baliorik gabeko norbait bezala agertzen dela, nahi dugun guziaren egiteaz sobera zoriontsu, maite eztuenaren begietan, hala nola Saint-Loup-en ohaidea enetako ezpainuen hartan hainbat aldiz eskainia zautaten «Rachel quand du Seigneur» hura baizik ikusten. Orhoit nintzan, Saint-Loup-ekin ikusia nuen lehen aldian, ene baldiduraz horrelako emazte batek ho-

lako gauan zer egina zuen, norbaiti ahapetik zer errana ahal zaukon, hausteko gutizia bat zergatik ukana zuen ez jakiteaz oinazkatua izan zaitekeela gogatzean. Bada, sendi nuen iragan hori guzia, baina Albertine-rena, eta ene bihotzeko, biziko phiru bakoitza oinaze dardarikari eta moldegaitz batekin haren aldera zoana, berdin orobatekoa iduritzen zizakokeela Saint-Loup-i, behar bada nihauri egun batez hala bilakatuko zizatala; behar bada apurka apurka iraganen nintzala, Albertine-ren iraganaren ezteustasunari ala larritasunari zoakonean, ordu huntan nuen gogamoldetik Saint-Loup-ek zuenera, Saint-Loup-ek gogoan zukeenez lilluramendurik ezpainuen, maitaleaz bertze edozeinek goga dezakeenaz. Eta enuen hortaz gehiegi sofritzen. Utz ditzagun emazte pollitak idurimenik eztuten gizoner.

Gogoan nuen hainbertze bizien argipen tragediako den potret jeinuzkoa eta eiterik gabekoa Elstir-ek Odette-*ez* egina zuena bezala eta gutiago maitalearena dena maitasun moldegaizlearena baino. Etzuen huts egiten - hainbat potretrek duten gauza - aldi berean margolari handi batena eta maitale batena izaiteak baizik (nahiz bazioten Elstir Oderette-rena izan zela). Ezperdintasun hori, maitale baten bizi osoak, haren erokeriak nehork hartzen eztatuen maitale batenak, Zuan baten bizi osoak phorogatzen dute. Baina maitalea izan dadila ere Elstir bezalako margolari bat eta orduan mixterioko hitza errana da, badituzu azkenean begien azpian jende arruntak emazte hortan behin ere ikusiak eztatuen ezpain horiek, ehork ezaguna eztatukon sudur hori, ustegabeko ibilara hori. Potretak badio: «Maitatua dutana, oinazkatua nauena, gelditu gabe ikusi dutana, hau da.» Kontrako mugimendu batean, ni Saint-Loup-ek Rachel-i bere baitarik emana zaukon guziaren emaitera gogoaz entseatua nintzana, Albertine egiten zutenetan ene bihotzeko eta gogoko ekharpenen baztertzeraz entseatzen nintzan eta Saint-Loup-i, Rachel eni bezala, agertzen zizakokeen bezala neure baitan haren itxuratzera. Baina zer munta zuen horrek? Ezperdintasun horietan, guhaurek ikusten baginitu ere, sineste baginukea? Lehenago, Balbec-en, Albertine-ek Incarville-ko arkupean igurikatzen ninduenean eta ene karrosara jauzi egiten, etzen bakar-



rik oraino «loditua», baina indar-joko soberakinen ondorioz urtuegia zen; mehe, sudur itsusi baten muttur bat baizik agertzera eta matela harzuriak bezain zuri batzuen bazterretik ikustera baizik uzten etzuen xapel itsusi batek itsustua, hartarik ontsa guti nuen orai aurkitzen, aski alta ene karrosan bazegien jauzian hura zela jakin nezantzat, hitzartzean zuzen izana zela eta ez bertze norapait joana; eta hori aski da; maite dena gehiegi iraganean da, elgarrekin galdu aroaz gehiegi egina da emazte osoaren beharra ukan dezaguntzat; nahi da bakarrik hura dela segur izan, nor den ez huts egin, hau edertasuna baino balio biziki handiagokoa baita maite dutenendako; matelak sar daitzke, soina meha, eder baten gainean bere nagusitasunaz, bertzeren begietan, lehenik burgoienak izanak direnendako ere, muttur punta hori, emazte baten betiko nortasuna hortan biltzen den seinale hori, aljebraiko laburpen hori, iraunkortasun hori, aski dira mundu handiengan igurikatua den gizon batek, eta hura maite zuenak, beretako eztezan arratsaldi bakar bat ukan, dembora lokhartzeko orenerano maite duen emaztearen orraztatzen edo ilen harrotzen iragaiten duelakotz, edo lañoki haren ondoan egoiten, harekin izaiteko, edo hura harekin izan dadintzat, edo bakarrik bertze batekin izan eztadin.

- Segur hiz, erran zautan, horrela emazte hari hogeita hamar libera eskain ahal dezokatala bere senarraren bozketako bilzarreko? Hein hortarano ohoina duk? Huts ezpadagik, hirur mila libera aski lizatezkek. - Ez, othoi, hoinbertzetarano bihotzean diatan gauza batenendako etzakala ekonomia egin. Hau erran bahar duk, egia zati bat badik gainera: «Ene adixkideak hogeita hamar mila libera horiek ahaide bati galdeginak zituen bere emaztegaiaren osabaren bilzarreko. Ezkongai-besta hortako arrazoinaz zizazkon emanak. Eta ekhar neza-zkizun othoiztua ninduen Albertine-ek ezer jakin etzezan. Hogeita hamar liberaren itzultzera bortxatua da Albertine ezpadu ezkontzen. Eta ezkontzen baldin badu, behar lizateke itxurarendako bederen berehela itzul ladin, ihes egiteak luzatzen balu horrek ondorio gaixtoegia egin bailezake.» Espes asmatua dela uste duk? - Baina ez, ihardetsi zautan Saint-Loup-ek oneziaz, begirunez, eta ere baitzakien gertaldiak uste den baino bitxiagoak direla ainitzetan.

Ororen buruan, ezin denik batere etzen hogeita hamar mila liberako ixtorio horrek, erraiten nuen bezala, egia zati bat ukan zezan. Ukan zezakeen, baina etzen egia eta egia zati hori hain zuzen gezurra zen. Gezurra ginion elgarri, Robert-ek eta nik, adixikde batek maitasuneko etsipenean den adixkide bat zintzoki lagundu nahi duen so-lasaldi guzietan bezala. Adixkide aholkularia, laguntzalea, konsolatza-lea bertzearen hersturaz urrikal daiteke, eztezake sendi, eta are hobea izanez harendako, are gezurriago da. Eta bertzeak lagundua izaiteko behar dena aithortzen dauko, baina, hain zuzen behar bada lagundua izaiteko, gauza andana bat gordetzen du. Eta zorionean dena hala ere neke hartzen duena da, bidaia bat egiten, eginbide bat betetzen, baina barneko oinazetik eztena. Doncières-en Rachel-ez utzia zela uste ukan zuenean Robert izana zena nintzan ordu hartan. «Azkenean, nahi dukan bezala; laido bat ukaiten badiat, hire gatik aitzinetik on-hartzen diat. Eta gero hori apur bat bitxi iduritzen ahal zatak, merkatu hain guti gorde hori, badakiat bada gure munduan, baditukala dukesa batzu, eta sintsenetarik ere, hogeita hamar liberarendako bere ilobari Touraine-an egon eztaiteen erraitea baino gauza nekeago batzu egin lezazketenak. Hiri zerbitzu egiteaz bietan zoriondun nuk azkenean, ene ikustea onhar dezakantzat hori behar denaz geroz. Ezkontzen baldin banuk, gaineratu zuen, ez ote diagu gehiago elgar ikusiko, ez ote duk ene etxeaz apur bat hirea eginen?..» Bapatez gelditu zen, gogoan uhanik, uste ukan nuen orduan, ni ere ezkontzen baldin banintzan, Albertine etzela haren emaztearendako adixkide min bat izanen ahal. Eta orhoitu nintzan Cambremer-tarrek errana zautatenaz eginen zatekeen haren ezkontzaz Guermantes-ko printzearen alabarekin.

Treineteko xehetasundegiari behatu eta, ikusi zuen arratsean baizik joan ahal etzaitzakeela. Françoise-ek galdegin zautan: «Laneko bulegotik behar dea Albertine Andereñoaren ohea ekhendu? - Kontrara, erran nuen, egin behar da.» Egun batetik bertzera jinen zela itzarotzen nuen eta enuen nahi Françoise-ek duda bazelako aierurik ukan ahal zezan ere. Albertine-ren joaiteak gure artean akomeatu gauza baten itxura ukan behar zuen, gutiago maite nuela uste ukaitea batere entzun-arazten eztena. Baina Françoise-rek so egiten zautan

sinestegabeko ezpada, bederen dudazko itxura batekin. Hark ere bazituen bere bi aieruak. Sudur ziloak zabaltzen zizazkon, nahasmendua usnatzen zuen, aspaldi danik sendi zukeen. Eta osoki segur ezpaldin bazen, hori zen behar bada, ni bezala, hainbat atsegin eginen zaukon zerbaiten osoki sinesteaz mesfida zelakotz bakarrik.

Saint-Loup doi-doia treinan zatekeen aitzin-gambaran joiten entzuna enuen Bloch gurutzatu nuenean, hala nola nun ephe batez haren hartzera bortxatua izan bainintzan. Berrikitari Albertine-rekin aurkitua ninduen (Balbec-etik ezagutzen zuen) hura omore gaixtoan zen egun batez. «Bontemps Jaunarekin auhaldia nuk, erran zautan, eta eragin zerbait baitiat haren gainean, erran dakeat haren iloba enekin gehiago gixakoa ez izaitez trixte nindukala, alde hortara othoitz egin behar zakokala.» Haserrez ithotzen nintzan; othoitz horiek eta zinkurina horiek Saint-Loup-en urhats guziaren ondorioa aurdikitzen zuten eta othoizten nuela iduri nuen Albertine-ren ondoan ogenean ezartzen ninduten. Zorigaitz mukurruko aitzin-gambaran gelditu Françoise-ek horiek guziak entzuten zituen. Bloch-i egin nauzkon ahal nituen erasia guziak, horrelako mezu batez batere enuela kargatua erranez, eta gainera gauza hutsezkoa zela. Ordu hortarik hara Bloch etzen irriño egitetik gelditu, gutiago bozkarioz, uste dut, ene kontra egin ukaneko eragozpenez baino. Irri eginez horrelako haserrearen jauz-arazteaz ustegabetzen zen. Hori erraiten zuen behar bada bere urhats ausartari ene begietan balioaren ekhentzeko, behar bada jite uzkurreako zelakotz eta gezurrean alaiki eta auherki bizi, marmukak ur gainean bezala, behar bada, gizonetako bertze arraza batetik izana baliz ere, bertzek, gure ikuspegi berean ehoiz ez jarri ahalez, bere elhe nola nahi erranek egiten ahal daukuten gaitzaren handitasuna hartzen etzutelakotz. Etxetik haizatua nuen, egin zuenarendako erremediorik batere ezin aurkituz, berriz ere jo zenean, eta Françoise-ek eman zautan Sekuritateko nagusiaren etxera joaiteko mezu bat. Oren batez etxera ekharria nuen nexka ttipiaren gurasoek adingabeko bat eremanik ene kontra deitaldi bat ezarria zuten. Biziko une batzu badira hetan halako edertasun bat sortzen baita jazartzen zaizkun behar gaben ainitzetik, Wagner-en aire batzu bezala elgarrekin gurutzatuak,

eta ere, orduan jalgitzen ari, adimenduak aitzinean deraman eta geroa deitzen duen miraila ttipi txarrean itxuratu leinuru guzietan gertakariak ezarriak eztirelako ideiatik, kampoan direla eta ageriko gaizki baten ikustera heldu den norbait bezain bapatez jalgitzen direlaketik. Jadanik, bera den bezala utzirik, gertakari bat moldez aldatzen da, ala gaizki heltzeak zabalduz, ala satifamenduak ttipituz. Baina bekan da bakarra. Bakoitzaz sustatu sendimenduak elgarren kontra ari dira, eta neurri batean, Sekuritateko buruzagiaren etxera joaitean sendituen bezala, beldurra izaiten da sendimenduko tristezien itzulikagarri bederen ephe batekoa eta aski aria.

Gurasoak Sekuritatean aurkitu nituen iraindu baininduten, itzuli baitzauzaten «Ogi hortarik eztugu jaten» erranez berriz hartu nahi enituen bortz ehun liberak, eta Sekuritateko buruzagiak, asisetako juje nagusien errextasuna «atheraldi» emaiteko molde ezin imitatutzat baitzadukan, erraiten nuen erranaldi bakoitzeko hitz bat hartzen zuen, eta baliatzen ihardespen izipiritudun eta aurdikigarri baten egiteko. Egintzan enintzala ogendun etzen aiphatu ere, nehork ephe batez onhartu nahi ukan etzuen aierua izan baitzen. Hala ere ongen datua izaiteko nekeak egin zuen perrexilaldi horrekin athera nintzala, ezin gehiago bortitza gurasoak han izen zireno. Baina joanak izan zireneko, Sekuritateko buruzagia, nexka ttipiak maite baitzituen, doinuz aldatu zen eta, ni lagunkide bat bezala erasiatuz: «Bertze aldi batez, trebeago izan behar da. Bada, eztira hartzeak hoin bapatez egiten, edo ophor egiten da. Bertzela ere nun nahi aurkituko dituzu nexka ttipi batzu hori baino pollitagoak eta ontsa merkeago. Diruketa eroki handiegia zen.» Hainbat nuen hartzen eninduela senditzen, egiaren argitzera entseatzen baldin banindakon, nun eman zautan baimenaz hitzik gabe baliatu bainintzan erretiratzeko. Ibiltzale guziak, etxera sartua izan arteo, ene egintza 'ta jestu guzien goaitatzeaz kargatu begitatzale batzu iduritu zizaztan. Baina aire hori, eta ere Bloch-en kontrako haserrearena, iraungi ziren Albertine-ren joaitearenari baizik lekurik ez gehiago uzteko.

Hau berriz hasten zen bada, baina Saint-Loup joana zenaz geroztik modu abantzu alai batean. Bontemps Anderearen ikustea

bere gain hartua zuenaz geroztik, gauzaren phizua etzagon gehiago ene gogo akhituegiaren gainean, baina Saint-Loup-enean. Alaitasun batek hantua ninduen ere haren abiatzeko orduan, delibero bat hartua nuelakotz: «Hitza hitzari ihardetsi dut.» Eta ene oinazeak barreaturik izanak ziren. Zerbait egina nuelakotz zela uste nuen, uste nuen zinez, ehoiz ezpaitakigu gure arimak zer duen gordetzen. Ondarrean, zorion emaiten zautana etzen, uste nuen bezala, ene delibero eskasez Saint-Loup-en gainera arindua izaitea. Enuen bertzela ere osoki huts egiten; zorigaitzeko gertakari batetik (hirur laurdenak hala dira) sendatzeko erremedio berezia deliberatzea da; ondoriotzat baitu, gure gogoeten bapateko uzkaile batez, iragan gertakaritik datozen eta haren dardara luzatzen dutenen araldearen geldi-araztea, kontrako gogoeten aralde, kampotik, ehorkizunetik ethorri batez haren hausea. Baina gogoeta berri horiek oroz gainetik ongiegileak zaizku (eta hori zen ordu hartan setiatzen nindutenendako) ethorkizun horren zolatik itxaropen bat daukutenean ekhartzen. Ondarrean zoriondun egiten ninduen, Saint-Loup-en egintzak huts egin etzezakeelako segurtasun segetukoa zen, Albertine etzaitkeen ez itzul. Hori gogoan hartu nuen; ezen lehen egunean berean Saint-Loup-en ihardesterik ez ukanik, berriz sofritzen hasi nintzan. Ene deliberoa, hari ene ahal guzien emaita etziren beraz ene bozkarioaren emaitak, horiek gabe irauna ukanen baitzuen, baina «Gerta dadina gerta» nionean gogatu nuen «Ongi heltzea segurra da» hura. Eta haren berantak atzarria zuen gogoeta, ongi heltzeaz bertze zerbait gerta zaitekeela alabaina, hain zizatan hastiagarri nun ene alaitasuna galdua bainuen. Egiarki aitzinetik ikusteak, zorioneko gertakari batzuetako esperanzak gitu bertze arrazoin batzuen gain emaiten dugun bozkario batez hantzen eta beriz bihotzminean erortzera gure uzteko gelditzen denaz, gutizatzen duguna eginen dela ezpaldin bagira gehiago hain segur. Sinespen ezin ikusi batek du beti gure sendimenduetako mundua zutik atxikitzen, eta hartaz gabeturik khordokatzen da. Ikusi dugu bazegiela guretako jenden balioa edo ezteusa, haien ikusteko xoramena ala asperra. Badagi berdin bihotzmin bat jasan ahal ukaitea, bierartekoa iduritzen

zaikunean bakarrik bururatzeraz ekharria izanen dela sinesten dugulakotz, edo haren bapateko handitzea, norbaiten hor izateak bizi batek bezainbat, batzuetan ere gehiago balio ukan dezan arteo.

Gauza batek, bertzela ere, ereman zuen bihotzeko ene mina lehen minutan izana zen bezain osoki samina izaitera, eta gehiago hala etzela aithortu behar denera bada. Hori Albertine-ren eskutitzeko erranaldi bat izan zen. Jendeak maitatzen ahal ditugu, haien galtzeko oinazea, bakartasunean gure gogoak neurri batean nahi duen itxura emaiten daukonaren aitzinean baizik ezkirenean gehiago, oinaze hori jasangarri da, eta emaitzat gehiago ikusiko ez tugula ikasi dugun moldea baino gutiago zuzenki jendeak berak dituen baino gutiago gizatarra, gutiago gurea denetik bertzelakoa - moraleko munduan eta bihotzeko aldean behargabe bat bezain ustegabekoa eta bitxia - . Albertine, gogoan ukaiten ahal nuen, ez tiki nigar eginez, gaur atzo baino gehiago haren ez ikustea onhartuz; baina «ene deliberoa ezin aldatua da» berriz irakurtzea, bertze zer bait zen, erremedio lanjeros baten hartzea bezala zen, haren ondotik bizi eztaitekeen bihotzeko gaitzaldi bat emanen zautana. Bada gauzetan, gertakarietan, hausteko eskutitzetan, jendek emaiten ahal daukuten oinazea bera zabaltzen eta bertzelakatzen duen lanjer berezi bat. Baina oinaze horrek guti irau zuen. Hain segur nintzan hala ere Saint-Loup-en trebetasunaren ondorio onaz, Albertine-ren itzultzea gauza hain segurra iduritu zizatan, nun horren agiantzatzean arrazoin ukana nuenez galdez egon bainintzan. Bozkariatzen nintzan alta. Sekuritateko afera bururatua uste nuenarendako zorigaitzez, Françoise jin zizatan begiztatzale bat izana zela erraitera etxean nexka gazte batzuen ukaiteko ohidurarik enuenez jakiteko, etxezainak, ustez Albertine-az ari zela, baietz ihardetsia zuela, eta, ordutik, etxeak barrandatu iduri zuela. Hortik hara nexka ttipi baten ekharr-araztea ene bihotzminetan konsolatzeko ezin egina izanen zizatan, edo ukan beharko nuen haren aitzinean begiztatzale bat ager zadin eta nexkak gaixtagin batendako har nindezaneko ahalgea. Eta aldi berean gogoan hartu nuen amets batzue ndako zenbat uste den baino gehiago bizi izaiten den, nexka ttipi bat behin ere ez leriatu ahal ukaitte horrek iduri ukan baitzuen biziari balio guzia betikotz ekhent-

zen zaukola, baina hartu nuen ere zenbat adigarri den jendek fortuna eztezen onhar eta herioa irriska dezaten, mundua abantailnahiak eta hiltzeko beldurrak deramatela uste delarik alta. Ezen uste ukana baldin banu nexka ttipi ezezagun batek ere ukan zezakeela, polizako gizon baten ethortzetik, nitaz ideia ahalgegarri bat, zenbat nuen neure buruaz egitea nahiago ukanen! Bi bihotzminen artean etzaitekeen erkidatzerik egin ere. Bada bizian jendek ehoiz eztute gogoetetzen dirua eskaintzen dauetenek, hiltzeaz mehatxatzen dituztenek, ohaide bat ukan dezaketela, edo ere xoilki lagun bat, haren estimuari atxikiak direla, bereari ezpada ere. Baina bapatez, ohartu enindakon nahasmenu batez (enuen alabaina gogoan Albertine, adinekoa izanez, ene etxean bizi zaitkeela eta ere ene ohaidea izan), iduritu zizatan adingabekoen eremaitiak Albertine ere hunki zezakeela. Orduan bizia alde orotarik hetsia iduritu zizatan. Eta harekin enintzala kastoki bizi izana gogatuz, aurkitu nuen, nexka ttipi ezezagun bat leriaria ukanik emana zizatan zigorrean, giza-gaztigueta abantzu beti baden lotura hura, eta abantzu nehoiz kondenamendu zuzenik ez justiziako hutsik eztela bagadiena, baina halako harmonia bat egintza ogengabe batez jujeak egiten duen ideia hutsezkoaren eta ezagutu eztituen egintza ogendunen artean. Baina orduan, Albertine-ren itzultzeak enetako ekhar zezakeela haren begietan aphalduko ninduen kondenamendu desohoragarri bat eta behar bada hari berari barkatuko etzautan damu bat eginen zaukona gogatzean, itzultze horren nahi ukaitetik gelditu nintzan, izitu ninduen. Itzul etzadin telegrafiatu nahiko naukon. Eta berehala, gainerateko guzia ithotzen zuela, itzul zadineko gutizia gartsuak hartu ninduen. Hori da ephe batez itzul etzadin eta hura gabe biziko nintzala erranen ahal naukola gogoan ukanik, bapatez senditu nintzalakotz aldiz bidaia guzien, atsegin guzien, lan guzien sakrifikatzer prest, Albertine itzul zadintzat.

Ha! Albertine-rendako nuen maitasuna, haren ethorkizuna Gilberte-rendako ukana nuenaren arabera aitzinetik ikusten ahalko nuela uste ukana nuelarik, azken hunekin kontramolde osoan, zenbat hedatua zen! Hura ikusi gabe egoitea zenbat ezina zizatan! Eta egintza

bakoitzako, den ttipieneko ere, baina lehenago Albertine-ren hor izaita zen ingurumen zorionezkoan zagoneko, behar nuen aldi bakoitz, gastu berri batzuekin, oinaze berarekin, berextearen ikasgoa berriz hasi. Gero biziko bertze molden burkidetzak oinaze berri hori itzalera igortzen zuen, eta egun horietan, primaderako lehenak izan baitziren, ukan nituen ere, Saint-Loup-ek Bontemps Anderea ikus ahal zezan igurikatuz, Veneziaz eta emazte eder ezezagun batzuez amets egitean, jabaldura gozagarriko ordu batzu. Ohartu nintzan orduko, izialdura handi bat senditu nuen neure baitan. Jastatu berria nuen jabaldura hori, indar handi artekatu horren lehenbiziko agertzea zen, neure baitan oinazearen kontra gudukatuko zena, maitasunaren kontra, eta azkenean menperatuko zituena. Haren aitzin-gostu bat ukan berria nuen gauza eta aitzin-seinalea ikasia, zen ephe bateko bakarrik neure baitan berantago izanara iraunkorra izanen zena, Albertine-rendako gehiago sofrituko enuen bizi bat, gehiago maitatuko enuen bat. Eta hartaz garhaitua izan zaitekeen etsai bakarra, ahazpena, ezagun berria zuen ene maitasuna, ikharatzen hasi zen, hala nola lehoin bat hetsirik izana den kaiolan bapatez ikusi duenean bera iretsiko duen pituna.

Albertine gogoan nindagon beti, eta Françoise-ek ene gamba-  
ran sartzean ehoiz etzautan aski lehiatuki erraiten: «Eskutitzik ezta»,  
ene antsiaren laburtzeko. Baina noiztenka heltzen nintzan, ene griñan  
zehar holako edo halako ideia mota bat iragan-araziz, ene bihotzeko  
giro gaixtatuaren aireztatzer. Baina arratsean, lokhartzera heltzen  
baldin banintzan, orduan Albertine-ren orhoitzapena loak ekharria  
zautan sendagailua izana baliz bezala zen, eta haren eraginak, geldituz,  
iratzarriko ninduena. Bere-berea zuen lo berezi bat zautan emaiten  
eta hartan, gainera, atzarrian bezala, beretze zerbaitez gogatzera libro  
izanen enintzana. Lo, haren orhoitzapena, lokhartzeko harr-araz-  
ten diren bi erremedio elgarrekin nahasiak ziren aldi berean enetako.  
Atzarririk, gainera, ene oinazea egun bakoitz handituz zoan ttipit-  
zeko orde. Ez ahazpenak bere lana egiten etzuelakotz, baina hor ere  
itxura urrikituaren idealeratzea fagoratzen zuen, eta hortik ene has-  
tapeneko oinazearen berdintzea azkartzen zuten mota bereko bertze



oinaze batzuekin. Nahiz itxura hori jasangarria zen. Baina bapatez haren gambara gogoratzen baldin bazizatan, ohea hutsik zagon haren gambara, haren pianoa, haren beribila, indar guzia galtzen nuen, begiak hesten nituen, burua ezkerreko soingainera gurtzen aldixartzera doazenek bezala. Athetako harrabotsak abantzu bertze hainbertze min egiten zautan etzituelakotz hark idekitzen. Saint-Loup-en telegrama bat ukan ahal zenean, «Telegama bat badea?» galdegitera enintzen menturatzen. Bat ethorri zen azkenean, baina guziaren gibelatzea baizik egiten etzuen, baitzion: «Andereak hirur egunendako joanak dira.»

Dударик gabe, joana zenez geroztik baziren laur egunak jasanak baldin banituen, hori zen neure baitan erraiten nuelakotz: «Demborako gauza bat baizik ezta, asteburua baino lehen hor izanen da.» Baina arrazoin horrek etzuen debekatzen, egin behar zena, ene bihotzarendako, ene gorputzarendako, gauza bera zela: hura gabe bizitzea, etxera sartzea hura han aurkitu gabe, haren gambarako athe aitzinetik iragaitea (idekitzeko, enuen oraino kuraiarik) etzela han jakinez, hari gauon erran gabe etzatea, horra zuten osotasun izigarrian ene bihotzak egin behar ukanak zituen gauzak eta Albertine berriz ikusi behar ukana ezpanu bezala-bezala. Jadanik bada laur aldiz hori egina ukaiteak erakusten zuen orai egiten jarraikitzeke ahala bazuela. Eta behar bada horrela bizitzen jarraikitzeke laguntzen ninduen arrazoina - Albertine-ren itzultze hurbila -, sarri haren behar ukaitetik geldituko nintzan (neure baitan erranen ahal ukanen nuen: «Ezta nehoiz itzuliko», eta hala ere bizi ahalko nintzan laur egunetz jadanik egina nuen bezala) urhats egiteko ohidura berriz hartua duen eta besapekorik gabe egon daitekeen zauritu bat bezala. Dударик gabe arratsean sartzean aurkitzen nituen oraino, hatsa mozten zautatela, bakartasuneko hutsaz ithotzen nindutela, Albertine-ek igurikatzen ninduen arrats guzietako orhoitzapenak, bururatzerik gabeko lerro batean jarriak; baina aurkitzen nuen ere jadanik bezperako orhoitzapena, bezperagokoa eta aitzineko bi arratsetakoa, erran nahi da Albertine-ren joaiteaz geroztik iragan laur arratsen orhoitzapena, horietan hura gabe egona

bainintzan, bakarrik, eta bizkitartean bizi izana, laur arrats jadanik orhoitzapen lerro bat egiten zutena bertzearen ondoan ontsa mehea, baina baziragan egun bakoitzak behar bada aberastuko zuena.

Eztitut aiphatuko ordu hartan Guermantes-ko Anderearen iloba baten ganik, Parisko nexka gazte pollitenenarentzat hartzen zenaran ganik ukan nuen aithorra, eta Guermantes-ko dukeak egin zautan urhatsa gurasoen izenean, bere alabaren zorioneko ezkongaiaren ezperdintasunaren, horrelako ezkontza gaitzaren onhartzera etsituak. Gertakari horiek norik bere amodioko sendigarri izan laitezkeenak maite denean mingarriegiak dira. Horien ezagun-arazteko gutizia baginuke eta ez hortako jendetasungabea, gutaz jujamendu gutiogo abantailgarri bat, eta bertze osoki ezperdin baten gaia izan ginatkeela ikasten balu aldatua ezlizzatekeena badagien emazteari. Dukearen ilobak izkiribatzen zautanak Albertine etzuen ezin egonean ezarriko ahal baizik.

Atzarria nintzan ordutik eta lokhartu baino lehen ene bihotz-mina utzia nuen gunean berriz hartzen nuenetik, ephe batez hetsi eta arratserano utziko eninduen liburu bat bezala, sendipenak oro etziren ehoiz enetako Albertine hunkitzen zuen gogoeta bati baizik lotzera jiten ahal, kampotik ala barnetik ethor zaizkitan. Joiten zen: haren eskutitz bat zen, hura bera behar bada! Ontsa sendi baldin banintzan, ez gehiegi zorigaitzean, enintzan bekaizti, haren kontrako arrangurarik enuen gehiogo, nahiko nuen berriz laster ikusi, besarkatu, ene bizi guzia alaike harekin ereman. «Zaugi laster» hari telegrafiatzea gauza errex-errex bat bilakatua iduritzen zizatan ene omore berriak aldatuak ukan balitu bezala ez bakarrik ene xedeak, baina nitarik kampoko gauzak, errextuak balitu bezala. Omore ilunean baldin banintzan, haren kontrako ene haserre guziak berriz sortzen ziren, enuen gehiogo haren besarkatzeko gutiziarik, haren bidez ehoiz zorionean izaiteko ezina sendi nuen, enuen gehiogo hari gaizki egin nahi baizik eta bertze batzuen izaita debekatu. Baina bi omore kontrako horien ondorioa berdina zen, behar zuen berriz lehenbailehen itzuli. Eta bizkitartean, zein ere bozkario itzultze horrek eman ahal balezata, sendi nuen neke berak berehala agertuko zirela, eta gutizia moralekoaren satifa-

menduan zorionaren bilatzea aitzinera joanez hedoiertzera heltzeko egintza bezain xintxo zen. Gutizia are gehiago doa aitzina, are gehiago da jabetzea egiazki urruntzen. Hala nola nun zoriona, edo bederen oinazetik ez ukaitea, aurki baldin badaiteke, ezta satifamendua, baina gero eta gehiago gutziaren ttipitzea, eta azkenean iraungitzea bilatu behar dena. Eta asmatzen dut idazle batek mota hortako egia batzu emaiten balitu, horiek edukiko zituen liburua eskain lezoke horrela haren gana hurbiltzea laket izanen zizakon emazte bati, hari erranez: «Liburu hau hirea dun.» Eta horrela, bere liburuan egia batzu erranez, eskaintzan gezurra erran lezake, liburua emazte horrena izan dadinari ezpaita atxikia izanen horren ganik heldu den harri (??) horri bezala baizik eta emaztea maite dueno baizik gustatuko etzaukonari. Izaite baten eta gure arteko loturak eztira gure gogoan baizik. Ahulduz orhoitak laxatzen ditu, eta, hartaz bairatuak izan nahi ginukeen lilluramendua izana gatik, eta, amodioz, adixkidantzaz, jendetasunez, giza-errespetuz, eginbidez, bertzeak bairatzen ditugu, bakarrik bizitzen gira. Gizona bere baitarik jalgi eztaitekeen izaitea da, bertzeak bere baitan baizik maite eztituena, eta, kontrakoa erranez, gezurra dio. Eta hainbat beldur izanen nintzan, horren egiteko gai izanak balire, haren behar hori ekhen zezataten, hartaz nuen maitasun hori, nun segur bainintzan ene biziarendako baliosa zela. Touraine-ra joaiteko treinak iragan behar zituen geldigunen izenen entzun ahal ukaitea xoramenik eta oinazetik gabe nihauren ttipitze bat idurituko zizatan, oro har xoilki horrek Albertine orobatekoa bilakatzen ari zizatala erakutsiko baitzuen. Ontsa zen, nion, ordu oroz hark zer egiten, gogutzen, nahi ukaiten ahal zuen ethengabe neure buruari galdatuz, khondatzen ari zenez, itzuliko zenez, maitasunak nitan egina zuen arteko athe hori idekirik atxik nezan, eta bertze baten bizia sendi nezan, gune ideki batzuetarik, berriz ur geldi bilakatu nahiko etzuen untziaren gaintitzen.

Laster, Saint-Loup-en ixila luzatzen baitzen bigarren antisia batek - Saint-Loup-en telegrama, telefonaldi baten igurikatzeak - lehenbizikoa gorde zuen, ondorioaz khexu izaitea, Albertine itxu-

liko zenez jakitea. Telegrama baten aiduru hots bakoitzaren goaitatzea hain ezin jasana bilakatzen zizatan nun iduri baitzizatan telegrama horren ethortzeak, gogoan nuen gauza bakarra baitzen orai, ene bihotzminak bururatuko zituela. Baina, azkenean Robert-en telegrama ukan nuenean, hartan erraiten baitzautan Bontemps Anderea ikusia zuela, baina, bere oharpen guziak eginik ere, Albertine-ez ikusia izana zela, horrek oro huts egin-arazia zuela, haserrez eta etsipenez erotu nintzan, hori baitzen oroz gagnetik baztertu nahi ukana nuena. Albertine-ez ezaguna izanez, Saint-Loup-en bidaiak bazematan hari atxikia nintzalako itxura bat itzultzea debekatzen baizik ahal etzaukona eta Gilberte-ren demboran ene maitasunak zuen eta galdua zuen urgointasunetik atxikia nuen guzia horren hastioa zena bertzela ere. Robert madarikatzen nuen, gero egin nuen neure baitan, bide horrek huts egina bazuen, bertze bat hartuko nuela. Gizonak kampoko munduan eragin ahal duenaz geroz, nolaz, amarrua, adimendua, abantailnahia, atxikimendua arr-araziz, enintzan gauza laztagarri horren, Albertine ez hor izaitearen ezeztatzera helduko? Uste da nork bere gutziaren arabera inguruan gauzak aldatuko dutigula, uste da, hortik hara, atherabide abantailgarririk ikusten eztelakotz. Gehienetan gertatzen dena eta abantailgarri dena ere ezta gogoratzen: ezkira gure gutzieren arabera gauzen aldatzera heltzen, baina apurka gure gutizia aldatzen da. Ezin jasana zizaikulakotz aldatzen ahalko ginuela uste ginuen izanara, orobat bilakatzen zaiku. Eragozpena eztugu garhaitu ahal ukan, baitezpada nahi ginuen bezala, baina biziak itzul-arazi dauku, gaindi-arazi, eta doi-doia da orduan iraganeko urrunera itzultzean ikus ahal badezakegu, hain da ezin hautemana.

Gurearen gaineko estaian entzun nituen Manon-eko aire batzu auzoko andere batek joak. Haien hitzak, ezagutzen baintuen, eman nituen nihauri eta Albertine-ri, eta sendimendu hain barnatu batez hartua izan nintzan nun nigarrez hasi bainintzan:

*Ondikotz, ustez esklakotik ihesle den xoria,  
Gehienetan gauaz,  
Etsitu hegaldian itzultzen berinan joitera,*

eta Manon-en heriotzea:

*Ihardets ezan bada, Manon, ene maitasun bakarra,  
Eztinat egun baizik jakin hire bihotzaren ona.*

Manon Des Grieux-en gana itzultzen zenaz geroz, iduri zizatan Manon-endako haren biziko maitasun bakarra nintzala. Ondikotz, itxura badu ordu hartan aire bera entzuna ukan balu, enintzala ni Des Grieux-ren izen-pean maitatuko zuena, eta, hori gogora jin balizako bakarrik, nitaz orhoitzeak etzuela madotzera utziko musika horren entzutean, ontsa sartzen zelarik alta, nahiz hobeki idatzia eta aphainagoa, maite zuenaren motan.

Neure aldetik enuen kuraiarik ukan neure buruaren uzteko Albertine-ek «ene biziko maitasun bakarra» deitzen ninduela gogotatzeko eta «esklabo izaitea uste zuen» hartan huts egina zuela aithortua zuelako eztitasunera. Banakien elhaberi bat ezin dela irakur ezpazako emalehenari maite denaren itxura emaiten. Baina liburuaren bururapena zorionezkoa izan daiteke, gure maitasunak eztu urhats bat gehiago egina eta, hetsia ukan dugunean, maite dugunak eta azkenean gure gana elhaberrian jina denak, bizian ezkitu maiteago.

Erotua, Saint-Loup-i telegrafiatu naukon lehenbailehen Parisera itzul zadin, hainbat gorde nahiko nuen urhats batean hisi larrigarri bat ezartzen nuelako itxuraren baztertzeke bederen. Baina, ene manuen araura itzulia izan zadin ere baino lehen, Albertine beraren ganik nuen telegrama hau ukan:

«Adixkidea, ene izabaren gana igorri duzu Saint-Loup zure adixkidea, zentzurik etzuen gauza. Adixkide maitea, ene beharra baldin bazinuen, zergatik ez zuzen eni izkiribatu? Itzultzez hainbat zorion ukanen nuen; urhats arrazoingabeko horietan etzaitela berriz has.»

«Itzultzez sobera zorion ukanen nuen!» Hori erraiten baldin bazuen, joana izanik dolu zuelakotz zen beraz, itzultzeko estakuru bat baizik etzuelakotz bilatzen. Beraz, errana zautanaren egitea aski nuen, haren beharretan nintzala izkiribatzea, eta itzuliko zen. Berriz ikusiko nuen beraz, Balbec-eko Albertine hura (ezen, joana zenaz geroztik,

enetako berriz hura bilakatua zen; beti komodaren gainean denean gehiago oharrik emaiten etzakon maxkur bat bezala, behin hartaz berexia izaiten denean norbaiti emaiteko edo hura galdu denean eta hartaz gogutzen, gehiago egiten etzena, itsasoko mendi urdinen edertasun alai guzia orhoitzen zautan). Eta etzen hura bakarrik idurimeneko izaite bat bilakatua zena erran nahi da gutziagarria, baina bizia harekin idurimenekoa bilakatua zena, erran nahi da neke guzietarik liberatua, hala nola nun bainion: «Zenbat zorionsu izanen giren!» Baina, itzultze horren segurtamena banuenetik, etzen lehiatzen zela iduri ukan behar, baina aldiz Saint-Loup-en urhatsaren ondorio gaitoa ezabatu berantago gezurtatzen ahalko bainuen bere baitarik ari izana zela erranez, beti ezkontza horren alde izana zelakotz.

Bitartean, haren eskutitza berriz irakurtzen nuen eta hala ere ezkutitz batean norbaitetik den gutiaz apur bat nahigabetua nintzan. Dударik gabe hizki idatziek gure gogamena dute erraiten, gure aurpegiko itxurek ere badagitena; gogamen baten aitzinean gira beti gertatzen. Baina, hala ere, jende batean gogamena etzaiku agertzen igebelar xuri bat bezala zabaldu den begitarteko lore-koronan hedatu ondoan baizik. Horrek hala ere ainitz aldatzen du. Eta maitasunean gure betiereko nahigaben emaitetarik bat dira betiereko zehardura horiek, egiten baitute, maite dugun izaite idealaren aiduru, hitzarraldi bakoitzak ekhartzen daukula gure ametsetik jadanik hain gauza guti dadukan haragizko izaite bat. Eta gero, jende horri zerbait galdatzen daukogunean, haren ganik ukaiten dugu hartan jendetik beretik hain guti gelditzen den eskutiz bat, aljebrako hizkietan arimetikako zenbakien baliotik gelditzen ezten bezala, jadanik ezpaidaduzkate gaineratu diren fruituen edo loren berezitasunak. Eta bizkitartean, «maitasuna», «maitea», haren eskutitzak, behar bada, egia beraren itzulpen batzu dira hala ere (batetik bertzera iragaitea den bezain guti askieskarri izan dadin), eskutiza etzaikunaz geroz irakurtzean baizik eskasa iduritzen, baina hiltzez eta grifiaz izerditan gaudenaz geroz hura ethortzen ezteno, eta gure ansiaren eztitzeko aski denaz geroz, bere hizki beltzez gure gutziaren askiesteko ezipada, sendi baitu hala ere ezteela hor elhe

baten, irriño baten, musu baten ordaina baizik, ez gauza horiek berak.

Albertine-ri izkiribatu naukon:

«Adixkidea, hain zuzen ixkiribatzeraz nindoazun, eta eskertzen zitut, zure beharretan izan baninz, lasterrez jinen zinela erraiteaz; ontsa da zure aldetik adixkide zahar batendako zerbitzu egiteko ara hoin gora batean har dezazun, eta zuretako dutan estimua eztaiteke hortaz handitua baizik izan. Baina ez, enautzun galdegina, eta ez galdengin; gure berriz ikustea, hemendik luzazko bederen, etzizazun behar bada mingarri izanen, nexka gazte soraioa. Eni, batzuetan hain axolagabea uste ukan nauzuna, ainitz hala lizateke. Biziak berexi gitu. Delibero bat hartu duzu biziki zuhurra uste dutana eta behar den orduan hartu, aitzin-sendimendu miragarri batekin, zure eskuaren galdatzeko amaren baimena ukan berria nuen eguneko biharamunean joan baitzira. Hori atzartzean erranen nautzun, haren eskutiza ukan dutanean (zurearekin batean!). Beldur izanen zinen behar bada hortan joanez eni bihotzmin egiteaz. Eta behar bada gure biziak elgarri lotuko ginituen guretako, nork daki, zorigaitz bat izanen zenarendako. Horrek izan behar ukan balu, zure zuhurtziaren gatik benedikatua izan zaitela. Berriz elgar ikusten baginu horren abantail guzia gal ginezake. Ezta enetako hori tentamendu bat lizatekeelakotz. Baina kontra eginez eztut mereximendu handirik. Nizan jende aldakorra badazaguzu eta zein laster ahazten dutan. Eniz beraz biziki urrikaltzekoa. Ainitzetan erran dautazu, ohidurazko gizon bat niz oroz gainetik. Zu gabe hartzen ari ditutanak eztira oraino ontsa azkarrak. Ageriki, ordu huntan, zurekin nituenak eta zure joaiteak nahasi dituenak dira oraino azkarrenak. Eztira luzaz hala izanen. Eta ere, horren gatik, gogoan ukana nuen elgar ikustea oraino enetako hamabortz egunen buruan, lehenago behar bada, izanen zena, ... (zintzotasuna barka ezatazu) desarrañamendu bat, - izanen etzen azken egun guti horietaz baliatzea, azkeneko ahazpena jin baino lehen, zurekin, adixkide ona eta xoragarria, hetan bortz minutaz zure ezkongai uste izan denari zerbitzu eginen ahal zinakon gauza ttipi arrunt batzuen zuzenean ezartzeko. Ene amaren baimenaz ezpainuen dudatzen, bertzalde gu-

tiziatzen bainuen gutarik bakoitzak ukan zezan sobera gixakoki eta nasaiki zenbait astez elgarrekin bizitzeko onhar zaitekeen sakrifizio bat egina zinautan libertate hura guzia, baina zuretako enetako bezain hastiagarri bilakatuko zena orai bizi guzia elgarrekin ereman behar ginenaz geroz (abantzu pena egiten daut zuri izkiribatzean hori izaiter dela gogoan ukaitean, zekunda zenbait eskas izan dela), gogoan ukana nuen gure biziaren akomeatzea ahal den molde menpekotasunik gaberenean, eta hasteko nahi ukana nuen hartan bidaiatuko ahal izanen zinen iota ukan zinezan nik, sobera ez ontsan, portuan igurikatuko zindutan artean; Elstir-i izkiribatua naukon aholku galdez, haren gostua maite baituzu. Eta lurreko, nahiko nuen zuhauren beribila ukan zinezan, zurea bakarrik, hartan athera zindaitekeena, bidaiia egin, zure gustura. Iota abantzu prest zen, izena, Balbec-en errana zinuen gutziaren araura, *Beltxarga* du. Eta, bertze karrosa guzier Rolls beribilak hautesten zinituela, bat manatua nuen. Bada, gehiago elgar ikusiko eztugunez geroz orai, ezpaitut uste debalde bilakatu untzia ez beribila onharr-araziko dauzkitzutala, enetako elizatezke jeusetako balia. Uste ukana nuen beraz - ararteko bati manatuak bainauzkon baina zure izena emanez - desmeztuz, zuk, behar bada iot eta beribil debaldeko horietarik behar bada itzur-araziko ninduzula. Baina hortako eta bertze gauza ainitzendako ere solastatu behar izanen zen. Aurkitzen dut bada zure bermaitatzeko gai izanen nizano, orai luzaz irauenen eztuena, ero lizatekeela, bela-untzi edo Rolls Royce batendako, elgar ikustea eta gure biziko zorionaren jokatzea, hori nitarik urrun bizitzea dela estimatzen duzunaz geroz. Ez, nahigo dut Rools-a atxiki eta iota ere. Eta horietaz ezpainiz baliatuko eta baitute beti, batek portuan aingura emanik, desarmaturik, bertzeak zaltegian egoiteko zoria, iot-eko ...-an (Jainkoa, eniz hutsezko izen baten ezartzera eta ofensa zindezakeen heresia baten egitera ausartzen) graba-araziko ditut maite zinituen Mallarmée-ren neurtitz hauk... Orhoit zira, Orai garbi, bizkorr et' ederra -tik hasten den poesia da. Ondikotz, oraia ezta gehiago ez garbia ez ederra. Baina, nik bezala, ontsa laster hortaz «bihar» bat eginen dutela badakitenak, guti dira jasangarriak. Rolls-az den bezainbatean, poeta beraren bertze neurtitz hauk mereziko zituen



izaitekotz, ezin har zinezkeela baitzinion:

*Ardatz hauetan orzantz et' errubis,*

*Errak eztiatanez bozkario*

*Aire suak zilatuan ikusiz*

*Erresumak ihaurturik garretan*

*Arratseko neur' orga bakarreko*

*Errota berdin hiltzen gorrindolan.*

«Betikotz goraintzi, ene Albertine-ñoa, eta eskerrak oraino berexteko bezperan elgarrekin egin ginuen ibilaldiaren gatik. Orhoitzapen ontsa ona atxikitzen dut.

«P.S. - Eztut ihardesten Saint-Loup-ek eginak lezauzkitzula (eztut bertzela ere Touraine-an dela batere uste) erraiten dautazun delako eskaintzez. Sherlock-Holmes-tik da. Zer ideia duzu nitaz?»

Dudarik gabe, Albertine-ri lehenago «Etzitut maite» errana naukon bezala hark maita nezantzat, «Ahazten dut jendeak eztitutanean ikusten» ainitzetan ikus nindezantzat, «Zure uztea deliberatu dut» berexteko ideia ororen baztertzeke, - orai zortzi egun barne baitzepadara berriz itzul zadin nahi nuelakotz naukon erraiten: «Behin betikotz goraintzi»; berriz ikusi nahi nuelakotz naukon erraiten: «Zure ikustea lanjeros aurki nezake»; hartarik berex bizitzea herioa baino gaitzago iduritzen zizatalakotz naukon izkiribatzen: «Arrazoin ukan duzu, elgarrekin zorigaitzean ginatke». Ondikotz, alegiazko ezkutitz hori, idazten nuenean hari atxikia nintzala ez iduri ukaiteko (Albertine-rendako ene maitasunean Gilberte-rendako nuen lehengo maitasunetik gelditzen zen urgoitasun bakarra) eta ere ni eta hura baizik hunki ezkinezazketen gauza batzuen erraiteko eztitasunaren gatik, aitzinetik ikusi behar ukanen nuen ondoriotzat ezezko ihardespenean bat ukan zezakeela, erran nahi da nik niona berea egiten zuena; hori izanen zela gertagarri zela ere, ezen, Albertine ni nintzan baino gutiago adimenduna izan baliz ere, erraiten nuena, etzuen ephe batez gezurrezkoa zela dudatuko. Eskutitz hortan emaiten nituen xedetan gelditu gabe, izkiribatua nuelako egintza bakarra, ezipalitzako ere Saint-Loup-

en urhatsari jarraikia, aski zen itzul zadin nahi nuela hari erakusteko eta amuan gero eta barnago hartzen utz nindezan aholku emaiteko. Gero, ezezko ihardespén bat izan zaitekeela aitzinetik ikusi ondoan, ikusi behar ukanen nuen ere ihardespén horrek bapatez Albertine-  
rendako nuen maitasuna itzuliko zautala bere bizitasun azkarrean. Eta behar ukanen nuen, beti eskutitza igorri baino lehen, nihauri galdegin, Albertine-ek doinu berean ihardesten baldin bazuen eta itzuli nahi ezpazuen, ene bihotzminaren aski jabe izanen nintzanez ixilik egoitera neure buruaren bortxatzeko, hari ez telegrafiatzera: «Itzul zaite» edo bertze mezulari baten ez igortzera, hori, ezkinuela berriz elgar ikusiko izkiribatu ondoan, hura gabe ezin egon nindaitekeela ageri-agerian hari erakustea baitzen, eta ene antsia ezin gehiago jasanaz haren etxera joan nindadin, nork daki? onhartua ere izan gabe, oraino gehiago gemenekin eza eman zezanera helduko baitzen. Eta dudarik gabe, hirur gaitzeko malestrukerien ondotik, orotako gaitzena izanen zen, horren ondotik ezpaitzen haren etxe aitzinean neure buruaz egitea baizik izanen. Baina zikologia eritasunetako mundua egina den molde zorigailtekoak nahi du egintza moldegaitza, oro baino lehen baztertu behar lizatekeen egintza, dela hain zuzen egintza ez-titzalea, guretako, ondorioa dakigun arteo, itxaropeneko bide berri batzu ikekiz, ordu bateko arintzen gituena ezak gutan sortu duen min ezin jasanetik. Hala nola nun, mina azkarregi denean, laster egiten baitugu, izkiribatzea, norbaiten ganik othoitz-araztea, ikustera joaitea, maitea gabe ezin egon daitekeela phorogatzeta den malestrukeriara.

Baina horietarik ezer enuen aitzinetik ikusi. Eskutitz horren ondorioa aldiz lehenbailehen Albertine-ren itzul-araztea iduritzen zizatan. Beraz, ondorio hori gogoan, ez-titasun handi bat ukana nuen eskutitzaren izkiribatzean. Baina aldi berean enintzan nigar egitetik gelditua; lehenik berexete alegiakoa jokatua nuen eguneko molde apur bat berdinean, hitz horiek, erraiten zautaten ideia itxuratuz nahiz kontrako helburu batera ari ziren (gezurrez emanak baitziren, urgotasunez, maite nuela ez aithortzeko), bere trixtezia bere baitan ekhartzen zutelakotz, baina ere ideia horrek egiatik zerbait bazuela sendi nuelakotz.

Eskutitz horren ondorioa segurra iduritzen baitzizatan, igoria ukanik urriki ukan nuen. Ezen, Albertine-ren itzultze oro har hoin errexa neure baitan itxuratuz, gure ezkontzea enetako gauza gaitz bat egiten zuten arrazoin guziak bapatez itzuli ziren bere indar guziarekin. Itzultzea onhartuko etzuela itxarotzen nuen. Ari nintzan karkulatzen ene libertatea, ene biziko ethorkizun osoa haren ezaren menean zirela; izkiribatuz erokeria bat egina nuela; ene eskutitz zorigaitzez joana berri hartu behar ukanen nuela, Françoise-ek, igan berria zuen egunkaria ere eni emanetz, ekharri zautalarik. Etzakien zenbat timbrerekin ezarri behar zuen. Baina berehala aburuz aldatu nintzan; Albertine itzul etzadin agiantzatzen nuen, baina enuen nahi delibero hori hark hartua ukan zezan ene antsiaran bururatzeko, eta eskutitza nahi ukan naukon Françoise-ri utzi. Egunkaria ideki nuen. Berma-ren heriotzea iragartzen zuen. (\*)

(\*) Berma-ren heriotzea berriz agertuko da biziko xehetasun gehiagorekin azken liburuan (*Aro berredirena*). (Itzultzailearen oharra)

Orhoitu nintzan orduan *Phèdre* entzuna nuen bi molde ezperdinez, eta orai heren batekin nuen aithormeneko agerraldia gogoan ukan. Iduri zizatan nihauri hain usu errepikatua nuena eta antzokian entzuna, bizian phorogatuak nituen legen erraitea zela. Badira gure ariman haier zenbat atxikiak giren eztakigun gauza batzu. Edo, hetarik gabe bizi bagira, hori da egunetik egunera gibelatzen dugu-lakotz, hutsegin, edo min ukan beldurrez, hetaz jabetzea. Hori zen Gilberte-rekin gertatua zizatana, utziko nuela uste ukana nuenean. Gauza horietarik osoki baztertuak giren ordua baino lehen, horietarik baztertuak uste giren ordua baino ontsa berantagoko ordua, behazunez nexka gaztea ezkongai dadila, erotzen gira, hain gogoilungarriki geldia iduritzen zizakun bizia ezin dezakegu gehiago jasan. Edo ere, gauza gurea baldin bada, karga bat zaikula uste dugu, gogotik utz ginezakeela; hori zizatan Albertine-rendako gertatua. Baina, joaite batez, orobat zaikun izaitea ekhendua izan dadila, ezin gaitezke gehiago bizi. Bada *Phèdre*-ren ixtoriak etzituena bi gertaldi horiek biltzen? Hippolyte joanen da. Ordurano haren etsaigora bere buruaren uzteko artha hartua duen *Phèdre*, arranguraz dio (edo poetak dauko izaite-

kotz erran-arazten), izaitekotz zertara hel laitekeen eztuelakotz ikusten eta eztelakotz maitatua senditzen, Phèdre ezin daiteke gehiago egon. Heldu zako bere maitasunaren aithortzera, eta hain usu errepi-katua nuen agerraldia da.

*Abiatze laster batek omen gutarik urruntzen zitu.*

Hippolyte-ren abiatzeko arrazoin hori dudarik gabe gaineragarria da, goga daiteke, Thésée-ren heriotzearen ondoan. Eta berdin, zenbait neurtitz urrunago, Phèdre-ek alegia gaizki harturik izana dela bada-gienan:

*...Neure loriaz axola guzia galdurik ote nuke?*

uste ukan daiteke Hyppolyte-ek haren aithorra baztertu duelakotz dela hori:

*Anderea, dahatzazua*

*Thésée nik aita dutala, 'ta zure senarra dela?*

Baina etzuen sumindura hori ukanen, Phèdre-ek, zorionera heldu ondoan, gauza guti balio zuelako sendimendu bera ukan ahal balu. Baina heldua eztela ikusten dueneko, Hippolyte-ek uste baitu gaizki hartu duela eta desenkusatzen baita, orduan, nik bezala Françoise-ri eskutitza itzulia ukan orduko, nahi du eza haren ganik jin dadin, bere zoria nahi du bururano ereman:

*Ai! basa, sobera nauk entzuna.*

Eta ezta Odette-ren aldera erranak zauztaten Zuanen gogorkerietarano, edo enetarano Albertine-rendako, aitzineko maitasuna bertze batez ordaindu baitzuten, urrikiz, mardotzez, sendimendu ixurtze beharrez eginaz, eta lehenbizikoa itxuraz aldatzen baizik etzuenaz, agerraldi hortan eztenik ere:

*Gehiago nindukan hastio, gehiago hindutan nik maite.*

*Zorigaitzek emaiten zauztean xoragarritasun berri batzu.*

«Loriaz axolatzea» Phèdre gehienik atxikia zakon gauza eztelako phorogua da, Hippolyte-ri barka lezakokeela eta CEnone-ren aholkuetarik bazter laitekeela, Hippolyte-ek Aricie maite duela ezpalu ordu hartan ikasten. Hain da bekaizkeria, zorion ororen galtzea balio baitu maitasunean, omenaren galtzea baino sendigarriago. Orduan du uzten CEnone (haren zati gaitzenaren izena baizik eztena) Hippolyte-ez gait-

zerraiten «haren zaintzeko artha» bere gain hartu gabe, eta hartarik nahi eztuena horrela igortzen hartako helgaitzek bertzela ere bera batrete konsolatzen ez tuten zori batera, bere heriotze nahitua Hippolyteren heriotzeari hurbildik darraikonaz geroz. Horrela nuen bederen, Racine-ek Phèdre-ri eman dauzkon arrangura «jansenixta» guzien lekua ttipituz, Bergotte-ek erranen zuen bezala, gutiago ogendun agerr-arazteko, agerraldi hori ikusten, nihauren biziko gertaldi maitasunezkoen halako profezia bat bezala. Gogoeta horiek etzuten bertzela ere ene deliberoan ezer aldatu, eta eskutitza Françoise-ri berriz eman naukon postan ezar zezan azkenean, eta Albertine-ren ondoan egin ukan nezan egin izana etzela jakina nuenez geroztik baitezpadakoa iduritzen zizatan entseu hori. Eta dudarik gabe, ogendun gira gure gutiziaren satifamendua gauza guti dela sinesten dugunean, betea izan eztaitekeela uste dugun orduko, berriz hari atxikiak girenaz geroz, eta hari jarraitzeak etzuela balio etzaikunaz geroz hutsegiteaz ontsa segur girenean baizik iduritzen. Eta bizkitartean arrazoin dugu ere. Ezen satifamendu hori, zoriona ezpaldin bazazkigu segurtasunetik baizik ttipiak iduritzen, bizkitartean hartarik bihotzmin batzu baizik jalgi eztaitezkeen zerbait higikor dira. Eta bihotzminak are gehiago azkarrak izanen dira nun gutizia osokiago betea izanen baita, ezin jasangarriagoak nun zoriona, naturako legearen kontra, zenbait demboraz luzaturik, izanen baita ohiduraz konsekratua. Bertze errannahi batean ere, bi nahikariek, ene eskutitza beraz joan zadinari atxikarazten ninduenak, eta, joana zela uste nuenean, hortaz dolutzeak, badute batak ete bertzeak bere egia. Lehenean, gure zorionaren - edo zorigaitzaren - gibeletik laster dagigun onhargarri baino gehiago da eta aldi berean agiantza dezagun, bere ondorioen hedatzen hasiko den egintza berri horren bidez, etsipen osoan uzten ezkituen igurikatze baten ezartzea gure aitzinean, hitz batez guretako gutiago bortitzak izanen direla uste dugun bertze molde batzuetarik oinazkatzen gituen minaren iragan-araztea bila dezagun. Baina bertze nahikariak eztu baliu gutiago, ezen, gure lanaren ondorio onean sinestetik sortua, gutizia satifatuaren aitzinean laster sendi ginezakeen lilluraz gabetzearen hastapena da xoil-xoilki, hastapen aitzinatua, zorionaren molde hori

guretako, baztertuak gertatzen diren bertze molden kaltetan, jarria ukaneko urrikia.

Eskutitza Françoise-ri itzuli naukon berehala postan ezartzera joan zadin erranez. Eskutitza joana izan zeneko, Albertine-ren itzultzea berriz hurbil-hurbila bezala asmatu nuen. Etzen ene gogoan iduri garaziadun batzu ezarri gabe izan, bere eztitasunaz apur bat ezeztatzen zituztela bada itzultze hortan ikusten nituen lanjerrak. Ene ondoan haren ukaiteko eztitasunak, hain aspaldidanik galduak, xoratzen ninduen.

Aroa badoa, eta apurka apurka gezurrez erraiten zen guzia egia bilakatzen da, hori sobera ikasia nuen Gilberte-rekin; hipazetik gelditzen nintzanean alegia egina nuen axolagabea egiazkoa bilakatua zen, biziak berexiak ginituen. Orhoitzen nintzan, banion neure baitan: Albertine-ek ilabete zenbait iragaitera uzten baldin baditu, ene gezurrak egiak bilakatuko dira. Eta orai gaixtoena egina baita, ilabete hau iragaitera utz zezan elizatekea agiantzatzeko? Itzultzen bada, oraino estimatzeko segurki gai enizan biziari ukho eginen daukot, baina emeki emeki berriz hasten ahalko da enetako xoragarritasun ukaiten Albertine-ren orhoitzapena ahultzen ariko den batean.»

Eztut erraiten ahazpena etzela bere lanaren egiten hasia. Baina ahazpenaren ondorioetarik bat zen hain zuzen Albertine-ren itxura gozagaitz ainitz, harekin iragaiten nituen oren aspergarri batzu, etzirela gehiago ene orhoitera agertzen, beraz hor zenean oraino agiantzaten nituen bezala gehiago hor izan etzadin gutiziatzeko arrazoin batzu izaitetik gelditzen zirela, eta hartaz itxura motz bat, bertze batzuen dako maitasunez senditua nuen guziaz edertua emaitetik. Molde berezi hortan, ahazpenak, ari zelarik alta berexteari ene jarr-arazten, Albertine eni eztiagoa, ederragoa erakutsiz, haren itzultzea gehiago zautan agiantza-arazten.

Albertine joana zenaz geroztik, ainitzetan, nigar egina nue-la etzaittekeela ikus iduritzen zizatanean, Françoise deitzen nuen eta erraiten naukon: «Albertine Andereñoak jeus eztuenez ahatzi ikusi

beharko da. Haren gambararen egiteaz orhoit zaite jinen denean molde onean izan dadin.» Edo xoilki: «Hain zuzen, joan den egunean Albertine-ek erraiten zautan, oizu joan den eguneko bezperan hain zuzen...» Nahi nuen Françoise-ren baitan ttipitu Albertine-ren joaiteak emaiten zaukon atsegin hastiagarria, laburra izanzen zela artetik ikus-araziz; nahi naukon ere erakutsi enintzala joaite hortaz mintzatzeko beldur, hori nahi ukana bezala erakutsi - gibelera egite bortxazko batzu erretiratze baliagarri eta aitzinetik antolatu xede baten arakoak direla dioten jeneral batzuek badagiten bezala - , haren erran-nahi egiazkoa ephe bateko gordetzen nuen gertaldi bat baliz bezala, ez batere Albertine-rendako ene adixkidantzaren bururapena. Ethengabe hura izendatuz, nahi nuen azkenean, aire apur bat bezala, gambara hortan hartarik zerbait sarr-arazi, haren joaiteak gambaran hutsa egina baitzuen eta ezpainuen gehiago hatsik hartzen. Gero nork bere oinazearen arauen ttipitzea bilatzen du, solasean jantzi baten mantzearen eta auhariko manuen artean haren sarr-araztea bilatuz.

Albertine-ren gambararen egitean, Françoise-ek, jakin-nahia, arrosa zurezko mahi ttipi baten tiranta ideki zuen hartan ene adixkideak ezartzen baitzituen lo egiteko atxikitzen etzituen bere gauza batzu. «Oi! Jauna, Albertine Andereñoak bere erhaztunen hartzea ahatzi du, tirantan geldituak dira.» Ene lehen mugimendua «Itzuli behar zazko» erraitea izan zen. Baina itzuliko zela segur ez izaiteko itxura bazuen horrek. «Ontsa, ihardetsei nuen ixil ephe baten ondotik, baina horrek eztu biziki balio hemen izan behar eztuen dembora gutiko. Emazkidazu, ikusiko dut.» Françoise-ek eman zauztan mesfidantza apur batekin. Albertine hastiatzen zuen, baina, ni bere buruaren araura jujatuz, iduri zizakon etzizatakeela ene adixkideak izkiribatu esku-titz bat eman, idek enezan beldur izan gabe. Erhaztunak hartu nituen. «Jaunak guardi eman beza gal ez titzan, erran zuen Françoise-ek, eder-rak direla erran daiteke! Nork emanak diren eztakit, Jauna denez ala bertze norbait, baina ontsa badakit norbait aberats dela eta gostua baduena! - Eniz ni, ihardetsi naukon Françoise-ri, eta bertzela ere ez-tira biak jende beretik heldu, bat bere izabak emana dauko eta bertzea

erosia du. - Ez jende beretik! egin zuen Françoise-ek, Jaunak irri egin nahi du, berdina dira, errubisa salbu bertzean gaineratua baita, bietan arrano bera da, hats-hizki berak barneko aldean...» Françoise-ek egiten zautan mina sendi zuenez eztakit, baina haren ezpainak utzi etzituen irriño baten egiten hasi zen. «Nola, arrano bera? Eroa zira. Errubisik eztuenaren gainean bada ba arrano bat, baina bertzearenean halako gizon buru bat da zizelkatua. - Gizon buru bat? hori Jaunak nun ikusi du? Ene betordekin bakarrik berehala ikusi dut arranoaren hegaletarik bat zela; Jaunak har beza bere krixtaila, bertze hegala ikusiko du bertze aldean, burua eta mokoa erdian. Luma bakoitza ikusten da. Ha! lan eder bat da.» Albertine-ek gezurra errana zautanez jakiteko behar antsiatuak ahatz-arazi zautan Françoise-ren aitzinean jendetasun zenbait atxiki behar ukanen nuela eta enaukola utzi behar, ene toleatzeko ezpada, bederen ene adixkideari damu egiteko atsegin gaixtoa. Hats-bahi nintzan Françoise ene krixtailaren bila zoan batean, hartu nuen, Françoise-ri galdegin arranoa erakutsi zezatan errubisik gabeko erhaztunean, etzuen lanik ukan eni hegalean ezagun-arazten, bertze erhaztuneko molde berean itxuratuak, luma bakoitzaren goi-zizeldura, burua. Oharr-arazi zautan ere idazki berdin batzu, hetan egia da, bertze batzu lotuak baitziren errubisarekilako erhaztunean. Eta bien barneko aldean Albertine-ren xifrea. «Baina enau horrek ustegabetzen Jaunak horren guziaren beharra ukan duela erhaztun bera zela ikusteko, erran zautan Françoise-ek. Hurbildik so egin ere gabe, errearen plegatzeko fazoin bera, ara bera ikusten da, molde bera. Horien ikustean bakarrik leku beretik heldu zirela zin eginen nuen. Kozinersa on baten kozina bezala ezagutzen da.» Eta alabaina, zorroztasun izigarri batekin xehetasun batzuen hartzen ohitu eta herrak sustatu sehiaren jakin-nahiari lotua zizakon, espert-lan hortan laguntzeko, zuen gustu hura, kozinan alabaina erakusten zuen gustu hura bera eta phizten zuena, behar bada, Balbec-era joaitean jantzeko moldean ohartua bainindakon, pollitta izana den, joier eta bertzen jantzier so egina duen emazte baten aphainkeriak. Erremedio untxiz huts egina banu eta, the kikera sobera edana nuela sendi nuen



egun batez «véronal» kaxet batzuen hartzeko orde, bertze hainbertze kafeina kaxet hartuak ukan banitu, ene bihotzak etzuen bortizkiago joren. Françoise-ri galdegin naukon gambaratik jalgi zadin. Nahiko nuen Albertine berehala ikusi. Haren gezurraren izigarriari, ez eza-gunaren alderako bekaizkeriari, gaineratzen zizeen eskaintza batzuen egitera bere burua horrela utz-arazia zuelako oinazea. Nik gehiago egiten naukon, egia da, baina ordaintzen dugun emazte bat etzaiku emazte ordaindua iduritzen bertze batzuez egina dela eztakiguno. Eta bizkitartean, harendako hainbertze diru xahutzetik gelditua enintzanaz geroz, moraleko aphaltasun hori izanik ere hartua nuen; aphaltasun hori haren baitan lagundua nuen, behar bada handitua, behar bada egina. Gero, baitugu gure oinazearen leriartzeko ixtorio batzuen asmatzeko dohaina, heltzen baigira, gosez hiltzen ari girenean, ezezagun batek ehun miliuneko fortuna bat utziko daukula sinestera, Albertine asmatu nuen ene besoetan, bertze erhaztuna eginarako berdintasunaren gatik erosia zuela eni hitz batez argitzen, hark zituela bere hats-hizkiak hartan ezarr-araziak. Baina argipen hori ahula zen oraino, etzuen oraino ukana ene izpirituan bere erro ongi-egilen sartzeko astia, eta ene mina etzaitekeen hoin laster eztitua izan. Eta gogutzen nuen bere ohaidea ontsa gixakoa dela dioten hainbat gizonen oinaze berez sofritzen dutela. Horrela dute bertzer gezur erraiten ete bere buruer. Eztute osoki gezurra erraiten; emazte horrekin badituzte oren batzu zinez goxoak; baina bere adixkiden aitzinean haiendako duten eta beretako ospagarri den gixakotasun horrek guziak, eta bere maitalekin bakarrik duten eta hauen benedikatzera ekhartzen dituen gixakotasun horrek guziak, hetan maitaleak sofritu, dudatu duen oren ezezagunez hartzen duen guziak, egiten ditu orotan egiaren bilatze debaldeko batzu! Horrelako oinaze batzuer da lotua maitatzeko eztitasuna, emazte baten solas ezteusenez xoratzekoa, hala direla badakigunez, baina haren usainaz betetzen ditugunez. Ordu hartan, enindaitekeen gehiago goxa orhoitzapenaren bidez Albertine-renaren hartzeaz. Harritua, bi erhaztunak eskuan, mokoaz bihotza toleatzen zautan arrano urrikalmendu gabeari so nindagon, haren hegal luma agerian ezarrie-

kilakoek eremana baitzuten ene adixkidean nadukan konfienxia, eta haren aztaparren azpian ene gogo zaurituak ezpaitzezakeen ephe batez ihes egin delako ezezagunaz ethengabe egiten nituen galder, arranoak haren izena itxuratzen baitzukeen baina ni irakurtzera utzi gabe alta, dudarik gabe lehenago maitatua zuenaz eta ez hain aspaldi berrikusia zukeenaz, Oihanean elgarrekilako ibilaldiko egun hain ez-tian, hain etxe-koan nuenaz geroz bigarren erhaztuna lehen al-dian ikusia, hartan arranoak mokoa errubiseko odol xafla argian bustitzen zuela iduri zuena.

Bertzela ere, goizetik arrats, ezpaldin banintzan Albertine-ren joaiteaz pairatetik gelditzen, etzuen horrek hura baizik enuela gogoan erran nahi. Alde batetik, haren xoragarritasunak hurbildik hurbilera hartuak ukanik hartarik azkenean biziki urrunak izaiten ziren gauza batzu, baina emaiten zautan bihotz-hunkiduraz gutiago eletrikatuak etzirenak hala ere, zerbaitek gogoratzen baldin bazautan Incarville, ala Verdurin-darrak, ala berriz Léa-ren egintza, oinaze uhain bat joiterra heldu zizatan. Bertze aldetik, nihaurek, Albertine gogoan ukaitea deitzen nuena, haren itzul-arazteko, harekin batzeko, zer egiten zuen jakiteko bidez gogatzea zen. Hala nola nun, ethengabea zen martirio hortako orenetan, marrazki batek itxuratu ahal balitu ene minaren lagun ziren iduriak, ikusiko ziren Orsay-ko garakoak, Bontemps Andereari eskaini diru billetenak, Saint-Loup-ena telegrafa bulegoko mahi zehartu batera gurtua han betetzen baitzuen enetako depexa paper bat, ehoiz ez Albertine-rena. Gure biziko bide guzian gure norberekoitasunak aitzinean beti ikusten dituen bezala guretako baliosak diren helburuak, baina nehoiz so egin gabe haier behatzetik gelditzen ezten ni horri berari, berdin ere gure egintzen buru den gutizia hetara jausten da, baina ez bere baitara igaiten, ala, sobera erabilgai izanez, egintzara laster egiten baitu eta ezagutza gutiesten, ala geroaren bila baitabil oraiko nahigaben ordaintzeko, ala gogoko auherkeriak bulzatzen baitu idurimeneko malda errexean lerratzer-a, gogo barnera behatzeko patar zutari gora igaitera baino lehenago.

Beribilekin batean banindoan orduan zen iot ederrenaren

erostera. Salgai zen, baina hain khario nun ezpaitzen eroslerik aurkitzen. Bertzela ere, behin erosi eta, laur ilabeteko itsas-itzuli batzu egiten ezpaginituen ere, urtekara berrehun mila liberaz goiti artha gostako zen. Urtean miliun erdi bateko heinean ginen biziko. Sei edo zazpi ilabete baino gehiago jasan ahalko nuena? Baina zer munta du, berrogeita hamar mila arranda baizik ukanen ezpanu ere, Albertineri uzten ahalko nauzkon eta neurez egin. Hori da hartu nuen deliberoa. Nitaz goga-arazi ninduen. Bada, nia ethengabe gauza andana batez gogatz bizi baita, ezpaita gauza horien gogamena baizik, aitzinean gauza horiek ukan orde, bapatez bere buruaz gogatz denean halabeharrez, eztu trena huts bat baizik edireiten, ezagutzen eztauen zerbait, izaite egiazko zerbaiten emaiteko mirailan ikusi iduri baten orhoitzapena gaineratzen daukon zerbait. Irriño bitxi hori, muxtatx ezperdin horiek, lurraren gainetik itzaliko dena hori da. Neure buruaz eginen dutanean bortz urteren buruan, ene gogoan ethengabe iragaiten ziren gauza horier guziez gogatu ahal ukaitea bururatuko zen enetako. Enintzan gehiago lurraren gainean izanen eta nehoiz ez hara berriz itzuliko, ene gogoa betiko geldituko zen. Eta neure nia oraino ezteusagoa iduritu zizatan, gehiago iziaterik gabeko zerbait bezala horrela ikusteaz. Nolaz izan laiteke neke gure gogamena ethengabe haren (maite dugunaren) aldera itzulia denari, nehoiz hartaz gogatz ezkiren izaitearen sakrifikatzea? Hortik ene herioko gogamen hori iduritu zizatan beraz, neure niaren ideia bezala, bitxia; etzizatan bature gozagaitza izan. Bapatez izigarriki trixtea aurkitu nuen; hori zen diru gehiago eskuetan ukaiten ahal enuela gogoan ukana nuelakotz, ene gurasoak bizi zirelakotz, bapatez amaz orhoitu bainintzan. Eta ni hil ondoan pairatuko zuenaren ideia enuen jasan ahal ukan. Egiazki, gure bizi osoa joka ginezakeen gaitzaldi horietan, hori menean duen jendeak gure baitan dadukan lekuaren neurriko handitasun izigarria hobeki agertzen duen arau, hark iraultzen eztauenik munduan ezer ez utziz, jende horren iduria arauka gutitzen da ezin hautemana izaitearano. Haren hor izaitearen ondorioa gauza orotan aurkitzen dugu sendi dugun bihotz-hunkiduratik; hura bera, horren emaita, eztaugu nehon

aurkitzen. Egun hetan, hain nintzan Albertine-ren itxuratzeko ezinean izan nun abantzu uste ukanen ahal bainuen enuela maite, amak bezala, amatxiren itxuratzeko ezinean izan zen etsipenezko orduetan (aldi batez salbu amets bateko aurkintza ustegabekoan haren balioa hainbaterano senditu baitzuen, nahiz lokhartua, nun, loan gelditzen zizazkon azken indarrekin hari iraun-aztera entseatu baitzen), amaz ez urrikitzeaz bere burua salatu ahal ukanen baitzuen eta alabaina egiten baitzuen, haren heriotzeak hiltzen baitzuen, baina haren itxura orhoitzapenetik izurtzen baitzizakon.

Zergatik sinetsia ukanen nuen Albertine-ek etzituela emazteak maite? Errana zuelakotz, bereziki azken demboretan, etzituela maite; baina gure bizia etzena betiereko gezur batean jarria? Nehoiz etzautan errana: «Zer gatik enaiteke jalgi libreki? zergatik duzu zer ari nizan bertzer galdatzen?» Baina bizi bat bereziegia zen alabaina zergatik zen gogoan hartua ezpazuen hori galdegina ukan etzezatantzat. Eta haren hesteko arrazoinaz ene ixilari, etzena haren aldetik komprengiarri ixil berdín eta jarraiki bat egina izan zizakon bere betiko gutuziez, orhoitzapen eta itxaropen ezin zenbatuez? Françoise-ek iduri zuen gezurra egiten nuela bazakiela Albertine-ren itzultze hurbilari aieru egiten nuenean. Eta haren usteak iduri zuen gure sehia ohian gidatzen zuen egia huntan baino gehixagotan jarria: nagusiek ezutela mutilen aitzinean aphaltuak izaita maite eta eztauetela egiatik ezagutzera uzten alegia lausengagarri, errespetuaren begiratzeko gai den batetik gehiegi baztertzen eztena baizik. Aldi huntan, Françoise-ren usteak bertze zerbaitetan oinarritua iduri zuen, mezfianza Albertine-ren gogoan berak phiztua, begiratu ukana balu bezala, haren haserrea sustatua, hots bultzatua Françoise-ek ene adixkidearen joaita ezin huts egina bezala aitzinetik errana ahal ukanen zuen heinerano. Hori egia bazen, nik ezagutu eta onhartu ephe bateko joaitaren ene ixtorioak etzuen Françoise-ren baitan ez sinestea baizik aurkitu ahal ukana. Baina Albertine-ren jite abantail-nahiaz bazegien ideiak, bere herran, Albertine-ek ene ganik haren ustez hartzen zuen «abantaila» handitzen zuen soberakeriak, neurri batean haren segurtasuna

gaizki heltzera ereman zezaketen. Beraz haren aitzinean Albertine-ren itzultze hurbilaz aieru banegienean, gauza osoki natural batez bezala, Françoise-ek ene begitarteari so egiten zuen (mahi-nagusiak haren aspertzeko irakurtzen zaukonean, hitzak aldatuz, sinesteko dudan zagon politikako berri bat, behazunez elizen hestea eta erresumatik bortxaz erretoren eremaitea, egunkariari oldez eta amikatuki so egiten zaukon molde berean), egiazki izkiribatua zenez ikusi ahal ukana balu bezala, ez ote nuenez nik asmatzen.

Baina ikusi zuenean eskutitz luze bat idatzi ondoan Bontemps Anderearen helbide zuzena bilatzen nuela, Albertine itzul zadineko lazta ordu arteo hain nahasi hura Françoise-ren baitan handitu zen. Egiazko gogo aurdikitze bat gaineratu zizakon, Françoise-ek, bihar-ramunean, eskutitzetan eman behar ukan zautanean estalian Albertine-ren idaz-moldea ezaguna zuen eskutitz bat. Albertine-ren joaitea komedia xoil bat izana ez ote zenez galdez zagon, bietan lastimatzen zuen aierua, ethorkizuneko Albertine-ren bizia alde bat etxean segurtatuz eta enetako Françoise-ren nagusi bezala, erran nahi da berarendako, Albertine-z nausatua izaiteko aphaltzea. Eskutitzaren irakurtzeko zenbat ezin-egonean banintzan ere, enintzan egon ahal izan handik itxaropen guziek ihes egina zuten Françoise-ren begier ephe batez behatu gabe, aitzin seinale hortarik ondoriotuz Albertine-ren itzultze hurbil-hurbila, neguko indar-joko maitale batek hotzak hurbil direla ondoriotzen duen bezala ainarak joaiten ikustean. Azkenean Françoise joan zen, eta athea hetsia zuela segurtatua ukan nuenean, ideki nuen, harrabotsik gabe itxura antsiatuaren ez ukaiteko, eskutitz hau:

«Adixkidea, erraiten dauzkitazun gauza on guziendako eskerak, zure manuer nago Rolls-aren desmeztzeko hortan zerbait egin ahal dezaketala uste baduzu, eta hori uste dut. Zure arartekoaren izena izkiribatzea aski dautazu. Sinets-araztera utz zintazke gauza bat baizik, saltzea, bilatzen eztuten jende horietaz; eta beribil batez zer egin zinezake, zu nehoiz atheratzen etzirenak? Biziki hunkia niz gure azken ibilaldiaz orhoitzapen on bat atxiki duzulakotz. Sinetsazu ene aldetik

ibilaldi bietan ilunabarreko ibilaldi hori (gaua heldu zenaz geroz eta elgar utziko ginuenaz geroz) eztutala ahatziko, eta ene gogotik eztela gau osoarekin baizik itzaliko.»

Azken erranaldi hori etzela erranaldi bat baizik senditu nuen bada eta Albertine-ek etzuela bere heriotzerano atxikia ahal ukana segurki atseginik batere ukana etzuen ibilaldi horren orhoitzapen hoin goxoa ene uzteko ezin egonean zenaz geroz. Baina miretsi nuen pirripitaria, Balbec-eko golfaria, ni ezagutu baino lehen Esther baizik jeus irakurria etzuen, nola dohatua zen eta nola arrazoin ukana nuen ene etxean bertzelakoa eta osatuagoa egiten zuten gaitasun berri batzuez aberastua zela aurkitzean. Eta horrela, Balbec-en erran naukon hitza: «Uste dut gure adixkidantza baliosa izan zaizula, huts egiten dautzuna ekhar ahal lezakezun jendea nizala hain zuzen» - eskaintzatako ezarria naukon argazki batean: «probidenziakoa nizalako segurtasunarekin», - erranaldi hori, sinetsi gabe erraiten naukona eta bakarrik ene ikusten abantail zuela aurki-arazteko eta hortan aurki zezakeen asperraren baztertzeko, erranaldi hori ere egia gertaturik izana zen; ororen buruan, haren maitatzeko beldurrez enuela ikusi nahi errana naukonean bezala. Hori errana nuen banakielakotz aldiz elgarrekin ibiltze jarraikian ene maitasuna ahultzen zela eta berexteak berotzen zuela; baina egiazki elgarrekin ibiltze jarraikiak sorr-arazia zuen haren behar bat Balbec-en lehenbiziko demboretako maitasuna baino ezin gehiago azkarragoa, hala nola nun erranaldi hori ere egia gertatua baitzen.

Baina oro har Albertine-ren eskutitzak etzituen gauzak jeusetan aitzinatzen. Etzizatan arartekoari izkiribatzeaz baizik mintzo. Izanara hortarik jalgi behar zen, gauzak behar ziren bortxatu, eta ideia hau ukan nuen. André-ri berehala igorr-arazi naukon eskutiz bat hartan erraiten bainaukon Albertine bere izabaren etxean zela, ontsa bakartua sendi nintzala, atsegin neurrigabe bat eginen zautala zenbait egunendako ene etxean egoitera jinez eta gordekeriarik batere enuela egin nahi, Albertine abisa zezan othoizten nuela. Eta aldi berean Albertine-ri izkiribatu naukon haren eskutitza oraino ukana ezpanu bezala:

«Adixkidea, barka ezatazu hoin ontsa gogoan hartuko duzuna, hain ditut gordekeriak hastiatzen nun nahi ukan baitut haren ganik eta ene ganik abisatua izan zaiten. Hartua dut, zu ene etxean hain eztiki ikusiz, bakarrik ez egoiteko ohitza gaixtoa. Itzuliko etzirela deliberatua dugunaz geroz, uste ukan dut hobekienik ordainduko zinduena, gutienik aldakuntza ekharriko zautana baita, zu gehienik orhoituko zituena, Andrée zela, eta jin dadin galdegin daukot. Horrek guziak itxura bapatekoegia ukan etzezan, enauko zenbait egunez baizik mintzatu, baina gure artean aldi huntan betiko gauza bat dela uste dut. Eztuzua arrazoin dutala uste? Badakit Balbec-eko zuen nexka gazte multxo ttipia izana dela beti nitan xoramendu handiena emana duen gizarteko zelula, egun batez hartan hartua izanik zoriontsuena izana nizana. Dударik gabe, xoramendu hori da oraino sendi-arazten. Gure jitetako halabeharrak eta biziko zorigaitzak nahi ukan dutenez geroz ene Albertineñoa ene emaztea izan ahal etzadin, uste dut hala ere emazte bat ukanen dutala - hura baino gutiago xoragarria, baina jitezko berdintasun handiago batzuek utziko dutena behar bada enekin zoriondunago izaitera - Andrée-ren baitan.»

Baina eskutitz hori igorr-arazia ukan ondoan, aierua jin zizatan bapatez, Albertine-ek «Itzultzeaz zoriondunegi izanen nintzan zuzenki izkiribatu bazinata» errana zautanean, etzautala hori errana zuzenki izkiribatua enaukolakotz baizik eta, hori egina ukan banu, etzela hala ere berriz itzuliko, Andrée ene etxean, gero ene emaztea izaitiaz kontent izanen zela, hura, Albertine libre izan zadin ber, orai, zortzi egunez geroztik jadanik, bere bizioer eman zaitekeenaz geroz, aurdikitzen zituela Parisen sei ilabete baino gehiagotan oren bakoitzako hartuak nituen oharpenak eta debalde bilakatuak gertatzen zirenak zortzi egun horietan minutaz minuta debekatua naukona egina zukeenaz geroz. Neure baitan erraiten nuen itxura guzien arabera bere libertateaz, han, gaizki baliatzen zela, eta dudarik gabe banegien ideia hori trixte iduritzen zizatan baina orotakoa gelditzen zen, berezirik jeus ezpaitzautan erakusten, eta, hetaz aieru bazematan eta izan zai-

tezkeen maitale ezin zenbatuetarik batetan gelditzera ez utziz, bazera-  
man ene izipiritua halako betiereko mugimendu batera bihotzminik  
gabea etzana, baina egiazko itxuraren eskasaz jasangarria zen bihotz-  
mina. Baina hala izaitetik gelditu zen eta Saint-Loup itzuli zenean  
laztagarria bilakatu.

Baina erran zauztan elhek hain zorigaitzekoa zergatik egin  
ninduten erran baino lehen, eman behar dut haren ikustaldiaren  
berehala aitzinean jartzen den gertakari bat eta haren orhoitzapenak  
gero hainbat durduzatu ninduenen nun ahuldu baitzuen, Saint-Loup-  
ekilako ene solasaldiak eman zautan iduripen mingarria ezpada, bede-  
ren solasaldi horren ondorio egiazkoa. Gertakaria hau izan zen. Saint-  
Loup-en ikusteko ezin-egonez suhartua, mailaldean igurikatzen nuen  
(ama han izan baliz egingen ahal enuena, ezen «leihotik mintzatzea»-  
ren ondotik munduan gehienik hastiatzen zuena baitzen), elhe hauk  
entzun nituelarik: «Nola! gustatzen etzaizun norbaiten haizatzen ezta-  
kizu? Ezta neke. Aski duzu, behazunez, ekharri behar dituen gauzen  
gordetzea; orduan, haren nagusiak lehiatuk direlarik, deitzen dute,  
jeus eztu hatzemaiten, burua galtzen du; ene izabak erranen dautzu,  
haren kontra erotua: «Baina zer ari da?» Ethorriko denean, berant,  
jende guzia erotua izanen da eta hark behar dena eztu ukanen. Borz-  
pasei aldien buruan, igorria izanen dela segur izaiten ahal zira oroz  
gainetik hartu baduzu ekharri behar duenaren gordeka zikintzeko  
artha, eta hori bezalako bertze mila jukutria.» Baldiduraz mutu gel-  
ditu nintzan, elhe makiavelika abre horiek Saint-Loup-en mintzoak  
erranak baitziren. Jende hain on batentzat hartua nuen beti, zorigait-  
zekoendako hain urrikaria, nun Satanen jokagaia emaiten balu bezala  
egiten baitzautan; baina bere izenean mintzo zela etzaitekeen izan.  
«Baina bakoitzak behar du bada bere bizia irabazi», erran zuen orduan  
ikusi nuen haren mintzaideak eta Guermantes-ko dukesaren mutil  
jantziatarik bat zenak. «Zer egiten du horrek ontsa izanen zirenez ge-  
roz? ihardetsi zuen gaixtoki Saint-Loup-ek. Ukanen duzu gainera pai-  
ratzale baten ukaiteko atsegina. Ankre-utzi batzu ixurtzen ahal dituzu  
bada haren sehi-jantziaren gainera auhari handi baten zerbitzatzera ji-



nen den orduan, hari minuta bat atsedean ez uztekotan, joaitea hautets dezan azkenean. Gainera, nik hori lagun nezake, izabari erran nezoke miresten dutala holako zuntzun batekin eta hoin gaizki jantziarekin zerbitzatzeko duzun pazientzia.» Agertu nintzan, Saint-Loup enegana jin zen, baina ene konfientzia hartan khordokatua zen ezagutzen nue-netik hain bertzelakoa ezagun berria nuenaz geroztik. Nihauri galdez nindagon hea zorigaitzeko baten aldera hoin abreki artzen ahal zen norbaitek etzuen ez ene aldera salatari baten jokoa egina, Bontemps Anderearen ondorako mezuan. Gogamen hori baliatu zizatan oroz gainetik, Saint-Loup-ek utzia ukan ninduenean, mezu horren huts egitearen ez hartzeko ongi hel enindaitekeelako phorogu bat bezala. Baina ene ondoan izan zeno, lehenagoko Saint-Loup nuen alta gogoa ukan, eta oroz gainetik Bontemps Anderea utzi berria zuen adixkidea. Erran zautan lehenik: «Gehiago telefonatu beharko hautala iduritzen zaik, baina ehintzala libro erraiten zautatekan beti.» Baina ene oina-zea ezin jasana bilakatu zena, hau erran zautanean izan zen: «Ene az-ken depexak utzia hauenetik hasteko, halako atherbe bat iragan eta, etxean sartu nindian, eta barne-bide luze baten ondotik saloin batera sarr-arazi ninditien.» Atherbe, barne-bide, saloin hitz horietan, eta er-ranak izaiten bururatuak ere izan gabe, ene bihotza zentzordatua izan zen eletrika kurant batek emanen zuen baino lehia gehiagorekin, ezen lurraren itzulia aldi gehiagotan badagien indarra ezta eletrika, oinazea da. Zenbat errepikatu nituen, ukhaldia nahitara berrituz, atherbe, sa-loin, barne-bide hitz horiek, Saint-Loup joana izan zenean! Atherbe batean adixkide batekin gorde daiteke. Eta saloin hortan, haren izaba hor etzenean nork daki Albertine-ek zer egiten zuen? Zer bada? Al-bertine bizi zen etxea itxuratua nuen beraz ez atherberik, ez saloi-nik ukan etzezakeena bezala? Ez: enuen batere itxuratua, edo leku ez argi bat bezala. Lehen aldi batez pairatua nuen hura zen lekua lur-rean berezitua izana zenean, bizpahirur lekuetan izaiten ahal zelako orde, Touraine-an zela; haren etxezainaren hitz horiek ene bihotzean karta batean bezala marratua zuten han azkenean pairatu behar zen gunea. Baina, Touraine-ko etxe batean zelako ideia horri behin jarri

eta, etxea enuen ikusia; ehoiz etzizatan idurimenera jina saloinaren, atherbearen, barne-bidearen ideia izigarri hori, iduritzen baitzizaztan orai, ene aitzinean, ikusiak zituen Saint-Loup-en betsarean, Albertine hetan zabilan, bizi zen barne horiek zirela, barne horiek bereziki, eta ez izan zaitezkeen eta elgar suntsitua zuten barne andana mugagabea. Atherbe, barne-bide, saloin hitzekin, zortzi egunez leku madarikatu horietan eta horien izaitea (ez bakarrik izan zaitezkeela) ezagun-arazi berria zizatanetan Albertine utzia nuelako erokeria agertu zizatan. Ondikotz! Saint-Loup-ek erran zautanean ere saloin hortan entzuna zuela ondoko gambara batetik buru hausteko moldean kantatzen eta kantuz ari zena Albertine zela, gogoan hartu nuen etsipenekin Albertine, ene hor izaitetik azkenean libratua, zorionean zela! Bere libertatea berrirabazia zuen. Eta nik André-eren lekuaren hartzera jinen zela uste nuen! Ene oinazea Saint-Loup-en kontrako haserrera aldatu zen. «Hori zian baztertu behar huela galdatau naukan guzia, ethortzen hintzala jakin zezan. - Errex zela uste baduk! Etzela han segurtatua ninditien. Ho! nitaz ehizala kontent badakiat bada, ontsa senditua diat hire depexetan. Baina ehiz zuzen, ahal diatana egin diat.» Berriz libratua, handik ene gambarara jin-arazi gabe egun osoak uzten nuen kaiola utzia ukanik, bere balio guzia hartua zuen berriz enetako, berriz bilakatua zen mundu guzia haren ondotik zoan hura, lehenbiziko egunetako xori miragarria.

- Azkenean labur egin dezagun. Diruko gauzarendako, ezta-kiat hiri zer erran, hain urguri iduri zatan emazte bati mintzatu nuk nun hura gaitzi beldur bainindian. Bada, ezтик «uf» erran diruaz mintzatu nukanean. Eta ere, berantxago, elgar hain ontsa aditzeaz hunkia zela erran dautak. Alta gero erran dikan guzia hain zian urguri, hain gora, nun iduri baitzizatan eskaintzen nakean diruaz :» Hain ontsa dugu elgar aditzen» ihardetsia ukan zezan ezin zela, oro har oieski ari bainindian. - Baina behar bada ezтик hartu, ezтик behar bada entzun, errepikatu behar huen, horrek baitzian segurki guzia ongi hel-araziko. - Baina nola nahi duk entzun ukana ezतिकan. Hiri hor mintzatzean bezala erran dakeat, ezтук elkorra, ez eroa. - Oharrik batere ezтик egin? -

Batere. - Aldi bat gehiago erran behar haukon. - Nola nahi duk berriz erran nezokan. Sartzean zian itxura ikusia ukan nian orduko, neure baitan egin diat huts egina huela, gaitzeko behargabe bat egin-arazten hautakala, eta diru horren horrela eskaintzea izigarri neke zian. Egin diat alta hiri obeditzeko, kampa igorr-araziko nindikala segur. - Baina ezтик egin. Beraz, edo etzian entzuna eta behar huen berriz hasi, edo gai berean jarraikitzen ahal zinuten. - Badiok: «Etzian entzuna» hemen hizalaketz, baina errepikatzen dauiat, gure solasaldian han izan bahinz, harrabotsik batere etzian, abreki erran diat, ezтикala hartu ezin duk. - Baina azkenean haren iloba beti ezkondu nahi ukan diatala segur duk bada? - Ez, hori, ene aburua nahi baduk, ezkontzeko xedea ukan huela etzian batere sinesten. Erran dautak hihaurek haukola haren ilobari utzi nahi huela errana. Eztakiat ere ezkondu nahi dukala ontsa sinesten dikanez orai.»

Horrek apur bat segurtatzen ninduen gutiago aphaudia nintzala erakutsiz, beraz berriz maitatua izaiteko ahalean, baitezpadako urhats baten egiteko libreago. Bizkitartean oinazkatua nintzan. «Aspertua nuk ehizala kontent ikusten diatalaketz. - Bai, hunkia nuk, hire gixakotasunaz eskerronean, baina iduritzen zatak egin ahalko hukeela... - Ene hoberenean egina diat. Bertze batek etzian gehiago eginen ez eta hoinbertze ere. Bertze bat entsea ezak. - Baina hain zuzen ez, jakin ukan banu ehindutan igorriko, baina hire urhats gaizki helduak bertze baten egitea debekatzen datak.» Erasiatzen nuen: eni zerbitzu egin nahi ukana zuen eta etzen ongi heldua. Abiatzean Saint-Loup-ek gurutzatuak zituen sartzen ari ziren nexka gazte batzu. Ainitzetan ukana nuen jadanik Albertine-ek herrian nexka gazte batzu ezagutzen zituelako aierua, lehen aldia zen horren tortura senditzen nuela. Behar da zinez sinetsi naturak eman daukola gure izpirituari ethengabe eta aldi berean lanjerrik gabe egiten ditugun aieruak ezteuseratzen dituen kontrapozoin natural bat; baina jeusek eninduen gerizatzen Saint-Loup-ek aurkituak zituen nexka gazte horien kontra. Baina xehetasun horiek oro, etzirena hain zuzen bakoitzaren ganik Albertine-z ukaitea bilatua nuena? enintzana ni, zuzenkiago haien ezagutzeko, bere ko-

ronelak deitua zuen Saint-Loup-i galdegina naukona, gostako zena gusta, ene etxetik iragan zadin? enintzana beraz ni agiantzatuak zituena, ni, edo ene oinaze gosetua, handitu nahia eta hetaz hazteaz amikatua? Saint-Loup-ek errana zautan azkenean handik hurbil-hurbil, iraganaz orhoit-arazia zuen begitarte ezagun bakarraren aurkitzeko ustegabe ona ukana zuela, Rachel-en lehengo adixkide bat, uda auzoan iragaiten zuen andere jokari pollit bat. Eta jokari horren izena aski izan zen neure baitan erraiteko: «Hori da behar bada»; hori aski zen ikus nezantzat, ezagutzen enuen emazte baten besoetan beretan, Albertine irriñotan eta atseginaz gorritua. Eta ororen buruan, zergatik etzen hori izanen? Albertine ezagutzen nuenaz geroztik emazte batzu gogoan ukaitez ogendun senditua nintzana? Lehen aldian Guermandes-ko prinzesaren etxean izana nintzan arratsean, sartu nintzalarik, etzena Saint-Loup-ek aiphatua zautan nexka gazte emategietara zoana, eta Putbus Andrearen gelaria baino ainitzez gutiago Albertine gogoan? Enintzana azken hunendako berriz Balbec-era itzulia? Berrikiago, Veneziaara joaiteko gura ukana nuen bada, zergatik etzuen Albertine-ek ez ukanen Touraine-ra joaitekoa? Bakarrik, oro har, orai nintzan hortaz ohartzen, eta enuen hura utziko, enintzan Veneziaara joanen. Neure golkoan ere, «Laster utziko dut» nion batean, banakien enuela utziko, gehiago lanean hasiko enintzala banakien bezain ontsa, ez eta osasuneko bizi batean bizitzen, azkenean egun bakoitz biharamuneko neure baitan hitzemaiten nuen guzian. Bakarrik, ororen buruan zer ere uste banuen, artexago aurkitua nuen haren uztea betiereko berexte baten mehatxuan bizitzen. Eta dudarik gabe, ene artezia hastigarriari esker, sobera ontsa sinets-arazia naukon. Zer nahi den, horrek etzezakeen orai horrela iraun, enezakeen utz Touraine-an nexka gazte horiekin, jokari horrekin; ihes egiten zautan bizi hortaz gogatzea enezakeen jasan. Ene eskutizari haren ihardestea igurikatuko nuen: gaizki ari baldin bazen, ondikotz! egun batek gutiago ala gehiago jeus etzuen egiten (eta behar bada hori nion neure baitan, haren minuta bakoitzaz nihauri khondu eman-arazteko ohidurarik ez gehiago ukanez, libro izanen zen minuta bakar batek erotuko nindue-

larik, ene bekaizkeriak etzuelakotz gehiago aroaren uzitzeko molde bera). Baina ihardestea ukan orduko, itzultzen ezpaldin bazen haren bila joanen nintzan; nahi ala ez haren adixkidetarik baztertuko nuen. Etzena bertzela ere nihaur hara joan nindadin hobe, orai Saint-Loupen gaixtakeria, orai arteo enetako ustegabekoa, agertua nuenaz geroz? Nork daki etzuenez zimarku oso bat moldatua Albertine-ren ganik ene berexteko?

Bertzelakatua nintzalakotz, arrazoin natural batzuek egun bazez ohigabeko izanara huntara eremanen nindutelako aierurik orduan ehoiz ukana enuelakotz ote zen hori? Baina nolako gezurra nuen orai eginen izkiribatu baldin banauko, Parisen erraiten naukon bezala, ixtripurik batere gerta etzakidion agiantzatzen nuela! Ha! bat gertatua izan balakidio, ene bizia ethengabeko bekaizkeria hortaz phozoindatua izaiteko orde, berehala berraurkituko nuen, zoriona ezpada, bederen oinazearen ekhentzetik jabaldura.

Oinazearen ezeztatzea? Hori nehoiz egiazki sinetsia ahal ukan duta, sinetsia herioak eztuela izaita baduena marratzen baizik eta gaineratekoa den bezala uzten, oinazea ekhentzen duela bertzearen izaita harendako oinaze emaile bat baizik eztenaren bihotzean, oinazea ezeztatzen duela eta haren lekuan ezer ez ezartzen? Oinazearen ezeztatzea! Egunkarietako gertaldien irakurtzean, urriki nuen Zuanen agiantza beraren moldatzeko kuraiaren ez ukaiteaz. Albertine-ek ixtripu bat ukana balu, bizirik haren ondora laster egiteko aitzaki bat ukanen nuen, hilik berriderenen nuen, Zuanek erranen zuen bezala, bizitzeko libertatea. Hori uste nuena? Uste ukana zuen gizon hain xorrotx eta bere burua ezagutzen zuela uste zuen hark. Bihotzean zer dugun zein guti dakigun! Nola, berantxago, Zuan oraino bizi izan baliz, ikasi ahal ukanen naukon, haren agiantza, gaizkina bezainbat, arazoiingabea zela, maite zuenaren heriotzeak etzuela jeusetarik liberatuko!

Albertine-ren alderako urgoitasun oro utzi nuen, etsipenezko telegrama bat igorri naukon zein nahi kondizonetan itzul zadin galdeginez, nahi zuen guzia eginen zuela, galdatzen nuela bakarrik minuta

batez astean hirur aldiz besarkatzea hura etzan baino lehen. Eta errana ukan balu: aldi bat bakarrik, aldi bat onhartuko nuen.

Nehoiz etzen itzuli. Ene telegrama etzen joana baizik bat ukan nuenean. Bontemps Anderearen ganik zen. Mundua ezta behin betikotz kreatua gutarik bakoitzarendako. Bizian zehar hetaz aierurik batere ezkinuen gauza batzu gaineratzen zazko. Ha! etzen oinazearen ezeztatzea telegramako lehen bi lerroek nitan egin zutena: «Adixkide gaixoa, gure Albertineñoa ezta gehiago bizi, gauza izigarri horren er-raitea barka ezatazu, zuk hainbertze maite zinuena. Bere zaldiaz zuzatz baten kontra egotzia izan da ibilaldi batean. Egin ditugun indar guziek ezin dute phitz-arazi. Zergatik eniz haren orde hill!» Ez, etzen oinazearen ezeztatzea, baina oinaze ezezagun bat, Albertine etzela berriz jinen ikastekoa. Baina enuena aldi bat baino gehiagotan etzela behar bada berriz jinen neure baitan errana? Errana nuen, alabaina, baina ohartzen nintzan orai ephe batez ere enuela sinetsia. Hemen haren ukaiteko beharra bainuen, haren musuena ene aieruek bazegiten gaitzaren jasaiteko, hartua nuen Balbec-ez geroztik beti harekin izaiteko ohidura. Jalgia zenean ere, bakarrik nintzanean, besarkatzen nuen oraino. Touraine-an zenaz geroztik hortan jarraikia nintzan. Hura hemen izan zadin baino gutiago nuen haren leialtasunaren beharra. Eta ene arrazoinak hori damurik gabe dudan ezar bazezakeen batzuetan, ene idurimena etzen horren itxurazetik ephe batez gelditzen. Ohargabeen eskua baneman neure lephora, ezipainetara, joana zenaz geroztik hartaz aphanuak sendi baitziren, eta nehoiz ez gehiago izanen; eskua baneman hetara, amak amatxiren heriotzean pherekatua ninduen bezala erranez: «Gaixo ttipia, hain maite hinduen amaxik chau gehiago besarkatuko.» Ene ethorkizuneko bizi guzia bihotzetik ekhendua gertatzen zizatan. Ethorkizuneko bizia? Enuen beraz Albertine gabe geroaren bizitzea batzuetan gogoan ukana? Baina ez! Aspaldidanik ene biziko minuta guziak hiltzerano hari dohatuak nauzkon beraz? Baina segur-segurki! Haren ganik ezin berexi ethorkizun horri, enindakon ohartzen jakina, baina orai hautsi berria zelarik, sendi nuen ene bihotzean zadukan lekua zabal-zabalik. Françoise ezer

etzakiena oraino gambaran sartu zen; doinu erotu batekin oihu egin naukon: «Zer da?» Orduan (badira batzuetan hitz batzu egia bertzelako bat ezartzen dutenak gure ondoan denaren leku berean, burxoratze bat emaiten daukute): «Jaunak eztu gaitzitua iduri ukan behar. Aldiz ontsa kontent izanen da. Albertine Andereñoaren bi eskutitz dira.»

Senditu nuen, gero, izpirituak plomua galtzen daukon norbaiten begiak ukanak nituzkeela. Enintzan zorionean izan ere, ez eta sineskaitz. Bere gambarako leku bera kanape batek eta harpe batek hartua badakusan norbait bezala nintzan. Egia gehiago duen jeus ezpaitzako agertzen, lurrera erortzen da. Albertine-ren bi eskutitzak idatziak izanak zatezkeen hil zen ibilaldia baino guti lehenago. Lehenbizikoak hau zion:

«Adixkidea, ezkertzen zitut zure etxera Andrée-ren ekharrarazteko duzun xedea erranez badematazun konfienxiatzko phorogantzaz. Bozkariorekin onhartuko duela segur niz eta zorion handia izanen dela harendako. Antzeduna den bezala, zu bezalako gizon baten kompainiaz baliatzen jakinen du eta norbaiten gainean hartzen badakizun eragin miragarriaz. Uste dut ukan duzula hor zuretako harendako bezainbat ongi sor daitekeen ideia bat. Beraz, den gutieneko eragozpena erakusten balu (uste eztutana), telegrafia ezatazu, haren baitan eragin ukaitea neure gain hartzen dut.»

Bigarrena egun bat berantagokoa zen. Egiatzki, bata bertzetik ephe gutitan izkiribatua zukeen, behar bada aldi berean, eta lehenean aitzin-egun emana. Ezen haren xedeak beti arrazoingabeen asmatuak nituen ezpaitziren ene ondora itzultzekoak baizik izanak, eta gauzan abantailnahi gabeko norbaitek, idurimenik gabeko gizon batek, tratu bat ikhertzen duen merkatari batek, nik baino hobeki estimatuko baitziten. Etzaduzkan hitz hauk baizik:

«Zure etxera itzultzeko berantegi lizatekea? Andrée-ri ezpal-

din badaukozu oraino izkiribatua, berriz ene hartzea onhar zinezakea? Zure deliberoari jarriko niz, othoizten zitut eni ezagun-arazteko eztezazun berant, nolako ezin-egonean igurikatzen dutan gogoan dukezu. Itzul nadin baliz, treina berehala har nezake. Bihotz-bihotzez zuri. Albertine.»

Albertine-ren heriotzeak ene oinazea ezeztatua ukan zezantzat, beharko zen ukhaldiak hila izan ukan zezan ez bakarrik Touraine-an, baina nitan. Ehoiz etzen hor biziago izana. Gure baitan sartzeko, jende bat aroko moldearen hartzera bortxatua izana da, aroko kadreari jartzera; guri minuta jarraiki batzuetan baizik ez agertuz, behin ere eztauku aldi berean bere itxura bakar bat baizik utzi ahal ukan, bere argazki bakar bat baizik eman. Ahulezia handia dudarik gabe jende batendako, ordu bilduma xoil batean baizik ez izaita; indar handia ere; orhoitaren meneko da, eta ordu bateko orhoita geroztik gertatu den guziaz ezta jakinduru; hartu duen ordu hark badirau oraino, bizi da oraino, eta harekin hartan agertzen zen izaitak. Eta gero zatikatze horrek ezta bakarrik hil dena bizi-arazten, ainizten du. Ene konso-latzeko, etzen Albertine bat ahatzi behar ukanen nuena, baina ezin zenbatu batzu. Hau galdua ukaiteko bihotzminaren jasaitera heldua izan nintzanean, bertze batekin berriz hasteko zen, bertze ehunekin.

Orduan ene bizia osoki aldatua izan zen. Haren ezttasuna egina zuena, eta ez Albertine-ren gatik, haren ara berdinean, bakarrik nintzanean, ordu berdin batzuen deian, lehengo orduen betiereko bersortzea zen hain zuzen. Euriaren hotsetik Combray-ko lilaen usaina zizatan emana; galerian iguzkiaren higikortasunetik, Champs-Elysées-etako urzoak; goizeko sapan harrabotsen ezttizetik, gerezien hoxtura; haizearen hotsetik eta Bazkoko itzultzetik Britainiako edo Veneziako gutizia. Uda jiten zen, egunak luze ziren, bero zen. Goizgoizik ikasle 'ta erakasle baratze publikoetara zuhatzen azpian azken konkursoen prestatzera daozen aroa zen, jadanik agorki garbi den eguneko beroan baino zeru gutiago gartsu batek erortzera dutzan hoxturako xorta bakarraren biltzeko. Ene gamera ilunetik, gogoratzeko



ahal lehengoaren berdin batekin baina oinazea baizik gehiago emaiten etzautanarekin, sendi nuen kampoan, airearen dorpean, beheiti zoan iguzkiak ezartzen zuen etxetako, elizetako zutaran, latsun hori-gorrail bat. Eta Françoise-ek itzultzean nahi ukan gabe higitzen baldin bazituen erridau handien izurrak, oihu bat iresten nuen nitan lehengo iguzki arrai horrek egin berria zuen urraduran, Bricqueville l'Orgueilleuse-ko etxe-aitzin berria ederra iduri-arazia baitzautan, Albertine-ek errana zautalarik: «Berritua da.» Ene hasperena Françoise-ri nola argi ez jakinean, banion: «Ha! egarria niz.» Jalgitzen zen, sartzen, baina burua bortizki itzultzen nuen, ene inguruan itzalean noiz nahi orhoitzapen ezin ikusi batzuen ukhaldi mingarri-pean: ikusia nuen sagarinoa eta gerezi batzu ekharriak zituela, Balbec-en laboretxe mutil batek karrosan ekharriak zauzkun sagarino hura ete gerezi hek, beteginkienik haiekin komuniatuko nuen itxura sainduak, behin, bero samineko egunetan jateko sala ilunetako ortzadarrarekin. Orduan gogoan ukan nuen lehen aldikotz Ecorres-etako laboretxea, eta neure baitan egin nuen, Balbec-en Albertine-ek etzela libro erraiten zautan egun batzuez, izabarekin atheratzera bortxatua zela, behar bada bere adixkide nexketarik batekin zela hara joaiten ohitua enintzala bazakien eta zer gerta ere Marie-Antoinette gogoan han berantzen nintzalarik hau errana zautaten laboretxe batean: «Egun eztugu ikusi», bere adixkidearekin erabiltzen zituela biak atheratzen girenean erraiten zautan hitz berak: «Hemen gure bilatzeko ideiarik eztu ukanen eta horrela libro izanen gira.» Françoise-ri erraiten naukon erridauak berriz hets zitzaizun iguzki arrai horren ez gehiago ikusteko. Baina ene orhoitean irezten jarraikitzen zuen, beti berdin samin. «Etzata gustatzen, berriturik izana da, baina bihar Saint-Martin-le-Vêtu-ra joanen gira, etzi ...» Bihar, etzi, elgarrekilako gero bat zen hasten ari, behar bada betiko, ene bihotza hartara oldez abiatzen da, baina ezta gehiago hor, Albertine hila da.

Orena galdegin naukon Françoise-ri. Seiak. Azkenean, Jainkoari esker, joanen zen lehenago hartaz Albertine-rekin deitoratzen nintzan bero phizua, eta hainbat maite ginuena. Eguna bururatzer

zoan. Baina zer nuen hortan irabazten? Arratseko hoxtura jeikitzen ari zen, iguzkiaren etzatea zen; ene orhoitean, etxera sartzeko elgarrekin hartzen ginuen bide baten buruan, banakusan, azken herrixka baino haratago, geldigune urrun bat, Balbec-en geldituko ginen arrats hartako bereko, beti elgarrekin, ezin hurrandua. Orduan elgarrekin, orai behar zen leze horren beraren aitzinean alde bat gelditu, eta hura hila zen. Erridauen hestea etzen aski, ene orhoiteko begien eta beharrien tapatzera entseatzen nintzan, iguzki etzateko marra iranja-kolore horren ez berriz ikustera, orai hila zenak orduan hain xamurki besarkatzen ninduenaren bi aldetan zuhatz batetik bertzera elgarri ihardesten zuten xori ezin ikusi horien ez entzutera. Entseatzen nintzan arratsean orstoan hezeak, astobizkar arako bidetan jauste 'ta igaiteak badematen sendipen horietarik itzuri egitera. Baina jadanik sendipen horiek berriz hartua ninduten, oraiko ordutik aski urrun eremana, Albertine hil zelako ideiak ukan zezan berriz ene joiteko behar zen gibelamendu, olde guzia. Ha! nehoiz enintzan gehiago oihan batean sartuko, zuhatz batzuen artean ibiliko. Baina ibar handiak gutiago abre izanen zizatzana? Zenbat aldiz zeharkatua nuen Albertine-ren bila joiteko, zenbat aldiz berriz hartua, harekin itzultzean, Cricqueville-ko ibar handia, noiz lanbroaren gainditzeak neurrigabeko aintzira batez inguratuak izaiteko lillura emaiten zaukun aro lanhotsuetan, noiz arrats garbi batzuetan, ilargi xuriak, lurra materiaz gabetuz, bi urhatsetan zerutar agerr-araziz egunaz urrunean baizik ezten bezala, alhorrak, oihanak hesten zituelarik, harekin berdinduak zituen izartegiarekin, urdin bakar baten agata zuhaztatuan!

Françoise zorionean zatekeen Albertine-ren heriotzeaz, eta utzi behar zako halako ikustate eta artezia batez etzuela alegia trixte zela egiten. Baina haren Bilduma zaharreko lege ez idatziak eta jestuko kantuetan bezala nigar badagien laborarisa ertarotarraren ohidura, Albertine-rendako eta Eulalie-rendako ere zuen herra baino zaharragoak ziren. Beraz arratsalde azken horietarik batez, ene oinazea ezpainuen aski laster gordetzen, ene nigarrer ohartu zen, lehenago ihiziak hatzeman-arazten zauzkon eta sofri-arazten zauen laborarisa ttipiaren asmuaz, oilaskoen ithotzen eta otharrainen bizirik egos-arazten boz-

kariorik baizik sendi-arazten etzaukonaz lagundua, eta eri nintzalarik, huntz bati eginak ukanen zauzkon zaurier bezala, gero doinu ilun batekin zorigaitz aitzin-seinale bat bezala iragartzen zuen ene itxura gaixtoari behatzean. Baina Combray-ko haren «ohidura bildumak» etzuen uzten nigarren, bihotzminaren arinki hartzera, bere flanelaren uztea edo gogo-kontra jatea bezain kaltegarri iduritzen baitzizazkon. «Ho! ez Jauna, ezta horrela nigar egin behar, gaitz eman lezauzuke!» Eta, ene nigarrak geldi-arazi nahiz, odol uhain batzu izan balire bezain khexu iduri zuen. Zorigaitzez itxura hotz bat hartu nuen, igurikatzen zituen sendimendu ixurtzeak eta gainera behar bada zintzoak izanen zirenak moztu zituena. Albertine-*ez Eulalie-*ez bezala zen behar bada harendako, eta ene adixkideak orai nitarik abantailik batere har ezpaitzezakeen, Françoise haren hastiatzetik gelditua zen. Erakutsi nahi ukan zautan alta nigarrez ari nintzala ohartzen zela bada eta, ene etxekoen molde galgarriari jarraikiz, «ikus-araztera» enuela utzi nahi. «Ezta nigar egin behar, Jauna», erran zautan doinu aldi huntan eztiago batean, eta bere urriki az lekukotatsun emaiteko baino gehiago zuen gogo-argitasunaren erakusteko. Eta gaineratu zuen: «Horrek gertatu behar zuen, sobera zorionean zen, gaixoa, bere zorionaren ezagutzen eztu jakin.»**

Eguna hiltzeko zein hurria den udako arratsalde neurririk gabeko horietan! Aitzineko etxearen itxurapen hits batek ethengabe jarraitzen zuen bere xuri iraunkorraren arinki margazkitzen. Azkenean iluna zen bizitegian, aitzin-gambarako mubletan juiten nuen, baina mailaldeko athean, osoa uste nuen ilunbeltzaren erdian, zati berinaztatua zehargi zen eta urdin, lore urdin batekoa, mamutxa urdin batekoa, eder idurituko zizatan urdinekoa azken leinuru bat zela senditu ezpanu, alzeiru bat bezain zorrotz, egunak bere abretasun ezin akhitudan bazematan azken ukhaldi bat.

Ilun osoa jiten zen alta azkenean, baina orduan korroilako zuhartzaren ondoan ikusi izar bat aski zen eni gure abiatzearen orhoitarazteko karrosan, auhal-ondoan, Chantepie-ko oihanetara, ilargixuriaz tapizatueta. Eta karriketaren ere gertatzen zizatan ilargi arrai baten garbitasun naturalaren berextea alki baten gibelaldean, Parisko

argi artifizialen erdian haren biltzea, hiria ephe batez ene idurimena-  
rendako naturan sarr-araziz, gogoratu alhorretako ixil mugagabeare-  
kin, Albertine-rekin eginak nituen ibilaldien orhoitzapen mingarria  
heda-arazten zuen Paris hortakoetan. Ha! gaua noiz bururatuko zen?  
Baina argi-hasteko lehen hoxturan, hotzikaritzen nintzan hunek ni-  
tara berekin berriz ekharria baitzuen Balbec-etik Incarville-ra, Incar-  
ville-tik Balbec-era goizalderano hainbat aldiz etxera elgar lagundua  
ginuen uda hartako eztitasuna. Ethorkizuneko enuen itxaropen ba-  
kar bat baizik - itxaropen izialdiura bat baino ontsa erdiragarriagoa  
-, hori zen Albertine-ren ahaztea. Egun batez ahatziko nuela bana-  
kien, Gilberte ahazia nuen bada, Guermantes-ko Anderea, amatxi  
ahazia bada. Eta gehiago maite eztitugunetarik horren bidez baztertu  
giren ahazpen hoin oso, hilerrietakoak bezain baketsuarendako gure  
gaztigu zuzenena eta bortitzena dena, oraino maite ditugunendako  
ahazpen hori bera ezin huts egina bezala erdi-ikusten dugula da. Egia  
erran mingarri ezten izanara bat dela badakigu, orobateko izanara  
bat. Baina gogoan ezin ukanez aldi berean orduan nintzana eta gero  
izanen nintzana, etsipenekin nuen gogoan pherekuez, musuez, adix-  
kidantzako loez egina zen azal hori guzia, laster betiereko hortaz bu-  
luz-araztera utzi behar izanen zena. Orhoitzapen hoin xamur horien  
oldeak, hila zelako ideiaran kontra joitera jinez, hertsatzen ninduen  
ixurpen hain kontraktuen elgar joitez nun geldirik egon ezpainin-  
daikeen; jeiki nintzan, baina bapatez gelditu, aurdikia; Albertine utzi  
berria nuen orduan banakusan goizalde bera, haren musuez oraino  
arrai eta bero, heldu zen erridauen gainetik bere lama orai gaizkorra-  
ren luzatzera horren zuri hotz, urrikalmendu gabe 'ta tinkiak halako  
ganibet ukhaldi bat emaiten baitzautan.

Berehala karriko harrabotsak hasiko ziren, bere soinuen no-  
lakotasuneko neurri-arauan uzten zutela hartan joren zuten bero  
ethengabe handituko gradoaren irakurtzera. Baina zenbait oren be-  
rantsago gerezien usainaz hantuko zen bero hortan aurkitzen nuena  
(erremedio batean bezala osatzen duten zatietarik baten ordaintzea  
aski denean zen loriagarri eta sustagarritik ahulgarri baten egiteko),

etzen gehiago emazten gutizia baina Albertine-ren joaiteko antsia. Bertzela ere ene gutizia guzien orhoitzapena antsiaz betea zen ere, eta bihotzminez, atseginen orhoitzapena bezainbat. Albertine-ren han izaitea nardagarri izanen zizatala (han beharrezkoa izanen zizatala nahasiki sendi nukeelakotz) uste ukana nuen Venezia hartara, nahiago nuen ez joan. Albertine ene eta gauza ororen artean jarri poxelu bat iduritua zizatan, horiek bazaduzkana zelakotz enetako eta haren ganik, untzi batetik bezala, nituelakotz ukaiten ahal. Orai untzi hori sunsitua baitzen, horien hartzeko kuraia enuen gehiago sendi, bakar bat etzen hartarik baztertzen enintzana, aurdikia, haren ez jastatzea nahigo ukanez. Hala nola nun hartarik ene berexteak ezpaitzuen batiere enetako idekitzen haren hemen izaiteaz hetsia zizatala uste ukana nuen atsegin gertakizunen eremua. Bertzela ere haren hemen izaitea behar bada enetako izana zatekeen trabak, bidaiatzeko, biziaz gozatzeko, gordeak zauztan bakarrik, usu gertatzen den bezala, bertze trabak, hura joana zenaz geroz orai berriz osorik agertzen zizatzanak. Lehenago, ikusle maitagarri zenbaitek lan egitea debekatzen zautanean, biharamunean bakarrik egoiten baldin banintzan, molde hortan nuen lanik gehiago ez egiten. Eritasun batek, buruz buruko gudu batek, zaldi erotu batek, herioa hurbildik ikus-araz dezaukutela, biziaz, atseginaz, hetaz gabetuak izanen giren herri ez ezagunez aberaski gozatuak izanen ginатеke. Eta lanjerra behin iraganik, berriz aurkitzen duguna, hortarik guzitik guretako ezer etzen bizi hitsa da.

Gau hoin labur horiek guti diraute dudarik gabe. Negua itzuliko zen azkenean, ezpainuen orduan argi-haste goizegi jeikirano harekin egin ibilaldien orhoitzapenaren beldur izaiterik ukanen. Baina lehenbiziko izotzek etzautatena ekharriko, bere horman begiratu, ene lehen gutizien hozia, gauerditan Albertine bila-arazten nuenean, haren xilintxa joiterano dembora hain luze baziduritanean, orai debaldetan betiereko igurikatuko ahal nuen xilintxa joite hartarano? Etzautetena lehenbiziko goganbeharren hozia ekharriko, itzuliko etzela bi aldiz uste ukan nuenean? Ordu hetan enuen bekan baizik ikusten; baina, aste zenbaiten buruan, hartaz jabetzera entseatzen enintzan

bizi ezezagun baten erditik Albertine jalgi-arazten zuten ikustaldietako arte horiek, bakea segurtatzen zautaten, ene bekaizkeriako nahikaria ethengabe moztuer ene bihotzean metatzea debekatuz. Arte horiek, aro hetan zenbat ere eztingarri izanen ahal baitziren, hainbat ziren, gerotik behatuz, oinazez markatuak hetan egina ahal zuena eta ezagutzen enuena orobat izaitetik gelditua zizatanaz geroztik, eta oroz gainetik orai haren ikustaldirik batere nehoiz ethorriko etzenaz geroztik; hala nola nun jiten zen urtarrileko arrats hek, eta horren gatik hain ezti izanak zizatzanek, bere ipharraizean ufatuko baitzautaten orai orduan ezagutzen enuen khexu bat, eta ekharriko, baina kaltegarri bilakatua, ene maitasuneko lehen hozia, haien horman begiratu. Eta aro hotz hura berriz hasten ikusiko nuela gogoan, Gilberte 'ta Champs-Elysées-etako ene jostetez geroztik, beti hain trixte iduritua zizatana, arrats hura bezalako arrats batzu berriz jinen zirela gogutzen nuenean, gauko zati handi batean Albertine igurikatua nuen elhurrezko gau hura bezalakoak, orduan, bere bulharrendako gorputzeko ikuspegian emaiten den eri bat bezala, ni, moralaren aldetik, ordu hetan, oraino gehiago lotsatzen ninduena, ene penarendako, ene bihotzarendako, hotz handi horien itzultzea zen, eta banion neure baitan iragaiteko nekeagoa izanen zena negua zela behar bada.

Urtaro guzier lotua baitzen, Albertine-ren orhoitzapena gal nezantzat, guziak ahatz nintzan behar izanen zen, haien ezagutzen berriz hastekotan, erdi-paralisiaturik irakurtzen berriz ikasten duen zahar batek bezala; beharko nuen mundu osoari ukho egin. Bakarrik, nion neure baitan, nihauren egiazko heriotze bat lizateke (baina ezina da) harenetik ene konsolatzeko gai. Enuen gogoan norberaren heriotzea eztela ez ezina ez ohigabekoa; gure jakingabea egiten da, beharrez gure nahigabea, egun oroz. Eta, ez bakarrik naturak, baina ustegabeko gertaldi batzuek, ordenu ohituago batek urtaro batean sartzen dituzten mota orotako egunen errepikatzeaz sofrituko nuen. Laster berriz ethorriko zen Balbec-en izana nintzan eguna, aitzineko udan, eta ene maitasunak, ezpaitzen oraino bekaizkeriatik ezin berexia eta Albertine-ek egun guzian bazegienaz ez khexatzen, hainbat aldapen ja-

san behar zuena, azken demboretakoa, hain ezperdina, bilakatu baino lehen, nun Albertine-ren zoria aldatzen hasia zen eta bururatua zen azken urte hau agertzen baitzizatan betea, batzuna, mende bat bezain hedatua. Gero berantagoko egunen orhoitzapena izanen zen, baina aitzinagoko urte batzuetan, aro gaitzeko igandetan, mundu guzira alta jalgia zenetan, arratsaldeko hutsean, haize 'ta euriaren harrabotsak gomitatuko baininduen, behin, «hegaztegipeko filosofoaren» egiten egoitera; nolako antsiarekin nuen ikusiko hurbiltzen, Albertine, hain guti igurikatua, ikustera jina zizatan eguna, lehen aldian pherekatua ninduena, argia ekharria zuen Françoise-ren gatik geldituz, nitaz jakin-nahia Albertine zen dembora bietan hil hartan, eta harendako nuen xamurtasunak zuzenez hainbat itxaropen ukaiten ahal zuenean! Eta ere, sasoin aitzinatuago batean, arrats ospedunek, hetan elizako ofizioek, pensione kapera batzu bezala erdi-idekiek, erhautsurreztatu batez mainatuek, karrika uzten baitute, gutarik ez urrun bere berdinekin solasean, bere bizi mithologiazkoan sartzeko sukarra bademaguten erdi-jainkosa hetaz koronatzan, etzautaten gehiago ene ondoan, hetara hurbiltzeko traba bat zizatan Albertine-ren xamurtasuna baizik orhoit-arazten.

Bertzela ere, oren garbiki naturalen orhoitzapenari bortxaz gaineratuko zizakon hartaz bakoitza den zerbait badagien eskualde morala. Entzunen nuenean berantago ahuntzainaren ajarra, lehenbiziko aro eder batez, abantzu italiarraz, egun berak nahasiko zauzkon aldizka bere argiari Albertine Trocadéro-an zela jakiteko antsia, gero familiako eta etxeko goxoa, orduan eragozkarri iduritzen zizatan eta Françoise-ek berriz ekharriko zautan ezkontide batena bezala abantzu. Bere baitara itzulzen ari zen Albertine-ren gizamen obedientia ekharria zautan Françoise-ren mezu telefonako horrek, burgoitzen ninduela uste ukana nuen. Huts egina nuen. Xoratua baldin baninduen, hori zen maite nuena bada enea zela sendi-arazia zautalakotz, enetako baizik etzela bizi eta, urrundik ere, nik hartaz artha hartzeko beharrik ukan gabe, bere senar eta nagusitzat nindadukala, ene kheinu batean itzultzen zelarik. Eta horrela telefonako mezu hori eztitasunezko za-

tiño bat izana zen, urrundik heldu, Trocadéro-ko auzoaldetik emana, gertatzen baitzen han bazirela enetako molekula bake emaile batzu, balsamu jalbatzale batzu enegana zoriozneko ithurri batzu igortzen zituzenak, azkenean gogoko libertate bat hain ezta emaiten zautatenak nun - neure burua uzten nuela griña bakar baten mugarik gabe Wagner-en musikara - aski ukana baitzizatan Albertine-ren itzultzearen igurikatzea, sukarrrik gabe, hortan zorionaren ezagutzen jakina enuen ezin-egon eskas oso batekin. Eta itzul zadineko, obedi zezataneko, enea izan zadineko zorion horren arrazoina maitasunean zen, ez urguluan. Ene manupean berrogei-ta hamar emazteren ukaitea ontsa berdin izanen zizatan orai, ene kheinu batean jiten zirenak, ez Trocadéro-tik baina Indietarik. Baina, egun hartan, ene gambaran musika joiten bakarrik nintzalarik, senditzean Albertine obediengi enegana jiten, hats-hartua nuen, bertze batzu bezala gorputzeko sendagarri diren, arimari on badagioten gauza hetarik batez, iguzkian erhaustatze bat bezala banakatuaz. Gero, oren erdi bat berantago, Albertine-ren ethortzea izana zen, gero Albertine-rekin ibilaldia, aspergarri uste ukanak nituen ethortzea eta ibilaldia enetako segurtamenez lagunduak izanak zirelaketz; baina, segurtamen horren beraren gatik, Françoise-ek berekin ekhartzen zuela telefonatua zautan ordutik, urrezko jabaldura bat ixuria zuten jarraiki ziren orenetara, hartaz bigarren egun bat egina zuten lehenbizikotik ontsa bertzelakoa, moraleko azpi bat bazuelaketz osoki bertzelakoa, hartaz egun berezi-berezi bat egiten zuen moraleko azpi bat, ordu arteo ezagunak nituen ezperdin guzien gainera jiten zena, eta nehoiz ere asmatuko enuena - uda egun bateko atsedena asma ahal ezkinezakeen bezala, bizi izanak ditugunen zerrendan horrelako egunak izaiten ezpalire; orhoitean nuela segurki erran enezakeen egun bat, jabaldura horri gaineratzen bainaukon orai orduan senditua enuen oinaze bat. Baina biziki berantago, gutika berri iragaiten nituenean, kontrako aldera, Albertine hainbat maitatu baino lehen iraganak nituen demborak, hila zen Albertine-tik ene bihotz orbaindua oinazerik gabe berezi ahal izan zenean, orduan, Trocadéro-an egoiteko orde Albertine Françoise-rekin erosketa egiten izana



zen egun hartaz azkenean oinazerik gabe orhoitu ahal nintzanean, atseginekin orhoitu nintzan ordu arteo ezaguna enuen moraleko sasoin batekoa zen egun hartaz; zuzenki orhoitu nintzan azkenean gehiago oinazerik gaineratu gabe 'ta aldiz bizi izan direnenean beroegiak aurkitu diren udako egun batzuez bezala, eta, bakarrik ondotik, hartarik arau zuzena atheratzen baita, urre aldagaitz eta urdin ezin suntsituzko nahastekarik gabe.

Hala nola nun urte bakar horiek ezpaitzitzuten bakarrik Albertine-ren othoitzapenaren, hain mingarri egiten zituenaren gainera bere sasoin edo orenen margo guziak, molde ezperdinak, hautsa emaiten, ekhaineko arratsalde azkenetarik neguko arrastirietarano, itsasoan ilargixurietarik etxera sartzeko goizalderano, Parisko elhurretik Saint-Cloud-eko orsto zimelduetarano; baina ere Albertine-z jarraikian banegien ideia bereziarenak, ordu horietako bakoitzean gogoan ukaiten nuen haren gorputzeko itxurarenak, urtaro hartan ikusten nueneko usutasun guti edo aski handiarenak, igurikatzeaz emanak ahal zauztan antsienak, harendako ordu batzuez nuen xoramenarenak, itxaropen moldatu eta gero galduenak. Horrek guziak ene trixtezia gibeletik ikusiaren itxura aldatzen zuen lotuak zizazkon argi eta usainen iduripenek bezainbat, eta bizi ukanak nituen urte iguzkituetako bakoitza osatzen zuen, bere udalehen, larrazken, neguekin bakarrik hain trixteak zirenak jadanik haren orhoitzapen ezin galgarriaren gatik, bikuntzen zuen hartan orenak ez iguzkiaren lekuaz baina hitzartze baten igurikatzeaz mugatuak ziren halako urte sendimenduzko batez; hetan egunen luzea edo beroaren goititza ene itxaropenen oldeaz neurtuak baitziren, gure adixkidantzaren aitzinatzeaz, haren begitarteko aldatzearen aitzinamenduaz, eginak zituen bidaiez, hor etzenean igorriak zauztan eskutitzen usutasunaz eta estiloaz, itzultzean ene ikusteko zuen lehia guti edo aski handiaz. Eta azkenean, aro aldapen horiek, egun ezperdin horiek, bakoitzak bertze Albertine bat emaiten baldin bazautaten, etzen bakarrik oren berdin batzuen gogoratzeaz. Baina orhoitzen da, beti, maita nezan ere baino lehen, bakoitzak nitaz bertze gizon bat egina zuela, bertze hautemaite

batzu zituelakotz bertze gutizia batzu zituena, eta, bezperan ekaitzez eta itsas-ezpondez baizik ez amets egina ukanik, udaleheneko egun ausartak arrosa usain bat sarr-arazia baldin bazuen ene lo erdi-zabalduko zerradura gaizki juntatuan, Italiara abian atzartzen zena. Ene maitasunean ere ene giro moraleko izanara aldakorrak, ene sinesmenen hertsapen bertzelakatuak etzutena, holako egun batez, nihauren maitasunaren ikuskarritasuna ttipitua, etzutena, halako egun batez, mugagabeki hedatua, bertze batez irriñorano edertua, bertze batez ekaitzerano tinkatua? Ezkira dugunetik baizik izaiten, etzira zinez zure baitan hor denaren baizik jabe, eta gure orhoitzapenetan, gure omoretan, gure ideietan hainbat dira gutarik urrun bidaia egitera joaiten, han ikusetik galtzen baititugu! Orduan gure izaitea den oso hortako khonduan eztitugu gehiago sarr-arazten ahal. Baina gure baitan sartzeko bide segetutzeko batzu badituzte. Eta arrats batzuez, Albertine-ez abantzu urrikirik gabe lokharturik - ezta orhoitean denaz baizik urrikirik ukaiten ahal - atzartzean orhoitzapen untzi andana oso bat aurkitzen nuen ene gogo argienean nitan ibiltzera ethorriak, miragarriki berexten nituenak. Orduan hoin ontsa ikusten nuenaz eta bezperan enetako ezteus baizik etzenaz nigar banegien. Albertine-ren izena, haren heriotzea alderdiz itzuliak ziren; haren tradimenduek bapatez bere balio guzia berriz hartua zuten.

Nolaz zata hila iduritu, orai hartaz gogatzeko enituelarik meanean, hetarik bata edo bertzea, bizi zelarik, berriz ikusten nuen iduri berak baizik? Aldizka lasterrez bere bi errotakoaren gainean gurtua, euri egunetan zen bezala bere errota mithologiakoan joanki, ala, Chantepie-ko oihanetara xampana eremana ginuen arratsaldetan, mintzoa jaukitzale, aldatua, matelondotan bakarrik gorritzen zen bero zuri-hitsarekin, karrosako erdi-ilunean gaizki ikusten nuena eta ilargixurira hurbiltzen, orai hartaz orhoitzera debaldetan entseatzen bainintzan, gehiago bururatuko etzen ilunbean. Hala nola nun nitan suntsitu behar ukanen nuena, ezpaitzen Albertine bakar bat, baina andana ezin zenbatu bat. Bakoitza ordu berezi bati lotua zen, Albertine berriz ikusten nuenean berriz hartan aurkitzen nintzan egunari.

Eta iraganeko ordu horiek eztira geldiak; gure orhoitean badatxikate ethorkizunera - bera iragan bat bilakatua den ethorkizun batera - eremaiten zituen mugimendua, guhaur hartara eremanez. Euri egunetako Albertine kautxuztatua enuen ehoiz pherekatua, harmadura hura ekhen zezan galdegin nahi naukon, kampamenduetako amodioaren, bidaiako anaiatasunaren ezagutzea izanen zen harekin. Baina ezin zen gehiago, hila zen. Nehoiz ere, haren biziatzeko beldurrez, enuen aditzen nuela alegia egina, bertze batzuer hori gabe behar bada galdeginen etzetzen - eta orai nitan gutizia ero bat sustatzen zuten - atsegin batzu eskaintzen zautzala iduri zuen arratsetan. Bertze baten ondoan enituen horiek berdinak sendituko, baina emanak ukanen zautzana, mundu guzian ibiltzen ahal nintzan hura aurkitu gabe, Albertine hila zenaz geroz. Iduri zen behar nuela gi gauzen artean hautatu, egia zein zen behar nuela deliberatu, hain zen Albertine-ren heriotzekoa - ezaguna enuen egiazko bizi batetik, Touraine-kotik ethorria - harendako nituen gogoeta guziekin kontramoldean, gutiziekin, urrikiekin, mardotzearekin, haserrearekin, bekaizkeriarekin. Haren biziko gertakarier hartu orhoitzapenen horrelako aberastasunak, haren bizia gogoratzen zuten eta barne hartzten zuten sendimenduen horrelako nasaitasunak Albertine hila zela ezin sinetsia bazegitela iduri zuten. Sendimenduen horrelako nasaitasuna, ezen ene orhoitak ene maitasuna begiratu zuten zauzkon bere molde guziak. Etzen bakarrik Albertine ordu andana baten zerrenda baizik etzena, nihaur nintzan ere. Harendako nuen maitasuna etzen xoilak: ezezagunaren jakin-nahiari gaineratua zizakon sentsuetako gutizia bat, eta abantzu familia bateko eztitasunaren sendimenduari, noiz axolagabea, noiz bekaizkeria ero bat. Enintzan gizon bakar bat, baina armada nahastekatu bat lerroan, maitale suharrez, axolagabe batzuez, bekaizti batzuez egina - hetarik bat emazte beraz jelos etzen bekaiztiez. Eta dudarik gabe hortik zen egun batez gutiziatuko enuen sendatzea ethorriko. Jendalde batean, jendeak banaka, nehor ohartu gabe, hek ere bertze batzuek ekhentzen dituzten batzuez ordainduak izan daitezke, hala nola nun azkenean aldakuntza egina baita, ezin asma laitekeena bakar bat bagine. Ene maitasuna-

ren batzuntasunak, nihaurenak, ainizten zituen ene oinazeak, moldez aldatzen. Bizkitartean beti bi multzotan lerroka zaitezkeen hauen aldizkatzeak egina baitzuen Albertine-rendako nuen maitasunaren bizi guzia, noiz bere aldian konfienxiari emana eta aieru bekaiztiari.

Neke baldin bazizatan Albertine, nitan hain biziduna (ekhartzen baitzuen nik bezala oraiaren eta iraganaren arnes bikuna), hila zela gogatzeari, kontramoldekoa zen ere behar bada Albertine-ek, hetaz gogatzua zen bere haragiaz, gutiziatuak zituen arimaz orai gabetua, egin etzezakeen eta ogendun izan etzaitzakeen hutsen aieru horrek nitan susta zezan horrelako oinazea, benedikatuko nuena bakarrik hortan egiazki etzen norbaiten egia moralekoaren phorogua ikusi ahal ukan banu, lehenago batzuetan emanak zauztan iduripenen leinuru, hau ere iraungitzera desteinatuaren orde. Bertze batzuekin atseginik sendi ahal etzezakeen emazte batek etzuen ene bekaizkeria phiztu behar ukanen, ene maitasuna zuzenean jarri ahal izan baliz bakarrik. Baina ezin zena hori zen, maite zuena, Albertine oraino bizi zen orhoitzapen batzuetan baizik aurki etzezakeenaz geroz. Bakarrik hartaz gogatzeari berphizten nuenaz geroz, haren tradimenduak ezin zaitezkeen ehoiz hil batenak izan, eginak zituen ordua oraiko ordua bilakatzen baitzen, ez bakarrik Albertine-rendako baina hari beha zagon nietarik bat bapatez gogora deituarendako. Hala nola nun aroko huts batek ere ezpaitzezakeen ehoiz berex hartan ogendun berri bakoitzarekin bekaizti deitoragarri eta beti ordu bereko bat berehala birazkatzen zen pare elgarretarik ezin berezia. Azken ilabetetan, etxean hetsirik atxikia nuen. Baina orai ene idurimenean, Albertine libro zen; libertate hortaz gaizki baliatzen zen, emazte batzuekin, bertzeekin galdukeriara emaiten. Lehenago gelditu gabe gogoan nuen gure aitzinean hedatua zen ethorkizun dudazkoa, hartan irakurtzera entseatzen nintzan. Eta orai aitzinean nuena ethorkizuneko kopia bat bezala (ethorkizuna bera bezain gogoetagarri berdin dudazkoa zenaz geroz, berdin ezin irakurria, berdin mixteriozkoa, abreagoa oraino enuelakotz ethorkizuneko bezala haren gainean artzeko ahala, lillura, eta ere ene bizia bezain luze hedatuko zelakotz, emaiten zautan oinazen eztizteko ene laguna hor

izan gabe), etzen gehiago Albertine-ren Ethorkizuna, haren Iragana zen. Haren Iragana? Gaizki erraitea da bekaizkeriarendako iraganik ez ethorkizunik eztenaz geroz eta asmatzen duena beti Oraia delakotz.

Aroaren aldatzek bertze batzu sortzen dituzte gizonaren barnean, ni ahatzi batzu atzartzen, ohidurako losuna kontraktzen, halako orhoitzapen batzuer, halako oinaze batzuer berriz indar emaiten. Zenbat gehiago oraino enetako ari zen aro berri horrek orhoit-arazten baldin bazautan Albertine, Balbec-en, euritzera zoanean, joana zen hura, behazunez, Jainkoak daki zergatik, ibilaldi handi batzuen egitera, bere kautxuko mallo tinkian! Bizi izan baliz, gaurregun dudarik gabe, aro hain berdin huntan, joanen zen Touraine-an itzuli berdin baten egitera. Egin ahal etzezakeenaz geroz, enuen ideia hortaz oinazkatua izan beharko; baina, beso edo zango moztuer bezala, den gutieneko aro aldatzeak ene minak berritzen zituen gehiago izaiterik etzuen alderdian.

Bapatean aspaldidanik ikusia enuen orhoitzapen bat zen, ene orhoiteko eremu ubil ezin ikusian urtua egonik, krixtailtzen zena. Bazuela horrela urte andana bat, haren duxako jantziak mintzo baiginen, Albertine gorritua zen. Ordu hartan enintzan bekaizti. Baina geroztik galdegin nahi ukana naukon solasaldi hortaz orhoitzen ahal zenez eta zergatik gorritu zen. Are gehiago ninduen horrek goganbehartua nun errana baitzautaten Léa-ren bi nexka gazte adixkideak hoteleko mainutegi hortara joaiten zirela eta, zioten, ez bakarrik duxa batzuen hartzeko. Baina Albertine gaitzi beldurrez, ala ordu hobe baten igurikan, hari hortaz mintzatzea beti gibelatua nuen, eta gero enuen gehi-go gogoan ukana. Eta bapatez, Albertine hil eta zenbait dembora ondolik, orhoitzapen hori hauteman nuen, argitzen ahalko zituen izaite bakarraren hiltzeaz betikotz ezin garbituak gelditzen diren mixterioek duten izanara aldi berean khexagarri eta ospedunaz betea. Albertine-ek etzuenez choiz edo jeus gaixtorik edo bederen dudazkoa iduritu zenik egin duxategi hortan jakitera enintzana entseatzen ahalko? Norbait Balbec-era igorritz, hortara helduko nintzan behar bada. Hura bizirik, ezer enukeen ikasi ahalko. Baina mihiak bitxiki laxatzen dira eta huts bat errex salatzen dute ogendunaren gorromioaz beldurtze-

rik eztalarik gehiago. Idurimenaren egiturak, hastapenean geldituak, laburregiak (gizonen asmakuntzetako molde lehener erremediatzen duten aldakuntza ezin zenbatuetarik, ondoko bere betegintzetan, iragana ez izanez, ari izan dadin aro-neurkinaz, balonaz, telefonaz eta b.), ezpaigitu aldi berean osoki gauza gutiren ikustera baizik uzten, duxategiko orhoitzapen horrek hartzen zuen ene barneko ikuspeneren eremu guzia.

Batzuetan, loaren karrika ilunetan, amets gaixto hetarik batean joiten nuen, biziki larriak eztirenak lehenbiziko arrazoin baten gatik, sortzen duten trixteziak eztuelakotz atzarri eta oren batez baizik irauten, lokhartzeko molde artifizial batek emaiten dituen gazkitaldi hek bezala; bertze arrazoin baten gatik ere, biziki bekan baizik ez-tirelakotz aurkitzen, doi-doia bizpahirur urtetarik. Nahiz aurkituak ukan direla dudazkoa gelditzen den - eta ukan dutela izaitekotz lillura batek, azpi-zatitze batek (bikuntze batek erraitea ezpailizateke aski) emaiten daueten lehenbiziko aldian ikusiak ez izaneko itxura hura. Segurki, Albertine-ren heriotzeaz, biziaz duda batzu banituenean, behar harko ukanen nuen aspaldi danik inkesta egiteari eman. Baina Albertine hor zenean haren meneko jarr-arazia ninduten ahulezia berak, lazakeria berak jeusetan hastea debekatzen zautaten hura joana zenaz geroztik. Eta bizkitartean urtez eta urtez herrestatu den ahultasunetik jeinuko zimizta bat jalgitzen da batzuetan. Inkesta hortara, batere osoa izanen etzenera deliberatu nintzan bederen.

Albertine-ren bizian deus bertzerik izana etzela erranen zen. Lekura, Balbec-era inkesta baten entseatzera nor igorriko ahal nuen galdez nindagon. Aimé ontsa hautatua iduritu zizatan. Lekuak miragarriki ezagutzen zituenaren gainera, bere abantailaz axolatuak diren jende xoiletako mota hartakoa zen, zerbitzatzen dituztenen aldera leial, edozein moralez axolarik gabe 'ta (ezen gure borondateari obeditzean erakusten dira, ontsa ordaintzen baditugu, salakeriako, laxatasuneko, zuzentasungabeko ahalik gabe bezain ximenkeriarik gabeak) hetaz erraiten baitugu: «Jende on batzu dira.» Eta horietan konfientzia osoa ukaiten ahal dugu. Aimé joana izan zenean, gogoan ukan nuen han ikastera entseatuko zena, Albertine berari orai galdegin ahal

nezon zenbat hobe izanen zen. Eta berehala egin nahi ukanen naukon, eginen naukola iduritzen zizatan galde horren ideiak, Albertine ene ondora ekharria ukanik, ez berphizteko indar bati esker, baina, «pau-satuak» ez tiren, «berehalakoak» diren argazkien moldean, jendea beti bizi gehiagorekin uzten duten aurkintza hetarik bateko halabeharraz bezala, gure solasaldia asmatzen nuen aldi berean, ezin izan zaitekeela senditzen nuen. Albertine hila zelako ideia hori alderdi berri batetik hartu berria nuen, hemen ez tirenean haien ikustea iduri edertuaren zuzentzera jiten eztenendako den xamurtasun hura emaiten zautan Albertine, bazematala ere hemen ez izaite hori betierekoa zelako trix-tezia eta gaixo nexka ttipia behin betiko biziaren ez titasunaz gabetua zelakoa. Eta berehala, bapateko lekuz aldatze batez, bekaizkeriako torturatik iragan nintzan berexkuntzako etsipenera.

Ene bihotza orai betetzen zuena, aieru herrati batzuen orde, herioak egiazki gal-arazia zautan arrebarekin iragan konfienxiazko xamurtasun orenen orhoitzapen mardotua zen, ene bihotzmina lotua zenaz geroz, ez Albertine enetako izana zenari, baina ene bihotzak, maitasuneko hunkidura orotakoenetan barne izaiteaz gutiziatua, izana zela sinets-arazia zautanari. Orduan ohartzen nintzan hainbat aspertua ninduen (uste nuen bederen) bizi hori, aldiz, ezin goxoagoa izana zela; gauza ezteus batzuez mintzatzen harekin iragan den gutieneko orduer, sendi nuen orai gaineratua zizeela, hetan urtua zela orduan, egia da, hautemana enuen atsegin bat, baina jadanik egiten zuena, ordu hek, beti hain jarraikian bilatuak nituela, eta gainerateko guzia bazterrera utziz; gogoratzen zizattan den gutieneko gertakariak, karrosan ene ondoan egina zuen mugimendu bat, edo ene gaban mahian ene atzinean jartzeko, hedatzen zutela ene ariman ez tita-sunezko eta trixteziatzko zirimola bat hurbildik hurbilera oso-osoa hartzen zuena.

Auhaltzen ginen gaban hori etzizatan ehoiz pollita iduritu, banion bakarrik Albertine-rendako hala zela ene adixkidea han bizitzeaz askietsia baldin bazen. Orai erridauak, jargiak, liburuak orobat izaitetik geldituak zizattan. Edergintza ezta bakarra gauza ezteu-senetan xoragarritasun eta mixteriotik bademana; gurekin harreman

minean ezartzeko ahal hori bera, oinazeari ere emana zako. Oihanetik itzultzean elgarrekin egina ginuen auhari hari orduan berean oharpenik batere enaukon emana, Verdurin-darren etxera joan baino lehen, eta orai begiak haren ederrera, eztitasun seriosera itzultzen nituen nigarrez beteak. Amodioko iduripen bat araurik gabe da biziko bertze iduripenekin, baina horien erdian galdua denean etzako ohartzten ahal. Ezta beheretik, karrikako harramantzan eta auzo etxetako nahasmenean, urrunduak girenean da, auzoko aldapa batetik, hiri osoa itzali denean eta lurraren arrasean meta nahasi bat baizik egiten ez tuenean, bakartasuneko eta arratseko bildutasunean, estimatzen ahal, bakoitz, iraunkor eta garbi, kathedrale baten goratasuna. Nigarren artetik Albertine-ren itxuraren besarkatzera entseatzen nintzan arrats hartan erranak zituen gauza serio eta zuzenak gogoan.

Goiz batez, lanbroan mendixka baten molde luzarakoa ikusten nuela uste ukan nuen, xokolet kikera baten beroa senditzen nuela, bihotza laztagarriki hertsatzen zautalarik Albertine ikustera jina zizatan eta lehen aldikotz besarkatua nuen arratsalde hartako orhoitzapenak: entzuna bainuen berriz phiztua zuten ur berogailuaren zotina. Eta haserrerekin botatu nuen Françoise-ek ekharria zautan Verdurin Anderearen gomit bat. Lehen aldian La Raspelière-ra auhariz joaiten ukana nuen iduripena, herioak eztituela izaite guziak adin berean joiten, nola zen nitan indar gehiagorekin nagusitzen Albertine orai hila zenaz geroz, hain gazterik, eta Brichot-ek jarraikitzen zuenaz geroz auhaltzera Verdurin Anderearen etxera joaiten, hau beti gomitatzen ari baitzen eta oraino ainitz urtez gomitatuko baitzuen behar bada! Brichot-en izen horrek berehala orhoit-arazi zautan etxera lagundua ninduen, eta beheretik Albertine-ren lampako argia ikusia nuen arratsaldi ber hortako bururapena. Hori bertze aldi batzuez gogoan ukana nuen, baina enintzan orhoitzapen hortara alde beretik joana. Ezen, gure orhoitzapenak gureak baldin badira bada, guhaurek ainitzetan ezagutzen eztitugun eta auzoko norbaitek idekitzen dauzkigun athe ttipi gorde batzu badituzten etxe haien moldean da, hala nola nun oraino hori gertatua etzizaikun alde batetik bederen, etxean sartuak



aurkitzen baigira. Orduan, etxera sartzean orai aurkituko nuen hutsa gogoan, han argia behin betikotz iraungia zen Albertine-ren gamera enuela gehiago beheretik ikusiko, hartu nuen zenbatez huts egina nuen, eta, gainera beheiti haren leinuruak heldu ziren thesoraren jabetasun osoa segurtatua zizatala uste nuelakotz zela bakarrik, haren balioaren karkulatzeaz enintzalakotz axolatua, horrek baitzegien nahitez atsegin batzu baino, den ttipiak izanik ere, ttipiagoa iduritzen zizatala, baina, horien asmatzera entseatuz, balioa estimatzen nuela. Gogoan hartu nuen Parisen haren etxea zen ene etxean eremana nuen bizi hura, amestua nuen eta, Balbec-eko Hotel Handian, ni nintzan hegaztegi beraren azpian etzan zen gauan ezina zela uste ukana nuen bake oso haren egitea zela hain zuzen.

Verdurin-darren azken arratsaldi hori baino lehen Oihanetik sartzean Albertine-rekin ukana nuen solasaldia ez gertatua izaitiaz enintzan konsolatua izanen, Albertine ene adimenduko biziarekin apur bat nahasia zuen solasaldi hura eta, zatiño batzuetan, bata bertzearen berdina eginak ginituena. Ezen dudarik gabe haren adimendura, enetako zuen gixakotasunera xamurtasunekin itzultzen baldin banintzan, etzen hori ezagunak nituen bertze jende batzuenak baino handiagoak izanak zirelakotz; Cambremer-ko Andereak etzautana Balbec-en errana: «Nola! egunak iragan zinezazke jeinuko gizon bat den Elstir-ekin eta zure gusiarekin egiten dituzu!» Albertine-ren adimendua<sup>78</sup> gustatzen zizatan, gogamen elgartzez, nitan atzartzen zuelakotz haren ezintasuna neritzona, fruitu baten ezintasuna deritzogun bezala gure ahosabaian baizik ezten sendipen berezi bati. Eta zinez, Albertine-ren adimendua gogoan nuenean, ene ezpainak oldez aitzinatzen ziren eta jastatzen zuten orhoitzapen bat nahiago nuena egiazki nitarik kampoan izan zadin eta norbaiten goientasun egiazkoaz egina izan. Adimendu handigoko jende batzu ezagunak nituela segur da. Baina maitasunaren mugagabeak, edo berekoitasunak, egiten du maite ditugun jendeak adimenduko eta moraleko itxura den bezala gutienik ikusten dauegunak direla; gure gutizien eta beldurren araura aurkitzen ditugu, gutarik eztitugu berexten, eztira hetan gure xamur-

tasunen kaporatzeko leku neurrigabe †ta uher bat baizik. Eztugu guhauren soina, hartara beti eta beti hainbat gaitzaldi eta atsegin metan heldu baitira, itxura bat zuhatz batena edo etxe batena edo iragaile batena bezain garbia. Eta bere baitan Albertine-ren gehiago ezagutzera ez entseatzea ene ogena izana zen behar bada. Eta haren goxagarriari zoakonaz, urtetako eremuan ene orhoitean hartzen zituen egonara guzier baizik luzaz behatua enuen bezala, eta ustegabetua izana bainintzan itxurapenetako ezperdintasuner baizik atxikiak etziren aldakuntza batzuez bere baitarik aberastua zela ikustez, berdin ere gogoan haren jitearen hartzea bilatu behar ukanen nuen edozein jenderena bezala eta behar bada, bere segetuaren gordetzen zergatik hisitzen zen orduan neure buruari argituz, baztertuko nuen, hisitze bitxi horren eta ene aitzin-sendimendu ezin aldatuaren artean, Albertine-ren heriotzea ekharria zuen auzi hori. Eta orduan banuen, haren urriki handi batekin, haren ondotik bizitzeko ahalgea. Eta iduri zizatan, alabaina, gutieneik sofritzen nuen orenetan, zerbait moldez haren heriotzeaz abantaildua nintzala, emazte bat gure biziarrendako baliagarriago baita hartan, zorioneko gai bat izaiteko orde, griñako tresna bat baldin bada, eta bakar bat ezta haren jabe izaita sofri-araziz agertzen dauzkun egiena bezain baliosa denik. Ordu horietan, amatxiren heriotzea eta Albertine-rena elgarretara hurbilduz, iduri zizatan ene bizia bakarrik munduaren lazakeriak barkatzen ahal zautan erhaite bikun batez zikindua zela. Haren ganik aditua, ezezaguna ez izaitiaz amets egina nuen, ustez eta aditua izaita, ezaguna izaita zorion handiena zen, bertze ainitzek hobeki eginen ahal zutenean. Aditua izaita gutiziatzen da maitatua izan nahi delakotz, eta maitatua izaita gutiziatzen maitatzen delakotz. Bertzeren aditza orobat da eta haien maitasuna nardagarri. Albertine-ren adimenduko eta bihotzeko apur baten jabe izanik ene bozkarioa etzen haien balio berezitik heldu, baina jabego hori mail bat gehiago zelakotz Albertine-z jabetze osoan, ikusia nuen lehenbiziko egunetik ene helburua eta ametsa izana zen jabetzean. Emazte baten «gixakotasunaz» mintzo girenean, eztugu behar bada haren ikustean sendi dugun atseginaren gutarik kampo igortzea baizik egiten, haurrek bezala badiotenean:

«Ene oheño maitea, ene buhurdiko ttipi maitea, ene elhorrixuriño maiteak.» Horrek argitzen baitu, bertzaldetik, trompatzen eztituen emazte batez gizonak ez tutelatu nehoiz erraiten: «Gixakoa da», eta hain usu trompatzen dituen emazte batez erraiten.

Cambremer-ko Andereak arrazoinekin aurkitzen zuen Elstiren izipirituko goxagarritasuna handiagoa zela. Baina eztezakegu molde berean estima, bertze guziak bezala, gutarik kampo den norbaitena, eta gertaldi batzuen ondotik egiten den lekuzteko huts baten baina zaila denaren ondorioz, guharen gorputzean jarria den norbaitena, hala nola nun itsasaldeko burdinbide ttipi bateko barnebidetan egun batez emazte bati so egin eztaukonez gerotik behatuz guhauri galdeka egoiteak sendi-arazten baitaizku gure bihotzean bala bat bilatzen lukeen barber batek eman lezazkeen oinaze berak. Kroizant xoil batek, baina jaten dugunak, sendi-arazten dauku Luis XV-garrenari zerbitzatutak izan ziren xori-gixenek, lapin-umek eta ephergorriek baino atsegin gehiago, eta zentimetro batzuetan gure begien aitzinean daldaritzen den belarraren punttak, mendian etzanik gaudenean, gordetzen ahal dauku hegi bateko orratz burxoragarria hegialekoa andana batez urrun baldin bada.

Bertzela ere gure ogena ezta emazte baten adimenduaren, gixakotasunaren estimatzea, diren bezain ttipiak izanik ere. Gure ogena bertzeren gixakotasunaz, adimenduaz ez axolatzea da. Gezurra ezta gutan beti sustatu behar lukeen suminduraren emaiten berriz hasten, ez eta onezia eskerronaren emaiten, maite dugun emazte baten ganik heldu badira baizik, eta gorputzeko gutziak badu adimenduari bere balioaren eta moraleko biziari oinarri azkar batzuen emaiteko ahal miragarria. Ehoiz enuen gauza jainkotar hau berriz aurkituko: harekin orotaz mintza nindaitekeen norbait, hari fida nindaitekeena. Fidatzea? Baina bertze jende batzuek etzautatena Albertine-ek baino konfianzia gehiago erakusten? Bertze batzuekin enituena solasaldi hedatuago batzu? Konfianzia, solasaldia, gauza biereratekoak, zer munda guti edo aski eskasak izan daiten, maitasuna nahasten baldin bazaue bakarrik, jainkotarra den bakarra baita? Albertine berriz ikusten enuen bere pianolan jartzen, bere ile beltzen azpian arrosa-kolore; sen-

ditzen nuen, baztertzerantz entseatzen zen ene ezpainen haren mihia, haren mihi ama batena bezalakoa, ezin jana, hazlea eta saildua, haren garrak eta segetuzko ihitzak egiten baitzuten, Albertine-ek ene lephoko, sabeleko gainean lerra-arazten baizik etzuenen ere, phereku axaleko horiek baina zerbait moldez haren haragiaren, bere horradura erakutsiko zuen oihal bat bezala kampa itzuliaren barneaz eginek, hartzen zutela, eskuz hunkitze kampokoenetan ere, barnera sartze baten ezintasun mixteriozkoa bezalakoa.

Jeusek ehoiz itzuliko etzautzan ordu hain ezti horien guzien galtzeak sendi-arazten zautana eztezaket erran ere etsipenetik zela. Etsipenean izaiteko, zorigaitzekoa baizik izanen ahal ezten bizi horri, atxikia izan behar da ere. Etsitua nintzan Balbec-en eguna jeikitzen ikusia nuenean eta bakar bat etzela gehiago zorionduna izanen enetako hartua ukan nuenean. Geroztik berdin neurekoia gelditua nintzan, baina orai hari atxikia zen nia, begiratzeko jaidura jokoan ezartzen duten erresalbu bizi horiek biltzen zituen nia, ni hori etzen gehiago bizian. Ene indarrak gogoan nituenean, bizitzeko ene ahala, nitan nuen gauza hoberena, jabe izana nintzan thesor berezi bat nuen gogoan (jabe izaiteko bakarra izana nintzana bertzek etzeketenaz geroz zuzenki ezagun eman-arazia zautan sendimendua, nitan gordea) eta nehork gehiago ekhen ahal etzezatana gehiago haren jabe enintzanaz geroz. Eta egia erran ehoiz enintzan haren jabe izana haren jabe nintzala uste ukana nuelakotz. Albertine-ri ene ezpaineekin behatuz eta thesor hori ene bihotzean ezarriz enuen bakarrik neure baitan horren bizi-arazteko arinkeria egina, eta gorputzeko atseginekin familiako maitasun baten nahasteko bertze arinkeria hura. Neure buruari sinets-arazi nahi ukana nuen ere gure adixkidantza maitasuna zela, elgarrekin baginituela maitasuna deitzen diren harremanak, galdegiten nauzkon musuak obedienci emaiten zauztlakotz. Eta horren sinesteko ohidura hartua ukanik, enuen bakarrik galdua maite nuen emazte bat, baina maite ninduen emazte bat, ene arreba, ene haurra, ene ohaide xamurra. Eta oro har ukanak nituen Zuanek ezagutuak etzitzen zorion bat eta zorigaitz bat, ezen hain zuzen, Odette maitatua zuen dembora guzian eta hartaz hain jelos izana, doi-doia zuen iku-

sia, hain nekez baitzaitekeen, azken orduan desmeztuzten zuen egun batzuez, haren etxera joan. Baina gero beretako ukan zuen, bere emaztea, hil zen arteo. Nik aldiz, Albertine-*ez* hain jelos nintzan batean, Zuan baino zoriondunago, etxean ukana nuen. Egina nuen egiazki Zuanek hainbertzetan amestua zuena eta orobat zizakonean baizik gauzez ukana etzuena. Baina azkenean Albertine, enuen atxikia hark Odette atxikia zuen bezala. Ihes egina zuen, hila zen. Jeus ezpaita nehoiz zuzen-zuzena errepikatzen, eta bizi berdinenak, jitetako ahaide-tasunari eta gertaldien berdintasunari esker hauta daitezkeenak bata bertzearen araukide bezala erakusteko, ainitz gauzetan kontrakoak gelditzen baitira. Eta eiki kontramolde nagusiena (edergintza) etzen oraino agertua.

Bizia galduz enuen gauza handirik galduko; enuen galduko molde huts bat baizik, nagusi-lan baten kadre hutsa. Hemendik goiti hartan sarr-araz nezakeenaz ez axolatua, baina edukia zuenaz zoriondun eta burgoi, oren hain ezti horien orhoitzapenez laguntzen nintzan, eta moraleko laguntza horrek bazematan gozo bat heriotzearen hurbiltzeak ere hautsiko etzuena. Bila-arazten nuenean ene ikustera zein laster jiten zen, eni gustatzeko iletan usain on ixurtzen beranduz bakarrik! Berrikustea maite nuen Balbec eta Parisko iduri horiek, haren bizi hain laburreko orrialde oraino berriak ziren, eta hain laster itzuliak. Enetako orhoitzapen baizik etzen hori guzia, harendako egintza izana zen, egintza lehiatua, tragedia batekoa bezala, herio laster batetara. Ezen izaitek badute gutan hedamen bat, baina bertze bat gutarik kampoan (hori ontsa senditua nuen Albertine-ren baitan haren orhoitari bakarrik etzagokon gaitasunetako aberaste bati ohartzen nindakon arrats hetan) eta bata bertzearen gainean ondorio batzuen ukaiterik gabe eztaudenak. Nahi ukan ahala nuen, Albertine-ren ezagutzea bilatuz, gero haren ukaitea oso-osoan, idurimenak ezperdina agerr-arazia daukun iduri ororen, izaite ororen, entseuaren bidez, ttipiki gure niarenen iduriko gauza batzuetara laburtzeko beharrari baizik ez obeditu, eta suntsitzera gure bozkario barnatu bakoitzaren bultzatzekoari: enuen hori egin ahal ukana ene aldian Albertine-ren bizian eraginik ukan gabe. Behar bada ene fortunak,

aitzinetik ezkontza distiratu baten ikusteak erakharria zuten; ene be-kaizkeriak atxikia zuen; bere oneziak, edo adimenduak, edo ogendun izaiteko sendimenduak, edo bere amarruko trebetasunek onharr-ara-zia zaukoten ene gogoko lanaren barneko hedatzeaz xoilki moldatua zen, eta ni gero eta gogorrago egitera ereman ninduen gatibutasun baten onhartzera, baina Albertine-ren bizian hala ere gibel-ukhaldi batzu emanak zituena, hauk berak gibelera joitez ene zikologiako koropilo berri gero eta mingarriago batzuen ezartzera ekharriak, ene presondegitik ihes egina zuenaz geroz ni gabe ukanen etzuen zaldi baten gainean hiltzera joaiteko, uzten zauztala, hilik ere, aieru batzu, hauen egiaztatzea izanen baitzizatan, itzuli behar baldin bazuen, Albertine-rek, Balbec-en, Vinteuil Andereñoa ezagutua zuela ikastea baino behar bada bortitzagoa, ene jabaltzeko Albertine gehiago hor izanen etzenaz geroz. Hala nola nun bere baitan hetsia bizi dela uste duen arimaren auhen luze hori ezpaita itxuran baizik bakarriketa bat, gauzetako egiazen oihartzunek bere bidetik bazterr-arazten dutenaz geroz, eta bizi bat norbaiten zikologiako entsegu bat denaz geroz bere oldez egiten duena, baina urruntasun zerbaitetik elhaberriari bere «egintza» bademakona, garbiki egiazkoa, bertze izaite batekoa, hartako gertaldiak bere aldian jiten baitira zikologiako entseguko uztaiduraren gurtzera eta bidearen aldatzera. Sarea zein tinkia izana zen, gure maitasunaren aldapena zein lehiatua, eta, hastapeneko berantze, hauste 'ta duda-muda batzu izanik ere, Balzac-en ipuin batzuetan edo Schumann-en balada batzuetan bezala, bururapena zein laster egina! Azken urte huntan, enetako mende bat bezain luzean - hainbat zen Balbec-etik Parisera joaiterano Albertine ene gogamenaren eretzean aldatua, eta ere, nitarik berex eta ainitzetan nik jakin gabe, bere baitan aldatua - zen ezarri behar hain guti irauna zuen xamurtasunezko bizi on hori guzia, eta bizkitartean agertzen zizatana betikotz ezina zen eta hala ere baitezpadakoa zizatan betetasun batekin, abantzu neurrigabe batekin. Baitezpadakoa bere baitan eta lehenbizian beharrezko zerbait izan gabe behar bada, Albertine ezaguna ukanen enuenaz geroz arkeologiako liburu batean Balbec-eko elizaren agerbide bat irakurria ukan ezpanu; Zuanek, eliza hori abantzu persiarra zela eni erranez, ezpalitu

ene gutziak normandiar bizantinora bidatuak ukan; palazetako lagunarte batek, Balbec-en hotel garbitasunezko eta gozo bat eraikiz, ene gurasoak ezpalitu ene agiantzaren onhartzera deliberatu eta Balbec-era igortzera. Oren bat eta hogeita hamabortzeko trein ederra bera etzen itxuratzen nuenaren heinean izana.

Baina, idurimenak igurikatzeraz uzten duenaren eta asmatzeraz entseatzeko hainbat neke hartzen dugunaren ordainez, biziak emaiten dauku asmatzetik ontsa urrun ginen zerbait. Combray-n nork erranen zautan, amaren gauona hainbat trixteziarekin igurikatzen nuenan, antsia horiek sendatuko zirela, eta egun batez berriz sortuko ez amarendako, baina, egun batez, itsasertzean, ene begiak egun bakoitz hari so egitera jiteko helatuak izanen ziren lore bat baizik hastapeanean izanen etzen nexka gazte batendako, baina lore gogatzale bat eta haren gogoan leku handi baten edukitzea hain haurki agiantzatzen nuena, nun Villeparisis-ko Anderea ezagutzen nuela hark ez jakiteaz sofritzen bainuen? Bai, horrelako andere arrotz baten gauonarendako, musuarendako nuen, urte zenbaiten buruan, haurrean ama ikustera jiten etzizatanean bezainbat sofritu behar. Haren bizia luzeagoa izan zaitkeen, enea orduan orai martirioa egiten zaukona gabe izanen zen. Eta horrela iduritzen zizatan ene xamurtasun xoilki berekoiaz Albertine hiltzera utzia nuela, amatxi erhaina nuen bezala. Berantago ere, Balbec-en ezaguna ukanik ere, enuen maitatu ahal ukanen berantago egin nuen bezala. Ezen, Gilberte utzi nuenean eta egun batez bertze emazte bat maitatzen ahalko nuela banakienean, doi-doi nintzan, iraganeko bederen, Gilberte maitatu ahal ukanen enuen ez dudu baten ukaitera ausartzen. Bada, Albertine-rendako dudarik ere enuen gehiago, segur nintzan maitatuko nuena etzaittekeela hura izanen, bertze bat izanen ahal zela. Hortako aski izanen zen Stermaria-ko Anderea, Oihaneko irlan harekin auhaldu behar nuen arratsean, desmezutua izan etzadin. Ordu zen oraino, eta Stermaria-ko Anderearendako zen idurimeneko lan hura ari izanen, emazte baten ganik nor bederaren ideia bat hain berezia harr-arazten daukuna nun bere baitan bakoitza iduritzen baitzaiku eta guretako aitzinetik egina eta beharrezkoa. Gehien gehienik, alde abantzu zikologiako batean jar-

riz, erran ahal nezakeen maitasun bakarkari hori bertze emazte baten-dako ukan nezakeela, baina ez bertze edozein emazterendako. Ezen Albertine, lodi eta beltzaran, etzen Gilberte-ren iduria, hau lerden eta hori-gorri, alta bazuten osagarriko jite bera, eta matela atseginkoi beretan bi-biek haren erran-nahia nekez hartzen zen so bat. «Jeus erraiten etzaueten» bertze batzuendako bere aldetik erokeriak eginen zituzten gizon batzuek so eginen ere etzaueten emazte hetarik ziren. Sinets nezakeen abantzu Gilberte-ren nortasun atseginkoi eta nahikorra Albertine-ren gorputzera aldatua zela, apur bat ezperdina egia da, baina, gibeletik ikusiz orai gogoetatzen nintzanean, berdintasun barnatu batzu eskainiz. Gizon batek badu abantzu beti marrantatzeko, eritzeko molde bera, erran nahi da hortako behar duela gertaldi andana berezi bat; zuzen da, amorosten denean, emazte mota berezi batez izan dadin, mota bertzela ere biziki hedatua. Amets egin-arazia zautaten Albertine-ren lehenbiziko soak etziren Gilberte-ren lehenbiziko soetarik osoki bertzelakoak. Sinets ahal nezakeen abantzu Gilberte-ren nortasun iluna, atseginkoitasuna, jite nahikor eta maltzurra, ene tentatzera itzuliak zirela, aldi huntan Albertine-ren soinean haragituak, osoki bertzelakoa eta bizkitartean ez berdintasunik gabea. Albertine-rendako doakonaz, elgarrekilako bizi osoki ezperdin bati esker eta, axolatze mingarri batek batasun iraunkor bat bazatxikan gogoeta meta batean, ohargabe 'ta ahazpeneko arraildurarik batere barneratu ahal etzizakonarendako, haren soin biziduna, ondotik ikusiz enetako (eta bertze batzuendako izanen etziren) ema-gozagarritasunak zirela aithortzen nituenak izaitetik etzen, Gilberte-rena bezala, egun batez gelditua. Baina hila zen. Ahatziko nuen. Nork daki orduan odol aberatseko, ameskeria khexuko gaitasun berak etzirenez egun batez nitan nahasmenaren egoztera itzuliko? Baina aldi huntan zein emazte moldetan, aitzinetik enezakeen ikus. Gilberte-ez lagunduz, Vinteuil-en zonataz orhoitzeak haren zazpikoaren itxuratzeraz utziko ninduen bezain guti nuen Albertine itxuratuko ahal, eta maitatuko nuela. Bertzela ere, urte bat lehenago ezagutu banu, agertuko ahal zizatan ere ozkorria jeikia ezten zeru hauts-kolore bat bezain hits. Ha-



ren aldera aldatua banintzan, hura aldatua zen ere, eta Stermaria-ko Andereari izkiribatua naukon egunean ene ohe aldera jina zen nexka gaztea etzen gehiago Balbec-en ezaguna nuen hura bera, ala adinertzeko orduan agertzen den emaztearen gainditze xoilaz, ala ezagutu ahal enituen gertakari batzuen ondorioz. Zer nahi den, egun batez maitatuko nuenak hein batean haren idurikoa izan behar bazuen ere, erran nahi da emazte baten hautatzea ezpazen enetako osoki libroa, horrek bazegien hala ere hautu hori, behar bada beharrezko molde batean manatua, jende bakar bat baino zerbait zabalagotan egina zela, emazte mota batean, eta hori, Albertine-rendako nuen maitasunari halabehar oro ekhenduz, ene gutziarendako aski zen.

Haren begitartea argia ere baino jarraikiagoan aitzinean dugun emaztea, begiak hetsirik ere haren begi ederren, sudur ederraren maitatzetik, horien berriz ikusteko bide guzien antolatzetik ephe batez gelditzen ezkirenez geroz, badakigu bada bertze bat izanen zela guretako, hura aurkitua dugunetik bertze hiri batean izanak bagine, bertze auzoalde batzuetan ibiliak, bertze saloin batzuetan ohituak. Bakoitza, dugu uste? ezin zenbatua da. Eta bizkitartean, tinkia da, maite duten gure begien aitzinean ezin suntsitua, biziki luzaz bertze batez ezin ordaindua. Hori da emazte horrek eztuelakotz, mirazko dei mota batzuen bidez, gutan izanara zatikatu batean ziren mila xamurtasunezko gaien sustatzea baizik egin, gero bildu dituenak, bateratu, haien arteko huts oro ezabatuz: guhaurek dugu hari bere itxura emanez jende maitatuaren gai gogor guzia hornitu. Hortik dathor, harendako milen erdian bat baizik ezpagira ere eta behar bada orotako azkena, guretako bakarra dela eta gure bizi guzia hari doakona. Eiki ere ontsa senditua nuen maitasun hori etzela beharrezkoa, ez bakarrik Stermaria-ko Anderearekin moldatua izaiten ahal zelakotz, baina hori gabe ere, zen bezala ezagutuz, bertze batzueendako izana zenaren idurikoegia berriz aurkituz, eta ere Albertine baino zabalagoa zela sendituz, inguratzen zuena, ezagutzen etzuen, arkaitz mehe baten inguruan itsasaldi bat bezala. Baina, apurka, Albertine-rekin bizitzearen bortxaz, nihaurek landuak nituen gatinetarik, enindaitekeen jalgi; sustatua etzuen sen-

dimenduari Albertine-ren personaren lotzeko ohidurak sinets-arazten zautan alta bereziki harena zela, bi gertaldien artean gogamen elgartzeko xoil bati, filosofo-talde batek dionaz, arrazoinezko lege baten halabehar lillurazkoa bademakon bezala. Uste ukana nuen ene ezagutzek, ene fortunak, oinazkatzetik libro utziko nindutela, eta behar bada sobera egiazki, horrek senditzetik, maitatzetik, asmatzetik libro uzten ninduela iduri zizatanaz geroz. Orai ohartzen nintzan bada, haren eta ene arteko urruna mugagabea egiten ahal zuenaz bete zen Guermantesko Andereaz den bezainbatean, urruntasun hori bapatean omenaz, ideiaz ekhendua ikusia ukan banu, hauendako gizarteko abantailak ezpaitira gauza gelditu eta aldagarri batzuek, ara berdinean, nahiz kontrako molde batean, ene ezagutzek, ene fortunak, ene izanarak berainbat ene aroko bizimoldeak abantailtzen ninduten ahal guziek, etzutela gibel-arazia baizik Albertine-ren borondate kontrakoarekin, ezin ematuarekin borrokatzeko ordua, hertsaldi batek ere ezpaitzuen hartan eragin ukana, oraiko gerla hauetan bezala artilleriako antolamenduek, tresnen men izigarriak ezpaitute gibelatzen baizik gizona gizonaren gainera jauzten den eta garhaipena bihotz azkarrenak duen ordua. Saint-Loup-ekin depexak, komunikabideak ordainkatuak ahal nituen dudarik gabe, Tours-ko bulegoarekin harreman jarrikietan izan ahala nintzan, baina horien igurikatzea etzena debalde izana, ondorioa ezteusa? Eta baserriko neskek, gizarteko abantailik gabe, ezagutzarik gabe, edo bizimoldeko aitzinamendu horien aitzineko gizakiek, eztutea gutiago sofritzen, ezin heldua dela beti jakina den gauza eta hortako izaiterik gabea gelditua dena gutiago gutiziatzen delakotz, eta gutiago hartaz urrikitzen? Bere buruaren emaitera doan jendea gehiago gutiziatzen da, itxaropenak jabe izaita aitzintzen du; urrikia gutiziaren sabaltzale bat da. Oihaneko irlan auhaltzera jiteko Stermaria-ko Anderearen eza da maita nezan trabatua zuena. Hori aski izanen zizatan ere haren maita-arazteko, gero ordu zeno ikusia ukan banu. Etzela jinen jakina ukan nuen bezain laster, norbait hartaz jelos izanez eta bertzetarik hura urrunduz, ehoiz enuela behar bada berriz ikusiko aieru itxuragabekoa - eta gertatua zena - gogoan, hain-

bat sofritua nuen nun guzia emanen bainuen haren ikusteko, eta eza-gunak nituen antsia handienetarik bat zuen Saint-Loup-en ethortzeak eztitua. Bada, adin batetik hara gure maitasunak, gure maiteak gure antsia haurrak dira; gure iraganak eta hetan jarria den gorputzeko zauriek dute gure ethorkizuna mugatzen. Albertine-rendako bereziki, hura nezan maita ez beharrezkoa izaitea, auzoko maitasun horiek ere gabe, harendako, erran nahi da harendako eta haren adixkidendako nuen amodioaren ixtorioan izkiribatua zen. Ezpaitzen Gilberte-rendako nuen maitasuna bezalakoa ere, baina nexka gazte andana baten artean uzitzeaz egina. Haren gatik eta hek haren iduriko zerbait bezala agertzen zizaztalakotz zela hori, izan zaitekeen.

Dena den, ontsa luzaz, guzien artean dudan egon ahal izana nintzan, ene hautua batetik bertzera zabilan, eta hau hautesten nuela uste nuenean, aski zen hunek igurikatzen utz nindezan, ene ikustea onhar etzezan, harendako maitasun hastapen bat ukan nezantzat. Aldi ainitzetan gertatu ahalko zen, Albertine-ek Balbec-era jin behar zuenean, hari atxikia nintzala ez iduri ukaiteko gezurrez prestatua baldin banuen hari erraitea: «Ondikotz! zenbait egun lehenago ethorria izan bazine bederen! Orai bertze bat maite dut, baina eztu horrek muntarik, konsolatzen ahal nauzu», Andrée-ren ikustaldia baino apur bat lehenago, Albertine-ek hitza jaten zautala, ene bihotza etzen joi-tetik gelditzen, gehiago nehoiz ikusiko enuela uste nuen, eta hura nuen maitatzen. Eta Andrée ethortzen zenean, zinez naukon erraiten (Parisen erran naukon bezala, Albertine-ek Vinteuil Andereñoa eza-gutua zuela jakina ukan nuenean) espes eta zintzotasunik gabe errana zela uste ukan zezakeena, alabaina errana izanzen zena ere 'ta hitz beretan, bezperan Albertine-rekin zorionean izana baldin banintzan: «Ondikotz, lehenago ethorri bazine, orai bertze bat maite dut.» Andrée-ren ordainez Albertine izana zen aldi hortan ere, hunek Vinteuil Andereñoa ezagutua zuela ikasia ukan nuenean, maitasuna aldizkakoa izan zen eta ondorioz, oro har, etzen aldi bat baizik izana. Baina aitzinean gertatua zen batzuetan nexketarik biekin erdi samurtua nintzala. Lehenbiziko urhatsak eginen zituenak bakea itzuliko zautan, bert-

zea nuen maitatuko samurtua gelditzen baldin bazen, horrek ezpaitu erran nahi lehenbizikoarekin nintzala alde bat adixkidantzan izanen, konsolatuko baininduen - nahiz ondoriorik gabe - bigarrenaren gogortasunetik, itzultzen ezpazen azkenena ahatziko nuen bigarrenarenetik. Gertatzen zen bada, bata edo bertzea bederen ene gana itzuliko zela segur bainintzan, bietarik batek etzuela zenbait demboraz hori egiten. Ene antsia bikuna zen beraz, eta bikuna ene maitasuna, itzuliko zenaren maitatzetik gelditzea ene gain atxikiz, baina ordu arteo bi-bien gatik sofrituz. Utzia izate batez baino gutiago dela norbaitez amoros bilakatua izaiten ahal, adin bateko zoria da hori, biziki goiz gerta daitekeena, jende hortaz azkenean gauza bat baizik ezpaita jakiten, horren itxura ilundua izanez, arima izaiterik gabe, zure hautua berri-berria eta ez argitua: gehiago ez sofritzeko behar bailizateke erran-araz dezazun: «Etxera har nindezakezua?» Albertine-ren ganik ene berextea, Françoise-ek «Albertine Andereñoa joan da» errana ukan zautanean, bertze hainbertze berexteren alegoria ontsa ahuldu bat bezala zen. Ezen ainitzetan, maitale girela aurki dezaguntzat, behar bada ere maitale bilaka gaiten, berexteko egunak ethorri behar du.

Aldi horietan, debaldeko igurikatze batek, ezezko hitz batek duenean gure hautua jartzen, oinazeak azotaturik idurimena hain laster doa bere lanera, lehia hain eroaz du maitasun doi-doi hasi bat eta molderik gabe zagona, ilabetez geroztik abiamoldean egoitera desteinatua, moldatzen, nun artetan adimenduak, bihotza ezpaitu hatzeman ahal ukan, ustegabetzen baita, egien baitu: «Baina eroa hiz, zer gogoeta berrietan bizi hiz hoin mingarriki?» Eta, alabaina, ordu hortan, ezpaldin bagira leialtasungabeaz berriz bultzatuak, bihotza gorputzean jabalduko zautzuten libertimendu on batzu aski lizatezke maitasunaren ilhorr-arazteko. Zer nahi den, Albertine-rekilako bizi hori ezpazen, bere izantzaz, beharrezkoa, baitezpadakoa bilakatua zizatan. Guermentes-ko Anderea maitatua nuenean ikharan egona nintzan neure baitan erraiten nuelakotz hark zituen erakharpeneko ahal handiegiekin, ez bakarrik edertasunean baina lerroan, aberastasunean, sobera jende ainitzena izaiteko libroegi izanen zela, haren

gainean ahal gutiegi ukanen nuela. Albertine ez aberatsa izanez, ez ezaguna, enekin ezkontzeko gutiziatua zatekeen. Eta bizkitartean enuen enetako bakarrik ukan ahala. Izan daiten ala gizarteko izanarak, ala zuhurtziako aitzinetik ikusteak, egiazki, bertze norbaiten bizian ahalik eztugu.

Zergatik etzautan errana: «Gostu horiek baditut»? Amor emanen nuen, haien satifatzera utziko nuen. Irakurria nuen elhaberri batean emazte bat bazen maite zuen gizonaren othoitz batek ere mintzatzera delibera etzezakeena. Haren irakurtzean izanara hori arrazoingabea aurkitua nuen; nik, nion, emaztea lehenik mintzatzera bortxatuko nuen, gero elgar akomeatuko ginen. Debaldeko zorigaitz horiek zertako? Baina orai banakusan guhauri horien ez emaiteko ezkirela libro eta gure borondatea ezagutzen badugu ere, bertzek eztaukotela obeditzen.

Eta bizkitartean bere menean ginituzten eta horien aldera itsu ginen egia mingarri, ezin hutsegin horiek, gure sendimenduetako egia, gure desteinuko egia, zenbat aldiz, jakin gabe, nahi gabe, erranak ginituen elhe gordin dudarik gabe gezurrezko batzuetan baina gertakariak gero bere balio profetikoa emana zauenetan! Gutarik bategen edo bertzeak erranak zituen hitz ainitzez orhoitzen nintzan bazadukaten egia orduan ezagutu gabe, erranak ginituenak ere elgarrekin komedian ari ginela ustez eta gezurra ontsa arina zutenak, ontsa guti ohargarria, guzia gure zintzotasun gabean hetsia, guk jakin gabe bazadukatenaren ondoan. Ohartzen ezkinazkon izaite barnatutik hunaindian gezurrak, hutsak, haraindian egia, hauen lege baitezpadakoak ezagutzen eztitugun eta agertzeko Aroa galdegiten duten gure jitetako egia, gure desteinuetako egia ere. Gezurra niola uste ukana nuen errana naukonean, Balbec-en: «Gehiago zitut ikusiko, are gehiago maitatuko (eta bizkitartean ordu orotako etxekotasun horrek ninduen, bekaizkeriaz, hari hainbat atxik-arazia), zure izpirituko baliagarri izan naitekeela senditzen dut»; Parisen: «Zuhur izaitera entsea zaite. Gogoan harrazu, ixtripu bat gertatzen bazizaizun enintzala konsolatuko» (eta hark: «Baina ixtripu gertatzen ahal zata»), alegia utzi nahi nuela

egina nuen arrats hartan: «Zuri so egitera utz nezazu oraino, laster gehiago ikusiko etzitutanaz geroz, eta betiko izanen denaz geroz»; eta hark, arrats hartan berean inguruan so egina zuelarik: «Gambara hau ez tuala gehiago ikusiko, liburu horiek, pianola hori, etxe hau guzia, eztezaketa sinets eta bizkitartean egia da»; eta bere azken eskutitzetan, izkiribatua zuenan (itxura guzien arabera «fazoinkerian ari nize» erranez bere baitan): «Neure hoberena uzten dautzut» (eta etzirena alabaina orai leilatasunari, ene orhoiteko indar, hek ere ahuler gomendatuak haren adimendua, onezia, edertasuna?) eta: «Ordu hau, bietan ilunabarrekoa, eguna erortzen ari zenaz geroz eta elgar uztera ginoazenez geroz, ezta ene izpiritutik ezabatuko gau osoaz hartua izanen denean» (erranaldi hau izkiribatua, alabaina, haren izpiritua gau osoak hartua ukana zuen eguneko bezperan eta, azken leinuru hain laster baina orduko antsiak mugagabeen zatikatzen dituenekoan, gure azken ibilaldia berrikusia zuen behar bada, eta den guziak uzten giten eta sineste bat sortzen dugun ephe hartan, jainkogabeak gudugunean girixtino bilakatzen diren bezala, laguntzera deitua zuen behar bada adixkide hain usu madarikatua baina hainbat errespetatua, hunek berak bazuelarik - ezen erlisione guziak elgar iduriak dira - hark ere bere buruaren ezagutzeko astia ukana zezan, bere azken gogamena eman zezon, azkenean huni kofesa zadin, eta hunen baitan hil zadin agiantzatzeko abretasuna).

Baina hori zertako, orduan bere buruaren ezagutzeko astia ukana balu ere, zoriona nun zen batak ez bertzeak gogoan hartua ezkinuenaz geroz, egin behar ukanen ginuena, zorion hori ezina zelakotz, hori gehiago egiten ahal ezkinuelakotz, ala, gauzak egiten ahal direno, gibelatzen baitira, ala ezpaitezakete erakhartzeko indar hori ukan eta egiteko errextasun ageri hori, idurimeneko huts idealera egotzirik, biziko ingurumenaren gaintitze phizutzaletik, itsuskarririk ekhenduk direnean baizik? Hilan girelako ideia hiltzea baino bortitzagoa da, baina bertze bat hila delako ideia baino gutiago, leku hortan berean zurumilo bat ere gabe, jende hori hetarik kamporatua den gauzak, norbait iretsi ondoan berriz ordokiturik, hedatzen direlako, hor ezpaita

gehiago borondaterik batere, ezagutzarik batere, eta hortik jende hori bizi izan delako ideiarda berriz igaitea neke baita, haren biziko orhoitzapen oraino berri-berritik, irakurri den elhaberri bateko jendek utzi orhoitzapenetan, goritasunik gabeko idurietan sar daitekeela gogatzea bezain neke.

Zorionean nintzan bederen hil baino lehen eskutitz bat izkibatua baitzautan, eta oroz gainetik bizi izan baliz itzuliko zela phorogutzen zautan azken depexa. Iduri zizatan etzela bakarrik goxoago, baina ederrago ere, telegrama hori gabe gertakaria etzela osatua izanen, bederen edergintzako eta halabeharreko itxura ukanen zuela. Egiazki, bertzelakoa izan baliz hori berdin-berdina ukanen zuen; gertakari oro molde berezi bat bezala baita, eta, zein ere izan dadin, zerrendari emaiten baitauzko haien moztera ethorri den eta bururatzaren dituela iduri duen egintza batzu, izan daitekeen bakarra dela uste dugun marrazki bat, ordainkatua izanen ahal zizakona ezagutzen ahal eztugulakotz.

Zergatik etzautan errana: «Gostu horiek baditut»? Amor emanen nuen, horien satifatzera utziko nuen, ordu huntan berean bersarkatuko nuen. Zer trixtezia eni zin eginez horrela gezurra errana zuela orhoitu behar ukaitea, ni utzi baino hirur egun lehenago, Albertine-ek zin egiten zautan orduan haren gorridurak aithortuak zituena Vinteuil Andereñoarekilako adixkidantza horiek nehoiz etzituela ukanak! Gaixo haurra, Vinteuil Andereñoaren eta haren adixkidearen berriz ikusteko atsegina egun hartan Verdurin-darren etxera joaiteko guran etzela jeusetan sartzen ez zin egin nahi ukaiteko onestasuna ukana zuen bederen. Zergatik etzen bere aithorraren bururano joana? Bertzela ere apur bat ene hutsa zen ere behar bada, haren ukho egitetan haustera jiten ziren ene othoiz guzien gatik, nehoiz erran nahi ukana ezpazautan: «Gostu horiek baditut.» Apur bat ene hutsa zen behar bada, Balbec-en, Cambremer-ko Andereari ene ikustaldiaren ondotik Albertine-rekin lehenbiziko argitaldia ukana nuen egunean eta André-rendako adixkidantza gartsuegi batez bertzerik zer nahi den ukan etzezakeela sinestetik hain urrun nintzanean, bizimolde ho-

riendako ene desgustua bortizkiegi erakutsia nuelakotz, molde garbi-garbiegian kondenatuak nituelakotz. Enindaitekeen orhoit horien hastioa xintxoki goratik errana ukan nuenean Albertine gorritu zenez, enindaitekeen orhoit, ezen norbaitek zer egonara ukan zuen oharririk emaiten ezkinakon ordu batez, ezkinuke bada ainitzetan jakin nahi luzaz berantago baizik, horrek, berantago, gure solasaldia berriz gogoratzen zaukunean, neke bihotz-erdiragarri bat argi lezakeelarik. Baina gure orhoitean hutsune bat bada, ezta horren hatzik. Eta ainitzetan eztauegu aski oharpen eman, orduan berean, jadanik gotorrak iduritzen ahal zizazkun gauza batzuer, eztugu erranaldi bat ontsa entzun, jestu bati ezkira ohartu, edo ere ahantzi ditugu. Eta berantago, egia baten aurkitzeaz gutizian, ondoriotzez ondoriotze, gure orhoita lekukotasunezko bilduma bat bezala orstokatuz, igaiten girenean, erranaldi hortara, jestu hortara heltzen, ezin gaitezke orhoit, bidaia bera hoge aldiz berriz hasten dugu, baina auherretan, bidea eztoa urrunago. Gorritu zena? Egin zenez eztakit, baina etzuen ez entzun ahal ukana, eta elhe horien orhoitzapenak berantago gelditua zuen, behar bada eni aithortzerakoan izana zenean. Eta orai nehon etzen, lurra buru batetik bertzera kurritu ahalko nuen Albertine aurkitu gabe; gauzak, haren gainera hetsiak izanik, berriz berdinduak ziren, osoki hondatua zen izaitearen hatzerano ezabatua zuten. Izen bat baizik etzen gehiago, ezagutua zutenek axolagabea «Ezin goxoagoa zen» zioten Charlus-ko Andere hura bezala. Baina enezakeen ephe batez baino gehiago asma Albertine-ek hetaz konzienziarik etzuen gauza hek bazirela, ezen ene adixkidea nitan sobera bizi zen, sendimenduak oro, gogoetak oro nitan haren bizira zoazen. Behar bada, jakin ukan balu, bere adixkideak etzuela ahazten ikusteaz hunkia izanen zen, orai haren bizia bururatua zenean, eta lehenago axolatu gabe utziko zuten gauza batzuekiko sendikor izanen zen. Baina nahi baiginuke trahitzetarik, diren bezain segetuzkoak izanik ere, begiratu, hainbat da maite dena hetarik begira eztadin beldur izaiten, laztatua nintzan, hilak nunbait bizi baldin badira, amatxik ene ahazpena Albertine-ek ene orhoitzapena bezain ontsa ezagutzen zuela gogatzean. Eta, oro



har, hil ber batendako ere, segur girea gauza batzu badazkiela jakitean ginukeen bozkarioak ordain lezakeela oro badazkiela gogatzeko lazta? eta, sakrifizioa den odoltsua izanik ere, ezkinezokea batzuetan hil ondoan maitatu ditugunen atxikitzeari etsi egin, adixkide bezala, juje bezala ere haien ukaiteko beldurrez?

Albertine-ek egina ahal zuenaz ene jakin-nahi bekaiztiak mugabeak ziren. Ezer ikasi etzautaten emazte zenbat erosi nuen. Jakin-nahi horiek hain bizkorrak baldin baziren, hori da jendea eztelakotz guretako berehala hiltzen, bizi itxura mota batean mainan gelditzen da, egiazko hiltzegabetik jeus eztuenean baina bizi zeneko molde berean gure gogoeten hartzen jarrikitzen dela badagienean. Bidaian bezala da. Hil-ondoko bizi azkarki pagano bat da. Kontrako aldera, maitatzetik gelditu girenean, norbaitek sustatzen dituen jakin-nahiak hiltzen dira hura bera hil baino lehen. Enuen beraz urhats bat gehiago eginen Champs-Élysées-etan arrats batez Gilberte norekin zabilan jakiteko. Sendi nuen bada jakin-nahi horiek osoki berdinak zirela, bere baitan baliorik gabe, irauteko ahalik gabe. Baina jarraikitzen nintzan jakin-nahi iragankor horier ororen sakrifikatzeko satifamendu abrean, nahiz banakien aitzinetik Albertine-rekin ene berexte bortxazkoak, haren heriotzeaz, Giberte-rekin ene berexte nahituak egina zuen axolagabe berera eremanen ninduela. Horrek zautan bereziki Aimé Balbec-era igorr-arazi, sendi bainuen lekuan berean ainitz gauza ikasiko zuela.

Albertine-ek jakin ahal ukan balu zer gertatuko zen, ene ondoan egona izanen zen. Baina behin bere burua hila ikusia ukanen zuenean, ene ondoan bizi egon nahiago ukanen zuela erraitea zen hori. Nahitez ekhartzen zuen kontra-erranaz beraz, horrelako uste bat arrazoingabea zen. Baina etzen lanjergabea, ezen zenbat Albertine, jakiten ahal balu, gibeletik ikusiz gogoan hartzen ahal balu, ene ondora itzuliz zoriotsu izanen zela asmatuz, hemen ikusten nuen, nahi nuen besarkatu, eta ondikotz ezin zen, ehoiz etzen itzuliko, hila zen.

Ene idurimenak bilatzen zuen zeruan, elgarrekin beha egonak ginazkon; maite zuen ilargixuri horren haraindian, entseatzen nintzan hartarano ene maitasunaren goititzera ez gehiago bizi izaiteko

konsolamendu bat izan zakidion, eta maitasun hori hain urrunda bilakatua zen izaite batendako erlisione bat bezala zen, ene gogoetak haren gana othoitz bat bezala igaiten ziren. Gutizia ontsa azkarra da, sinestea phizten du; uste ukana nuen Albertine etzela joanen hori gutiziatzen nuelakotz; gutiziatzen nuelakotz uste ukan nuen etzela hila; mahi itulikariez liburu batzuen irakurtzen hasi nintzan, arimaren hiltzegabea izan zaitekeela sinesten hasi. Baina etzizatan aski. Behar zen ene heriotze ondoan bere soinarekin berriz aurki nezan, betierekoa biziaren iduria baliz bezala. «Biziaren iduria» zer diot? Gehiago nahi nuen oraino. Nahi ukanen nuen alta guri heien ekhentzeko bakarra ezten herioaren bidez, atseginez beti eta betiko ez gabetua izan. Ezen hura gabe azkenean mutistuko ziren, hala izaiten hasiak ziren jadanik ohidura zaharraren, jakin-nahi berri batzuen indarraz. Gero, bizian, Albertine, soinez ere, apurka aldatuko zen, egunetik egunera aldatze hortara jarriko nintzan. Baina ene orhoitzapenak, hartaz ordu berezi batzu baizik ez gogoratuz, bizi izan baliz jadanik izanen etzen bezala berriz haren ikustea galdatzen zuen; nahi zuena mirakulu bat zen, iraganetik jalgi eztaitekeen orhoitaren muga natural eta nola nahikoak onhar zitzana. Bizkitartean izaite bizidun hori, aro zaharreko theologarien xintxotasunarekin asmatzen nuen, neure buruari eman ez bakarrik hark berak emanen hal zauztan argipenak ere baina, azken kontra-egite batez, bere bizian beti ezetsiak zauztanak. Eta horrela, haren heriotzea halako amets bat zen, ene maitasuna ustegabeko zorion bat idurituko zizakon; heriotzetik enituen atxikitzen oro xoiltzen duen, oro akomeatzen duen bururapen bateko errextasuna eta hoberrako gogo baizik.

Batzuetan gure bateratzea enuen hain urrun asmatzen, etzen bertze mundu batean. Lehenago, enuenean Gilberte Champs-Élysées-tan harekin jostatzeko baizik ezagutzen, arratsean etxean haren eskutitz bat ukanen nuela uste nuen bezala, hartan bere maitasuna aithortuko baitzautan, sartzera zoala, gutziako indar ber batek, horri kontra-eginen zaukoten gauzetako legez lehen aldian baino gehiago axolatu gabe (Gilberte-ri zoakonean, hortan, oro har, ezpaitzen hut-

sean izana azken hitza ukana zuenaz geroz), gogora-arazten zautan orai Albertine-ren hitz bat ukanen nuela, zaldizko ixtripu bat ukan zuela ikasten zautana, baina elhaberrietako arrazoin batzuen gatik (eta oro har luzaz hilak uste diren jende batzuekako batzuetan gertatu den bezala) sendatua zela ikas nezan nahi ukana etzuela eta, orai urrikiturik, betikotz enekin bizitzera jitea galdatzen zuela. Eta - biziki ontsa harr-arazten zautala zer izan daitezkeen bertzela arrazoindunak iduri duten jende batzuen erotasun ezti batzu - sendi nuen neure baiten bazirela elgarrekin hila zelako segurtasuna eta sartzen ikusiko nuelako itxaropen ethengabea.

Jadanik alta Balbec-era heldua zatekeen Aimé-ren berririk enuen oraino ukana. Ene inkesta bigarren maileko eta nola nahi hautatu gai batez zen dudarik gabe. Albertine-ren bizia zinez ogenduna izana bazen, gauza andana ontsa larriago batzu edukiak zituzkeen, halabeharrak hetaz gogatzera utzia eninduenak Albertine-ren mainuko jantzi-az eta gorritzeaz egina zuen bezala. Baina hain zuzen gauza horiek izaiterik etzuten enetako ikusten enituenaz geroz. Urteak berantago berriz moldatzera entseatzen nintzan egun horri, osoki nahi bezala naukon balio bat emana. Albertine-ek emazteak maite ukanak baldin bazituen, haren biziko mila bertze egun baziren hetan zer egina zuen enakienak eta ezagutzeko berdin ohargarriak izaiten ahal zizaztanak; Aimé Balbec-ez bertze ainitz lekuetara igorriko ahal nuen, bertze hiri ainitzetara. Baina hain zuzen egun hek, hetan zer egina zuen ezpainenakien, etziren ene idurimenean itxuratzen, hortan izaiterik etzuten. Gauzak, jendeak etziren enetako izaiten hasten ene idurimenean bizi berezi bat ukaiten zutenean baizik. Mila eta mila bertze berdin batzu baldin baziren, gaineratekoaren itxuratzale bilakatzen ziren. Aspaldidanik jakin nahi ukana banu, Albertine-ren alderako aieruez den bezainbatean, duxako zer gertatua zen, molde berean nuen, emazten gutiziez denaz, eta nahiz banakien haien balioa ukan zezaketen nexka gazte 'ta emazte gelari ainitz bazela eta halabeharrak hetaz berdin ontsa mintzatzen entzun-araziko ninduela, ezagutu nahi nituen - Saint-Loup-ek aipatuak zauzتانak hek zineraz geroz, enetako be-

reziki bazirenak - emategietara zoen nexka gaztea eta Putbus Ande-  
rearen emazte gelaria. Ene osagarriak, delibero eskasak, ene «gerora  
uzteak» Saint-Loup-en zion bezala, zer nahiren egiteko emaiten zi-  
tuzten nekek, egunetik egunera, ilabetetik ilabetera, urtetik urtera gi-  
bel-arazia zautaten aieru batzuen argitzea, gutizia batzuen asetzearena  
bezala. Baina neure orhoitean naduzkan egiazki zer ziren ezagutzearen  
ez ahaztea neure buruari hitzemanetz, bakarrik hek gogo-hertsatzen  
nindutelakotz (bertzek ene begietan itxurarik etzutenaz geroz, etzire-  
naz geroz), eta ere gauzen artean hautatuak zituen halabeharrak berak  
hitzemaiten baitzautan hek nituela bada hunkiko, gauzetako egia, bizi  
gutiziatu eta egiazko apur batekin. Eta gero, gauza ttipi bakar bat  
etzakoa entseu egileari aski mila eta mila gauza berdinez egia ezagun-  
araziko duen lege orotako batez delibero hartzeko? Albertine-ek izai-  
terik ukan etzezakeen ene orhoitean, bizian zehar jarraikian agertua  
zizatan bezala, aro zati batzu bezala baizik, ene gogamenak, haren  
baitan batasuna berriz ezarriz, hartaz berriz norbait egiten zuen, eta  
norbait hortaz nuen orotako jujamendu bat ekharri nahi, gezurra er-  
rana zuenez jakin, emazteak maite zituenez, haiekin libroki ibiltzeko  
ninduenez utzia. Duxa emaileak erranen zuenak behar bada Alber-  
tine-ren bizimoldez ene dudak betikotz hausten ahalko zituen.

Ene dudak! Ondikotz, uste ukana nuen Albertine-ren ez ikus-  
tea orobat izanen zizatala, gozagarri ere, haren joaitek ene hutsa agerr-  
arazia ukan zautan arteo. Berdin ere haren heriotzeak ikasia zautan  
zenbat hutsean nintzan batzuetan haren heriotzea agintzatzen nuela  
uste ukanez eta enetako liberatze bat izanen zela. Ene zorionak, ene  
biziak behar zuten Albertine bertuteduna izan zadin, hala zela behin  
betiko deliberatua zuten. Sineste begiratzale hori gogoan, ene izpiri-  
tua utz nezakeen lanjerrik gabe molde bat emaiten zauen baina sines-  
ten etzituen aieru batzuekin trixteki jostatzen. Banion neure baitan:  
«Emazteak maite ditu behar bada», «Gaur hil naiteke» erraiten den  
bezala; hori erraiten da, baina ez sinesten, langai batzu egiten dira  
biharamuneko. Albertine-ek emazteak maite zituenez ala ez zuzen-  
kontra dudan nintzala uste bainuen, eta beraz Albertine-ren egintza

ogendun batek ainitzetan asmatua nuenik jeus etzautala ekharriko, horrek du argitzen nola, Aimé-ren eskutitzak gogoratzen zauztan idurien, bertze batzuek baliorik gabeak zirenen aitzinean, ustegabe-ko oinaze bat senditu ahal ukan dutan, oraino senditua nuen bortitzena, eta iduri horiekin, Albertine beraren iduriarekin ondikotzl, halako gogortze bat - kimian erraiten den bezala - moldatu zuena, hartan oro ezin zatitua zena eta Aimé-ren idazkiak, molde osoki ohitu batean berexen dutanak, haren ideia ezpaitezake batere eman, egiten duen hitz bakoitza berehala moldez aldatua zenaz geroz, sustatu berria zuen oinazeaz betikotz margoztatua.

«Jauna,

«Jaunak barkatu nahiko dauta bada ezpadaukot Jaunari lehenago izkiribatu. Jaunak ikusteaz kargatua ninduen anderea bi egundako joana zen eta, Jaunak nitan ezarria zuen konfienxiari ihardetsi nahiz, enuen eskuak hutsik itzuli nahi. Mintzatu niz azkenean (A. And.<sup>ñoaz</sup>) (\*) biziki ontsa orhoitzen den anderearekin.

Hark dionaz Jaunak uste zuena osoki segurra da. Lehenik hark zuen Albertine A.<sup>ñoa</sup> arhatzen hau mainuetara jiten zen aldi bakoitz. A. A.<sup>ñoa</sup> biziki usu jiten zen duxaren hartzera emazte handi hura baino adinekoago batekin, beti beltzuriz jantzia, eta duxa emailleak haren izena jakin gabe ezagutzen zuena ainitzetan nexka gazte bilatzen ikusia ukanik. Baina (A. And.<sup>ñoa</sup>) ezagutzen zuenaz geroz etzen gehiago bertzez axolatzen. Hura eta A.<sup>ñoa</sup> kabinan beti elgarrekin hesten ziren, biziki luzaz egoiten, eta beltzurizko andereak beti hamar libera eskupeko uzten zaukon harekin mintzatu nizan jendeari. Jende horrek erran dautan bezala, ontsa gogutzen duzu perla khordatzen baizik ari izan ezpalire etzutela hamar libera eskupeko emanen. A. A.<sup>ñoa</sup> emazte larru beltz-beltz batekin jiten zen batzuetan, esku-luneta batzu bazituena. Baina gehienetan (A. A.<sup>ñoa</sup>) nexka bera baino gazteago batzuekin jiten zen, oroz gagnetik bat ile gorri-gorria. Beltzurizko anderea salbu, A. A.<sup>ñoak</sup> ohian ekhartzen zituen jendeak etziren Balbec-ekoak eta aski urrundik heldu zatezkeen ere. Etziren ehoiz elgarrekin sartzen, baina A. A.<sup>ñoa</sup> sartzen zen, kabinako athea idekirik utz nezan erraiten zautan, andere adixkide bat igurikatzen zuela, eta

harekin mintzatu nizan jendeak bazakien horrek zer erran nahi zuen. Jende horrek eztauta bertze xehetasunik eman ahal ukan ez biziki ont-sa orhoituz «aski onhargarri den gauza hain luzaz geroztik». Bertzela ere jende horrek etzuen jakitea bilatzen, biziki begiratua delakotz eta haren abantaila zelakotz A. A.<sup>ñoak</sup> ederki irabaz-arazten baitzaukon. Zintzo-zintzoki hunkia izana da hila zela jakiteaz. Egia da hoin gaz-terik zorigaitz handi bat dela harendako eta etxekoendako. Jaunaren manuen igurikan nago Balbec uzten ahal dutanez jakiteko ezpaituzte han gehiagokorik ikasiko dutala. Jauna oraino eskertzen dut Jauna horrela eman-arazi dautan bidaia ttipiaz eta biziki goragarri izana zatanaz are gehiago nun aroa ezin gehiago aldekoa baita. Sasoina urte huntako ont-sa iragartzen da. Uda huntan Jauna ageritaldi ttipi baten egitera jinen dela itxarotzen da.

Eztut Jaunari bertze jeus ohargarririk erraiteko ikusten», eta b.

(\*) Aimé-k, jakitate hastapen bat baitzuen, nahi zuen «A. A.<sup>ñoa</sup>» italiketan ezarri edo gakotxen artean. Baina gakotxak ezarri nahi zituenean parenthesis bat marratzen zuen, eta zerbait parenthesisen artean ezarri nahi zuenean gakotxen artean ezartzen.

Hitz horiek nitan nolako barnatasunean sartzen ziren hartzeko, orhoitu behar da Albertine-z nihauri egiten nituen galdeak etzirela galde gaineragarri batzu, orobatekoak, xehetasunezko galde batzu, hilak ez-tiren jende guzien aldera egiten ginituen bakarrak egiazki, horrek bide egitera uzten baikitu, gogamen ezin zilatu batekin, oinazearen, gezurraren, bizioaren eta herioaren erdian. Ez, Albertine-rendako izantzako galde bat zen: bere baitan zer zen? Gogoan zer zuen? Zer zuen maite? Gezurra erraiten zautana? Harekilako ene bizia Odette-rekin Zuanena bezain deitoragarria zena? Aimé-ren ihardesteak hunkitzen zituenak beraz, nahiz etzen ihardeste orotako bat, baina berezi bat - eta horren gatik hain zuzen - Albertine-ren baitan, ene baitan, barnatasunak ziren bada.

Ikusten nuen azkenean ene aitzinean, karrika ttipitik beltzurizko anderearekin duxara Albertine-ren ethortze hortan, beldur

nintzan baino gutiago mixteriozkoa, gutiago laztagarria iduritzen etzizatan iragan hartako zati bat, Albertine-ren orhoitzapenean, soan nuelarik asmatzen. Dudarik gabe, nitaz bertze orok ezteusak aurkitu ahal ukanen zituen ere haren ganik ezezta-arazteko, Albertine orai hila zenaz geroz, ezinean izaiteak halako itxura baten balioa emaiten zauen xehetasun horiek. Badu itxura ere Albertine-rendako, egiak izanak balire ere, aithortuak ukan balitu, berak egin hutsak (konzienziak ogengabeak aurkituak ukan lezazkon ala kondenagarriak, atseginkoi izaiteak ezin goxoagoak ala aski gezak) hartarik berexten enituen hastioko iduripen ezin erran hura gabe izanen zirela. Nihaurek, emazten aldera nuen amodioa lagun eta nahiz Albertine-rendako etzaitzkeen gauza bera izanak, sendi zuena apur bat asma nezakeen. Eta eiki oinaze hastapen bat zen jadanik neure baitan haren itxuratzea hain usu gutiziatua nuen bezala gutiziatzen, hain usu gezur errana naukon bezala eni gezur erraiten, holako eta halako nexka gazteaz axolatu, harendako gastu egiten, nik Stermaria-ko Anderearendako bezala, bertze hainbertzerendako, baserrian aurkitzen nituen laborarisen-dako. Bai, ene gutizia guziek laguntzen ninduten hein batean gogoan harenen hartzen; hartan gutizia guziak, biziagoak izanik, pairamen are gehiago bortitzetara aldatuak izaitea oinaze handi bat zen jadanik, sendikortasuneko aljebra hortan gehigailu berarekin berragertzen balire bezala, baina gehitzeko seinalearen orde gutitzekoarekin. Baina Albertine-rendako, nihaurek juja nezakeen bezainbatean, haren hutsak, eni haien gordetzeko zein nahikaria ukana bazuen ere - horrek bere burua ogendun zadukala edo eni pena egin beldur zelako aierua eman-arazten baitzautan - , gutizia bere nahitara jokutzen den idurimeneko argi betean prestatuak zituelakotz, gainerateko biziaren mota bereko gauza batzu iduritzen zizazkon hala ere, bere buruari ezesteko kuraia ukana etzuen atsegin batzu, eni hek gordez nitarik baztertea bilatua zuen bihotzmin batzu enetako, baina biziko bertze atsegin eta bihotzminen erdian itxuratuak izan zaitezkeen atsegin eta bihotzminak. Baina nik, kampotik, aitzinetik jakin ukan gabe, iduriak moldatu ahal ukan ere gabe, Aimé-ren eskutitzetik zizaztan jinak Albertine-ren iduri horiek duxara heltzen eta eskupekoaren prestatzen. Hala ere orai

gehiago maite nuen; urrun zen; hemen izaiteak, egia bakarra, gogoan dena, gutarik baztertuz, oinazeak ezitzen ditu, eta hemen ez izaiteak phizten, maitasunarekin batean.

Emazte beltzurizkoarekin Albertine-ren ethortze ixil eta deliberatu hortan hitzartuak zirela irakurtzen nuelakotz, duxetako gabinet batera amodio egitera jiteko hitzarmen horrek, gogo usteldurako jakintza bat, bizi bikun oso bateko ontolamendu ontsa gordea entzun-aratzen baitzituen, iduri horiek Albertine ogendun zelako berri izigarria ekhartzen zautatelakotz, zautaten dudarik gabe berehala hartarik ehoiz berexiko etziren gorputzeko min bat emana. Baina ordu berean oinazeak horietan ihardukia zuen; den bezalako gertakari bat, iduri bat, ezta berdina izaiten da haren hartzean dugun barneko izanararen arau. Eta oinazea gauzen aldatzale bat da mozkorra bezain azkarra. Iduri horiekin nahasirik, oinazeak berehala eginak zituen bertze nor nahirendako beltzurizko andere bat, eskupeko bat, duxa bat, beltzurizko anderearekin Albertine-ren ethortze deliberatua gertatu zen karrika izaiten ahal direnetik zerbait osoki ezperdin: ehoiz asmatua enuen bezalako bizi gezur et hutsez egin baterako itzuraldia. Ene bihotzminak bere gaien berean gaiztuak zituen berehala, enituen lurreko ikuskizunak agertzen dituen argian ikusten, bertze mundu bateko zatia zen, borobil ezezagun eta madarikatu batekoa, Ifernuko itxura bat. Ifernua Balbec hura guzia zen, handik, Aimé-ren esku-titzak zionaz, duxara zeramatzan nexka gaztenak jin-arazten zituen inguruneko herri hek guziak. Behin Balbec-eko herrialdean asmatua nuen mixterio hura eta han bizi izana nintzanean ezeztatua zena, gero Albertine-ren ezagutzean berriz aurkituko nuela uste ukana nuena, ondartzaren iragaiten ikusten nuenean, bertuteduna izan etzadin gutiziatzeko aski eroa nintzanean, hark itxuratu behar zuela gogatzten nuelakotz, nola orai Balbec hunkitzen zuen guzia laztagarriki hartaz betetzen zen! Udaleku horien izenek, Apollonville..., hain etxekotuek, hain sosegatzalek, arratsean Verdurin-darren etxetik itzultzean entzuten nituenean, orai Albertine batean bizi izana zela gogoan bainuen, bertze baterano ibilia, heren batera bi errotakoan usu joan ahal izana,



nitan antsia bat sustatzen zuten lehen aldian baino bortitzagoa, orduan lekuko burdinbide ttipitik hainbat nahasmenekin ikusten nituenean, amatxirekin, oraino ezagutzen enuen Balbec-era heldu baino lehen.

Bekaizkeriaren indarretarik bat da guri kampoko gauzetako egiaren agerr-araztea eta arimako sendimenduak mila aieruetara bademan zerbait ezezagun dira. Gauzak zuzenean badazkigula uste dugu, eta jendek zer gogutzen duten, hetaz axolatzen ezkirelako arrazoin xoilaren gatik. Baina jakiteko gutizia badugun orduko, bekaiztiak duen bezala, hartan gehiago ezer berexen ez tugun margo-alda gailu burxoragarri bat da izaiten. Albertine-ek trompatua ninduena, norekin, zein etxetan, zein egunez, horrelako gauza errana zuenean, egun hartan hau edo hori errana nuela orhoitzen nintzanean? batere enakien. Enakien gehiago enetako zituen sendimenduak zer ziren, abantail-nahiak emanak zirenez, maitasunak. Eta bapatez orhoitzen nintzan holako gertakari ezteus batez, behazunez Albertine-ek Saint-Martin-le-Vêtu-ra joan nahi ukana zuela, izen hori ohargarri zizakola erranez, eta behar bada han zen laborarisa zenbaiten ezagutza egina zuelakotz bakarrik. Baina Aimé-k duxa hartzaleaz hori ikasia zautala jeus etzen, Albertine-ek ikasia zautala betikotz jakinen etzuenaz geroz, jakiteko beharra beti gainditua baitzen, Albertine-rendako nuen maitasunean, banakiela hari erakusteko beharraz; ezen horrek gutartean lilluramen ezperdin batzuen berexkuntza eror-arazten zuen, etzuelarik aldiz ondoriotzat ehoiz ukana haren ganik gehiago maita-arazia izan nindadin. Huna bada hila zenaz geroztik, behar horietan bigarrena lehenbizikoaren eraginarekin urtua zela: ikasia nuena jakin-arazi nahi ukanen naukon solasaldiaren itxuratzea neure baitan, enakiena galdeginen naukon solasaldia bezainbat bizitasunekin; erran nahi da haren ikustea, ene ondoan, oneziarekin eni ihardesten entzutea, haren matelen ikustea berriz loditzen ari, begien ikustea maltzurtasunaren galtzen eta trixtezian jartzen, erran nahi da oraino haren maitatzea eta ene bekaizkeria eroaren ahaztea ene bakartasuneko etsipenean. Ikasia nuenaren hari jakin-arazteko eta aurkitu berria (eta hila zelakotz

baizik aurkitua ahal enuena behar bada) baizik enueneko egian gure adixkidantzaren jartzeko ezin horrek bere trixteziak ordainkatzen zuen haren eginarako mixterio mingarriagoa. Zer? duxen salako ixtorioa ikasia nuela Albertine-ek jakin zezan hainbat nahi ukaitea! Hori, herioaz arrazoinkatu behar dugunean, biziaz bertze zerbaiten itxuratze-zeko dugun ezin horren ondorioetarik bat zen oraino. Albertine jeus etzen gehiago; baina enetako, Balbec-en emazte batzuekin hitzartze batzu bazituela gordea zautan jendea zen, eni horren ez jakin-araztera heldua zela uste zuena. Guharen heriotzetik landa gertatuko denaz arrazoinkatzen girenean, eztea oraino ordu hartan gu biziduna huts eginez aitzinera bademaguna? Eta oro har ainitzez irrieginarriago dea gehiago jeus ezten emazte batek duela sei urte zer egiten zuen ikasi dugula ez jakin ukaiteaz urrikitzea, guhauri doakonaz, hilak izanen girenaz, jendea mende baten buruan oraino abantailekin mintza dadin gutiziatzea baino? Bigarrean lehenbizikoan baino egiazko arrazoin gehiago baldin bada, ene bekaizkeria gibeletikakoaren urrikiak etziren hala ere bertze gizonetan hilondoko ospe baten gutizia den ikuspegiko huts beraren ondorioa baizik. Bizkitartean Albertine-ren ganik ene berextean handizki behin betikoa zenaren iduripen hori, ordu batez huts horien ideiarik ordainkatu izana baldin bazen, etzuen huts horien larritzea baizik egiten horier itxura ezin erremediatu bat eman. Ikusten nintzan bizian galdua bakarrik nindagon ondartz mugarik gabeko batean bezala eta, zein aldetara joan nindadin ere, hura nehoiz aurkituko enuenean.

Zorionez ene orhoitean aurkitu nuen ezin hobeki - baita beti gauza mota orotarik, batzu lanjeros, bertzeak salbagarri, orhoitzapenak banaka baizik argitzen etziren nahas-mahas hortan - , langileak egin nahi dueneko baliatuko ahal den gauza bat badagien bezala, amatxiren elhe bat. Duxa emaileak Villeparisis-ko Andereari errana zaukon ixtorio itxuragabeko batez errana zautan: «Gezurteko eritasuna dukeen emazte bat dateke.» Orhoitzapen hori sokorri handi bat izan zizatan. Duxa emaileak Aimé-ri errana zaukonak zer helburu ukan zezakeen? Are gehiago nun oro har jeus ezpaitzuen ikusi. Duxa

hartzera adixkide batzuekin ethor daiteke hortako gaitza gogoan ukan gabe. Behar bada, espantu egiteko, duxa emaileak eskupekoa handiegitzen zukeen. Entzuna nuen bada aldi batez Françoise erraiten ene izabak haren aitzinean «bazuela miliun bat ilabetean xahutzeko» errana zuela, erokeria bat zena; bertze aldi batez ikusia zuela Léonie izaba Eulalie-ri mila liberako laur billeten emaiten, berrogei-ta hamar liberako billet bat lauretan plegatua jadanik itxura gutikoa iduritzen zizatalarik. Eta horrela bilatzen nuen, eta apurka heldu nintzan, nihauri emaiten hainbat neke ukana nuen segurtasun mingarriaren baztertzeaz, jakiteko gutziaren eta sofritzeko beldurraren artean bimbilikatua bainintzan. Orduan ene xamurtasuna berriz sortu ahal zen, baina berehala, xamurtasun horrekin, Albertine-ren ganik berexia izaiteko trixtezia, orduan behar bada bekaizkeriaz oinazkatua nintzan azken orenetan ere baino dohakabeago bainintzan. Baina bekaizkeria berriz bapatez sortu zen Balbec-ez gogatzean, arratsean Balbec-eko jateko salaren iduri berriz ikusiaren gatik (ordurano nehoiz oinazka-arazia eninduen eta ene orhoiteko gutienik kaltegarrienerarik bat iduritzen zizatana ere), berinaldearen bertze aldetik, jendetze harekin guziarekin, itzalean metatua urtegi bateko berinalde argizatuaren aitzinean bezala, jende bitxier beha argian ibilki, baina elgarri arinki hunkiarazten zituela (nehoiz enuen hori gogoan ukana) bere jende multzo andanan, arraintzarisak eta jende xeheko neskak aberaskeria (berria Balbec-en) hortaz jelos ziren burjestsak ttipiekin, fortunak ezpada, bederen zizoizkeriak eta ohidurak haien gurasoer debekatzen zaueten aberaskeria; haien artean segurki abantzu arrats oroz Albertine han zen burjestsak ttipiak, ezpainuen oraino ezagutzen eta dudarik gabe hor nexkaño zenbait abia-arazten baitzuen, zenbait minuta berantago gauan batzen zuena, ondartzan, edo kabina utzi batean, itsas-etzpondako zolan. Gero ene tristezia zen berriz sortzen, herritik haizatua izaitera kondenatze bat bezala entzun berria nuen, ene estaian gelditzeko orde, goiti zoan igaitekoaren harrabotsa. Alta haren ikustaldia agiantzatu ahalko nuen jende bakarra etzen ehoiz jinen, hila zen. Eta hori izanik ere, igaitekoa ene estaian gelditzen zenean ene bihotzak

joiten zuen, ephe batez banion: «Hala ere hori guzia amets bat baizik ezpaliz! Hura da behar bada, joren du, itzultzen da, Françoise sartuko da haserre baino lazta gehiagorekin, mendekari ere baino gehiago sinespera baita, eta behar bada arima herratu batendako hartuko duenaren baino gutiago baita bizidunaren beldur izanen, eni erraitera: «Nehoz eztu Jaunak hor nor den asmatuko.»

Gogoan deusen ez ukaitera entzeatzen nintzan, egunkari baten hartzera. Baina egiazko oinazerik senditzen etzuten jende batzuek idatzi artikulu horien irakurtzea ezin jasana zizatan. Kantu ezteus batez batek bazion: «Nigar egingarri da» nik hainbat aleganziarekin entzuna ukanen nuenean Albertine bizi izan baliz. Bertze batek, idazle handia alta, treinatik jaustean oihuztatua izana zelakotz bazion lekukotasun ezin ahatzi batzu ukanak zituela hor, nik aldiz, orai ukanak baldin banitu, enituelarik ephe batez ere gogoan ukanen. Eta heren batek segurtatzen zuen politika nardagarria gabe Parisko bizia «osoki ezin goxoagoa» lizatekeela, banakielarik bada politikarik gabe ere bizi hori laztagarria baizik izan etzaitkeela, eta ezin goxoago iduriko zizatala, Albertine berraurkitua ukan banu. Ihiziko gazetariak bazion (lorailean ginen): «Urtaro hau zinez mingarria da, hobeki derragun, gaizkorra, egiazko ihiztariarendako, tirokatzeko jeus ezpaita, osoki jeus»; eta «Saloineko» gazetariak: «Erakustaldi baten antolatzeke molde horren aitzinean gaitzeko etsipen batez hartua senditzen da, mugagabeko trixtezia batez...» Sendi nuenean indarrak gezurrezkoak eta hits agerr-arazten baldin bazauztan egiazko zorionik edo zorigaitzik etzutenen hitzak, aldiz, den bezain urrun izanik ere, ala Normandiari, ala Nizari, ala ur-sendabidetako etxer, ala Berma-ri, ala Guermantes-ko prinzesari, ala maitasunari, ala hemen ez izaiteari, ala leialtasun gabeziari lotzen ahal ziren lerro ezteusenek bapatez ezartzen zuten berriz ene aitzinean, nihaurek aldaratzeko astirik ere ukan gabe, Albertine-ren itxura, eta berriz nigarrera emaiten nintzan. Bertzela ere, ohian, egunkari horiek enezazkeen irakur ere, ezen idekitzeko jestuak berak orhoit-arazten zautan aldi berean Albertine bizi zelarik berdinak egiten nituela, eta etzela gehiago bizi; berriz erortzera

uzten nuen bururano zabaltzeko indarrrik ukan gabe. Iduripen bakoitzak iduripen berdin bat gogoratzen zuen baina zauritua Albertine-ren bizia ekhendua zizakolakotz, hala nola nun ezpainuen ene bihotzean min zuten minuta horien bururano bizitzeko kuraiarik. Apurka apurka ene gogoan bizi izaitetik eta ene bihotzean botere osoaren ukaitetik gelditu zenean ere, bapatez oinazkatua nintzan behar baldin bazen, hor zen demboran bezala, haren gambaran sartu, argia bilatu, piano-laren ondoan jarri. Etxeko jainko ttipi batzuetan banakatua, luzaz bizi izan zen ezkargiko garrean, atheko botoinean, kadera baten bizkarrean, eta bertze eremu gutiago gauzazkoetan, hala nola logabeko gau batean edo gustatua zizatan emazte baten ikustaldiak bazematan bihotz-pilpiran. Hori izanik ere, egun batean ene begiek irakurtzen zuten erranaldi gutiak edo ene gogoan irakurriak zituela orhoitzen zenak nitan usu phizten zuen bekaizkeria bortitz bat. Hortako gutiago zuten eni emazten moralgabetasunaz arrazoin baliagarri baten emaiteko beharra, Albertine-ren izaiteari lotua zen iduripen zahar baten itzultzekoa baino. Orduan hartaz gogatzeko ohidurak indarra oraino enetako mutistua etzuen ordu ahatzi batera, eta Albertine oraino bizi zenera eremanak, haren hutsek hartzen zuten orai zerbait auzokoago, hertsakorrago, laztagarriago. Nihauri galdez nindagon orduan duxa emaiaren agerpenak gezurra zirela segur zenez. Egiaren jakiteko molde on bat Nizara Aimé-ren igortzea izanen zen, Bontemps Anderearen bazterretzeko auzoan egun zenbaiten iragaitera. Albertine-ek maite baldin bazituen emazte batek emaztekin hartzen dituen atseginak, hetaz ez luzazago gabetua izaiteko utzia baldin baninduen, entseatua zatekeen, libro izan bezain laster, hetara emaitera eta ongi heltzera, ezagutzen zuen herrialde batean eta hara erretiratzea hautatua ukanen etzuenen han ene etxean baino errextasun gehiago ukanen zuela uste ukana ezpalu. Ohigabekorik deus etzen dudarik gabe Albertine-ren heriotzeak ene goganbeharrak hain guti aldatuak ukaitean. Gure maitea bizi denean, maitasuna deritzoguna moldatzen duten gogoetetako zati handi bat hura gure ondoan ezten orenetan jiten zaiku. Hartzen da horrela ametseriako gaitzat hor ezten norbaiten ukaiteko ohidura,

eta, oren zenbait baizik hala egoiten ezpada ere, oren horietan orhoitzapen bat baizik eztenaren. Eztu beraz heriotzeak gauza handirik aldatzen.

Aimé itzuli zenean, galdegin naukon Nizara abia zadin, eta horrela ez bakarrik ene gogoetarik, ene tristeziatarik, izaite berezi bati, hain urrun izan zadin, lotua zen izen batek bazematan bihotz-hunkiduratik, baina oraino ene egintzetarik, egiten ari nintzan inkestetarik, ene diruaz (oso-osoa Albertine-ren egintzen ezagutzera destinatua) banagien erabiltzetik, erran dezaket urte hortan guzian ene bizia izan zela maitasun batez, egiazko adixkidantza batez betea. Eta horien gaia zena hil bat zen. Badiote batzuetan izaite batetik zerbait gelditzen ahal dela hura hil eta, jende hura edergile bat baldin bazen eta beretik apur bat bere lanean ezarri bazuen. Molde berean da behar bada izaite bati hartu aldaxka mota bat, bertze baten bihotzean xertaturik, bizitzen jarraikitzen hartarik moztua zen izaitea suntsitua denean ere.

Aimé joan zen Bontemps Anderearen bazterretzeko ondoan egoitera; emazte gerlari baten ezagutza egin zuen, eta usu Albertine eguneko karrosa baten hartzeko haren etxera zoan karrosa alokari batena. Jende horiek etziren jeusi ohartuak. Bigarren eskutitz batean, Aimé-k erraiten zautan hiriko xuritzale ttipi baten ganik ikasia zuela Albertine-ek bazuela hari besoaren tinkatzeko molde berezi bat oihalaria ekhartzen zaukonean. «Baina, zion, andereño hark behin ere etzaukon bertze gauzarik egin ukana.» Aimé-ri igorri naukon bidaiia ordaintzen zaukon dirua, bere eskutitzaz egin berria zautan gaitza ordaitzen zuena, eta bizkitartean horren sendatzeko indar egin nuen gutizia biziaturik batere phorogutzen etzuen lusengaldi bat zela hor erranez neure baitan, noiz ere ukan bainuen Aimé-ren telegrama bat: «Gauza ohargarrienak ikasi. Jaunarendako berri andana ikasi. Eskutitza ondotik.» Biharamunean eskutitz bat ethorri zen haren estalgia aski izan baitzen ene ikhara-arazteko; Aimé-rena zela ezagutua nuen, jende bakoitzak, den lañoenak ere, bere meneko baititu izaite ttipi hek, aldi berean bizidunak eta halako kukuldura batean paperrean etzanak, bera bakarrik jabe den izkiribuko hizkiak.

«Lehenik xuritzale ttipiak eztauta jeusik erran nahi ukan, segurtatzen zuen Albertine A<sup>ñoak</sup> etzaukola nehoiz besoaren ximikatzea baizik egina. Baina mintza-arazteko auhaltzera ereman dut, edan-ara-zi dut. Orduan erran dauta Albertine A<sup>ñoak</sup> usu aurkitzen zuela itsas-bazterrean, mainatzera zoanean; Albertine A<sup>ñoak</sup>, goiz-goizik jeikitzeo ohidura baitzuen mainatzera joaiteko, bazuela itsas-bazterrean haren aurkitzeo ohidura, zuhatzak hain tinki direnean nun nehork ezpaitzake ikus, eta bertzela ere ikus dezakeenik nehor ezta oren hartan. Gero xuritzaleak ekhartzen zituen bere adixkide ttipiak eta mainatzen ziren, eta gero, biziki bero baita han jadanik eta zuhatzen azpian ere azkarki joiten baitu, belarrean egoiten ziren idortzen, elgar pherekatzen, gilikatzen, jostatzen. Xuritzale ttipiak aithortu daut biziki maite zuela bete adixkideñoekin jostatzea, eta ikusiz Albertine A<sup>ñoa</sup> bere mainuko jantzian beti hari thorratzen ari, ekhen-arazten zaukon eta mihiaz pherekuak egiten lepho eta beso sahetsean, Albertine A<sup>ñoak</sup> eskaintzen zauzkon oinen zolan ere. Xuritzalea buluzten zen ere, eta urera elgar bultzatzen jostatzen ziren; arrats hartan eztauta jeus gehiagorik erran. Baina zure manuer osoki emana eta zuri atsegin emaiteko zer nahi egin nahiz, enekin etzatera ereman dut xuritzaleñoa. Galdegin daut nahi nuenez egin zezatan Albertine Añoari egiten zaukona hunek bere mainuko jantzia ekhentzen zuenean. Eta erran daut: (Ikusi bazinu nola higitzen zen andereño hura, eta erraiten zauten: (Ha! xora-arazten naun) eta hainbaterano zen zainetan nun ezpaitzaitkeen egon eni ausiki egin gabe.) Hatza ikusi dut oraino xuritzaleñoaren besoan. Eta Albertine A<sup>ñoaren</sup> atsegina gogoan hartzen dut nexkaño hura zinez trebe-trebea baita.»

Ontsa oinazkatua izan nintzan Balbec-en Albertine-ek Vin-teuil Andereñoarendako zuen adixkidantza erran zautanean. Baina ene konsolatzeko Albertine han zen. Gero, Albertine-ren egintzen jakitea gehiegi bilatua ukanik, ene etxetik haren joan-araztera heldua izan nintzanean, Françoise-ek etzela gehiago hor iragarria ukan zautanean eta bakarrik gertatua izan nintzalarik, gehiago oinazkatua izana nintzan. Baina bederen, maitatua nuen Albertine hura ene bihotzean zagon. Orai, haren lekuan aurkitzen nuena - heriotzeak, uste ukana

nuenaren kontra, bururatua etzuen jakin-nahi bat urrunegi eremana ukanik ene gaztigatzeko - nexka gazte bertzelako bat zen, gezurrak eta enganioak ainizten zituena bertzeak hain eztiki segurtatua ninduelarik, aldixartzerano, iguzki jeikitzean, Loire-ko bazterrean aurkitzen zuen xuritzale ttipi haren ausikitzerano, hari «Xora-arazten naun» erraiten baitzaukon, hetaz gozatzeraz joana zen atsegin hek ehoiz ezagunak etzituela zin eginez; bertzelako Albertine bat, ez bakarrik bertze batzuez ari denean «bertzelako» hitza entzuten dugun erran-nahian. Charlus-ko Jauna trixte zenean ere, horrelako hitz batzu erraiten ginituen bada. Baina nahiz gogo izanara berean, ezkinen konsolatzen ahal. Bihotzmina berekoa baita, eta ezpaitezake erremediorik ukan hunkitzen eztuenetik baizik; Charlus-ko Jaunaren griña emazte batek eman-arazia izan baliz ere, enetik berdin urrun izanen zen, Albertinerek eman-arazia izanen etzenaz geroz. Bertzeak uste ukana dugunetik ezperdinak baldin badira, ezperdintasun horrek ezpaigitu barnatuki hunkitzen, eta asmuaren zalantzariak ezpaitezake kampa igor barnera egina duen mugimenduaren berdin bat baizik, eztezazkegu ezperdintasun horiek ezar bere baitako gune azaleko batzuetan baizik. Lehenago, emazte batek emazteak maite zituela ikasten nuenean, etzizatan hortako bertzelako emazte bat iduritzen. Baina maite den emazte batez denean, hori izan daitekeela gogatzean senditzen den oinazearen baztertzeko, bilatu nahi da ez bakarrik zer egina duen, baina egitean zer zuen senditzen, egiten zuenaz zer ideia zuen; orduan, gero eta aitzinago jautsiz, oinazearen barnatasunetik mixteriora heltzen da, izantzara. Neure barne-barnerano oinazkatua nintzan, soinerano, bihotzerano, biziaren galtzeko beldurrak oinazkatua ukanen ninduen baino ontsa gehiago, ene adimenduko eta gogo gordeko indar guziek laguntzen zuten jakin-nahi hartaz; eta horrela Albertine-ren barnatasunetara beretara nuen orai hartaz ikasten nuen guzia igortzen. Eta Albertine-ren biziko egiak neure baitan, hain barnatuki, horrela sarrarazia zuen oinazeak eman zautan ontsa berantago azken zerbitzu bat. Amaxiri egina naukon mina bezala, Albertine-ek egina zautana haren eta ene arteko azken lotura bat izan zen, eta orhoitzapenaren ondotik ere iraun zuena, ezen, gorputzekoa den guziak baduen gemeneko be-



giramenduarekin, oinazeak eztu orhoitzapeneko erakaspenen beharrik ere: horrela oihanetan ilargixuritara iragan gau ederrak ahatziak dituen batek, pairatzen du oraino han hartu dituen errumatisimez.

Ezetsiak zituen eta bazituen gustu horiek, horien aurkintza nitarano jina zen gustu horiek, ez arrazoinamendu hotz batean, baina «Xora-arazten naun» hitz hauen irakurtzean senditu oinaze erretzelean, nolatasunezko berezitasun bat emaiten zauen oinazea, gustu horiek etziren bakarrik Albertine-ren iduriari gaineratzen bere ondotik herrestatzen duen maskurra itsas-etxetiarrari gaineratzen zaukon bezala, baina izaitekotz bertze gatz batekin emaiten den gatz bat bezala, haren margoa aldatzen duena, ontsa gehiago, halako gogortze batez, haren natura. Xuritzale ttipiak bere adixkide ttipier errana ukan zukeenean: «Azma ezazue, enuen sinetsiko, he bada, andereñoa halako bat da ere», etzen bakarrik enetako berek uste ukana etzuten bizio bat Albertine-ri emaiten zaukotena. Baina bertze norbait zela aurkitzea, hek bezalako norbait, hizkuntza bera mintzo zuena, horrek, bertze batzuen herkidea eginez, arrotzagoa oraino egiten baitzautan, phorogutzen zuen hartaz banakiena, bihotzean banekharrena, etzela haren zati ttipi-ttipi bat baizik, eta gaineratekoa, hainbat hedamen hartzen zuena, ez bakarrik gauza jadanik hoin mixterioski handi hori izaiteaz, norbaiten gutizia berezi bat, baina hark bertze batzuekin elgarrena ukaiteaz, gordea zautala, hartarik baztertua atxikia ninduela, herri etsai eta espiun batekoa zela gordea ukanen zautan emazte batek bezala, espiuntsa batek ere baino ontsa trahidorekiago, hunek ezpaitu bere herritartasunean baizik huts egiten, Albertine-ek bere gizatasun barnatuenean zuelarik egiten, orotako gizaldekua ez izaitean, baina harekin nahasten den, hartan gordetzen den, baina nehoiz urtzen ezten arraza bitxi batekoa. Ikusiak nituen hain zuzen emazte buluzi batzu eskualde tustatsu batean baziren Elstir-en bi margazki. Batean, nexka gaztetarik batek oina goititzen du Albertine-ek egiten zukeen bezala xuritzaleari eskaintzen zaukonean. Bertzeaz arinki urera bultzatzen du alaike ihardokitzen duen bertze nexka gaztea, izterra goiti, oina ur urdinean doi-doia bustitzen. Orhoitzen nintzan orai izterraren goititzeak bazegiela belhauneko pleguarekin Albertine-ren izterraren

erortzeak ene ondoan ohean zelarik bazegien beltxarga lepho baten itzul-inguru bera, eta ainitzetan erran nahi ukana naukon margazki horiek orhoit-arazten zauztala. Baina enuen egina haren baitan emazte gorputz buluzi batzuen iduriaren ez atzartzeko. Orai xuritzalearen eta haren adixkiden ondoan ikusten nuen, Balbec-en Albertine-ren adixkiden erdian jarria nintzalarik hainbat maitatua nuen multxoaren bermoldatzen. Eta edertasunari bakarrik sendikor zen maitale bat izana banintz, onhartuko nuen Albertine-ek mila aldiz ederrago bermoldatzen zuela, orai egiten zutenak jainkosa gizaiduri buluziak zirenaz geroz zizelkari handiek Versailles-en oihan ttipietan banakatzen, edo, aitziretan, uhainaren pherekuer garbitzera eta leuntzera emaiten zituzten bezalakoak. Orai, xuritzalearen ondoan, ikusten nuen itsas-bazterrean enetako Balbec-en izana zen baino ontsa gehiago nexka gazte: harbizizko emazte batzuen buluztasun bikunean, tusten, landaren erdian eta itsasoko zizeldura aphas batzu bezala urean busitzen. Ene ohe gainean zenaz orhoitzean, uste nuen banakusala haren izter makotua, banakusan, beltxarga lepho bat zen, bertze nexka gaztearen ahoa bilatzen zuen. Orduan enuen izter bat ikusten ere, baina beltxarga baten lepho ausarta, ederlan entseu ikharatu batean atsegin emeko pilpiraldi berezian ikusten den Leda baten ahoa bilatzen duena bezalako, beltxarga bat baizik ezstelakotz, hark bakar-tuagoa iduri duelakotz, telefonan erran-moldea hari esker den bezala entzuten den begitarte batetik berezia ezteno ontsa hautemaiten ezten mintzo baten doinuak aurkitzen diren bezala. Lan hortan atsegina, sustatzen duen emaztera eta hor eztenera, beltxarga hil iduri batez ordaindua denera joaiteko orde, senditzen duen emaztean biltzen da. Epheka ene bihotzaren eta orhoitaren arteko komunikabidea moztua zen. Albertine-ek xuritzalearekin egina zuena etzizatan gehiago ezer itxuratzen etzautaten laburdura abantzu aljebraiko batzuez baizik seinalatua; baina orenean ehun aldiz lotura moztua berriz ezarria zen eta ene bihotza urrikirik gabe ifernuko zu batez erre, Albertine ikusten nuelarik, ene bekaizkeriaz berphiztua, zinez bizi, «Xora-arazten naun» erraiten zaukon xuritzale ttipiaren pherekuen azpian gogortzen.

Hutsa egiten zuen orduan bizi baitzen, erran nahi da nihaur

ere han aurkitzen nintzan orduan, huts horren jakitea etzizatan aski, banakiela jakin zezan nahiko nuen. Beraz, ordu horietan ehoiz ikusiko enuela gogatzean urriki baldin banuen, urriki horrek bazuen ene bekaizkeriaren marka eta, maite nuen orduetako urriki erdiragarritik osoki bertzelakoa, etzen hari hitz hauen ez erran ahal ukaiteko urriki baizik: «Uste huen ni utzi ondoan zer egina dunan ehoiz eninala jakinen, he bada, guzia badakinat, Loire bazterreko Xuritzale ttipiari «Xora-arazten naun» erraiten haukon, ausikia ikusia dinat.» Banion dudarik gabe neure baitan: «Zertako behar dut oinazkatu. Xuritzalearekin atsegina ukan duena deus ezta gehiago, etzen beraz haren egintzek bere balioa atxikitzen duten norbait. Eztu badakitala bere baitan erraiten. Baina ez ere eztakitala, jeus erraiten eztuenaz geroz.» Baina arrazoinamendu horrek gutiago zautan hori sinets-arazten senditua zuen ordura eremaiten ninduen haren atseginak baino. Sendi dugunak du bakarrik izaitea guretako eta iraganera igortzen dugu, ethorkizunera, guhaur herioko heskailu alegiazkoek gelditua izaitea utzi gabe. Hila zelako ene urrikiak ordu horietan jasaiten baldin bazuen ene bekaizkeriaren eragina eta molde hain berezi bat hartzen bazuen, eragin hori naturalki hedatu zen gutiziatzen nuenaren egitera entseatzeko indar bat baizik etziren izaite gordetan sineskeriako, eta hiltzegabeko ene ametsetara. Beraz, ordu horietan, mahi bat itzuli-ka-araziz haren jin-araztera heldu ahal izan banintz, egin zaitekeela Bergotte-ek uste zuen bezala, ala bertze bizian haren aurkitzera, X... aphezak uste zuen bezala, enuen hori agiantzatuko hari erraiteko baizik: «Xuritzalearendako badakinat. Erraiten huen: «Xora-arazten naun»; ausikia ikusi dinat.»

Xuritzalearen iduriaren kontra ene laguntzera ethorri zena, iduri hori bera izan zen - eiki apur bat irauna ukan zuenean - , berri dena baizik eztugulakotz zinez ezagutzen, gure sendikortasunean ohargarri zaikun doinu aldakuntza bat sartzen duena, ohidurak hartan bere kopia hitsak oraino ordainkatuak eztituena. Baina zati ainitzetan, ainitz Albertine-etan Albertine-ren zatikatze hori zen oroz gainetik nitan haren bizitzeko molde bakarra izan. Ordu batzu itzuli

ziren hetan ona, edo adimenduna, edo seriosa, edo ere indar-jokoak oro baino gehiago maite zituen baizik izana etzenak. Eta zatikatze horrek jabal nindezan, etzena orenen buruan zuzen? Ezen hortan egiazko gauzarik etzen, agertua zizatan orenen molde jarraikiari lotua baldin bazen, ene orhoitarena gelditzen zen moldea ene mirazko lanternaren argi-igortzetako makurdura berinetako markurdurari lotua zen bezala, etzuen bere moldean egia bat itxuratzen, hori zinez den bezalako, gutarik bakoitza eztela bat, baina jende ainitz badaduzkala orok moraleko balio bera eztutena, eta, Albertine biziaria bizi izana baliz, horrek etzuela bertze batzu izanak zirela debeketzen: gambaran enekin Saint-Simon-ez solastatzea maite zuena; berexi behar ginuela erran naukon arratsean hain trixteki erran zuena: «Pianola hau, gambara hau, hori guzia nehoiz eztutala berriz ikusiko gogoan ukaitea», eta, ene gezurak azkenean emana zautan bihotz-hunkidura ikusia ukan zuenean, urriki zintzo batekin egin zuena: «Ho! ez, zuri bihotz-min emaita baino lehen zer nahi, entzuna da, eztut berriz zure ikustea bilatuko.» Orduan enintzan gehiago bakarrik izan; senditu nuen berexen ginduen artesi hura erortzen. Albertine on hura itzulia zenaz geroz, aurkitua nuen berriz Albertine-ek emaiten zautan oinazen erremedioa galdatzen ahal naukon jende bakarra. Segurki nahi naukon beti xuritzalearen ixtorioaz mintzatu, baina etzen gehiago garhainen bortitz baten aran eta banakiela gaixtoki hari erakusteko. Albertine bizi izana baliz egin ukanen nuen bezala, galdegin naukon xamurki zuritzalearen ixtoria egia zenez. Ezet zint egin zautan, Aimé etzela biziki egiatia eta, emana naukon dirua ontsa irabazia zuela iduri ukan nahiz, etzuela ophor eginik itzuli nahi ukana eta xuritzaleari berak nahi zuena erran-arazia zaukola. Dudarik gabe Albertine etzen gezur erraitetik gelditua. Alta, haren kontra-erranen goraldi eta beheraldian, egin nuen aitzinamendu zerbait izana zela senditzen nuen. Hastapeanean bete segetuzko hitzetan etzautala gezurrik errana ere (behar bada nahigabeko batzu, egia da, ihes egiten duen erranaldi batean), enuen hortaz zint eginen; enintzan gehiago orhoit. Eta gero bazituen gauza batzuen deitzeko molde hain bitxiak, nun horrek erran-nahi

hori ukan ala ez ukan baitzezakeen. Baina ene bekaizkeriaz ukana zuen sendimenduak eremana zuen gero hastiorekin lehenik errexki aithortua zuenaren ukhatzera. Gainera Albertine-ek etzuen eni horren erraiteko beharrik ere. Haren ogengabetasunean sinetsia ukaiteko, aski zizaten haren besarkatzea, eta enezakeen egin berexтен ginduen artesia orai eroria zenaz geroz, bi maitalen artean nahasmendu baten ondotik jartzen dena bezala ezin hunkia eta ihardukitzalea, eta haren kontra musuak hauts laitezkeena. Ez, etzuen eni jeusen erraiteko beharrik. Nahi zuena egina ukan zezan, gaixo haurrak, baziren sendimendu batzu, hetan, berexтен ginduenaren gainetik, bateratzen ahal baiginen. Ixtorioa egia bazen, eta bere gostuak gordeak baldin bazauztan, eni bihotzminik ez emaiteko zen. Albertine horri gauza horren erraiten entzuteko eztitasuna ukan nuen. Gainera bertze bat ehoiz ezagutua nuena? Bertze norbaitekilako harremanetan huts egiteko bi arrazoin handienak: norbera bihotzoneko izaitea, eta bertze norbait haren maitatzea. Irriño batean, behako batean, soingain baten ikustean maitatzen da. Aski da; orduan, itxaropeneko edo trixteziako oren luzetan, jende bat moldatzen da, nortasun bat egiten. Eta berantago jende maitatuarekin ibiltzen denean, zein gauza gaixtoen aitzinean emanak izan gaiten ere, nortasun on hori, maite gituen emazte baten jite hori etzazko horrelako soa, horrelako soingaina dituen jendeari ekhertzen ahal, zahartzen denean gaztarotik ezagutzen dugun norbaiti egiten ahal dauzkogun baino gehiago. Gogoratzen nituen Albertine-ren so eder on eta urrikalkorra, matela lodiak, lepho pikor zabalekilakoa. Hil baten itxura zen, baina hil hura bizi baitzen, errex izan zizatan ene ondoan bizirik izan baliz huts egin gabe eginen nuenaren berehala egitea (eginen nuena bertze bizi batean ehoiz berraurkitu behar baldin banu), barkatu naukon.

Albertine-ren ondoan iraganak nituen orduak hain baliosak zizaztan nun nahi ukanen bainuen bat ez ihes egitera utzi. Batzuetan bada, fortuna xahutu bateko phuxka batzu berriz hatzemaiten diren bezala, batzu hatzemaiten nituen galduak iduri zutenak: aitzinean egiteko orde giblean lephoko oiha baten estekatzean, behin ere go-

goan ukana enuen ibilaldi batez orhoitu nintzan, hartan, aire hotza ene zintzurrera jin etzadin, Albertine-rek ni besarkatu eta molde hortan antolatua baitzautan. Ibilaldi hain laño horrek, jestu hain xume batez orhoitera ekharriak, eman zautan hil maitatu batenak izanak diren gauza berezi batzuen atsegina, emazte gambarazain zahar batek ekhartzen dauzkigunean hainbat balio baitute guretako; ene bihotzmina hortaz aberastua gertatzen zen, are gehiago nun lephoko oihal hori ehoiz ezpainuen gogoan berriz ukana. Geroa bezala, ezta oro batean, baina bihika bihika da iragana jastatzen.

Bertzela ere ene bihotzminak hainbat molde hartzen zuen nun ezpainuen gehiago ezagutzen; maitasun handi baten ukaitea agiantzatzen nuen, ene ondoan biziko zen norbait bilatu nahi nuen, hori Albertine gehiago maite enuelako seinalea iduritzen zizatan, beti maite nuelakoa zelarik; ezen maitasun handi baten senditzeko behar hori, Albertine-ren matela lodien besarkatzeko gutizia bezainbat, etzen ene urrikiaren zati bat baizik. Eta azkenean zoriontsu nintzan emazte berri batez amoros ez erortzeaz; ohartzen nintzan maitasun luzatu hori Albertine-rendako ukana nuen sedimenduaren itzala bezala zela, horren zati guziak berremaiten zituela eta heriotik haraindira itxuratzen zuen sendimenduko egiaren lege berer obeditzen zauela. Ezen ontsa sendi nuen, Albertine-z nituen gogoetetan arteka bat ezartzen ahal baldin banuen, gehiegi ezarri ukan banu enuela gehiago maite ukanen; hauste hortaz orobat bilakatua izanen zizatan, orai amatxi zizatan bezala. Hura gogoan ukan gabe gehiegi dembora iragaiteak ene orhoitean hautsia ukanen zuen biziaren erroa bera den jarraipena, aro arte baten ondolik berriz hatzeman daitekeena bizkitartean. Etzena Albertine-rendako nuen maitasunaz bizi zenean horrela izana, luzaz hura gogoan ukan gabe egon ondoan berriz lotu ahal izana baitzen? Ene orhoitak bada lege berer obeditzen zukeen, etzituzkeen arte luzeago batzu jasaiten ahal, ezpaitzuen, ipharreko argi haste batek bezala, Albertine hil eta, harendako ukana nuen sendimendua leinurutzen baizik; ene maitasunaren itzala bezala zen. Ahatzia ukanen nuen orduan nuen maitasunik gabe bizitzea zuhurrago, zoriontsuago aurkituko

ahal. Horrela Albertine-ren urrikiak, horrek zuelakotz nitan sorr-arazten arreba baten beharra, ezin asegarria egiten zuen. Eta Albertine-ez nuen urrikia ahulduko zen arau, arreba baten beharra, urriki horren molde ohargabeko bat baizik ezpaitzen, gutiago azkarra bilakatuko zen. Eta bizkitartean ene maitasunaren bi ondar horiek etzuten bere beherapenean urhats berdin lasterra ukan. Oren batzu baziren hetan ezkontzera deliberatua bainintzan, hainbat zuen lehenbizikoak itzalaldi barnatu bat jasaiten, bigarrenak aldiz indar handi bat bazatxikalarik. Baina, berantago ene orhoitzapen bekaiztiak iraungiak izanik, bapatez Albertine-rendako xamurtasun bat ene bihotzera batzuetan berriz igaiten baitzen, eta orduan, bertze emazte batzuek ukanen nituen maitasunak gogoan, banion neure baitan hark adituak ukanen zituela, hetan barne izanzen zela, eta haren bizioa maitasuneko arrazoin bat bezala bilakatzen zen. Aldi batzuek ene bekaizkeria berriz sortzen zen Albertine-ez orhoitzen enintzan ordu batzuetan, nahiz orduan hartaz nintzan bekaizti. Uste nuen Andrée-ez nintzala haren maitaldi bat ikasi baitzautaten ordu hartan. Baina Andrée etzen enetako artekari bat baizik, junta-bide bat baizik, Albertine-ri zeharka lotzen ninduen hargune bat. Horrela da ametsetan bertze aurpegi bat emaiten, bertze izen bat, haren egiazko nortasunean alta hutsik egiten ezten norbaiti. Oro har, orotako lege horri kontra-egiten zaukoten goraldi eta beheraldiak izanik ere, Albertine-ek utziak zauzta sendimenduek hiltzen haien arrazoin lehenaren orhoitzapenak baino neke gehiago ukan zuten oraino; ez bakarrik sendimenduek, baina sendipenek ere. Hortan Zuanetik bertzelakoa, Odette-ren ez gehiago maitatzen hasia izan zenean ezpaitzuen hark bere baitan maitasuneko sendipenaren berregiten jakin ukana ere, sendi nintzan oraino bertze baten ixtorioa baizik etzen iragan baten bizitzen ari; ene nia zerbait moldez erdizkatua zen, gaineko aldea jadanik gogor eta hoztua zenean, phindar batek kurant zaharra hartan berriz iragan-arazten zuen aldi oroz zola sutan zuen oraino, ene gogo aspaldidanik Albertine-ren asmatzetik gelditua izan zenean ere. Eta haren iduri batek ere ezpaitzuen laguntzen hura ordainkatzen zuten pilpira gaixtoak,

Balbec-en sagarrondo jadanik gorraxtetan bezala ufatzen zuen haize hotz batek ene begietara nigarrak ekhartzen zituen, nihauri galdez nindagon hea ene oinazearen berphiztea etenez osoki eritasunezko arrazoin batzuen ondorioa eta orhoitzapen baten bizitze berriarentzat eta maitasun baten azken alditzat hartzen nuena, etenez izaitekotz bihotzeko eritasun baten hastapena.

Badira gaitz batzuetan eria eritasunarekin berarekin nahastera sobera ekharria izaiten den bigarren maileko gertaldi batzu. Gelditzen direnean, ustegabetua da sendatetik uste ukana zuen baino gutiago urrundua izaiteaz. Horrelakoa izana zen Aimé-ren eskutitzek eman oinazea - «gaizkitzea» - duxetako etxea eta xuritzaleak hunkitzen zituenaz. Baina ikusia ukanen ninduen arimako mediku batek aurkituko zuen, gaineratekoan, ene bihotzmina bera hobetzen ari zela. Nitán dudarik gabe, gizon bat bainintzan, aldi berean iraganean eta oraiko gauzetan murgilduak diren izaite ur-airetan bizitzale hetarik bat, beti kontra-egin bat bazen Albertine-ren orhoitzapen biziaren eta haren heriotzeaz nuen jakitearen artean. Baina kontra-egin hori zerbait moldez lehenago zenaren kontrakoa zen. Albertine hila zelako ideiak, lehen aldietan hain eroki bizi zelako ideiarenean joitera heldu zizatan ideiak nun haren aitzinean itzuri egitera bortxatua bainintzan haurrak uhainaren ethortzean bezala, haren heriotzeko ideia horrek, ethengabeko jaukitaldi horien beren gatik, nitán hartua zuen azkenean haren biziko ideiak oraino berriki bazadukan lekua. Nihaur ohartu gabe, orai Albertine-ren heriotzeko ideia horrek zuen - ez gehiago haren biziko orhoitzapen biziak -, zati gehienez, ene ohargabeko ametserien zola egiten, hala nola nun bapatez mozten baldin banituen nihauz gogatzeko, horrek ustegabetzen baininduen, etzen lehenbiziko egunetan bezala Albertine nitán hain bizi lurrean ez gehiago bizi ahal izaitea, hila izaitea, baina Albertine, lurrean gehiago izaiterik etzuen, hila zena, nitán hain bizirik gelditua izaitea. Bata bertzeari jarraitzen diren orhoitzapenen hurbil-hurbiltasunak landua, hari guardi emaiteko ere ene gogamena aspaldiegitik haren azpian ametserian zagon tunel beltza, bapatez arte iguzkitu batez ethentzen zen, urrunean le-



riatuz han Albertine gehiago orhoitzapen orobateko eta biziki goxagari bat baizik etzen mundu irriñodun urdin bat. Hori dea, nion neure baitan, egiazkoa dena, ala hain aspaldidanik nindoan ilunbean, egiazko bakarra iduritzen zizatan hura? Duela hain guti oraino izana nintzana eta Albertine gau on erraitera eta besarkatzera jinen zizakon orduaren betiereko igurikan baizik bizi etzena, nihauren halako ainizte batek jende hori agerr-arazten zautan neure zati ttipi bat baizik gehiago ezpaliz bezala, erdi larruturik izana, eta zabaltzen ari den lore batek bezala sendi nuen orstokatze bateko hoxtura gaztetzalea. Gainera argitaldi labur horiek etzautaten behar bada hobeki baizik Albertine-rendako nuen maitasuna gogoan harr-arazten, ideia iraunkorregi guzietako gertatzen den bezala, kontrako bat behar baitute agertzeko. 1870-eko gerlan bizi izan direnek, behazunez, diote gerlaren ideia azkenean naturala iduritua zizeela, ez gerla etzutelakotz aski gogoan, baina beti gogoan zutelakotz. Eta gerla gauza zenbat bitxi eta gotor bat den hartzeko, behar zen, zerbaitek bere betiereko gogo-hersturatik baztertzen baitzituen, gerla ari zela ephe batez ahatz zezaten, bakea zenean ziren bezalakoak izan zaiten berriz, ordu bateko une zuri hortan bapatez ager zadin arteo, azkenean argi eta garbi, hartaz bertze gauzarik etzutelakotz ikusten aspaldidanik haren ikustetik geldituak ziren egia izigarria.

Albertine-ren orhoitzapenen gibelatze hori neure baitan egi-na izan baliz bederen, ez mailka, baina betan, berdin, belharrez, ene orhoiteko eremu osoan, haren tradimenduen ohoitzapenak urrun-zen zirela haren eztitasunaren aldi berean, ahazpenak bakea ekharriko zautan. Etzen horrela. Itsasaldia ezperdinki jausten den ondartz batean bezala, ene aieruetarik baten ausikiaz jazartua nintzan haren hemen izaute ezτικο iduria jadanik nitarik urrunegi joana zenean eni bere sendagailuaren ekhartzeko.

Tradimenduen gatik oinazkaturik izana nintzan, zein urte urrunean gertatu izanak baziren ere, etzirelakotz enetako zaharrak; baina gutiago pairatzen nuen hala bilakatu zirenean, erran nahi da bizitasun gutiagorekin itxuratzen nituenean, gauza baten urrun-

tasuna behatzen duen orhoitaren ikusteko indarrari arautua baita iragan egunen egiazko urruntasunari baino lehen, hala nola azken gaiko amets batez orhoitzea duela urteak gertatu den zerbait haino urrunagoa iduritzen ahal baitzaiku, bere argitasun eskasean eta itsabasian. Baina, nahiz Albertine-ren heriotzeko ideiak aitzinamendu batzu egiten zituen nitan, bizi zelako sendipenaren gibelatzeak, gelditzen ezpazituen, kontra-egiten zauen bizkitartean eta berdinduak izan zaiten debekatzeko. Eta ohartzen niz orai aldi hartan (dudarik gabe ene etxean preso egona zen orenen ahazte horren gatik eta, nitan abantzu orobat iduritzen zizaztan hutsen oinazea ezabatu bortxaz etzituela egiten banakielakotz, ogengabetasuneko bertze hainbertze phorogantza bilakatuak baitziren), ukan nuela Albertine hila zelakoa bezain ideia berri batekin (ordu arteo bizi zelako ideiatik abiatzen nintzan) ohiki bizitzeko martirioa, berdin ezin jasangarria zela uste ukana nuen ideia batekin eta, nihaur ohartu gabe, apurka ene konzienziaren zola egiten baitzuen, Albertine ogengabea zelako ideiarekin orde hartan jartzen ari zenarekin: ogendun zelako ideiarekin. Hartaz dudatzen nuela uste nuenan, aldiz hartan sinesten nuen; berdin ere ene bertze ideien abiagunetzat hartu nuen hura ogendun zelako segurtasuna - kontrako ideia izana zen bezala usu gezurtatua -, oraino dudatzen nuela uste nuen batean. Aldi hartan ainitz sofritu nukeen, baina ohartzen niz hala izan behar zela. Ezta oinaze batetik sendatzen betean senditzen bada baizik. Albertine ezagutza orotarik gerizatur, ogengabe zelako lillura asmatuz, berantago ene arrazoinamenduen oinarriztat bizi zelako gogamena hartuz bezain ontsa, enuen sendatzeko ordua gibelatzen baizik, oinaze beharrezkoetako oren luzeak, aitzinekoak izan behar zutelarik, gibelatzen nituelakotz. Bada Albertine-ren ogenduntasuneko ideia horietan, ohidurak, bere lana eginen zuenean, ene bizian zehar jadanik sendituak nituen lege beren araura eginen zuen. Guermantes izenak igebelar xuriez bazterkatu bide bateko eta Gilberte Gaixtoaren berinaldeko xoragarria eta erran-nahia galduak zituen bezala, Albertine-ren han izaiteak itsasoko bixkarkadura urdina, Zuanen, igangailu-mutilaren, Guermantes-ko prinzesaren eta bertze hainbertzeren izenek enetako erran nahi ukana zuten guzia, xo-

ragarritasun eta erran-nahi horiek nitan uzten baitzuten bera bakarrik bizitzeko aski handia aurkitzen zuten hitz xoil bat, berdin ere, lanean bere zerbitzariaren ezartzera dathorren norbaitek behar dena ikasiko daukon eta zenbait aste berantago erretirutzen den bezala, Albertine-ren ogenduntasuneko ideia mingarria ohiduraz nitarik kampo igorria izanen zen. Bertzela ere hemendik hara, bi aldetarik betan egin jaukitze batean bezala, ohiduraren egintza hortan bi ideiek elgar lagunduko zuten. Albertine-ren ogenduntasuneko ideia hori enetako ideia itxura gehiagokoa, ohituagoa bilakatuko zelakotz zen gutiago mingarri eginen. Baina bertze aldetik, gutiago mingarri zelakotz, ogenduntasun horren segurtasunari egin kontra-arrazoinak eta ene adimenduari ez gehiago oinazkaia izaiteko gutiziak eman-araziak etzizazkonak bederazka eroriko ziren; eta egintza bakoitzak bertzea lehia-araziz, aski laster iraganen nintzan Albertine-ren ogengabetasuneko segurtasunetik haren ogenduntasunekora. Albertine hila zelako ideiarekin bizi izan behar nuen, haren hutsen ideiarekin, huts horiek ohikoak bilaka zizantzat, erran nahi da ideia horiek ahatz nitzan eta azkenean Albertine bera ahatz nezan.

Enintzan oraino hortan. Aldi batez ene orhoitak, adimenduko sustatze batek argiagotua - behazunez irakurtzen ari banintzan -, zautan bihotzmina berritzen; bertze batzuetan aldiz ene bihotzminak, behazunez aro ortzitsu bateko antsiak atzarririk, zuen gorago, argira hurbilago eremaiten ene maitasuneko orhoitzapen bat.

Bertzela ere Albertine hilarendako ene maitasunaren berphizte horiek gerta zaitezkeen bertze jakin-nahi batzu bazituen orobateko arte luze baten ondotik, Balbec-en ez onhartu musutik landa hasia zen arte luzearen eta hartan Guermantes-ko Andereaz, Andrée-ez, Stermaria-ko Andereaz ontsa gehiago axolatua nintzanaren ondotik, berriz usu haren ikusten hasi nintzanean berphiztu zen bezala. Bada, orai ere, bertze axola batzuek berexete bat egin zezaketen - hil baten ganik aldi huntan - Albertine orobatekoago bilakatzen zizatana. Hori guzia arrazoin beraren gatik, enetako bizi zelakotz. Eta berantago ere, gutiago maite nuelarik, laster hetaz akhitzen den gutizietarik bat gelditu zen alta hori enetako, baina zenbait demboraz geldirik utziak

izan direnean berriz hasten direnetarik. Bizi baten ondotik nindoan, gero bertze baten, gero ene hilera itzultzen nintzan. Ainitzetan nihauren zati ilunenetan, Albertine-ren ideia garbirik gehiago molda enezakeelarik, zizatan izen bat halabeharrez ezinak zirela uste nuen ihardokitze mingarri batzuen sustatzera jiten, hala nola burumunek gehiago gogatzten eztaueten hil-urranetan eta orratz bat sartuz alderdi bat gogorr-arazten zeenetan. Eta arte luze batzuez, sustatze horiek hain bekan zizaztan gertatzen nun nihaur bainintzen griña baten, bekaiztaldi baten ukaiteko aldiaren bilatzera jiten, iraganari lotua izaitera entseatzeko, hartaz hobeki orhoitzera. Ezen, emazte batendako urrikia ezpaita berphizten ari den maitasun bat baizik eta hunen lege beren menean gelditzen baita, ene urrikiaren indarra handitua zen Albertine bizi zenean harendako nuen maitasuna handituko zuten arrazoin berez, eta haien lehen lerroan bekaizkeria eta bihotzmina beti izanak zirenez. Baina gehienetan gertaldi horiek - eritasun batek, gerla batek iraun baitezakete zuhurtzia zuhurrenak uste ukana zuen baino ontsa haratago - nik jakin gabe sortzen ziren eta ukhaldi hain bortitzak emaiten zauztaten nun oinazearen kontra ene gerizatzea bainuen gogoan haier orhoitzapen baten galdegitea baino ontsa gehiago.

Bertzela ere hitz batek, hala nola Chaumont, etzuen aieru bati lotua izaitte beharrik ere haren atzartzeko, eta bi hitz ezperdinen silaba ber bat aski zizakon ere ene orhoitari, hala nola den gutieneko kurant remaile bat aski duen eletrikari bat, Albertine-ren eta ene bihotzaren artean berriz loturaren jartzeko, haren ikusteaz aseak izaitetz gehiago hartaz axolatzen ezkinen, zinez gehiago haren jabe ezkinen iraganeko athea erdi idekitzen duen iragan hitza izaiteko, Sésame mirazkoa; hartaz gutituak izanak ginen, uste ukana ginuen mozte hortaz guhauren nortasuna moldez aldatua zela, izkin batekin alderdi bat galduko luen itxura bat bezala; Albertine han gertatua ahal zen karrika baten izena, bide batena bazadukaten erranaldi batzu, behazunez, aski ziren bekaizkeria gertagai, izaiterik gabeko baten egiteko, gorputz baten, egoitza baten, gauzazko geldigune zenbaiten, egintza berezi zenbaiten bila ibilki.

Ainitzetan xoil-xoilki lo nindagolarik gertatzen zen, orhoitzeko orrialde andana bat aldi bakar itzultzen duten ametseko «berriz haste», *da capo* horien bidez, egutegiko orsto andana batek ninduela eremaiten, iduripen mingarri baina zahartu batera gibel-arazten, bere lekua aspaldidanik bertze batzuer utzia zauenera eta berriz oraikoa bilakatzen zenera. Ohiki ager-joko moldegaitz baina ohargarri batez guziaz lagundua zen, horrek, lilluramendu emanez, begien azpian ezartzen baitzautan, beharrietan entzun-arazten hemendik goiti gau hartakoa zena. Bertzela ere, maitasun baten eta ahazpenaren kontra haren guduen ixtorioan, ametsak ez ote daduka leku bat atzarraldia-rena ere baino handiagoa, aroko zatikatze ezin ttipiagoak eztituelarik khondutan hartzen, iraganbideak mozten dituelarik, kontra-egin handiak ezartzen, egunaz hain emeki josi lan konsolagarria ephe batez barreatzen, eta, gauaz, ikusten ezpaginu bederen azkenean ahatziko ginuenarekin aurkintza bat guri antolatzen? Ezen, errana erran, ametsean ukaiten ahal dugu beteginki han gertatzen dena egiazkoa delako iduripena. Hori elizateke ezin egina atzarriko gure ezagutzatik hartu arrazoin batzuen gatik baizik, ordu hartan gordea zaikun ezagutza, hala nola nun itxurarik gabeko bizi hori egiazkoa iduritzen baitzaiku. Batzuetan, barneko argiaren eskas batez, hunek, biziatura, jokoari huts egin-arazten baitzaukon, ene orhoitzapen agerian ontsa ezarriek biziaren iduripena emaiten baitzautaten, zinez uste nuen Albertine-ri hitzarraldi bat emana naukola, berraurkituko nuela; baina orduan haren gana joaiteko ahalik gabe sendi nintzan, erran nahi nauzkon hitzen emaiteko, haren ikusteko iraungia zen zuziaren berriz phizteko: ene ametsean xoilki loegilearen geldirik egoitea, mututasuna, itsutasuna ziren ezinak, bapatez mirazko lanternan gordea izan behar zuen itzal handi bat ikusten denean bezala, jenden itxura igorriaren ezabatzen, lanternaren beraren itzala baita, edo haren erabiltzalearena. Bertze aldi batzuez Albertine ene ametsean gertatzen zen, eta berriz ere utzi nahi ninduen, haren deliberoa ene hunkitzera heldu ahal izan gabe. Hori da ene orhoitetik loaren ilunbean arrai abisatzale bat jalgi ahal izana baitzen, eta Albertine-ren baitan haren geroko egintzer, iragart-

zen zuen joaiteari balio oro ekhentzen zauen gauza, hila zelako ideia zen. Baina aintzetan oraino argiago ere, Albertine hila zelako orhoitzapen hori bizi zelako ideiarekin batzen zen hau aurdiki gabe. Harekin solastatzen nintzan, eta mintzo nintzalarik amatxi gambarako zokoan bazabilan hara eta hunara. Haren bidar zati bat phorroskan eroria zen harbizi higatu bat bezala, baina enuen hortan ezer ohigabekorik aurkitzen. Erraiten naukon Albertine-ri galde batzu banituela hari egiteko Balbec-eko duxe eta Touraine-ko xuritzale batez, baina hori berantagoko uzten nuen dembora guziaz baginuenaz eta lehia-turik jeus etzenaz geroz. Gaizkirik deus egiten etzuela hitzemaiten zautan eta bezperan Vinteuil Andereñoaren ezpainetan musu emana zuela bakarrik. «Nola? hemen da? - Ba, utz zindezatan ordu da ere, sarri haren ikustera joan behar baitut.» Eta Albertine hila zenaz geroztik ezpainadukan etxean preso bizi zen azken demboretan bezala, Vinteuil Andereñoari haren ikustaldiak khexarazten ninduen. Enuen hori ikustera utzi nahi. Albertine-ek erraiten zautan musu emaita baizik etzaukola egina, baina gezur erraiten berriz hasia zatekeen oro ukhatzen zuenean bezala. Sarri etzukeen Vinteuil Andereñoaren besarkatzea aski ukanen. Dudarik gabe khexu izaitean ogendun nintzan alde batetik, hilek, omen, ezer sendi, ezer egin eztezaketenaz geroz. Omen, baina horrek etzuen debekatzen hila zen amatxik urtez geroz bizitzen jarraikitzen zuela, eta orai gambaran hara eta hunara zabilala. Eta segurki, iratzarria nintzanean, hil bat bizitzen jarraikitzen delako ideia hori argitzeko den bezain gogoan hartzeko ezina bilakatu behar izanen zizatan. Baina hainbat aldiz moldatua nuen jadanik, gure ametsak diren erokeria iragankorrezko aldietan, nun harekin etxekotua bainintzan azkenean; ametsetako orhoita iraunkor bilaka daiteke, aski usu errepikatzen baldin badira. Eta asmatzen dut, gaurregun sendatua baldin bada ere eta arrazoinera itzulia, gizon hark bertzek baino hobekixago hartzen dukeela zer erran nahi zuen bere gogoko biziaren aldi bizkitartean iragan batean, noiz ere eroen eritegi bateko ikusliarrar argitu nahiz bera etzela arrazoingabea, medikuak ziona izan arren, bere gogo mota sanoaren aitzinean ezartzen baitzuten erietako

bakoitzaren amets eroak, eta ondoriotzat erraiten: «Horrela mundu guzia bezalakoa iduri duen hori, etzinezake eroa dela sinets, ha bada! hala da, Jesu-Kristo dela uste du, eta hori ezin dateke, Jesu-Kristo ni nizanaz geroz!» Ene ametsa bururatu eta luzaz berantago, oinazkatua gelditzen nintzan oraino entzuten nituela uste nuen elhe batzuetan Albertine-ek emana zuela errana zautan musu hartaz. Eta ene beharrietarik ontsa hurbil iraganak zatezkeen alabaina nihaurek nituenaz geroz erranak. Egun osoan Albertine-rekin solastatzen jarraikitzen nintzan, galdekatzen nuen, barkatzen naukon, bizi zenean beti erran nahi ukanak nauzkon gauza batzuen ahazpena zuzentzen nuen. Eta bapatez laztatua nintzan orhoitak deitua zuen jendeak, elhe horiek oro hari zoazkonak, izaite egiazkorik batere etzuela gogatzean, bizitzeko nahiaren, orai ezteuseratuaren bulka jarraikiak bakarrik jende baten batasuna emana zaukon begitarteko zati guziak suntsituak zirela.

Bertzealdi batzuez, ametsik egin ukan gabe, atzartu orduko senditzen nuen haizea nitan itzulia zela; hotz eta jarraikian ufutzen zuen iraganeko negu zolatik ethorri bertze alde batetik, oren urrundu batzuetako soinua ekhartzen zautala, ohian entzuten enituen abiatzeko xixtu batzu. Liburu baten hartzera entseatzen nintzan. Bereziki maitatua nuen Bergotte-ren elhaberri bat idekitzen nuen berriz. Han ziren jende atsegingarriak ainitz gustatzen zizaztan, eta, ontsa laster liburuaren gozagarriaz berriz hartua, hasi nintzan neure atsegin berezi bat bezala emazte gaixtoa gaztigatua izan zadin agiantzatzen; ene begiak busti ziren ezkongaien zoriona segurtatua izan zenean. «Baina beraz, egin nuen etsipenekin, Albertine-ek egina ahal ukan duenari hainbat balio emaitetik eztezaket egin haren nortasuna ezteustua izan eztaitekeen egiazko zerbaite dela, egun batez zeruan berdin aurkituko dutala, hainbat agiantzarekin deitzen baldin badut, hainbat ezinegonekin igurikatzen, nigarrekin hartzen Bergotte-ren idurimenean baizik bizi izan ezten norbaiten ongi heltzea, neure gostura haren begitartearen asmatzeko libro nizanarena!» Bertzela ere elhaberri hortan baziren nexka gazte gustagarri batzu, maitasunezko eskutitzeriak, han

elgar aurkitzen den nehorgabeko ibilbide batzu. Eta gizon bat aiphatzen zen ere gazterik maitatu duen emazte bat berrogei urte berantago berrikusten duena, ezagutzen eztuena, haren ondoan aspertzen dena. Eta horrek orhoitzen zautan maitasunak eztuela beti irauten eta zentzordatzen ninduen Albertine-ren ganik berexia izaitera destinatua banintz bezala eta ene azken urtetan ezaxoltasunekin haren berraurkitzera. Eta Frantziako karta bati ohartzen baldin baninzen ene begi izituek behar zena egiten zuten Touraine-aren ez aurkitzeko bekaizti ez izan nahiz, eta ere, zorigaitzean ez izaiteko Normandiaren, han Balbec eta Doncières markatuak baitziren, eta hauen artean ezartzen baintuen hainbat aldiz elgarrekin eginak ginituen bide hek guziak. Frantziako hiri eta herrixken bertze izen batzuen erdian, ikuskarri edo entzungarri baizik etziren izenak, Tours-en izenak, behazunez, ezperdinki moldatua iduri zuen, ez gehiago gorputzik gabeko iduriez, baina joiteak lehiatzen eta mingarri bilakatzen zauzkoten ene bihotzean zuzen ari ziren gai phozoinduez. Eta indar hori izen batzuetarano hedatzen baldin bazen, haren gatik bertzetarik hain ezperdin bilakatuak zirenak, nolaz, nihauri hurbilago egonez, Albertine bakarrean geldituz, ustegabetzen ahal nintzan indar nitan ezin ihardoki hori, eta horren emaiteko bertze edozein emazte baliatzen ahal zena, amets, gutizia, ohidura, xamurtasun batzuen nahaste ‘ta elgar hunkitzearen ondorioa izana bazen, oinaze ‘ta asegin aldizkatuen artekatze behar zenarekin? Horrek haren heriotzea luzatzen zuen ere, orhoita aski baita egiazko biziaren atxikitzeo, hau gogoan baita. Albertine-ez orhoitzen nintzan bagonetik jausten ari eta Saint-Martin-le-Vêtu-ra joan nahi zuela eni erraiten, eta berrikusten nuen ere aitzinean, bere poloa mateletara beheiturik; zorioneko gertakizun batzu aurkitzen nituen berriz, hetara oldez abiatzen bainintzan, neure baitan erranez: «Elgarrekin joaiten ahal ginen Quimperlé-rano, Pont-Aven-erano.» Balbec ondoko udaleku bat etzen hura han berrikusten enuenik, hala nola nun lur hark, mithologiako eremu begiratu batek bezala, bizi eta bortizki mingarri bilakatzen baitzautan leienda zaharrenak, xoragarrienak, ene maitasunetik jarraikia zenaz ezabatuenak. Ha! zer oinazea nehoiz berriz behar baldin banuen Balbec-eko ohe



hartan etzan, burdin-horizko kadreaz inguratua, hartarik, opo geldigeldi baten, burdin-ziri baten inguruan bezala, ene bizia lekuz aldatua baitzen, aitzina joana, aldizka berari tinkatuz amatxirekilako solasaldi alai batzu, Albertine-ren phereku eztiak, haren bizioaren aurkitzea, eta orai bizi berri bat, banakielarik, itsasoa hetan leinurutzen zen liburutegi berinaztatuen ikustean, Albertine nehoiz etzela gehiago hartan sartuko! Balbec-eko hotel hura, etzena probinziako antzokietan etxe aphaindura bakun hura bezala, urtez geroz hetan antzerti ezperdine-nak jokutzen baitira, komedia bateko baliatu baita, lehenbiziko tragedi-a bateko, osoki poesiazko antzerti bateko, ene iraganean jadanik aski urrun igaiten zen hotel hura eta beti, bere harresien artean, ene biziko aro berri batzuekin? Zati bakar hori (harresi, libuturegi, mirail) berdina gelditu izateak hobeki sendi-arazten zautan, orotara, gainera-tekoea zela, nihaur nintzala aldatua, eta bazematan horrela bere hobe-rako gogo gaitzera emanean sinesten duten haurrek eztuten iduripen hura, biziko, maitasuneko, heriotzeko mixterioak begiratuak direla, eztirela hortan barne, eta urgoitasun mingarri batekin dela urtetan zehar zuhauren biziarekin bat izan zirela ohartzen.

Egunkarien hatzera entseetzen nintzan. Baina egunkarien irakurtzea hastiagarri zizatan, eta gainera ezta lanjerrik gabe. Alabai-na, gure baitan, ideia bakoitzetik, oihan batean bidekurutze batetik bezala, hainbat bide ezperdin abiatzen dira nun, gutienik uste nue-nean, orhoitzapen berri baten aitzinean aurkitzen bainintzan. Fau-ré-ren aireko izenburuak, Segeretua, eremana ninduen Broglie-ko dukearen *Erregeren segeretu*-ra, Broglie izenak Chaumont-era. Edo ere Ortzirale Sainduak gogora-arazia zautan Golgotha, Golgotha-k hitz horren ethorkia, iduri baitu *Calvus mons*, Chaumont-en berdina dela. Baina zein ere bidetik heldua banintzan Chaumont-era, ordu hartan ukhaldi hain bortitz batez joa nintzan nun hari orhoitzapen galdat-zea baino ontsa gehiago gogoan bainuen oinazearen kontra gerizatzea. Ukhalditik landa ephe zenbaiten buruan, adimenduak, orzantzaren hotsa bezala ezpaita hain laster bidaiatzen, ekhartzen zautan horren arrazoina. Chaumont-ek gogora-arazia zauztan Bontemps Andreak

Andrée Albertine-rekin usu hara zoala errana zautan Buttes-Chaumont-ak, Albertine-ek aldiz errana zautalarik Buttes-Chaumont-ak ehoiz etzituela ikusiak. Adin batetik hara gure orhoitzapenak hain dira batzu bertzeren gainean gurutzatuak nun gogoan den gauzak, irakurtzen den liburuak ezpaitute abantzu muntarik batere. Norbetik ezarria da orotan, oro emankor da, oro lanjeros, eta Pascal-en *Gogoetetan* bezain aurkintza baliosak egin daitezke sabon bateko erklama batean.

Buttes-Chaumont-etakoa bezalako gertakari bat, orduan ezteusa iduritua zizatana, bere baitarik, Albertine-ren kontra, duxa-emailearen edo xuritzalearen ixtorioa baino gutiago larria zen dudarik gabe, gutiago baitezpadakoa. Baina lehenik, ustegabetarik heldu zaikun orhoitzapen batek aurkitzen du gutan asmatzeko, erran nahi da aldi hortan sofritzeko indar bat oso-osoa, zatiz higatua duguna, guhaurek dugularik aldiz nahitara gure gogoa berriz orhoitzapen baten sortzera emana. Eta gero jende horier (duxa emailea, xuritzalea), beti hor ene orhoitean nahiz ilunduak, galeria bateko erdi-itzalean ezarri muble batzu bezala, eta bizkitartean, hek bereziki ikusi gabe, haien joitetik baztertzen baita, jarria nintzan. Bazen aldiz aspaldi enituela Buttes-Chaumont-ak gogoan ukanak, edo behazunez Albertine-ren soa Balbec-en kazinoko mirailan, edo Albertine-ren so ezin argitua Guermantes-ko arratsalditik landa hainbat igurikatua nuenean, bihotzetik kampoan zauden ene biziko zati horiek oro eta ezagutu nahiko nituenak hari berdinduak, lotuak izan zaitentzat, han barneko Albertine eta zinez ukana nuen batek egiten zituen orhoitzapen eztiagoekin batera zaiten. Ohiduraren oihal phizuko izkin baten goititzean (ohidura zozotzalea, bizi guzian abantzu mundu osoa gordetzen daukuna eta gau ilun-ilun batean, bere betiko etiketa-pean, biziko phozoin lanjerosenak edo hordigarrienak ordainkatzen dituen atsegin goxorik emaiten eztuen baliogabeko zerbaitez), itzultzen zizaztan lehenbiziko egunean bezala, berriz agertzen den urtaro bateko berrietasun hotx eta xorrotxarekin, gure orenetako ohikeriaren aldatzearekin, hauek, atseginen eremuan ere, karrosara igaiten baldin bagira

udaleheneko egun eder batez edo iguzki jeikitzean etxetik atheratzen, gure egintza ezteusak agerr-arazten baitauzkute minuta azkar hori aitzineko egun guzietan nagusi-arazten dauen gogo-berotze argi batekin. Iragan egunek apurka apurka estaltzen dituzte aitzinduak dituztenak eta berak jarraitzen zezteenen azpian ehortziak dira. Baina iragan egun bakoitza gure baitan gelditu da neurrigabeko liburutegi batean bezala han izaiten baita, liburu zaharrenendako, nehor nehoiz galdegitera joanen eztekeen liburu bat. Alta egun iragan hori, geroko aroen argaltasuna zeharkatuz, azalera igan dadila eta osoki estaltzen gituden gutan heda, orduan ephe batez izenek bere lehengo erran-nahia berriz hartzen dute, jende bere aurpegi zaharra, guk orduko arima, eta senditzen ditugu, oinaze nahasi baina jansagarri bilakatu denarekin eta iraunen ezteuenarekin, orduan hainbat hertsatzen ginduzten estakuruak ezin garbituak bilakatuak. Gure nia gure izanara jarraitzen metatzeaz egina da. Baina metatze hori ezta mendi bateko zerakatze zabaldua bezala aldaezina. Beti eta beti goitaldi batzuek azalera agerr-arazten dituzte zafla zahar batzuek. Berriz aurkitzen nintzan Guermantes-ko prinzesaren arratsaldian, Albertine-ren ethortzearen aiduru. Gau hartan zer egina zuen? Trompatua ninduen? Norekin? Aimé-ren agerpenek, onhartzen banituen ere, etzuten enetako jeusetan ttipitzen ustegabeko galde horren balio antsiagarria, lastimagarria, Albertine berezi bakoitzak, orhoitzapen berri bakoitzak bekaizkeriako estakuru berezi bat emaiten zuen bertzetako atherabideak emaiten ahal etzizazkona.

Baina enuen bakarrik jakin nahi ukanen gau hura zein emazterekin iagana zuen, baina hori zer atsegin berezia zen harendako, ordu hatan zer gertatzen zen haren baitan. Batzuetan, Balbec-en, Françoise haren bila izana zen, leihoan gurtua aurkitua zuela errana zautan, itxura khexu, bilaka, norbait igurikatzen balu bezala. Demagun nexka gazte igurikatua Andrée zela ikas nezan, zein zen Albertine-ek haren igurikatzean zuen gogo ara, so khexu eta bilakariaren gibelean gordea zen gogo ara hura? Gostu horrek, zer balio zuen Albertine-rendako, zer leku zadukan haren axoletan? Ondikotz,

gustatzen zizatan nexka gazte bati ohartua nindakon orduko nihau-  
ren nahasmenez orhoitzean, batzuetan ikusi gabe hartaz mintzatzen  
entzuna nuenean bakarrik, ederraren ez egiteko, abantaildua ez izaiteko  
nuen axolaz, ene izerdi hotzez, oinazkatua izaiteko Albertine-ren  
baitan atsegineko bihotz-pilpira haren beraren asmatzea aski nuen,  
hala nola izaba Léonie-ek, haren gaitza egiazkoa zenez dudan ager-  
tua zen mediku baten ikustalditik landa, asma zezaten agiantzatua  
zuen tresnari esker, medikua utziko baitzuen, hobeki ohar zadintzat,  
eriarren oinaze guzien senditzera. Eta ene oinazkatzeko hori aski zen  
jadanik, horren ondoan solasaldi serio batzuek enekin Stendhal-  
ez eta Victor Hugo-z ontsa balio guti ukana zuketela nihauri erraiteko,  
haren bihotzaren senditzeko bertze jende batzuetara erakharria, ene-  
tik bazterten, bertze nunbait jartzen. Baina gutizia horrek harendako  
ukan zezakeen muntak berak eta horren inguruan moldatzen ziren  
erresalbuek etzautaten agertzen ahal nolakoa zen, ontsa gehiago, bere  
buruari mintzo zenean nola izendatzen zuen. Gorputzeko oinazean  
bederen eztugu guhaurek oinazearen hautatzerik. Eritasunak hartzera  
bortxatzen gituena da. Baina bekaizkerian zerbait moldez mota oro-  
tako eta handitasun orotako oinazeak behar ditugu entseatu, egoki  
izan daitekeela iduritzen zaikunean gelditu baino lehen. Eta zer neke  
handiagoa hau bezalako oinaze batez ari denean, maite zenaren sendi-  
zea atsegin ukaiten gutarik bertzelako jende batzuekin, hari emaiteko  
gai ezkiren sendipen batzuen emaiten, edo bederen, bere iduriaz, egin  
moldez, gutarik osoki bertze zerbait itxuratzen dutenekin! Ha! Al-  
bertine-ek zer gatik etzuen Saint-Loup maitatu? nola zatan gutiago  
sofrituko nuela iduritzen!

Eiki jende bakoitzaren sendikortasun berezia eztugu ezagut-  
zen, baina eztugula ezagutzen ohian eztakigu ere, bertzen sendikorta-  
sun hori orobat baitzaiku. Albertine-ri zagokonean, ene zorigaitza edo  
zoriona sendikortasun horren menean izanen zen: banakien bada eze-  
zaguna zizatala, eta ezezaguna izaitea oinaze bat zen jadanik. Alber-  
tine-ek sendi zituen gutizia, atsegin ezezagunak, aldi batez ukan nuen  
ikusten nituelako lillura, bertze batez entzuten nituelakoa. Ikusten,

Albertine hil eta eta zenbait dembora berantago, Andrée etxera jin zizatanean. Lehen aldikotz eder iduritu zizatan, banion neure baitan ile abantzu kixkurtu hek, begi ilun inguruan belztu hek zaitezkeela Albertine-ek hainbat maitatua zituenak, bere ametseria maitalean ekhartzearen zuenaren gauzatzea ene aitzinean, Balbec-etik hain lehia handian itzuli nahi ukan zuen egunean gutziaren behako aitzinatzailez ikusten zuenarena. Haren baitan ikusten jakina enuen norbaiten hilobitik ekharria zizatan lore ilun ezezagun bat bezala, iduritzen zizatan, lurretik erlika ezin estimatu baten atheratze ustegabekoa, banakusala ene aitzinean Andrée enetako zen Albertine-ren Gutizia haragitua, Venus Jupiter-en gutizia zen bezala. Andrée Albertine-ren urrikitan zen, baina senditu nuen berehala etzaukola bere adixkideak huts egiten. Bortxaz bere adixkidetik herioaz urrundua, iduri zuen Albertine bizi zenean galdegitera ausartuko enindakon aldebateko berexte batez bere etsia errexki hartua zuela, hain nintzan beldur Andrée-ren baimenaren ukaitera enintzala helduko. Iduri zuen aldiz uzte hori nekerik gabe onhartzen zuela, baina hain zuzen baliagarri izaiten ahal etzizatan orduan. Andrée-ek uzten zautan Albertine, baina hila, enetako galdua ukanik ez bakarrik bere bizia baina gibeletik ikusiz bere izaitetik apur bat, bertze batzuek ordaindua ukan ahal zezakeen Andrée-rendako etzela baitezpadakoa ikusiz, ez bakarra.

Albertine bizi zenean, enintzan ausartuko Andrée-ri elgarren arteko eta Vinteuil Andereñoaren adixkidearekilako haien adixkidantzako araz segetu galdegitera, ezpainintzan segur, azkenera, erraiten naukon guzia etzaukola Albertine-ri errepikatuko. Orain horrelako galdetaldi bat, ondoriorik gabe izan behar bazuen ere, lanjerrik gabe izanen zen bederen. Andrée-ri mintzatu nindakon, ez galdezko doinu batean baina betidanik jakinduru banintz bezala, behar bada Albertine-ren ganik, hark berak Andrée-ek emaztendako zuen gustuaz eta bere adixkidantzez Vinteuil Andereñoarekin. Hori guzia aithortu zuen nekerik batere gabe, irriño eginez. Aithormen hortarik ondorio gaixto batzu athera nezazkeen; lehenik Andrée, Balbec-en mutiko gazte ainitzekin hain gixako eta gustagarria, batere ukhatzen etzitzen

gostu batzuez nehorri aieru emaitera utziko etzelakotz, hala nola nun, berdintasunaren bidez, Andrée berri horren aurkitzean uste ukan bainezakeen Albertine-ek bekaizti nintzala sendi zuen nitaz bertze edozeini errextasun berarekin aithortuko zauzkola. Baina bertze aldetik, Andrée Albertine-ren adixkide hoberena izanik, eta itxura guzien arabera hau Balbec-etik espes harendako itzulia zena, Andrée-ek orai gustu horiek aithortzen zituenaz geroz, ene izpirituak onhartu behar zuen atherabidea, Albertine 'ta Andrée-ek elgarrekin adxikidantzak beti ukanak zituztela zen. Eiki, jende arrotz baten aitzinean, ezpaigira beti eskaintzen daukun emaitzaz ezagutza hartzera ausartzen eta estalgia ezpaita ekhendua izanen emaile hori joana izanen denean baizik, Andrée hor izan zeno enintzan neure baitan sartu ekhartzen zautan bihotzminaren ikhertzeko, sendi bainuen ere ene soineko zerbiatzarier, zainer, bihotzari, nahasmen handi batzu emaiten zezteela, ontsa ikasia izaitetz alegia enindauela ohartzen egiten bainuen, ezin gixakokiago solastatzen nintzalarik aldiz gomitatua nuen nexka gaztearekin, ene behakoak barneko gertakari horietara baztertu gabe. Bereziki mingarri izan zizatan Andrée-ren entzutea Albertine-ez mintzatzean eni erraiten: «Ha! ba, ontsa maite zuen Chevreuse-ko ibarrean ibiltzera joan ginaiten.» Albertine 'ta Andrée-ren ibilaldiak egiten ziren mundu ez argi eta izaiterik gabekoari, Jainkoaren lanari, iduri zizatan hunek, egintza berantagoko eta debruzko batez, ibar madarikatu bat gaineratzen zaukola. Sendi nuen Andrée-ek erranen zautala Albertine-rekin egiten zuen guzia, nihaur jendetasunez, arteziaz, nihaur amodioz, behar bada eskerronez, gero eta gehiago gixako agertzera entsetzen nintzan batean, Albertine-ren ogangabetasunari oraino utzia ahal naukon eremua gero eta gehiago hertsitzen ari zelarik; iduri zizatan ene indar guzien gatik ohartzen nintzala haren inguruan hegaztin lilluratzaleak itzuli gero eta tinkatuagoa eta emeki egina - ezpaita lehiatzen ihes eginen eztaukon bitimara nahi ukanen duenean helduko dela segur delakotz - badagien ihizi baten itxura geldia nadukala. So nindagokon bizkitartean, eta geldiki so eginez loizunean sarr-araziak izaiterean beldur ezterela alegia egin nahi duten jender gelditzen zaien alaitasun, natural eta segurantzarekin, Andrée-ri erran naukon arte-

tik solas hau: «Samurr-araz beldurrez ehoiz enautzun aiphatua, baina orai hartaz mintzatzea goxo baitzaiku, erraiten ahal dautzut bada aspaldidanik banazkiela Albertine-rekin zinituen mota hortako adixkidantzak; gainera, jadanik horren jakiteak atsegin emanen dautzu: Albertine-ek biziki maite zinduen.» Andrée-ri erran naukon enetako jakin-nahi handi bat izanen zela uzten banindu horren egiten ikustera (xoilki ene aitzinean gehiegi jena etzezaketen pherekuetan ere) Albertine-ren adixkidetan gustu horiek zituztenekin, eta jakiteko izendatu nituen Rosemonde, Berthe, Albertine-ren adixkide guziak. «Munduan jeusen gatik hori zure aitzinean eginen enukeenaren gainera, ez tut uste erraiten dituzun horietarik batek ere badituela gustu horiek.» Erakhartzen ninduen mustroa nihaurek nahi ukan gabe hurbilduz: «Nola! eztautazu sinets-araziko zuen multzo guzian etzela Albertine baizik hori harekin egin zinezakeenik! - Baina ez tut Albertine-rekin behin ere egin! - Dakusagun, ene Andrée-ñoa, zergatik ukha hirur urtez geroz bederen badazkitan gauza batzu? Gaizkirik deuz ez tut hor aurkitzen, onik baizik. Hain zuzen, biharamunean zurekin Verdurin Anderearen etxera hainbat joan nahi zuen arrats hartaz, orhoit zira behar bada...»

Erranaldia jarraikia ukan nuen baino lehen, ikusi nuen Andrée-ren begietan, horren gatik joiariek erabiltzea neke duten harri hek bezain zorrotz egiten zituenetan, behako griñatu bat iragaiten, hala nola antzerti bat hasi baino lehen erridau izkin bat goititzen duten jende abantailduen buru hek eta berehala ikusiak ez izaiteko ihes egiten dutenak. Behako khexu hori itzali zen, guzia ordenuan sartua zen, baina sendi nuen orai ikusiko nuen guzia etzela enetako alegiazki antolatua baizik izanen. Orduan neure burua ikusi nuen mirailan; joa izan nintzan nihauren eta Andrée-ren arteko eite zerbaitez. Aspalditik ene muxtatxaren moztetik gelditua izan ezpanintz eta haren itzal bat baizik ukana ezpanu, eite hori abantzu osoa izanen zen. Behar bada, Balbec-en, doi-doi jiten ari zen ene muxtatxari behatzean zuen bapatez Albertine-ek ukana Paris-era itzultzeko gutizia ezin egon, ero hura. «Baina etzezaket alta egia eztena baizik erran gaizki aurkitzen eztuzulako arrazoin xoilaren gatik. Zin egiten dautzut Albertine-re-

kin ezer eztutala nehoiz egin eta segur niz gauza horiek hastio zituela. Gauza horiek erran dauzkitzuten jendeak gezurrez ari ziren, behar bada abantail nahiz?» erran zautan doinu galdekari mesfidatu batekin. «Ontsa azkenean, erran nahi eztautazunaz geroz», nuen ihardetsi, enuen phorogantza bat enuela eman nahi iduri ukan nahiago bainuen. Bizkitartean nahasiki eta zer gerta ere Buttes-Chaumont-etako izena erran nuen. «Buttes-Chaumont-etara joan ahal izana niz Albertine-rekin, baina zerbait bereziki gaixto baduen leku bat dea?» Galdegin naukon etzenez hortaz mintzatzen ahalko Albertine ordu batez bereziki ezagutua zuen Gisèle-rekin. Baina Andrée-ek erran zautan Gisèle-ek berriki egina zaukon itsuskeria baten ondotik, hari zerbitzu baten eskatzea enetako egitea onhartuko etzuen gauza bakarra zela. «Ikusten baduzu, gaineratu zuen, hartaz errana dautzutana etzaukozula erran, eztu balio hartaz etsai baten egitea. Hartaz zer gogatzten dutan bada-ki, baina nahiago ukan ditut beti harekin antolamendu batzu baizik ekhartzen eztituzten liskar bortitz batzu baztertu. Eta gero lanjerosa da. Baina hartzen duzu duela zortzi egun ukan dutan eskutitza eta halako fede gaixtoarekin gezur erraiten zuena irakurri denean, jeusek, munduko egintza hoberenek eztezaketela horren orhoitzapena eza-ba.» Orogen buruan, Andrée-ek gustu horiek ukanez batere ez gordetzerano eta Albertine-ek harendako ontsa segurki bazuen atxikimendu handia, Andrée-ek ezpaldin bazuen ehoiz haragizko adixkidantzarik ukan Albertine-rekin eta Albertine-ek gustu horiek bazituela nehoiz ezpazuen jakin, hori da Albertine-ek etzituelakotz, eta neherekin etzuelakotz ukan bertze edozeinek baino gehiago Andrée-rekin ukanen zuen adixkidantzarik. Beraz Andrée joana izan zenean, ohartu nintzan haren baieztatze hoin garbiak jabaldura zerbait ekharria zautala. Baina hori behar bada eginbideak manatua zuen, Andrée-ek uste baitzuen, oraino bere baitan zuen hilaren orhoitzapenaren aldera, bortxatua zela Albertine-k bizi zenean dudarik gabe ukha zezan galdegina zaukonean sinesten ez uztera.

Hain usu asmatzera entseatu ondoan, Andrée-ri behatuz ephe batez ikusten nituela uste ukana nuen Albertine-ren atsegin horiek, bertze aldi batez uste ukan nuen haien hor izaitea begiez bertzela hau-



temaiten nuela, entzuten nituela. Emategi batera ekharr-araziak nituen Albertine usu hara zoan auzoalde bateko bi xuritzale ttipi. Baten phereketan, bertzea hasi zen bapatez hastapenean zer zen berexi ahal enuenaren entzun-arazten, ezpaita nehoiz zuzenki hartzen hots berezi baten, senditzen eztugun zerbaitez errankor denaren erran-nahia. Ondoko barne batetik entzuten bada eta ezer ikusi gabe, irri erotako har daiteke lokhartua izan gabe operatzen den eri bati oinazeak eman-arazten daukona; eta bere haurra hil dela ikasten zakon ama baten ganik jalgitzen den hotsaz den bezainbatean, iduritzen ahal zaiku, zertaz ari den ezpadakigu, hari erran-nahi gizatar baten emaita, ihizi batetik edo harpa batetik jalgitzen den hotsari emaita bezain neke dela. Dembora apur bat behar da bi hots horiek, guhaurek alta ontsa bertzela senditua ahal dugunarekin berdintasunez, oinazea erraiten dutela hartzeko, eta dembora behar ukan nuen ere hots horrek, nihaurek osoki bertzela senditua nuenarekin berdintasunez ere, atsegina deitzen nuena erraiten zuela hartzeko; eta hunek ontsa azkarra izan behar zukeen senditzen zuenaren zentzordatzeko hein hortarano eta haren ganik mintzara ezezagun horren jalgi-arazteko, iduri baitzuen erakusten zituela eta aztartzen emazteñoak bizi zuen gertakari ezin goxoagoaren aldi guziak, eta hartaz bertze ororendako izaite bakoitzaren mixterio minean gertatzen denaren gainera behin betiko behehitua den erridauak gordetzen zautanak. Bi nexka horiek etzautaten bertzela ere jeus erran, Albertine nor zen etzakiten.

Elhaberrilariak aitzin-solas batean badiote ainitzetan herri batean bidaiatuz aurkitu dutela jende baten bizia khondatu daueten norbait. Orduan aurkintzazko adixkide horri hitza uzten daukote, eta egiten dauen ipuina da hain zuzen haien elhaberria. Horrela Fabrice del Dongo-ren bizia Stendhal-i Paduako kalonje batez errana izan zizakon. Zenbatetarano nahi ginukeen, maite dugunean, erran nahi da bertze norbaiten bizia mixteriozkoa iduritzen zaikunean, horrelako berri emaile jakinduru bat aurkitu! Eta eiki bada. Guhaurek, eztugua ainitzetan, jaidura bizirik batere gabe, holako edo halako emaztearen bizia erraiten haren amoretarik ezer etzakiten eta jakin-nahirekin entzuten gutuzten gure adixkidetarik bati edo bertzeari edo arrotz

bati? Bloch-i Guermantes-ko prinzesaz, Zuan Andereaz mintzo nindakolarik nintzan gizona, Albertine-ez mintzatuko ahal zizatan jende hura bazen, bada oraino... baina eztugu nehoiz aurkitzen. Iduri zizatan hura ezaguna zuten emazte batzu aurkitu ahal banitu, enakien guzia ikasiko ahal nuela. Bizkitartean, arrotz batzuer iduritua ukan beharko zizeen ehork etzuela haren bizia nik bezainbat ezagutzen ahal. Baina enuena haren adixkide hoberena ezagutzen, Andrée? Horrela da uste izaiten minixtro baten adixkideak gauza batzuez egia bada-kikeela edo auzi batean barne ezarria izanen ahal eztela. Adixkideak, bakarrik, ohiduraz, ikasi du minixtroari politikaz mintzo zizakon aldi bakoitz, hau orotako gauza batzuetan egoiten zela eta gehien-gehienik egunkarietan zena erraiten zaukola, ala, behargabe bat ukan badu, minixtroaren ondoan egin urhats errepikatuak aldi bakoitz «Ezta ene ahalaren meneko» batera heldu direla, hortako adixkidea bera ahalik gabe delarik. Banion neure baitan: «Horrelako lekuko batzu ezagutu ahal banitu!» haietarik, ezagutu baldin banitu, bera eman nahi etzuen segetu baten ukaile zen Andrée-ren ganik baino jeus gehiago ukanen ahal ezpainuen. Hortan ere Zuanez bertzelakoa, hura, gehiago bekaizti izan etzenean, Odette-ek Forcheville-rekin egina ahal zuenaz jakin-nahi izaitetik gelditu baitzen, ene bekaizkeria iragan eta ere, Albertine-ren xuritzalaren, haren auzoko jenden ezagutzea, han zuen biziaren, maitaldien berriz itxuratzea, hori bakarrik zen enetako gozagarri. Eta gutizia aitzineko xoramendu batetik baitathor beti, Gilberte-rendako, Guermantes-ko dukesarendako gertatua zen bezala, Albertine lehenago bizi izana zen auzoalde horietan, haren ingurueneko emazte batzu izan ziren bilatu nituenak eta haien hemen izaitea agiantzatuko nuen bakarrak. Ezer ikasi ahal ezpalautate ere, hetara erakharria sendi nintzan emazte bakarrak Albertine-ek ezagutuak zituenak ziren edo ezagutu ahal ukanen zituenak, haren ingurueneko edo hetan gustatzen zen ingurunetako emazteak, hitz batez haren idurikoak edo gustatuko zizazkonetarik izaiteko xoramendua bazutenak enetako. Eta azken hauen artean, bereziki jende xoileko nextak, ezagutzen nuenetik hain ezperdina duten bizi haren gatik. Dudarik gabe, gogamenaren bidez da bakarrik gauzez jabetzen, eta ezkira margazki

baten jabe izaiten jateko salan dugulakotz ezpadugu gogoan hartzen, ez eta herri batez han bizi girelakotz hari so egin ere gabe. Baina azkeanean Balbec-ez berriz jabetzeko lilluramendua banuen lehenago, Parisen Albertine ikustera jiten zizatanean eta ene besoetan nadukanean; berdin ere nuen ezagutza hartzen, ontsa hertsia eta ebaskakoa bertzela ere, Albertine-ren biziarekin, landegietako giroarekin, sal-mahiko solasaldi batekin, zikindegietako gogoarekin, emazte langile bat bezarkatzen nuenean. Andrée, bertze emazte horiek, hori gutzia Albertine-en eretzean - Albertine bera Balbec-en eretzean izana zen bezala - aphaltze jarraiki batzuetan elgarren lekua hartzen duten atseginaren ordain hetarik ziren, gehiago hartara heltzen ahal ezkirena gabe egoitera uzten gituztenak, Balbec-era bidaia ala Albertine-ren maitasun, atsegin horiek (hala nola Louvre-ra Titien baten ikustera joaitea izan zenean behin Veneziara ezin joan ahal izaiteko konsolamendu), elgarretarik sendimenduzko berexkuntza ezin hauteman batzuez berezirik, gure bizi az egiten baitute eremu ertune bereko, elgarri hurbil, harmoniadun eta higatu andana jarraiki bat, doinua eman, harekin urtzen eztena ekhendu, kolore nagusia hedatu duen lehenbiziko gutizia baten inguruan (gertatu zizatan bezala ere, behazunez, Guermantes-ko dukesaren eta Gilberte-rendako). Andrée, emazte horiek, ene ondoan Albertine-ren ukaiteko gutziarendako, gehiago ezin satifa nezakeela banakielarik, ikustez baizik Albertine ezagutu baino lehen arrats bat izana zen hura ziren, ene ondoan haren ukaiteko gutizia nehoiz enuela satifatu ahal ukanen uste nuelarik, mahats mulko baten iguzkitze bihurdikatu hotxa. Horrela Albertine-ez beraz orhoitzean, edo hautetsia zukeen itxura motaz, emazte horiek nitan atzartzen zuten bekaizkeriazko edo urrikizko sendimendu mingarri bat, berantago, ene bihotzmina eztitu zelarik, gozagarririk gabe etzen jakin-nahi batera aldatu zena.

Orai ene maitasunaren orhoitzapenari lotuak, Albertine-ren berezitasun gorputzekoek eta gizartekoek, hek izanik ere maitatua bainuen, ene gutizia bazeramaten aldiz lehenago gutienik naturalki hautatuko zuen aldera: burjesia ttipiko beltzarantara. Eiki, ene baitan zatika berriz sortzen ari zena, Albertine-rendako nuen maitasunak

ase ahal etzuen gutizia neurrigabeko hura zen, lehenago Balbec-eko bidetan, Parisko karrketan sendi nuen biziaren ezagutzeko gutizia neurrigabeko hura, hainbat oinazka-arazia ninduen noiz ere, ustez eta Albertine-ren bihotzean ere bazen, nitaz bertze batzuekin horren satisfatzeko bidez gabetu nahi ukana bainuen. Orai haren gutiziaren ideia jasaiten ahal nuenaz geroz, ideia hori nitan nihaurenaz ere atzarria baitzen, bi gura neurrigabeko horiek batera baitzoazen, nahiko nuen horietara elgarrekin eman ahal gindaiten, banion neure baitan: «Nexka hori gustatuko zizakon», eta bapateko itzuli hortaz, hura eta haren heriotzea gogoan, sobera trixte sendi nintzan ene gutizian urrunago jarraitzeko. Lehenago Méséglise-ko aldeak eta Guermantes-koak baserriko ene gostuaren oinarriak ezarriak zituzten bezala eta eliza zaharrik, urdin-lorerik, urre-lorerik izanen etzen herri batean gozagarritasun barnatu baten aurkitzea debekatuko zautaten bezala, berdin ere neure baitan gozagarritasunez bete iragan bati lotuz zautan Albertine-rendako nuen maitasunak emazte mota berezi bat bakarrik bila-arazten; berriz hasten ari nintzan, hura maitatu aitzinean bezala, harekin harmonian ziren gauza batzuen behar ukaiten, apurka ene orhoitzapen gutiago bakarkari bilakatuarekin aldizkagarri zaitezkeen. Enintzan orai gustatuko ahal dukesa ile-hori urgoi baten ondoan, etzuelakotz ene baitan Albertine-tik abiatzen ziren bihotz-hunkiduretarik batere atzarriko, harendako nuen gutiziatik, haren maitasunez nuen bekaizkeriatik, haren heriotzeaz nituen bihotz-minetarik. Ezen gure sendipenek azkar izaiteko behar dute gutan hetarik ezperdina den zerbait abia-arazi, bere satisfamendua atseginean aurkituko ahal eztuen sendimendu bat, baina gutiziari emendatzen dena, hantzen duena, atseginari etsipenekin lot-arazten duena. Albertine-ek emazte batzuekiko senditu ahal ukana zuen maitasunak gehiago oinazkatzen eninduen arau, emazte horiek ene iraganari lotzen zituen, zerbait egiazkoago emaiten zauen, Combray-ko orhoitzapenak urre-lorer, elhorrixurier emaiten zauen bezala lore berrier baino izaitte gehiago. André-ek ere enuen gehiago errabiarekin neure baitan erraiten: «Albertine-ek maite zuen», baina aldiz, nihauri ene gutiziaren argitzeko, doinu xamur batean: «Albertine-ek ontsa maite zuen.» Orai gogoan

hartzen ditut konsolatuak uste diren alhargunak eta ezin konsolatuak direla phoragatzen dutenak bere koinatarekin berriz ezkontzen direlakotz.

Bururatzten ari zen ene maitasunak iduri zuen horrela enetako bertze maitasun batzu gertagarri egiten zituela, luzaz beretako maitatu diren emazte hek bezala berantago, bere maitalearen gostua ahultzen senditzean, bere boterea begiratzten baitute artekari izaiteaz askietsiak izanez, prestatzen zituen enetako, Pompadour-sak Luis XV-garrena-  
rendako bezala, nexkaño berri batzu. Lehen, ene dembora holako emaztea edo halakoa gutiziatzen nuen aldi batzuetan zatitua zen. Batek eman atsegin bortitzak eztituak zirenean, xamurtasun abantzu garbi bat emaiten zuena agiantzatzen nuen, phereku jakinago batzuen baharrak lehenbizikoaren gutizia ekhar zezan arteo. Orai aldizkatze horiek burura helduak ziren, edo bederen aldi bat mugarik gabe luzatzen zen. Nahiko nuena, ethorri berria etxean bizitzera jin zadin zen, eta eman zezatan arratsean, ni utzi baino lehen, arreba baten musu familiako bat. Hala nola nun uste ahal ukanen bainuen - bertze baten horizaite ezin jasana ezagutua ukan ezpanu - musu batez ezpain batzuez baino gehiago urriki nuela, atsegin batez maitasun batez baino gehiago, ohidura batez jende batez baino gehiago. Nahi ukanen nuen ere ethorri berri horrek Venteuil-en musikatik jo ahal zezatan Albertine-ek bezala, hura enekin bezala Elstir-ez solasta zadin. Hori guzia ezin zen. Horren maitasunak etzuen harena balio ukanen, gogatzten nuen; ala gertaldi horiek guziak, erakustokietara ikustaldiak, musikaldietan arratsaldiak, eskutitzak, solasaldiak, adixkidantzen beren aitzineko amoroskeria bat, gero adixkidantza serio bat ukan dezazkeen bizi nahastekatu oso bat eransten zizakon maitasun batek baduelakotz bere buruaren emaita baizik ezta kien emazte batendako den maitasunak baino indar gehiago, orkeztra batek piano batek baino gehiago bezala; ala, barnatukiago, Albertine-ek emaiten zautan bezalako maitasun mota beraren beharrak, aski jakitadeduna eta aldi berean arreba bat bezala izan behar zuen nexka baten maitasuna etzelakotz - Albertine-ren ingurune bereko emazte batzuen beharra bezala - Albertine-ren orhoitzapenaren, harendako nuen maitasunaren bizitze berri bat

baizik. Eta senditu nuen aldi bat gehiago lehenik ohoitzapena ezte-  
la asmatzale, bertze edozein gauzaren gutiziatzeko ahalik gabe dela, jabe  
izanak girena baino hoberik jeusen ere; bigarrenik izpiritukoa dela,  
hala nola nun egiazko gauzek ezpaitezokete bilatzen duen izanara  
ekhar; azkenik, jende hil baten ganik jinez, itxuratzen duen berphiz-  
tea gutiago dela maitatzeko beharrarena, hortan sinets-arazten baitu,  
hor eztenaren beharrarena baino. Hala nola nun hautatua nuen emaz-  
tearen eiteak Albertine-rekin, haren maitsuneko eiteak, ukaitera helt-  
zen ahal banintzan, Albertine-renarekin, ezpaitzautaten hobeki baizik  
sendi-arazten jakin gabe bilatua nuenaren hutsa, eta baitezpadakoa  
zenarena ene zoriona berriz sor zadintzat, bilatua nuena, erran nahi  
da Albertine bera, elgarrekin iragana ginuen dembora, jakin gabean  
haren bila nindabilan iragana.

Eiki, egun argietan Paris agertzen zizatan ezin zenbatuki nex-  
ka ttipi guziez loratua, ez gutiziatzen nituelakotz, baina bere erroak  
sartzen zituztelakotz gutiziako ilunbean eta Albertine-ek ezagutu etzi-  
tuen arrats batzuetan. Haste-hastean, nitaz mesfidatzen etzelarik, har-  
taz «Xoragarria da, ttipi hori, zer ile pollitak dituen!» errana zautan  
bat zen. Lehenago oraino ikustez baizik ezagutzen enuenean haren  
biziaz ukanak nituen jakin-nahi guziak, eta bertzalde biziko gutizia  
guziak jakin-nahi bakar batean nahasten ziren, Albertine-ek atsegi-  
naren senditzeko zuen aran, bertze emazte batzuekin haren ikustean,  
behar bada horrela, hek joan eta, harekin bakarrik geldituko bainint-  
zan, azken eta nagusi. Eta haren dudak ikusiz arratsaldiaren iragai-  
tea balio zenez holakoarekion ala halakoarekin, bertzea joana zenean  
haren asean, behar bada nahigabea, Albertine-ek eman-arazten zautan  
bekaizkeria argituko nuen, neurri zuzen batzuetara ekharriko, haien  
senditzen horrela haren ikustean, hartuko bainuen haren atseginen  
neurria eta aurkituko horien muga.

«Zenbat atseginez, zein bizi goxoaz gituen gabetu, bere gos-  
tuaren ukhatzen hisitze hortaz!» nion neure baitan. Eta hisitze horren  
arrazoina zein izana ahal zen bilatzen bainuen aldi bat gehiago, ba-  
patez gogoratu zizatan Balbec-en laphitz bat eman zautan egunean

errana naukon hitz bat. Besarkatzera ez utzirik erasiatzen ari nuelarik, errana naukon emazte batek adixkidantzak bertze batekin ukan zitzan itsusi zizatan bezain natural aurkitzen nuela hori. Ondikotz, Albertine hortaz orhoitua zen behar bada.

Gutienik gustatuko zizatan nexka batzu ekhartzen nituen enekin, birjina moldeko ile xerrenda batzu leuntzen nituen, sudur ontsa moldatu bat miresten nuen, histura espainiar bat. Eiki lehenago, Balbec-eko bide batean, Parisko karrika batean ikustea baizik egiten enuen emazte batendako ere, senditua nuen ene gutiziak zuen berezia, eta bertze zerbaitekin asebetetzera entseatzea horren makurtzea zela. Baina biziak, gure beharren iraupena apurka agertuz, ikasia zautan norbait bereziren eskasez bertze norbaitez askietsia izan behar dela, eta sendi nuen Albertine-ri galdegina naukona, bertze batek, Stermariako Andereñoak, emanen ahal zautala. Baina Albertine izana zen; eta ene maitasuneko beharren askiestearen eta haren soineko berezitasunen artean, orhoitzapenetako elgarr-artekatze bat egina zen hain ezin berexia nun ezpainezakeen gehiago maitasuneko gutiziatik ekhen Albertine-ren soineko ohoitzapenen broderia hori guzia. Hark bakarrik zautan zorion hori emaiten ahal. Bat zelako ideia etzen gehiago metafisikako *a priori* bat Albertine-ek berezirik zuenean hartua, lehenago emazte iragailendako bezala, baina *a posteriori* bat elgarrekin ene orhoitzapenen nahaste gertakizunezko baina ezin hautsiaz egina. Enezakeen gehiago xamurtasunezko zerbait gutizia, haren hor ez izaiteaz oinazkatua izan gabe. Beraz emazte hautatuaren, xamurtasun galdatuaren eiteak berak ezaguna nuen zorionarekin, etzautan hobeki baizik sendi-arazten berriz sor zadintzat huts egiten zaukoten guzia. Albertine joana zenaz geroztik ene gambaran senditzen nuen huts hori bera eta emazte batzu ene kontra tinkatuz betetzea uste ukana, horietan aurkitzen nuen. Etzizatan behin ere mintzatuak, horiek, Vinteuil-en musikaz, Saint-Simon-en orhoitzapenez, etzuten usainon azkerregi bat ezarria ene ikustera jiteko, etziren jostatuak bere betilekin ene betilen nahasten, guziak gauza baliodunak, uzten zutelakotz,

iduriz, sesuko egintzaren beraren inguruan amets egitera, eta maitasuneko lilluraren ukaitera, baina egiazki Albertine-ren orhoitzapenean sartzen zirelakotz eta hura nuelakotz aurkitu nahi ukanen. Emazte horiek Albertine-tik zutenak hobeki sendi-arazi zautan hartarik huts egiten zauena, eta guzia zena, eta nehoiz gehiago izanen etzena, Albertine hila zenaz geroz. Eta horrela Albertine-rendako nuen maitasunak, emazte horietara erakharria ninduenak, orobatekoak egiten zauztan, eta Albertine-ez nuen urrikia eta ene bekaizkeriaren irautea, ene aitzin-ikuspen gehienik gaitzera emanak iraupenaz jadanik gaindituak zituztenak, etziren dudarik gabe nehoiz biziki aldatuko, haien izaitea, ene biziko gaineratekotik bazterturik, izana baliz bederen ene ohoitzapenetako jokoaren, izanara geldi batzuer emangarri den zikologia baten egintzen eta ihardokitzen menean ezarria, eta eremana izan ezpaliz han arimak aroan gorputzak eremuan bezala dabilztan sistema zabalago batera.

Eremuetako geometria bat baden bezala, bada aroan den zikologia bat, hartan zikologia zabal bateko karkulak zuzen elizatezkeena Aroa khondutan hartuko etzelakotz eta hartzen duen moldetarik bat, ahazpena; haren indarraren senditzen hasten ari nintzan ahazpena eta gauzetako egiara jartzeko tresna hain azkarra dena, gutan apurka suntsitzen duelakotz harekin betiko kontra moldean den iragan gelditua. Eta zinez lehenago asmatuko ahal nuen bada egun batez Albertine enuela gehiago maitatuko. Noiz ere, haren beraren eta egiten zuenaren balioa enetako eta bertzerendako zenaren artean zen ezperdintasunik, hartua ukan bainuen ene maitasuna gutiago zela harendako maitasun bat nihaurendako baino, ene maitasunaren neure baitako berezitasun hortarik ondorio batzu athera ahal ukanen nituen, eta gogoko ara bat izanez, jendeak baino aski luzazago iraun zezakeela, baina ere, jende horrekin egiazko lokarririk batere ez ukanez, nitarik kampo bermagailurik, beharko zuela, gogoko ara orok bezala, egun batez higatua izan, «ordaindua» izan, eta, egun hartan, hain eztiki, ezin hautsizko moldez, Albertine-ren orhoitzapenari estekatzen ninduela iduri zuen guzia enetako etzela gehiago izanen. Jenden zorigaitza da bildumetako grabadura azkarki higagarri batzu baizik ez izaitea



gure gogoan. Hain zuzen horren beraren gatik hetan oinarritzen dira gogamenaren suhartasuna duten xede batzu; baina gogoak akhitzten da, orhoitzapena suntsitzen: eguna ethorriko da Albertine-ren gamba lehen ethorriari gogotik eman nezakokeena, bihotzminik batere gabe Gilbert-ren agatazko kanika eta bertze eskaintza batzu Albertine-ri emanak nauzkon bezala.

Etzen Albertine enuelakotz oraino maite, baina azken demoboretan ez jadanik ara berean; ez, hari zatxikakon guziak, leku eta jende, mingarri baino gozagarri gehiago bazuen jakin-nahin bat sendi-arazten zautan aro zaharrago batzuetako aran. Alabaina ontsa sendi nuen orai hura osoki ahatzi baino lehen, abiatu den gunera bide beretik itzultzen den bidaiari batek bezala, beharko nituela, hastapeneko axolagabera heldu aitzinean, ene maitasun handira heldu baino lehen ezagunak nituen sendimendu guziak kontrako aldera iragan. Baina aldi horiek, iraganeko ordu horiek eztira geldiak, atxikia dute, orai iragana bilakatu den aro batera, baina ephe batez xoramendu batek gibeletik ikusiz geroarendako harr-arazten daukun batera oldez abiatzen den itxaropenaren indar laztagarria, jakingabe zorionduna. Arratsko ikustaldia iragartzen zautan haren eskutitz bat irakurtzen nuen, eta banuen zekunda batez haren igurikatzeko bozkarioa. Hara berriz itzuliko ezten herri batetik bide beretik itzultze horietan, ezagutzen baita joaitan iragan diren geldigune guzien izena, itxura, gertatzen da, hetarik batean gelditua izaiten denean, garan, ukaiten dela ephe batez berriz abiatzen delako lillura, baina handik heldu den aldera buruz, lehen aldian egina zen bezala. Berehala lillura ethentzen da, baina zekunda batez berriz hara eremana senditua izana zen: horrelakoa da orhoitzapenaren abretasuna.

Eta bizkitartean, ezin baldin bada, handik abiatua zen axolagabera itzuli baino lehen, maitasunera heltzeko iraganak ziren eremuak kontrako aldera iragan gabe egon, bidaiak hartzen den bidea, eztira nahitez berak. Elgarrekin dute ez zuzenak izaitea, ahazpena eztelakotz maitasuna baino gehiago erregulariki aitzinatzen. Baina ez-tituzte nahitez bide berak hartzen. Eta itzultzean hartu nuen bidean, izan ziren, heldokitik ontsa hurbil jadanik, bereziki orhoit nizan laur

aldi, han ikusi nituelakotz dudarik gabe Albertine-rendako nuen maitasunean barne etziren gauza batzu, edo bederen maitasun handi bat baino lehen jadanik gure ariman zena hunekin batzen den neurrian baizik hari lotzen etzizazkon batzu, ala hura haziz, ala gudukatuz, ala, argipen bademan gure adimenduko, harekin kontramolde 'ta iduri eginez.

Aldi horietan lehena negu haste batez hasi zen, jalgia nintzan Omiasainduko igande eder batez. Oihanera hurbiltzen ari nintzan batean, trixteziarekin orhoitzen nintzan Trocadéro-ra ene bila heldu zen Albertine-ren itzultzeaz, egun bera baitzen, baina Albertine gabe. Trixteziarekin eta bizkitartean ez hala ere atseginik gabe, ezen lehena-go ene eguna betea zuen aire beraren berriz hartzeak minorrean, doinu lastimatu batean, Françoise-ren telefonaldi haren, Albertine-ren jite haren hutsak berak, ezpaitzen ezezko zerbait baina orhoitean nuenaren egiazko ekhentzea, egunari bazemon zerbait mingarri eta egiten zuen egun leun eta laño bat baino zerbait ederrago, gehiago hartan etzena, handik atheraia izana zena markatua gelditzen zizakolaketz barnera itzulirik bezala. Vinteuil-en zonatako aire batzu kantatzen nituen ahapeka. Enuen gehiago biziki sofritzen Albertine-ek hainbat aldiz joa zautala gogatzean, hartaz nituen orhoitzapen abantzu guziak sartuak baitziren gehiago bihotzean herstura antsigarririk emaiten eztuten, baina eztitasunetik emaiten duten bigarren izanara kimika hartan. Aldi batzuez, usuenik joiten zituen zatietan, orduan xoragarri iduritzen zizatan horrelako gogoeta baten egiteko, zerbaitez orhoitarazteko ohidura zuenetan, banion neure baitan: «Gaixo haurra», baina trixteziarik gabe, musikako zatiari gaineratuz bakarrik balio bat gehiago, balio zerbait moldez ixtorioko eta ohargarri bat, Van Dyck-ek egin Charles Lehenaren margazkiak, berez jadanik hain ederrak, Erregeren hunkitzeko Barry-ko Anderearen borondateaz herriko bildumetan sartua izaitetik balio gehiago oraino hartzen duen bezala. Aire ttipia, osoki itzali baino lehen, hetan ephe batez banakatua egon zen bere zati guzietan barreatu zenean, etzen enetako, Zuanendako bezala, Albertine-ren mezulari bat itsabasten ari zena izan. Aire ttipiak

etzituen ene baitan Zuanen baitan eginak zituen ideia elgartze osoki berak atzarri zituenak. Sendikor izana nintzan oroz gainetik, maitasun hura ene bizian egina zen bezala zonatan egiten ari ziren aire baten apailatzeari, entseguer, berriz haster, «bilakatuko» zenari. Eta orai, jakinez ene maitasuneko zati bat gehiago egun bakoitz zenbat ari zen joaiten, bekaizkeriako aldea, gero bertze bat, orhoitzapen nahasi batean apurka itzultzen ari zelarik, oro har, hastapeneko bere phizkailu ahulera, iduri zizatan ene maitasuna nuela, aire ttipi banatuan, ene aitzinean barreazten ikusten.

Oihanpe bateko bidexka berezietan, gaza egun bakoitz mehatuago batez hedatuetan hara nindoanean, senditzen nuenean Albertine karrosan ene ondoan zen ibilaldi bateko orhoitzapena, etxera enekin sartua zen batekoa, ene bizia inguratzen zuela sendi nuen bidaia bateko orhoitzapena orai ene inguruan airean, abar ilunduen lambro dudazkoan hauen artean etzatera zoan iguzkiak dirdira-arazten zuelarik, hutsean dilindan iduri, urrezko orstailen zabalara argala, (Bertzela ere, noiztenka ikharatzen nintzan, bidexka baten izkinan gelditu emazte bati ideia geldi batek gogoan denaren eitea, ukan dezakeen nortasuna emaiten daukola uste duten guziak bezala: «Hura da behar bada!» Burua itzultzen da, karrosa badoa aitzina eta ezta gibelera itzultzen.), horien ikustea orhoitzapeneko begiekin etzizatan aski, gogoia eratxikitzen zautaten, hunkitzen ninduten haien artean idazleak, osoagoak egitekotan, alegia bat, elhaberri oso bat sartzen duen orrialde garbiki erakusle hek bezala; eta naturaleza horrek hartzen zuen horrela ene bihotzerano joan zaitekeen gogoilundurako gozagarritasun bakarra. Gozagarritasun horren arrazoina Albertine beti berdin maite nuela zela iduritu zizatan, egiazko arrazoina ahazpenak nitan aitzinamendu batzu egiten ari zituela zelarik aldiz, Albertine-ren orhoitzapena etzizatala mingarri, erran nahi baita aldatua zela. Baina gure iduripenentan argi ikus dezakegu, orduan ene gogoilunduraren arrazoinen argi ikusten nuela uste ukan nuen bezala, eztakigu hala ere haien errannahi urrunagorano igaiten, medikuak eriak erraiten dauzkon aldixartzeak entzuten dituen bezala eta haier esker arrazoin barnatuago, eriaz

jakina ezten batera igaiten, berdin ere gure iduripenek, gure ideiek eztute seinale batzuen balio bat baizik. Sendi nuen xoragarritasunezko eta trixtezia eztiko iduripenaz ene bekaizkeria bazterrean atxikia izanez, ene sentsuak atzartzen ari ziren. Aldi bat gehiago, Gilberte-ren ikustetik gelditua nintzanean bezala, emaztearen amodioa nitan jeikitzen zen, jadanik maitatu emazte berezi batekin lotura oroz gabetua, eta airean zagon aitzineko suntsitze batzuek liberatu dituzten eta primaderako airean dabiltzan ezanza hek bezala, norbait berrirekin batzea baizik ez galdeginez. Ezta nehon hilerri batean bezainbat lore hozitzen, «ahatz enezazula» izena ukan dezaten ala ez. Egun eder hura ezin zenbatuki loratua zen nexka gazter so nindagon, behin Villeparisis-ko Anderearen karrosatik edo, igande ber batez, Albertine-rekin jina izanen nintzanetik egina ukanen nuen bezala. Berehala, haietarik bat edo bertzean ezartzen nuen soarekin birazkatzen zen Albertine-ek ebaska igorria ukanen zauen behako jakin-nahia, gordekakoa, deliberatua, gogamen ezin hartu batzu itxuratzen zituena eta, nihaurena hegal mixteriozko, lehiatu eta urdinaran batez birazkatuz, bidexka ordu arteo hain natural hetan arrotz baten hotz-ikhara iragan-arazten zuena, nihauren gutzia ezpaitzen haien berritzeko aski izanen bakarrik gelditua izan baliz, ezen hark, enetako, arrotzik ezer etzuen.

Eta batzuetan elhebarri apur bat trixte baten irakurtzeak banninderaman bapatez gibelera, elhaberri batzuek ordu bateko dolu handi batzuek bezala ohidura ezeztatzen baitute, berriz biziko gauzetara ekhartzen baigituzte, baina zenbait orenendako bakarrik, amets gaixto batek bezala, ezen ohiduren indarrak, emaiten duten ahazpena, berriz egiazkoaren egiteko eta ohiduren kontra gudukatzeko burumunen ezinaz ekhartzen duten alaitasuna, ezin gehiago nagusitzen zazko liburu eder baten esondamendu abantzu loizunekoari, hunek, esondamendu guziek bezala, ondorio biziki laburrak baititu.

Bertzela ere Balbec-en, Albertine ezagutu nahi ukana nuen, lehen aldian, ez ote zen karrketan, bidetan hain usu gelditua ninduten nexka gazte haiek itxuratzen zituela iduritzen zizatalakotz, eta enetako biziaren laburpen izan zaitekeelakotz? Eta etzena natural

orai hetan tinki bildua zen ene maitasuneko izar hiltzera zoana berriz banaka zadin izar-hedoi erhauts barreatu hortan? Guziak Albertine batzu iduritzen zizaztan, neure baitan ekhartzen nuen itxurak hura berriz orotan aurki-arazten zautan, eta ere, bidexka bateko bihurtu-  
nean, beribil batera igaiten ari zen batek hainbat zautan orhoit-arazi, hain zuzenean zen soinarra berekoa, nun ephe batez galdez egon bainintzan ikusia nuena ez ote zenez hura, haren heriotzeko ixtorioaren erraitan enindutenez bairatua. Berrikusten nuen horrela bidexka iz-  
kin batean, Balbec-en behar bada, molde berean karrosara igaiten, bizian hainbertze konfienxia zuen orduan. Eta beribilera berriz igaiteko nexka gazte horren egintza, enuen bakarrik ene begiekin ikusten ibilaldi batean hain usu agertzen den itxura azalekoa bezala: halako egintza iraunkor bat bilakaturik, iduri zizatan iraganera ere hedatzen zela, berriz gaineraturik izana zizakon alde hortaz, eta hainbat atsegi-  
nekin, hain trixteki ene bihotzaren kontra bermatzen zenaz.

Baina nexka gaztea itzalia zen jadanik. Urrunxago ikusi nuen hirur nexka gazte adinekoxagoen multzo bat, emazte gazte batzu behar bada, haien itxura aphaia eta gementsua hain ontsa baitzoan Alabertine-ri eta haren adixkider ohartua nindeen lehen egunean bildua ninduenarekin, nun hirur nexka gazte berri horien gibeletik abiatu bainintzan eta karrosa bat hartu zuten orduan, bat etsipene-  
kin bilatu bainuen alde orotan, eta aurkitu, baina berantegi. Enituen berriz hatzeman. Baina zenbait egun berantago, etxera sartzean, ikusi nituen, gure etxe azpiko atherbetik jalgitzen ari, Oihanean ikusiak nituen hirur nexka gazteak. Ainitzetan, ene leihotik ikusirik ala karri-  
kan gurutzaturik, mila xede egin-araziak zauztaten, bizia maita-arazia zautaten eta ezagutuak ahal enituen nexka gazte munduko hetarik ziren osoki, bi beltxaranak oroz gainetik. Ile horiak bazuen itxura urgurixago bat, abantzu eria, gutiago gustatzen zizatana. Hura izan zen alta ephe batez, erroak han eginik, haier beha egoitea aski izan etzizatala egin zuena, bere geldo ezin baztertuaz, problema batera bezalako oharpenaz, ikusten denetik ontsa haratago joaiteko beharraz ohartu direla iduri duten so haiekin. Enituen dudarik gabe nehoiz

joaitera utziko, ile horiak, ene aitzineik iragan ziren orduan, - oharpenekin beha nindagoelakotz ote zen? - ezpalaut ebaska lehenbiziko so bat igorri, eta gero urrunago joanik, burua ene gana berriz itzuliz, osoki suharr-arazi zautan bigarren bat. Bizkitartean, nitaz axolatzetik gelditu baitzen eta berriz bere adixkidekin elhekatzen hasi, ene suhartasuna eroriko zen azkenean, ehundua izan ezpaliz gertakizun huntaz: etxezainari nor zen galdeginik, erran zautan: «Dukesa Anderea galdegin dute. Uste dut badela bat ezagutzen duena eta bertzek atherano lagundua dutela bakarrik. Huna izena, ontsa izkiriatura denez eztakit.» Eta irakurri nuen: «Déporcheville Andereñoa» errexki zuzendu nuena: «d'Éporcheville», erran nahi da, orhoit nintzan bezainbat, familia ezin hobeko nexka gaztearen izena edo nunbait han, eta Guermantes-tarrer urrundik ahaidetuarena, Robert-ek aiphatua baitzautan emategi batean aurkitua ukanik eta harekin adixkidantzak ukanak baitzituen. Orai hartzen nuen haren behakoaren erran-nahia, zergatik itzulia zen eta bere adixkidetarik gordea. Zenbat aldiz nuen gogoan ukana, Robert-ek errana zautan izenaren araura asmatuz! Eta huna nun ikusi berria nuen, bere adixkidetarik batere ezperdina, salbu behako gorde hortarik ene 'ta haren artean bere adixkider ageriki gordea zizeen biziko zati batzuetara segetuzko sartze bat bazegiena, eta hurbil-errexagoa - abantzu enea -, ariztokraziako nexka gazteak ohian diren baino eztiagoa agerr-arazten zautana. Hunen gogoan baziren aitzinetik haren eta ene artean elgarrekin iraganen ahal ukanen ginituen orenak, eni hitzarraldi baten emaiteko libertatea ukan balu. Etzena hori haren soak erran nahi ukana zautana enetako baizik argia izan etzen itxura batekin? Ene bihotzak joiten zuen bere indar guziez, enuen zuzenki erranen ahal Éporcheville-ko Andereñoa nola egina zen, banakusan nahasiki bazterrez ikusi begitarte ile hori bat, baina hartaz amoros erotua nintzan. Bapatez ohartu nintzan hiruren artean hain zuzen itzulia zen ile horia eta bietan so egina zautana Éporcheville-ko Andereñoa baliz bezala arrazoinkatzen nintzala. Etxezainak etzautan bada hori errana. Etxezaindegira itzuli nintzan, berriz galdekatu nuen, erran zautan hortaz xehetasunik ezin eman

zezaketala, egun lehen aldiko ethorriak zirelakotz eta bera hor etzelarik. Baina joanen zen aldi batez jadanik ikusiak zituen bere emazteari galdatzera. Zerbitzuko mailadiaren garbitzen ari zen. Nork eztitu bere bizian duda horietarik ukan, guti edo aski horien idurikoak, eta ezin goxoagoak? Dantzaldian ikusia den nexka bat nolakoa den erraiten daukozun adixkide garitadedun batek egina du zure adixkidetarik bat izan behar zuela eta harekin gomitatzen zitu. Baina bertze hainbertzeren artean eta elhezko potret batez, eztea hutsik egina izanen? Sarri ikusiko duzun nexka gaztea eztea gutiziatzen duzuketik bertze bat izanen? Ala eztuzua aldiz irriño eginez zuri eskuaren emaiten ikusiko, hain zuzen izan zadin agiantzatzen zinuen hura? Azken suerte hau aski usu gertatzen da, eta, Éporcheville-ko Andereñoa hunkitzen zuena bezain phorogagari etzen arrazoinamendu batez beti baieztatua izan gabe, halako asmu baten eta ere batzuetan fagoratzen gituen zoriko hats baten ondorioa. Orduan, haren ikustean, egiten dugu: «Hura da bada.» Orhoit nintzan, itsas-bazterrean zabiltzan nexka gazten multzo ttipian, Albertine Simonet izenekoa zein zen zuzen asmatua nuela. Orhoitzapen horrek eman zautan min samin baina labur bat, eta etxezainak emaztea bilatzen zuen batean, gogoan nuen oroz gaineratik - Éporcheville-ko Andereñoa gogoan, eta igurikatzeo minuta batzuetan bezala, orduan begitarte bati zergatik jakin gabe emana zakon izen bat, xehetasun bat libro gertatzen baita eta andana baten artean airean, berriz lotzen baldin bada, hartaz xehetasun eman zautzun lehenbizikoaren ezezagun, ogengabe, ezin hargarri egitera prest - etxezainak ikasiko zautala behar bada Éporcheville-ko Andereñoa aldiz bi beltxaranetarik bat zela. Aldi hortan haren izaitean sinesten nuen nexka gaztea ezeztatzen zen, jadanik maite nuena, haren ukaitea baizik gogoan enuena, ihardeste zorigaitzekoak orduan bi zati ezperdinetan berexiko zuen Éporcheville-ko Andereño ile-hori azpikari hura, nahi bezala bateratuak baintuen, asmuzko jende baten egiteko elhaberrilariak biziari hartu gai batzu elgarrekin urtzen dituen bezala, eta, bederazka harturik - izenak ezpaitzuen soaren xedea egiaztatu - erran-nahi guzia galtzen baitzuten. Aldi huntan ene arrazoin

guziak suntsituak gertatzen zirern, baina zenbat azkartuak izan ziren aldiz etxezaina itzuli zizatarik Éporcheville-ko Anderea ile horia zela bada erraitera!

Ordutik enezakeen izen berdintasun batean sinets. Handiegia izanen zen hirur nexka gazte horietan bat Éporcheville-ko Anderea izenda zadineko halabeharra, molde hartan so egina zautan hura izan zadin hain zuzen (ene ustearen lehenbiziko egiaztatze berezi bat zena), eta emategietara zoana izan etzadin.

Orduan egun bat hasi zen nahasmendu ero batekoa. Biharamunagoan Guermantes-ko Anderearen etxera joanen nintzanean iduripen hobe baten emaitekotan aphaintzeko on zela uste nuen guziaren eroatera joan ere baino lehen, haren etxean aurkituko bainuen horrela nexka gazte errex bat eta harekin hitzartuko bainintzan (aurkituko nuelakotz bada harekin saloin izkin batean solastatzeko bidea), segurtasun gehiagoko Robert-i telegrafiatzera joan nintzan hari nexka gaztearen izen zuzenaren eta erakuspidearen galdegiteko, haren ihardestearen igurikan biharamunagoa baino lehen, orduan behar baitzuen, errana zautan etxezainak, oren berean Guermantes-ko Andereari ikustaldi bat egin; eta joanen nintzan (zekunda batez enuen bertzerik ukan gogoan, ez Albertine ere), hemendik hara zer gertatzen ahal bazizatan ere, behar banuen ere neure burua hara kaderan ereman-arazi, oren berean dukesari ikustaldi baten egitera. Saint-Loup-i telegrafiatzen baldin banaukon, etzen jendea nor zen duda batzu gelditzen zizaztalakotz, eta ikusi nexka gaztea eta aiphatua zautana enetako oraino berex zirelakotz. Bakar bat baizik etzirela enuen dudan emaiten. Baina biharamunagoaren igurikatzeko ene ezin-egonean, hartaz ari zen depexa xehetasunez bete baten ukaitea goxo zizatan, haren gainean segeretuzko botere baten ukaitea zen enetako. Telegrafan, ene depexa izkiribatzen ari nuen batean itxaropenak berotzen duen gizonaren bizitasunarekin, ohartu nintzan haurzaroan baino zenbat gutiago nintzan orai harmarik gabe, eta Éporcheville-ko Andereñoaren aitzinean Gilberte-renean baino gutiago. Ene depexaren izkiribatzeke lana egina nuen ordutik, langileak hartzea aski zuen, eletrikako



komunikabide lasterrenek hel-araztea; Frantziako eta Mediterraneako eremua, Robert-en iragan besta egile guzia aurkitu berria nuen jendearen ezagutzera emana, hasia baizik enuen eta hartaz gogatzeko beharrik ere gehiago enuen elhaberriaren zerbitzuko izanen ziren, alde batera edo bertzera haren bururatzeaz kargatuko baitziren hogeita laur orenak beteak izan baino lehen. Aldiz, lehenago, Champs-Élysées-tarik Françoise-ek ekharririk, etxean bakarrik ahalik gabeko gutizia batzu hazten nituelarik, oraiko biziko bide ohikoez baliatzeko ezinean, salbai batek bezala nuen maite, edo ere, higitzeko libertaterik ezpainuen, lore batek bezala. Ordutik haste, ene dembora sukarrean iragan nuen; aitak harekin egin nezan galdegin zautan berrogei-ta zortzi orenez etxean ez izaute batek, eta dukesaren etxeko ikustaldia huts-egin arazten zautanak halako errabia eta etsipenean ezarri ninduten nun ama ararteko jarri baitzen eta aitak Parisen egoitera utzi baininduen. Baina oren zenbaitz ere haserrea etzen eztitu ahal izan, d'Éporcheville-ko Andereñoaz nuen gutizia ehun aldiz handitua izana zen batean gure artean ezarririk izana zen trabaz, eta ephe batez Guermantes-ko Andereari ikustaldiaren egiteko oren horiek, aitzinetik gelditu gabe irriño egiten naularik, nehork ekhenduko ahal etzautan on segur bati bezala, izan etzaiten nuen beldurraz. Filosofo batzuek diote kampoko munduak izaiterik ezuela eta guhauren baitan dugula gure bizia eremaiten. Dena den, maitasuna, bere hastapen lañoetan ere, gauzak guretako guti direlako behazun ohargarri bat da. Behar ukan banu gogoz Éporcheville-ko Andereñoaren potret bat marrazkitu, nolakoa zen erran, erakuspide bat eman, seinalamendu bat, hori ezina izanen zizatan, eta ere karrikan haren ezagutzea. Ikusia nuen orrazez, higitzen, pollita iduritua zizatan, handia eta ile horia, enuen gehiagokorik erranen ahal. Baina gutiziak, antsiak, aitak eremana ukan banu haren ez ikusteko beldurrak eman ukhaldi hilgarriak, horrek guziak, oro har ezagutzen enuen eta goxagarri jakina ukan nezan aski zen iduri bati loturik, maitasun bat egiten zuen jadanik. Azkenik biharamun goizean, logabe zorionezko gau batetik landa ukan nuen Saint-Loupen depexa: «De l'Orgeville, de hitz-lagun, *orge* bihidun, zekale bezala,

*ville* hiri bat bezala; ttipia, beltxaran, biribil, ordu huntan Suizan da.» Etzen hura.

Ephe bat berantago ama ene gambaran sartzen zen kurrierarekin, ene ohe gainean ezartzen zuen axolagabea, bertze zerbait zuela gogoan iduri, eta berehala joan zen ene uzteko bakarrik. Eta nik, ama maitearen amarruak ezagutzen baintuen, eta huts egiteko beldurrik gabe jakinez haren begitar-tean beti irakur zaitekeela, giltzatak hartzen baldin bazen bertzer atsegin emaiteko gutizia, irriño egin nuen eta gogatu: «Enetako ohargarri den zerbait bada kurrier hortan, eta amak axolagabeko eta ohargabeko itxura hori alegia ukan du ene ustegabea osoa izan zadintzat eta iragarriz zure atseginaren erdia ekhertzen dautzuten jende bezala ez egiteko. Eta ezta egon neure alderako amodioz ukanen nuen atsegina gorde dezatan beldur izan delakotz.» Bizkitartean, jalgitzeko athe aldera joaitean aurkitua zuen ene gambaran sartzera zoan Françoise. Eta amak gibelera egitera bortxatua zuen eta kampa ere mana, ohildua eta ustegabetua, uste baitzuen haren karguak bazadukala ordu oroz ene gambaran sartzeko eskubidea eta laket bazizakon han egoitekoa. Baina jadanik, haren begitar-tean, ustegabea eta haserrea itzaliak ziren urriki goren baten eta irkaitz filosifiako baten irriño beltz lekadunaren azpian, bere alderako amodio damutuak zauriaren sendatzeko jarriotzen zuen ixurgai liskatsua. Bera gaitzetsia ez senditzeko gu gaitzesten ginituen. Bazakien ere bada nagusi batzu ginela, jende aldikor batzu, adimenduaz diridiratzen eztirenak eta bere atsegina hartzen dutenak jende izpiritudun batzuer, sehi batzuer, beldurraren bidez, nagusiak direla ontsa erakusteko, arrazoi gabeko eginbide batzuen bortxaz emaiten, hala nola erite aroan uraren erakiaraztea, oihal busti batekin gambara baten ikuztea, eta sartzeko xedetan zirenean hain zuzen handik atheratzea. Amak bere tarrapatan ezkargia ere mana zuen. Ohartu nintzan kurriera ene ondo-ondoan ezarria zuela, ohar nindakion. Baina senditu nuen etzirela egunkari batzu baizik. Maite nuen idazle baten artikulu zenbait bazatekeen eta, bekan idazten baitzuen, ustegabeko bat izanen zena enetako. Leihora joan nintzan, erridau handiak baztertu nituen. Egun hits ikharatuaren

gainetik, oren hartan sukaldetan phizten diren furnegoak diren bezala arrosa-kolore zen zeruak itxaropenez bete ninduen eta han esneketari ttipi matela gorra xtekilakoa ikusia nuen mendiko udalekuan gauaren iragaiteko eta atzartzeko gutuziaz. Eta banantzuen Françoise, ene gam-baratik haizatua izanik sumindua han bere sartze handiak bazituela uste baitzuen, marmarikatzen: «Eztenez zorigaitza, sortzen ikusi den haur bat. Amak egiten ari zuenean eztut ikusi, segurki. Baina ezagutu dutanean, etzen bortz urte jaioturik zela!»

Le *Figaro* zabaldu nuen. Zer nahigabea! Hain zuzen lehenbiziko artikuluak igorria nuen eta agertua etzenaren izenburu bera zuen. Baina ez bakarrik izenburu bera, horra hitz batzu osoki berdinak. Hori, azkarregi zen. Etziren bakarrik hitz zenbait, guzia zen, ene sinadura zen... Ene artikulua zen azkenean agertua! Baina ene gogamenak, aro hartan jadanik zahartzen hasia baitzatekeen eta apur bat akhitzten, ephe batez oraino arrazoinkatzen jarraiki zuen ene artikulua zela hartua ukan ezpalu bezala, hala nola hasi duten mugimendu baten bururano eremaitera borxatuak diren agureak, haren aitzinean berehala gibelera egin behar zen ustegabeko traba batek lanjeros egiten badu ere. Gero urkusi nuen izpirituko ogia den egunkaria, moldizkigailu berriki utzitik oraino bero, moldizkigailutik eta argi hastetik kafesnearekin bere nagusier ekhartzen daueten sehier orduan banakatzen den goizeko lambrotik heze, ogi mirakuluzkoa, gehigarria, aldi berean bat eta hamar mila dena, bakoitzarendako bera gelditzen dena aldi berean, ezin zenbatua, etxe guzietan sartzen den batean.

Eskuan nadukana, etzen egunkari berezi bat, hamar milatarik edozein zen; ez bakarrik nik idatzia dutana, nik idatzia dutana eta guziez irakurria dena. Ordu huntan bertze etxetan gertatzen denaren estimatzeko zuzenki, artikulu hau irakurri behar dut ez idazle bezala, baina egunkariaren irakurletarik bat bezala; etzen bakarrik idatzia nuena, hainbat izpirituetan haren jartzearen itxura zen. Beraz irakurtzeko behar zen ephe batez haren egilea izaitetik geldi nindadin, egunkariaren irakurletarik edozein izan. Baina hastetik bazen lehenbiziko goganbehar bat. Abisatua ezten irakurleak ikusiko ote du

artikulu hau? Ohargabeen egunkaria zabaltzen dut irakurle ez abisatu horrek balegikeen bezala, goiz huntan ene egunkarian denaren ez jakiteko hartzen dutan itxurarekin ere aurpegian eta berri mundutarrer edo politikari so egiteko lehiarekin. Baina ene artikulua hain da luzea nun ene soak, bazterrera eginez (egian egoitekotan, eta ene aldera zoriaren ez ezartzekotan, igurikan dagon batek espes emekiegi khondatzen duen bezala), artetik zati bat hartzen baitu. Baina lehen artikuluari ohartzen diren aintzek, irakurtzen dutenek ere, eztute sinadurari so egiten. Nihaur ere bezperako artikulua norena zen erraiteko ahalik gabe ninzateke. Eta beti irakurriko ditutala hitzemaiten dut orai neure baitan eta idazlearen izena ere; baina, haren leialtasunean sinesteko bere maitea trompatzen eztuen maitale jelos batek bezala, trixteki gogutzen dut ene geroko oharpenak eztuela, ordainez, bertzerena bortxatuko, eztuela bortxatu. Eta gero ihizira joan direnak hor dira, etxetik goizegi jalgi direnak. Azkenean, batzuek hala ere irakurriko dute. Horiek bezala badagit, hasten niz. Jakiten ahal dut artikulu hori irakurriko duten jende aintzek hastiagarri aurkituko dutela, irakurtzen duten orduan, hitz bakoitzan badakusatana paperrean dela iduritzen zata, eztezaket sinets jende bakoitzak begien idekitzean ikusten dituan iduri horiek eztitutala zuzen ikusiko, ustez eta idazlearen gogamena irakurleaz zuzen ikusia den, bertze gogamen bat delarik aldiz haren gogoan moldatzen telefonako haren luzara erran duten elhea bera dela ibiltzen uste dutenen xintxotasun berarekin; irakurle edozein izan nahi dutan orduan berean, ene izpirituak berregiten du idazle bezala ene artikulua irakurriko dutenen lana. Guermandes-ko Jaunak ezpaldin bazuen hartzen Bloch-i gustatuko zizakon horrelako erranaldi bat, jostatu ahalko zen aldiz Bloch-ek gutietsiko zuen gogamen batez. Horrela, aitzineko irakurleak iduriz bazterrera uzten zuen zati bakoitzarendako, maitale berri bat jiten zenean, jendalde batez artikulu osoa gorenera goitua gertatzen zen, eta gehiago haren alde izaitte beharrik enuen nihauren mesfidanzari nagusitzen zen. Hori da egiazki artikulu baten balioaz, hain ohargarria izan ahal dadin Gambarako agerbidetako erranaldi hetaz bezala de-

lakotz, han «Ikusiko dugu bada» hitzak minixtroak erranik, ezpaitira zati bat baizik, eta behar bada balio gutienekoa, horrela irakurri behar den erranaldiaren: KONSEILUKO PRESIDENTAK, BARNEKO ETA KULTOETAKO MINIXTROAK: «Ikusiko dugu bada» (*Oihu biziak ezker-buruan. Biziki ontsa! biziki ontsa! alki batzuetan ezker-rean eta erdian*, erdigunea baino bururapen ederragoa, hastapenaren heinean): haren edertasuneko zati bat - eta literatura mota hortan hastapeneko narrioa da, delako *Lundis* aiphatuak ezpaitira hortarik garbi - irakurlen baitan badagien iduripenean datza. Orogen Venus bat da, haren soinadar motz bat baizik eztadukaguna idazlearen gogomenean baldin bagaude, ezpaita irakurlen gogoan baizik osoa izaiten. Eta jendalde, hoberenez egina baliz ere, ezpaita edergile, bademakon azken nota horrek badaduka beti arrunta den zerbait. Horrela Sainte-Beuve-ek, astelehenean, itxuratzen ahal zuen Boigne-ko Anderea habe gorekilako bere ohean, *Constitutionnel*-eko haren artikulua irakurtzen, hartan luzaz gustatua zen erranaldi pollit baten estimatzen, ezpaitzen behar bada hori nehoiz haren ganik jalgia izanen hortaz bere egunkari-zolakoaren betetzea egoki zela iduritu ezpalizako ukhaldiak urrunago jo zezan. Dudarik gabe Zigiluzainak, bere aldian hura irakurriz, bere andere adixkide zaharrari aiphatuko zaukon berantxago eginen zaukon ikustaldian. Eta gaur bere karrosan haren eremaitean, Noailles-ko dukeak bere galtza beltzuriekin erranen zaukon munduan hartaz zer gogatua zuten, Arbouville-ko Anderearen hitz batek ikasia ukan ezpalauko jadanik. Eta nihauren ganako mesfidanza bermatuz alde nituen hamar mila baimenetan, ordu huntan banagien irakurraldian hartzen nuen irakurria nuena nihuri baizik hel-arazia etzenean hartua nuen mesfidantza bezainbat, neure indarraren sendimendu eta neure antzeko itxaropen. Oren hortan berean banakusan, hainbat jenderendako, ene gogamena - edo hartzen ahal etzutenendako ene gogamenaren eskasean, ene izenaren errepikatzea eta nihauren gogora-arazte edertu bat bezala - haien gainean dirdiratzten, haien gogoaren margoztatzen ordu berean leiho orotan arrosa-kolore agertzen ari zen ozkorri ezin zenbatuak baino gehiago indarrez eta

bozkario triunfariz betetzen ninduen ozkorri batean.

Ikusten nituen Bloch, Guermites-tarrak, Legrandin, Andrée, X... Jauna erranaldi bakoitzetik hortan ezartzen dituen idurien hartzen edozein irakurle izaitera entseatzen ari nizan ordu berean, eta egile bezala irakurtzen dut baina ez idazle bezala bakarrik. Baina izaitera entseatzen nizan jende ezin denak fagoragarrienak izaiten ahal zaitan kontrako gauza guziak batera ditzantzat, egile bezala irakurtzen badut irakurle bezala jujatzen niz, idazki batendako erran nahi ukana duen ideala hari gomparatzen duenak nahi ukaiten ahal dituen behar zorrotzetarik bat gabe. Orstalde horiek, izkiribatzen nituenean, hain hitsak zirenak ene gogamenaren ondoan, hain adigaitzak eta ez argiak ene ikuspen harmoniadun eta argalaren ondoan, betetzera heldua enintzan hutsunez hain beteak, nun irakurtzea sofrikario bat baitzizatan, etzuten nitan handitua baizik ene ahalgabearen eta antze eskaz ezin onduaren sendimendua. Baina orai, irakurle izaitera indar eginez, nihauren jujatzeko eginbide mingarriaz bertzeren gainera arintzen niz, egina nuenaren irakurtzean egin nahi ukan nuenaren baztertzerantz heldzen niz bederen. Artikulua irakurtzen nuen bertze batena zela sinestera indar eginez. Orduan ene iduri guziek, ene gogoeta guziek, ziren bezala hartuak nituen eta ene xedetako itxuratzen zuten gaizki heltzeaz orhoitzerik gabe ziren ene hitz guziek, xoratzen ninduten bere dirdiraz, ustegabeaz, barnatasunaz. Eta eskas handiegi bat senditzen nuenean, irakurle edozeinen arima miretsira ihes eginez, banion: «Bah! irakurle bat nolaz daiteke hortaz ohar? Zerbaitek huts egiten du hor, izan daiteke. Baina brientxoa, kontent ezpadira! Bada horrela aski gauza pollit, ohi duten baino gehiago.» Doi-doia nuena irakurtze bizkorgarri hori bururatua, ene esku-izkiribuaren berri-rakurtzeko kuraiarik ukana enuena, berehala berriz hasi nahi ukan bainuen, jeus ezpaita nork bere artikulu zahar bat baizik hartaz erraiten ahal eztenik «irakurri denean berrirakur daiteke». Hitzeman nuen neure baitan bertze batzu eros-araziko nauzkola Françoise-ri, adixkide batzuer emaiteko (naukon erranen), egiazki erhiaz ene gogamenaren ainizteko mirakuluaren hunkitzekotan, eta, Le *Figaro* ideki berria

duen bertze jaun bat baninz bezala, egunkari berean, erranaldi beren irakurtzeko. Bazen ainitz dembora hain zuzen enituela Guermantes-tarrak ikusiak, ene artikuluaz zen aburua haien ganik ikasiko nuen ikustaldi baten egitera joanen nindeen.

Gogoan nuen haren gambaran sartzea hainbat maitatuko nuen emazte irakurle bat eta egunkariak ekharriko zaukona ene gogamena ezpada, ezpaitzuen hartzen ahal, bederen ene izena, nitaz egin ukanen zizakon laudorio bat bezala. Baina maite ezten zerbaiti eman laudorioek bihotza eztute eratxikitzen, aditzen ahal ezten izpiritu baten gogoetek izpiritua erakhartzen duten baino gehiago. Baina bertze adixkide batzuekiko, banion neure baitan, ene osagarriak gaixkitzen jarraitzen baldin bazuen eta gehiago ikusten ahal ezpaldin banituen, idazten jarraitzea goxagarri lizatekeela, hortik haien ondora sartze ukaitekotan, ene nahitara haien goga-arazteko, haier laket izaiteko, haien bihotzean onhartua izaiteko. Hori nion, adixkidantza mundutarrek orai arteo egunorotako ene bizian leku bat edukia ukanik, horiek hartan aurkituko etziren ethorkizun batek laztatzen ninduelakotz, eta nitan ene adixkiden oharpenaren atxikitzera, behar bada mirestearen sustatzera uzten ninduen jalbide horrek, berriz haien ikusten hasteko aski ontsa izanen nintzan egunerano, konsolatzen ninduen; hori nion, baina sendi nuen bada etzela egia, nihauri haien oharpenaren itxuratzea ene atseginaren arrazoina bezala maite baldin banuen, atsegin hori barneko, izpirituko, nahizko atsegin bat zela, hek emaiten ahal etzautatena eta aurki nezakeena ez haiekin elhekatzean, baina hetarik urrun idaztean; eta, zeharka haien ikusteko idazten hasten baldin baninz, nitaz ideia hobe bat ukan zezaten, munduan nihauri izanara hobe baten prestatzeko, idazteak behar bada haien ikusteko gutizia ekhenduko zautan, eta literaturak munduan behar bada egin ukanen zautan izanara, enuen gehiago hartaz gozatzeko gutziarik, ene atsegina ezpaitzen gehiago munduan izanen baina literaturan.

Beraz bazkal-ondoan, Guermantes-ko Anderearen etxera joan nintzanean, gutiago izan zen Éporcheville-ko Andereñoarendako,

galdua baitzuen, Saint-Loup-en depexaren gatik, bere nortasuneko hoberena, dukesaren beraren baitan ene artikuluaen emazte irakurletarik baten ikusteko baino, utziko baininduen jendeak, *Figaro*-aren abonatu eta erosle, zer gogatua ahal zuen asmatzera. Enintzan bertzela ere atsegirik gabe joan Guermantes-ko Anderearen etxera. Erran nezakeen saloin hori enetako bertzetarik ezperdintzen zuena ene idurimenean egina zuen egonaldi luzea zela, ezperdintasn horren arrazoinak ezagutuz enuen ezeztatzen. Guermantes izen bat baino gehiago baziren bertzela ere enetako. Helburuekilako liburu batean bezala baizik ene orhoitak atxikia etzuenaz ezpazen batere poesiaz lagundua, zaharrago batzu, Guermantes-ko Anderea ezagutzen enuen demborarano igaiten zirenak, ene baitan berriz moldatzeko gai ziren, oroz gaintik bazelarik aspaldi enuela ikusia eta giza-begitartearekilako jendearen argi gordinak etzituelarik oraino izenaren arrai mixteriozkoak iraungitzen. Orduan emaiten nintzan berriz Guermantes-ko Anderearen egoitzaz gogutzen gauzez haraindian izanen zen zerbaitez bezala, ene lehenbiziko ametsetako Balbec lanhotsuaz gogutzen berriz hasten nintzan molde berean eta geroztik bidaia hori egina ukan ezpanu bezala, oren bat eta berrogei-ta hamarrekko treinari hartua ukan ezpanu bezala. Ahazten nuen ephe batez hori guzia etzela banakiela, maitatu den norbait batzuetan gogoan ukaiten den bezala hila dela ephe batez ahatziz. Gero gauzetako egiaren ideia berriz jin zen dukesaren aitzin-gambaran sartzean. Baina konsolatzen nintzan hala ere enetako egiaren eta ametsaren arteko gurutzagunea zela erranez.

Saloinera sartzean, Saint-Loup-ek aiphatua zautana zela hogei-ta laur orenez uste ukana nuen nexka gazte ile horia ikusi nuen. Hark berak zaukon dukesari galdatu hari berriz aintzineran nindezan. Eta alabaina, sartua nintzanetik, banuen biziki ontsa ezagutzen nuelako iduripen bat, baina dukesak ezeztatu zuena eni erranez: «Ha! jadanik aurkitua duzu Forcheville-ko Andereñoa?» Bada segur nintzan aldiz ehoiz enintzala izen hortako nexka gazte bati aitzineraturik izana, ohartuko bainindakon segurki, hain zen ene orhoitean jarria Odette-ren amarez eta Zuanen bekaizkeriaz gibeletikako ixtorio bat



eginik izana zizatanaz geroztik. Bereaz izeneko ene huts bikunak, «de l'Orgeville»-ez orhoitua izaitiak «d'Éporcheville» baliz bezala, eta egiazki «Forcheville» zena «Éporcheville» bermoldatua ukaiteak ohigabekorik ezer etzuten. Diren bezala gauzen erakustea da gure ogena, izenen erakustea izkiribatuak diren bezala, jenden erakustea fotografiak eta zikologiak hetaz emaiten duten ideia geldi batean bezala. Baina egiazki ohian hautemaiten duguna ezta batere hori. Mundua trebeska ikusten dugu, entzuten, gogutzen. Izen bat entzuna dugun bezala errepikatzen dugu ikasiak gure hutsa zuzendua duen arteo, beti gertatzen eztena. Jende guzia Combray-n hogeita bortz urtez Françoise-ri Sazerat Andereaz mintzatu zizakon eta Françoise jarraiki zen Sazerin Anderea erranez, ez haren baitan ohikoa zen hutsetan iraute urguludun nahituaz, gure kontra-erranaz azkartzen zenaz eta haren baitan 1789-ko lege berdintzaletarik Saint-André-des-Champs-ko Frantziari gaineratua zaukon guzia zenaz. Betiereko huts horrek, «bizia» baita hain zuzen, eztauzko bere mila moldeak emaiten bakarrik ikusten eta entzuten den munduari, baina gizartekoari, sendimenduetakoari, ixtoriokoari eta b. Luxembourg-eko prinzesak eztu lilitto baten izanara baizik President Lehenaren emaztearendako, ondorio guti duen gauza bertzela ere; gehixago baduena, Odette emazte erabilgaitz bat da Zuanendako, hortik elhaberi oso bat moldatzen baitu mingarriago bilakatzen dena bere hutsaz ohartzen denean; oraino gehiago baduena, Frantsesek eztute Ordainaz baizik amets egiten Alemanen ustez.

Mundu osoaz eztitugu ikuspen moldegabeko batzu baizik, zatikatuak eta gogamen elgartze nahi bezalako batzuez, esondamendu lanjeros batzuen emaile direnez osatzen ditugunak. Enuen beraz biziki ustegabetua izaiteko arrazoinik ukanen Forcheville izenaren entzutean (eta galdez nindagon jadanik Forcheville-ren jendakia batez nuenez mintzatzen entzuna) nexka gazte ile horiak ezpalaut berehala erran, gozagaitz izanen zizazkon galde batzuen arteziaz aitzintzeko nahitan dudarik gabe: «Lehenago ainitz ezagutu nauzula etzira orhoitzen, etxera jiten zinen, Gilberte zure adixkidea. Ikusi dut bada eninduzula

ezagutzen. Baina berehala ezagutu zitut.» (Hori erran zuen saloinean berehala ezagutua banindu bezala, baina egia karrikan ezagutua ninduela da eta egunon erran zautala; eta Guermantes-ko Andereak erran zautan berantago gauza biziki jostagarri eta ohigabeko bat bezala errana zaukola nola jarraikia nindakon eta hunkitzer nuen, lilitto batendako hartuz.) Enuen hura joan eta baizik jakin zergatik zen Forcheville-ko Andereñoa deitzen. Zuan hil ondoan, Odette, bihotzmin barnatu, luzatu eta zintzo batez jende guzia ustegabetu zuena, alhargun biziki aberatsa gertatzen zen. Forcheville-ek ezkondu zuen, jauregietako itzuli luze bat egin ondoan eta haren familiak emaztea onhartzuko zuela segurtatua izanik. (Familia horrek estakuru batzu eman zituen, baina abantzu miseriatik joritasunera iraganen zen ahaide behardun baten gastuen bere gain hartzeko beharrik gehiago ez ukaiteko abantailaren aitzinean amor eman.) Gutu berantago, Zuanen osaba bat, haren gainean ahaide andana baten heriotze jarraikiak gaitzeko ondore bat metatua zuena, hil zen, bere fortuna guzia Gilberte-ri utziz Frantzian ondoko aberatsenatarik bat gertatzen baitzen horrela. Baina Dreyfus aferaren ondorio batzuetarik Juduen kontrako mugimendu bat sortua zen munduan Izraeliten sartze nasaiago baten ara berdinekoa. Politikariak etziren ogendun izanak justiziako hutsaren aurkitzeak judu-hastioari ukhaldi bat emanen zaukola uste ukaitean. Baina, anartean bederen, judu-hastio mundutar bat aldiz hortaz azkartua eta sumindua gertatzen zen. Forcheville-ek, den gutieneko aitorensemeak bezala, familiako solasaldi batzuetan hartua baitzuen bere izena La Rochefoucauld-ena baino zaharragoa zelako segurtasuna, uste zuen judu baten emaztea ezkonduz egina zuela karrikan emagaldutako bat biltzen duen eta miseriatik eta lohitik jalgitzen duen miliundun batek badagien garitatezko egintza bera. Prest zen bere oneziaren hedatzera Gilberte-rano hainbertze miliunek ezkontza lagunduko baitzuten, baina Zuan izen arrazoingabeko horrek trabatuko. Erran zuen alabatzen hartzen zuela. Jakina da Guermantes-ko Andereak, bere lerrokoen ustegabearen (baitzuen bertzela ere haien jaukitzeko ohidura), Zuan ezkondua izan zenean, etzuela etxean haren alabaren eta amaren

ere hartzea onhartua ukan. Ez hori iduriz zerbait are gehiago bortizki mingarri izana zen nun Zuanendako Odette-rekin eginen ahal zuen ezkontzak luzaz itxuratua zuena, Guermantes-ko Andereari alabaren aitzineratzea baitzen. Eta jakin behar ukanen zuen dudarik gabe, hark hainbat bizi izana zenak, nork beretako egiten diren itxurapen horiek eztirela nehoiz gauzaratzen arrazoin andana baten gatik, horien artean baita bat aitzineratze hortaz urrikitzea gogoan guti ukan zuela egin zuena. Arrazoina hau da: zer ere izan dadin iduria - iguzki etzatean gizon barnetiar bat treinen hartzera delibera-arazten duen jateko den amarrainetik, arrats batez haren aitzinean zaldi-karrosa handizki aberats batean agertuz emazte khutzazain urguluntzi bat ustegabetu ahal ukaiteko gutiziarano - ximenkeriarik gabeko gizon bat erhaite baten egitera delibera-arazten duena edo bere familiako norbaiten heriotzearen eta ondorearen agiantzatza, beldurgabeago edo auherrago den arau, bere ideien lerroan urrunago doan edo lehen maila gogoan gelditzen den arau, idurirano heltzea emanen ahal daukun egintzak, izan dadin bidaia, ezkontza, erhaltzea eta b., aski barnatuki aldatzen gitu gehiago muntarik ez emaitako - behar bada ere ez gehiago aldi bakar batez gogoan haren ukaiteko - oraino bidaiari bat, edo senar bat, edo erhaile bat, edo bakarti bat (omenarendako lanari eman dena eta aldi berean omenaren gutiziatik baztertu) etzenak egiten zuen iduriri. Bertzela ere, debaldetan ez ari nahi ukaitean hisitzen bagine ere, itxura badu iguzkiaren ondorioa etzela aurkituko, ordu hartan hotz izanez supazter xokoan salda bat agiantzatuko ginuela eta ez amarrain bat aire betean, gure hornimenduak khutzazaina axolagabea utziko zuela, osoki bertzelako arrazoin batzuen gatik guretako estimu handi bat baitzuen behar bada eta bapateko aberastasun horrek mesfidanza sustatuko bairtzaukon. Hots Zuan ikusi dugu ezkondua balio emaiten oroz gainetik bere emaztearen eta alabaren adixkidantzer Bon-tempe Anderearekin eta b.

Berari Zuan Anderearen eta Andereñoaren aitzineratzen ehoiz ez uztera dukesa delibera-arazia zuten arrazoin guzietan, bizi mundutarren hartzeko Guermantes-tarren aratik bilduer, gaineratzen ahal

zaie ere maite eztuten jendek maitalen baitan haren bidez gaizkitzen duten eta hauen maitasunak argitzen duen errextasun zoriondun hura. «Ho! eniz hortan guzian sartzen: zozokeria egiteak eta bere bizia-  
ren hondatzeak Zuan gaixoa jostatzen baldin badute, haren egitekoa da, baina enaute gauza horietan hartzen, guzia biziki gaizki burura daiteke, akomeatzen uzten ditut.» Hori da Zuanek berak Verdurindarren aldera aholkatzen zautan *suave mari magno* hura aspaldidanik Odette-ren amoros izaitetik gelditua izan zenean eta multxo ttipiari ez gehiago atxikia. Hori da senditzen eztituzten jaidura biziez eta hauek ekhartzen dituzten gaizkitzez jenden jujamenduak hain zuhur egiten dituen guzia.

Guermantes-ko Andreak ukana zuen ere Zuan Andere 'ta Andereñoaren baztertzen jendea ustegabetua zuen iraupen bat. Molé Andere, Marsantes-ko Anderea hasiak izan zirenean Zuan Anderearekin adixkidetzen eta haren etxera munduko emazte andana handi baten eremaiten, Guermantes-ko Anderea etzen bakarrik bihurri gelditua, baina bide guzien hausteko behar zena egina zuen eta bere gusi Guermantes-ko prinzesak hark bezala egin zezan. Rouvier minixterioaren demboran Frantziaren eta Alemaniaren artean gerla izanzen zela uste izan zen gaitzaldiko egun lanjerosenatarik batez, Guermantes-ko Anderearen etxean auhariz Bréauté-ko Jaunarekin bakarrik bainintzan, itxura arranguratua aurkitua naukon dukesari. Uste ukana nuen, politikan gogotik sartzen baitzen, nahi zuela hortik gerlaren beldurra erakutsi, hala nola mahira hain arranguratua ethorri zen egun batez, herabeki bere arranguraren arrazoinaz galdekatzen zuen norbaiti ihardetsi zaukonean itxura larri batekin: «Xinak khexarazten nau.» Bada ephe baten buruan, Guermantes-ko Andreak, gerla deklaratzeko baten gain emana nuen arrangura berak argituz itxura larri batekin ihardetsia zuen: «Badiote Marie-Aynard-ek nahi dauela Zuandarrer lerro bat eman. Bihar goizean joan behar dut baitezpada Marie-Gilbert-en ikustera horren debekatzen lagun nezantzat. Hori gabe ezta gehiago lerroko lagunarterik. Biziki ontsa da, Dreyfus aferak. Baina orduan izkinako epiziersak askiko du «nazionalixta» dela erraitea eta ordainez

gutartean onhartua izan nahi ukaitea.» Eta hitz hortaz, igurikatzen nuenaren ondoan hain ergela, ukana nuen irakurlearen ustegabea, Le *Figaro*-an ohiko lekuan gerla erruso-xaponeseko azken berrien bilatzean, horren orde erortzen denean Mortemart-eko Anderaurenaren eztei emaitzak eginak zituzten jenden zerrendaren gainera, arixtokraziako ezkontza baten gotortatsunak egunkariaren azkenera gibela-arazirik lurreko eta itsasoko guduak. Dukesak senditzen zuen bertzela ere azkenean neurri orotarik haraindira eremana zuen iraupenaz horren sendi-arazteko aldi bat huts-egiten etzuen urguluzko satifamendu bat. «Babal-ek, zion, erraiten du Paris-ko bi jende aphaïnenak girela omen, ni eta hura baizik ezkirelako Zuan Andereraz era Andereñoaz agurtzera uzten. Segurtatzen du bada aphaïntasuna Zuan Anderearen ez ezagutzea dela.» Eta dukesa gogotik irriz hasten zen.

Bizkitartean, Zuan hila izan zenean, gertatu zen haren alabaren ez onhartzeko deliberoak emanak ukan zauzkola azkenean Guermandes-ko Andereari hortarik hartzeko gai zen urguluko, bere gain egoiteko, *self-government*-eko, hertsadurako satifamenduak oro, eta ihardokitzen zaukolako, haren erabakien hauts-araztera heltzen etzelako sendipen ezin goxoagoa emaiten zaukon jendearen heriotzeak burura eremanak zituela. Orduan dukesa bertze erabaki batzuen emaitera iragana zen, bizidun batzuekiko eginak izanik, on iduritzen zizakonaren egiteko nagusi zela sendi-arazten ahal zaukotenak. Etzuen Zuan nexka ttipia gogoan, baina, hartaz mintzo zizakonean, dukesak jakin-nahi bat sendi zuen, baina Zuanen nahikariari ihardokitzeke gutziaren gordetzera gehiago heldu etzizakon leku berri batekoa bezala. Bertzela ere, hainbat sendimendu ezperdinek dute bakar baten moldatzera laguntzen ahal, nun ezpailaiteke erran Zuanendako zerbait amultsu bazenez jakin-nahi hortan. Dударик gabe - gizarteko mail orotan bizi mundutar arin-arin batek sendikortasuna paralesiatzen baitu eta hitzen berphizteko boterea ekhertzen - dukesak egiazki maitatzeko haren aitzinean izaitea (egiazko Guermandes bezala horren luzatzeko ezin hobea baitzen) behar zuen, baina ere, gauza arraroagoa, apur bat hastiatzeko. Hala nola nun ainitzetan jendendako zituen sen-

dimendu onak, bizi zireno haien holako edo halako egintzek emaiten zaukoten suminduraz geldituak, hek hil ondoan berriz sortzen ziren. Bazuen orduan abantzu zuzentzeko gutizia bat, asmatzen etztue-lakotz, biziki nahasiki bertzela ere, bere gaitasunekin baizik, eta bizi zirenean nardatzen zuten satifamendu ttipietarik, handi-nahi ttipieta-rik gabetuak. Horrek bazemon batzuetan Guermantes-ko Anderearen eginarari, zuen arinkeria izana gatik, zerbait aski noble, ainitz aphalta-sunekin nahasirik. Ezen, gizakietako hirur laurdenek bizidunak bala-katzen dituztelarik eta hilez eztirelarik gehiago batere axolatzen, hark bazegien ainitzetan haien heriotze ondoan gaizki egina zauenek bizi zirenean gutiziatuko zutena.

Gilberte-*ez* den bezainbatean, maite zuten jende guziak eta bere alderako amodio apur bat bazutenak etziren bozkariatu ahal izanen dukesaren omore aldatzeaz haren aldera, gogoan ukanez bai-zik Gilberte, hogeita borts urteko laidoen ondotik heldu ziren ait-zin-urhatsak erdeinurekin baztertuz, horietaz mendekatuko zela az-kenean. Zorigaitzez, moraleko ihardespenak eztira beti zentzu onak asmatzen duena bezalakoak. Hari atxikia den norbaitendako zituen xedeak behar gabeko laidotez betikotz galdu dituela uste ukan duen batek, hortik beretik aldiz salbatzen ditu. Gilberte, aski axola-gabea harekin amultsu ziren jenden aldera, etzen Guermantes-ko An-derearen ozartasunaz mirespenekin gogoetatzetik gelditzen, ozartasun horren arrazoinak zer ziren galdez egoitetik; aldi batez ere, harendako adixkidantza apur bat zuten guziak ahalgez hil-araziko zituen gauza, dukesari izkiribatu nahi ukana zaukon jeus egina etzaukon nexka ga-zte baten kontra zer zuen galdegiteko. Guermantes-tarrek hartuak zituzten haren begietan bere nobleziak emanen ahal etzetzen arau batzu. Etzituen bakarrik noblezia guzia baino gorago, baina erret-fa-milia guziak ere baino gorago ezartzen.

Zuan anderearen adixkide ohi batzuek Gilberte-*ez* artha ai-nitz hartzen zuten. Arixtokrazian jakin zen ukan berria zuen azken ondorea, zein ontsa ikasia zen ohartzen hasi ziren eta zein emazte goxagarria eginen zuen. Erraiten zen Guermantes-ko anderearen gusi batek, Nièvre-ko prinzesak, hura gogoan zuela bere semearen-

dako. Guermantes-ko Andereak hastiatzen zuen Nièvre-ko Anderea. Orotan erran zuen horrelako ezkontza bat eskandala bat izanen zela. Nièvre-ko Andereak, harritua, segurtatu zuen etzuela gogoan ukana. Egun batez, bazkal-ondoan, eguraldi baitzen eta Guermantes-ko Jaunak jalgi behar baitzuen bere emaztearekin, Guermantes-ko Anderea ari zen mirailan bere xapelaren antolatzen, haren begi urdinak berer so zauden eta zituen ile oraino horier, gelariak bazaduzkan eskuan he-tan etxekandereak hautatuko zuen iguzkitako batzu. Iguzkia leihotik uhainka sartzen zen eta egun ederraz balitzea deliberatua zuten Saint-Cloud-era ikustaldi baten egitera joateko. Guermantes-ko Jaunak, prest-presta, eskularru beltzurietan eta xapel gora buruan, bazion bere buruan: «Oriane zinez ustegabegarria da oraino. Xoragarri aurkitzen dut.» Emaztea gogo onean zela ikusiz: «Hain zuzen, erran zuen, bannen Virelef-eko Anderearen komisione bat zuri egiteko. Astelehenan Operara jitea galdegin nahi zazu. Baina Zuan andereñoa berekin baitu etzen menturatzen eta gauza ikher nezan othoiztu nau. Estu abururik batere emaiten, jakin-arazten dautzut bakarrik. Gure jainkoa, iduritzen zata egiten ahal ginukeela...», gaineratu zuen ohargabe bezala, ezen, norbaiten alderako haien gogoia elgarrekilako gogo bat izanez eta hetarik bakoitzean berdina sortzen, bazakien bere baitarik Zuan Andereñoaren alderako haren emaztearen aihergoa eroria zela eta haren ezagutzeko gutizia bazuela. Guermantes-ko Andereak bualetaren akomeatzea bururatua zuen eta iguzkitako bat hautatu. «Baina nahiko duzun bezala, zer nahi duzu horrek egiz dezatan? Haur hori ezagun dezagun eztut behargaberik batere ikusten. Badakizu bada nehoiz eztutala haren kontra ezer ukan. Bakarrik enuen nahi gure adixkiden lagun falsuen onhartzeko itxura ukan ginezan. Horra guzia. - Eta osoki arrazoin zinuen, ihardetsi zuen dukeak. Zuhurtzia bera zira, Anderea, eta gainera, xapel horrekin xoragarria. - Biziki gixakoa zira», erran zuen Guermantes-ko Andereak senarrari irriño eginez eta athera buruz abiatuz. Baina karrosara igan baino lehen, nahi ukan zauzkon oraino argipen batzu eman: «Bada orai haren ama ikusten duten ainitz jende, badu bertzela ere urteko hirur laurdenetan eri izaiteko izpiritu ona. Nexka gixakoa omen da. Jende guziak badaki

Zuan biziki maite ginuela. Hori osoki natural aurkituko dute.» Eta elgarrekin Saint-Cloud-era abiatu ziren.

Ilabete bat berantago, Zuan nexkañoa, oraino Forcheville izendatzen etzena, Guermantes-tarren etxean auhaltzen zen. Mila gauza aipatu ziren; bazkariaren bururatzean Gilberte-ek erran zuen herabeki: «Uste dut ene aita biziki ontsa ezgutu duzuela. - Baina uste dut bada», erran zuen Guermantes-ko Andreak alabaren bihotzmina aditzen zuela erakustera emaiten zuen doinu gogoilun batekin eta aitzaz zuzen-zuzenki orhoitzen zenez etzela segur gordetzeko itxura emaiten zaukon indar soberakin nahitu batekin. «Biziki ontsa ezagutu dugu, *biziki ontsa* orhoit niz.» (Eta orhoit izan zaitekeen alabaina, hogeita borts urtez abantzu arrats guziez ikusten izana zizakon.) «Badakit biziki ontsa nor zen, erranen dautzut, gaineratu zuen alabari argitu nahi ukana balauko bezala aitatzat nor ukana zuen eta nexka gazte horri bartaz xehetasun batzu eman, ene amaginarrebaren adixkide handi bat zen eta ere Palamède ene koinatarekin biziki adixkidantzan. - Hunara jiten zen ere, eta hemen berean bazkaltzen, gaineratu zuen Guermantes-ko Jaunak lañotasuna erakutsi-nahiz eta zuzentasunezko arranguraz. Orhoit zira, Oriane. Zer gizon ona zure aita! Nola sendi zen familia onest batekoa zela! Gainera ikusi ditut lehenago haren aita eta ama. Hek eta hura, zer jende onak!»

Sendi zen oraino bizi izan balire, aitamak eta semea, Guermantes-ko dukea etzela baratzezain leku bateko haien gomendatzeko dudan egonen. Eta horra nola Saint-Germain bazter-hiria mintzatzen zakon bertze burjesez edozein burjesi, ala egin den salbuespenaz haren lausengatzeko, solastatzeko demboran, gizon ala emazte solaskidearen fagoretan, ala izaitekotz, edo ordu berean, haren aphaltzeko. Horrela dauko judu bati juduen etsai batek, bere gixakotasunaz estaltzen duen orduan berean, juduez gaizki erraiten, arrunkeriarra jautsi gabe laidagarri izaitera uzten duen molde orotako batean.

Baina Epheko erregina, hortan baitzakien zinez zure satifatzen, hortan ezpaitzen abia zindadin uztera deliberatzen ahal, Guermantes-ko Anderea haren esklaboa zen ere. Zuanek batzuetan, sola-



saldiko xoramenduan, dukesari emana ukan ahal zaukon harendako adixkidantza bazuelako lillura, etzezakeen orai. «Xoragarria zen», erran zuen dukesak irriño trixte batekin Gilberte-ren gainean ezarriz so ezti-ezti bat, hunek, zer gerta ere, nexka hori sendikor baldin bazen, erakutsiko baitzaukon aditua zela eta Guermantes-ko Andereak, harekin bakarrik gertatu baliz eta gertaldiek haizu utzi balute, nahiko zaukola bere sendikortasunaren barnatasun guzia agertu. Baina Guermantes-ko Jaunak, ala uste zuelakotz gertaldiek hain zuzen horrelako sendimendu ixurtzer kontra egiten zauetela, ala estimatzen zuelakotz sendimendu gehiegitze oro emazten gauza zela eta gizonek etzutela hortan ikustekorik haien bertze lanetan baino gehiago, salbu kozina eta arnoak, bere gain atxikiak baitzituen, hortan dukesak baino argi gehiago ukanez, uste ukan zuen ontsa eginen zuela ezpazuen, hartan sartuz, ezin-egon ageri batekin entzuten zuen solasaldia hazten. Eta, Guermantes-ko Andereak, sendikortasuneko aldi hori iraganik, arinkeria mundutar batekin egin zuen, Gilberte-ri mintzatuz: «Oizu, erranen dautzut, Charlus ene koinataren adixkide hhhaundi bat zen, eta ere Voisenon-ekin (Guermantes-ko printzearen jauregia) biziki adixkide», ez bakarrik Charlus-ko Jaunaren eta printzearen ezagutzea Zuanendako halabehar bat izana baliz bezala, dukesaren koinata eta gusia haiekin Zuan aldi berezi batez adixkidetzen gertatua izana zen bi gizon izanak balire bezala, Zuan aldiz mundu ber hortako jende guziekin adixkidetua zelarik, baina ere Guermantes-ko Andereak nahi ukan balu bezala Gilberte-ri adi-arazi haren aita nortsu zen, eta «lekuratu», haren ezagutze beharrik etzen norbaitekin adixkidantzan nola gertatzen den argitu nahi denean, edo egiten den ixtorioari berezitasun emaiteko, jende berezi baten aitzinekotasunari hel egiten den itxura berezi hetarik baten bidez. Gilberte-ez den bezainbatean, solasaldia erortzen ikusteaz are gehiago zoriontsu izan zen nun ezpaitzuen hain zuzen hartaz aldatzea baizik bilatzen, Zuanen ondorez ukana zuen hauteko artezia hura baitzuen, dukeak eta dukesak adimenduko xoragarritasun batekin ezagutu zuten eta estimatu, Gilberte-ri galdegin baitzaukoten laster berriz itzul zadin. Bertzela ere, bizia helbu-

rurik gabe duten jenden ximentasunarekin, aldizka ohartzen ziren, haiekin adixkidantzan sartzen ziren jenden baitan, gaitasun xoilenez, hauen aitzinean goraki mintzatu, baserrian belar izpi bat aurkitzen duen hiritar baten mireste xintxoarekin, edo aldiz mikrozkopa batekin bezala, den gutieneko hutsak handitzen zituzten, burutzerik gabe aztertzen, hastioan hartzen, eta hori ainitzetan aldizka jende ber baten baitan. Gilberte-z den bezainbatean, haren goxagarritasunak izan ziren lehenik Guermantes-ko Jauna eta Anderearen ohartasun aizinatua hetan gelditu zena: «Ohartu zirea hitz batzuen erraiteko duen moldeari, erran zaukon hura joan eta dukesak senarrari, Zuanetik zen bada, entzuten nuela uste nuen. - Zure ohar beraren egitera nindoan, Oriane. - Izpirituduna da, osoki aitaren ara du. - Biziki gorago dela ere aurkitzen dut. Gogora ezazu zein ontsa khondatu duen itsas-mai-nuetako ixtorio hura, badu bringo bat aitak etzuen. - Ho! ontsa izpirituduna zen alta. - Baina eztut etzela izpirituduna erraiten, erraiten dut etzuela bringorik», erran zuen Guermantes-ko Jaunak doinu auhenkatu batean, hezueriak zaintsu egiten baitzuen, eta bere nardamenduaren entzun-arazteko bertzerik nehor etzuenen, dukesari zaukon erakusten. Baina horren arrazoinen ontsa hartzeko ezinean, nahiago zuen itxura ez aditu bat hartu.

Duke 'ta dukesaren omere on horiek egin zuten orai errana ukanen zizakola beharrez batzuetan «zure aita gaixoa», baliatu ahal etzena, Forcheville-ek hain zuzen dembora hortan nexka gaztea alabatzen onhartua ukanik. Forcheville-ri «aita» erraiten zaukon, atso-alhargunak xoratzen zituen bere jendetasunaz eta ikustateaz, eta aithortzen zen, Forcheville-ek miragarriki egina bazuen harekin, nexkak bihotz ainitz bazuela eta bazakiela haren sariztatzen. Batzuetan errextasun ainitz erakusten ahal eta nahi zuelakotz, zuen dudarik gabe ene ganik nor zen ezagun-arazia, eta ene aitzinean bere egiazko aitaz mintzatu. Baina salbuespen bat zen eta jendea etzen haren aitzinean Zuanen izenaren erraitera menturatzen.

Hain zuzen saloian sartzean Elstir-en bi marrazkier ohartu berria nindean, lehenago gaineko gabinet batera baztertuak zirenak

han halabeharrez ikusiak baintuen. Elstir orai modan zen. Guermantes-ko Anderea bere andere gusiari hainbertze margazki emanak ukaitez etzen konsolatzen, ez modan zirelaketz, baina orai gustatzen zizazkolaketz. Moda alabaina Guermantes-tarrak haien itxuratzaleak diren jende andana baten gostuaz egina da. Baina dukesak etzezakeen haren bertze margazki batzuen erostea gogoan ukan, dembora zenbaitez geroz balio eroki gora batzuetara iganak baitziren. Nahi zuen bederen Elstir-en zerbait ukan bere saloinean eta bi marrazki horiek jauts-araziak zituen «haren margazkiari hautesten» zituela baitzion. Gilberte-ek egin-molde hori ezagutu zuen. «Elstir batzu iduri dute, erran zuen. - Baina ba, ihardetsi zuen ohargabeen dukesak, hain zuzen zure... gure adixkide batzuek eros-araziak zauzkuten. Miragarri da. Ene ustez, haren margazkia gainditzen dute.» Nik elgarritzeta hori ezpainuen entzuna, margazki bati so egitera joan nintzan. «Ori, delako Elstir hura da...» Ikusi nituen Guermantes-ko Anderearen kheinu lastimatuak. «He! ba, gainean miresten nuen Elstir da. Barne-bide hartan baino ontsa hobeki da. Elstir-ez den bezainbatean atzo Figaro-ko artikulu batean aiphatua dut. Irakurri duzu? - Artikulu bat Figaro-an izkiribatu duzu? egin zuen Guermantes-ko dukeak «baina ene gusia da» egina ukan balu bezalako bortiztasun berarekin. - Bai, atzo. - Figaro-an, segur zira? Horrek ontsa ustegabe nindezake. Bakoitzak gure Figaro-a baitugu, eta bati eskapatu balizako, bertzeak ikusia ukanen zuen. Eztea hala, Oriane, jeusik etzen.» Dukeak Figaro-a bila-arazi zuen eta etzuen ikustean baizik amor eman, ordu arteo, idatzia nuen egunkarian izaitekotz huts egina nuela izan ahal baliz bezala. «Nola? eztut hartzen, artikulu bat egina duzu beraz Figaro-an?» erran zautan dukesak, ohargarri etzizakon gauza batez mintzatzeko indar eginez. «Baina dakusagun, Basin, hori berantago irakurriko duzu. - Baina ez, dukea horrela biziki ontsa da bere bizar handiarekin egunkariaren gainean, erran zuen Gilberte-ek. Hori sartzean berehala irakurriko dut. - Bai, jende guziak orai bizarra moztua duenean bizarra badu, jeus eztu nehoiz bertzek bezala egiten. Ezkondu girenean, mozten zuen ez bakarrik bizarra baina muxtatxa. Ezagutzen etzuten laborariak etzu-

ten uste Frantzesak zela. Orduan Laumes-etako printzea deitzen zen. - Bada oraino Laumes-etako printze bat?» galdegin zuen Gilberte-ek hain luzaz egunon errana etzaukoten jendeak hunkitzen zituen guziak gogoia eratzikitzen baitzaukon. «Baina ez, ihardetsi zuen dukesak so gogoilundu eta pherekatzale batekin. - Hoin titulu pollita! Frantziako ederrenetarik bat!» erran zuen Gilberte-ek, ohiko hitz andana bat jiten baita, orenak joiten duen bezala, jende adimendun batzuen ahora. «Baietz bada, urriki dut ere. Basin-ek nahi luke bere arrebaren semeak berriz har lezan, baina ezta gauza bera; ororen buruan izan laiteke ezpaita bortxaz seme zaharrena, zaharrenetik bigarrenera iragaiten ahal da. Erraiten nautzun orduan Basin osoki bizar motza zela; egun batez Paray-le-Monial-go beila batean, orhoit zaite, gaixoa, erran zaukon senarrari, Charlus ene koinatak, laborariekin solastatzea aski maite baitu, bazion bati, bertze bati: «Nungoa hiz, hi?» eta biziki bihotzona baita, zerbait emaiten zauen, edatera eremaiten zituen. Ezen ezta nehor aldi berean Mémé baino gorago eta lañoago. Ikusiko duzu aski dukesa aurkitzen eztuen dukesa bat ez agurtu nahi ukaiten, eta zakur mutil baten satifatzen. Orduan, erran naukon Basin-i: «Ikusazu, Basin, mintza zaizee apur bat zu ere.» Ene senarra ezpaita beti biziki asmatzale... - Eskerrak, Oriane, erran zuen dukeak ene artikuluan murgildua zagon irakurtzetik gelditu gabe - ...laborari bati ohartu zen eta errepikatu zaukon hitzez hitz anaiaren galdea: «Eta hi, nungoa hiz? - Laumes-etakoa niz. - Laumes-etakoa? He bada, hire printzea nuk.» Orduan laborariak so egin zaukon Basin-en begitarte osoki larsoilari eta ihardetsi: «Ez egia. Zu, english bat zira.» Ikusten ziren horrela dukesaren ixtorio ttipi horietan Laumes-etako printzea bezalako titulu handi goren horiek jalgitzen, bere egiazko lekuan, bere izanara zaharrea eta lekuko kolorean, othoitz-liburu batzuetan, aro hartako jendaldearen erdian, Bourges-ko dorre-punta ezagutzen den bezala.

Mutil jantzi batek utziak zituen karta batzu ekharri ziren. «Zerk hartzen duen eztakit, eztut ezagutzen. Hori zuri zor dautzut, Basin. Etzira alta biziki onsa heldu adixkidantza mota horrekin, adixkide gaixoa», eta Giberte-ren gana itzuliz: «Nor den enezazuke

argi ere, eztuzu segurki ezagutzen, Lady Rufus Israël izendatzen da.» Gilberte gorri-gorritu zen: «Eztut ezagutzen, erran zuen (are gehiago gezurra zena nun Lady Israël, Zuan hil baino bi urte lehenago, harekin baketua baitzen eta Gilberte izen ttipitik deitzen baitzuen), baina biziki ontsa badakit, bertze batzuen ganik, nor den, erran nahi duzun jende hori.

Ikasi nuen nexka gazte batek galdegina ukanik, ala gaixtoki, ala moldegaizki, haren aitaren, ez aitordearen baina egiazkoaren izena zer zen, bere nahasmenean eta apur bat erran behar zuenaren aldatzeko, Zuanen orde «Zvann» ahozkatua zuela, guti berantago gaizki-garri zela ohartu zen aldakuntza, ithurburu angeles bateko izen horren orde izen aleman bat egiten zuelakotz. Eta gaineratua zuen ere, bere buruaren goititzeko aphaltzen zela: «Gauza ezperdin ainitz erran da ene sortzeaz, baina jeus eztut jakin behar.» Zenbat ahalgetua izan behar bazuen ere Gilberte-ek ordu batzuez, bere aitamez gogatzean (Zuan Andereak berak harendako ama on bat itxuratzen zuen eta hala zen), biziaren hartzeko horrelako moldeaz, zorigaitzez ohartu behar da gaiak dudarik gabe gurasoer hartuak zezteela, ezpaigira oso-osoa guhaur egiten. Baina amaren baitan baden berekoitasuneko neurri bati, berekoitasun bertzelako bat, aitaren familian zena, gaineratzen zako, ezpaitu horrek beti erran nahi emendatzen duela, ez ere bakarrik gehigarritzat baliatzen dela, baina berekoitasun berri bat egiten duela, ezin gehiago indardunagoa eta lotsagarriagoa. Eta munduak badirauenez geroztik horrelako huts bat molde batean den familia batzu ahaidetzen baitira huts bera bertze molde batean den familia batzuekin, horrek egiten baitu haurraren baitan molde bat bereziki betea eta hastiagarria, berekoitasun metatuek (hemen berekoitasunez baizik ez mintzatzeko) halako indarra hartuko zuten nun gizalde oso sunsitua bailizateke, gaitzetik beretik sortzen ezpalire, arau zuzen batzuetara horren ekhartzeko ahaldunak, muga natural batzu, ureko mikroben ainizte mugagabeari gure borobilaren sunsitzea debekatzen daukotenen idurikoak, landaren ernaltze sesu bakarrekoari landare motaren ezeztatzea, eta b. Noiztenka bertute bat badathor berekoita-

sun horrekin botere berri eta abantail nahigabeko baten moldatzera. Moraleko kimiak haien bidez horrela lotsagarriegi bilakatzen ari ziren gauzak geldi-arazten eta lanjergabeak egiten dituen antolamenduak ezin mugatuak dira, eta familien ixtorioari molde-ainiztatsun ohargarri bat eman lezokete. Bertzela ere, berekoitasun metatu horiekin batean, Gilberte-ren baitan izan zaitezkeen bezala, gurasoen bertute berezi xoragarri bat izaiten da; badathor ordu batez bakar-bakarrik arte-joko baten egitera, bere joko hunkigarriaren egitera zintzotasun oso batekin. Dudarik gabe, Gilberte etzoan beti handi-mandi zenbaiten alaba zela behar bada entzutera uzten zuenean bezain urrun; baina gehienetan bere ethorkiak gordetzen zituen. Haien aithortzea xoilki gozagaitz zizakon behar bada, eta nahiago zukeen bertze moldez ikas zitzaten. Uste zuen behar bada zinez gordetzen zituela, alta duda ezten sineste dudazko hortaz, agiantzatzen denari gertagarri izaite bat begiratzen daukonaz, eta Musset-ek behazun bat emaiten daukonaz Jainkoaren Itxaropenaz mintzo denean.

«Eztut nihaurek ezagutzen», egin zuen berriz Giberte-ek. Bazuena bizkitartean, Forcheville-ko Andereño izenda-arazten zenean, Zuanen alaba zela egun batez ezagunen etzelako itxaropena? Hori izan daiteke, demborarekin, abantzu mundu guzira bilakatuko zirela itxarotzen zuen jende batzuen aldera. Orai zenbat ziren lilluramendu handirik etzukeen, eta bazakien dudarik gabe jende ainitzek ahapetik baziotela: «Zuanen alaba da.» Baina etzakien hori dantzaldira goazenean miseriaz hiltzen diren jendez mintzo zaikun jakitate hartaz beraz baizik, erran nahi da jakitate nahasi eta urrun batez, iduripen zuzen batek eman ezagutza zorrotzago batez haren ordaintzeko gutiziarik ezpaitugu. Urruntasunak gauzak ttipiangoak, dudazkoagoak, gutiango lanjerosak egiten baitauzku, Gilberte-ek nahiago zuen jende batzuen ondoan ez izan hauek Zuan jaioa zelako aurkinza bazegiten orduan. Gilberte urte horietan giza-auztruka mota hedatuenekoa zen edo bederen izan zen, itxaropenean burua gordetzen dutenetakoa, ez ikusiak ez izaiteko, horrek itxura guti duela uste baitute, baina ikusten direla ez ikusteko, hori jadanik ainitz dela iduri baitzaie eta gaineratekoan uzten baititu zorian fidatzera. Eta itxuratzen ditugun jender hurbil

izaiten baigira, egunkariaren irakurtzen ari diren jendeak itxuratzen ahal ditugun bezala, Gilberte-ek nahiago zuen egunkariak Forcheville-ko Andereño izenda zezaten. Egia da bere gain zituen izkiribuen-dako, bere eskutitzak, ordu batez iraganbidea gupidetsi zuela «G. S. Forcheville» sinatuz. Sinadura hortako falsutatsun egiazkoa agerian emana zen ontsa gutiago Zuan izeneko bertze hizkien ekhentzeaz Gilberte izenekoenez baino. Alabaina, izenttipi ogengabea G. xoil batera laburtuz, Forcheville-ko Andereñoak iduri zuen bere adixkider entzun-arazten zuela Zuanen izenari egin mozte bera etzela laburpeneko arrazoin batzuen ondorioa baizik. Balio berezi bat emaiten zaukon ere S.-ari, eta G-ren marratzera zoan buztan luze bat ezartzen, baina iragankor zela senditzen zena eta itzaltzera desteinatua, ziminoan oraino luze, gizonen gehiago ezten hura bezala.

Hori izana gatik, haren handi-ustean bazen Zuanen adimendu jakin-nahitik. Orhoit niz arratsalde hartan Guerantes-ko Andeari galdegin zaukola Lau-ko Jauna etzuen ezagutu ahal ukana, eta dukesak ez ontsan zela ihardetsirik eta etzela atheratzen, Gilberte-ek galdegin zuen nola zen, ezen, gaineratu zuen arinki gorrituz, ainitz entzuna zuen hartaz mintzatzen. (Lau-ko markesa, alabaina, Zuanen adixkide hurbilenetarik bat izana zen hau ezkondu baino lehen, eta behar bada Gilberte-ek artetik ikusia zuen ere, baina jende horietaz axolatzen etzen ordu batean.) «Bréauté-ko Jaunak edo Agrigente-ko printzeak hartaz ideia bat emaiten ahal dautate ote? galdegin zuen. - Ho! ez batere», egin zuen Guerantes-ko Andeari, baitzuen ezperdintasun probinziar horietako sendimendu bizi bat eta hetaz itxura neurtu batzuen emaiten baitzuten, baina bere mintzo erlats urreztatuz margoztaturik, begi ubelen loratze eztiaren azpian. «Ez, batere ez. Du Lau Perigord-eko aitorensemea zen, bere probinziako ara on guziekin eta ausarkeriarekin. Guerantes-en, Du Lau harekin bizi adixkide zen Angeletarrako errege han zenean, ihizi ondoan bazen arratsaldaskaria; Du Lau-k botinen ekhentzera eta ilezko xapin lodi batzuen ezartzera joaiteko ohidura bazuen orena zen. He bada, Edouard erregeren eta duke handi guzien han izaiteak etzuen jeusetan jenatzen; Guerantes-ko saloin handira berriz jausten zen bere

ilezko xapinekin. Uste zuen Du Lau d'Allemans-ko Markesa zela, Angeleterrako erregerekin jeusetan bortxatu behar etzuen. Hura eta Breteuil-go Quasimodo xoragarria, gehienik maite nituen biak ziren. Bertzalde, adixkide handi batzu ziren zu... (zure aitarendako erraitera zoan eta bapatez gelditu zen). Ez, eztu ikustekorik batere ez Gri-Gri ez Bréauté-rekin. Périgord-eko jaun handi egiazkoa da. Bertzela ere Mémé-k aiphatzen du Allemans-ko Jaunaz Saint-Simon-en orrialde bat, osoki hori da.» Potretaren lehenbiziko hitzak eman nituen: «Allemans-ko Jauna, gizon osoki ohargarria baitzen Périgord-eko nobleziaren artean, bereaz eta zuen mereximenduaz, eta han bizi ziren guziez orotako jujari batentzat hartua bere onestasanaren, gaitasunaren eta eginaretako eztiaren gatik, eta probinziako oilar bat bezala... - Bai, bada hortarik, are gehiago nun Du Lau oilar bat bezain gorria baitzen. - Ba, orhoit niz potret hori aiphatzen entzuna ukanik», erran zuen Gilberte-ek, gaineratu gabe aitaren ganik zela, hura, alabaina, Saint-Simon-en miresle handia baitzen.

Maite zuen ere Agrigente-ko printzeaz eta Bréauté-ko Jaunaz mintzatzea bertze arrazoin baten gatik. Agrigente-ko printzea hala zen Aragon-go etxearen ondorez, baina jaurgoa Poitou-koa zuten. Haren jauregiak den bezainbatean, bederen han bizi zena, etzen haren familiako jauregi bat baina haren amaren lehenbiziko senar baten familiakoa eta Martinville 'ta Guermantes-tik urruntasun berdinean zen. Beraz Gilberte hartaz eta Bréauté-ko Jaunaz mintzo zen bere probintzia zaharra orhoitzen zaukoten baserriko auzo batzuez bezala. Gauzez bazen elhe horietan gezurrezko zati bat, etzuenaz geroz Parisen baizik, Molé kondesaren bidez, Bréauté-ko Jauna ezagutua, bertzela bere aitaren adixkide zaharra. Tansonville-ko ingurunetaz mintzatzeko atsegina aldiz, zintzoa izan zaitekeen. Handi-ustea, jende batzuek, hetan gauza baliagarri batzu nahasten diren edari goxagarri haien idurikoa da. Gilberte emazte aphain berezi batez axolatzen zen liburu ezin ederrago batzu bazituelakotz eta ene adixkide ohia haien ikustera Bibliothèque Nationale-ra edo Louvre-ra joanen etzaitkeen Nattieren margazki batzu, eta iduritzen zata, oraino hurbilago izanik ere, Tansonville-ren eragin erakhargarriak Gilberte-ren ustez gutiago in-



dar ukanen zuela Sazerat Anderearen edo Goupil Anderearen gainean Agrigente-ko Jaunarenean baino.

«Ho! Gaixo Babal eta gaixo Gri-Gri, erran zuen Guermantes-ko Andereak, Du Lau baino ontsa eriago dira, beldur niz eztutela biziki luzatuko, es batek ez bertzeak.»

Guermantes-ko Jaunak ene artikulua irakurtzea bururatu ukan zuenean, komplimendu batzu egin zauztan bertzela ere aski ephelak. Deitoratzen zuen estilo horren molde apur bat ohikoa, «hantura, Chateaubriand-en hitz laxo desmodatuan bezalako hitzordain batzu bazituena»; aldiz osoki goretsi ninduen «artzeaz»: «Maite dut bere hamar erhiekin norbaitek zer bait egin dezan. Auherrak eztitut maite beti handi-nahi batzu edo nahasle batzu baitira. Jende mota zozoa!»

Gilberte-ek, munduko arak lehia ezin handiago batekin hartzen baitzitu, erran zuen zenbat urgoi izanen zen idazle baten adixkidea zela erraiteaz: «Jakizu zure ezagutzeko asegina, ohorea badutala erranen dutanez.»

«Eztuzu jin nahi bihar gurekin Opéra-Comique-ra?» errana zautan dukesak, eta gogatu nuen lehen aldian ikusia nuen egongia hartan zela dudarik gabe eta orduan Néréide-en itsaspeko erresuma bezain helgaitza iduritua zizatanean. Baina ihardetsi nuen mintzo trixte batekin: «Ez, antzokira eniz joaiten, biziki maite nuen adixkide bat galdua dut. Horren erraitean nigarrak abantzu begietan nituen, baina bizkitartean lehen aldikotz hortaz mintzatzeak halako asegin bat emaiten zautan. Orduetik nintzan hasi bihotzmin handi bat ukan berria nuela jende guziari izkiribatzen, eta horren senditzetik gelditzen.

Gilberte joana izan zenean Guermantes-ko Andereak erran zautan: «'Ene kheinuak eztituzu aditu, Zuanez mintza etzinadin zen.» Eta desenkusutzen bainintzan: «Baina biziki ontsa hartzen zitut; ni-haurek, izendatzer dut, eztut hutsaren zuzentzeko astia baizik ukan, izigarri da, zorionez ordu zeno gelditu niz. Badakizu biziki jenagarri dela, Basin», erran zaukon senarrari apur bat bere hutsaren ttipitzeko, hari ihardokitzea neke zen orotako ixuri bati obeditua nuela uste zue-

la alegia eginez. «Zer nahi duzu egin dezatan? ihardetsi zuen dukeak. Aski duzu marrazki horiek berriz gainean ezar ditzaten erraitea, Zuan gogora-arazten dautzutenaz geroz. Zuan ezpaduru gogoan ukaiten, hartaz etzira mintzatuko.»

Biharamunean ukan nituen azkarki ustegabetu ninduten goresmenezko bi eskutitz, bat Goupil Anderearen ganik, urtez geroz berriz ikuasi enuen Combray-ko anderea eta, Combray-n ere, hirur aldiz mintzatua enindakona. Irakurtzeko gabinet batek hel-arazia zaukon *Le Figaro*. Horrela, oiharzun apur bat duen zerbait bizian gertatzen zaizunean, berri batzu ukaiten ditugu gure ezagunetarik hain urrun diren jende batzuen ganik eta haien orhoitzapena jadanik hain zahartua denetarik nun jende horiek urruntasun handi batean jarriak iduri baitute, oroz gainetik barnatasunaren aldetik. Ikastetxeko adixkidantza ahatzi batek, eta zuri gogora-arazia izaiteko mila aldi bazituenak, bizi seinale bat emaiten dautzu, eta ordainaldirik gabe bertzela ere. Horrela zen gertatu Bloch-ek, ene artikulua zer gogutzen zuen hainbat jakin nahi ukanen nuenak, etzautala izkiribatu. Egia da artikulua hori irakurria zuela eta berantago aithortu behar zautala, baina gibel-ukhaldi baten bidez. Alabaina berak idatzi zuen urte zenbait berantago artikulua bat *Le Figaro*-n eta berehala nahi ukan zautan gertakari hori jakin-arazi. Abantail berezi batendako zadukana ukana baitzuen hark ere, alegia ene artikulua ez ezagutzera eremana zuen bekaizgoa gelditua izanez, zapagailu bat goititzen den bezala, aiphatu zautan, bereaz mintza nindadin gutiziatzen zuenetik osoki bertzela: «Jakina diat hik ere, erran zautan, artikulua bat egina huela. Baina enian uste ukan aiphatu behar naukala, hiri gozagaitz izaiteko beldurrez, adixkider ezpaitzeek gertatzen zezteen gauza aphaltarriez mintzatu behar. Eta hauetarik bat duk argiki sabrearen eta ihiztagailuaren, *five o'clock*-en egunkarian idaztea, ur-benedikatu untzia ahatzi gabe.» Haren jitea berdina gelditua zen, baina idaz-moldea gutiago prezios bilakatua, fazoinkeria uzten duten idazle batzuer gertatzen zeen bezala, poema simbolixtik ez gehiago eginez, egunkari-zolako elhabarriak idazten dituztenean.

Haren ixiletik konsolatzeko, berrirakurri nuen Goupil Anderearen eskutitza; baina berotasunik gabe zen, ezen arixtokraziak baldin baditu hesola badagiten erranbide batzu, hauen artean hastapeneko «Jauna» eta azkeneko «sendimendu ikustatezko»-en artean, bozkariozko, mirestezko oihu batzu jalgi daitezke lore batzu bezala, eta azau batzuek hesolaren gaintetik erortzera utz dezakete bere usainon adoratzalea. Baina beharbezalakotasun burjesak eskutitzen barnea bera tinkan ezartzen du «zure ongi heltze hoin zuzena»-ren, gehien-gehienik «zure ongi heltze ederra»-ren sare batean. Andere koinata batzuek, ukana duten erakaspeneri leial eta behar den bezalako bere gorpotean begiratuak, uste dute bere zorigaitzean edo gogo-beroan ixuriak dirrela «ene gogoeta hoberenak» izkiribatua baldin badute. «Ama enekin juntatzen da» hortaz bekan gastatua izaiten den gehien bat da. Goupil Anderearenaz bertze eskutiz bat ukan nuen, baina izena, Sanilon, etzizatan ezaguna. Jende xoilaren izkiribu bat zen, hizkuntza goxagarria. Lastimatua izan nintzan nork izkiribatua zuen ez aurkitzeaz.

Biharamunago goizean bozkariatu nintzan Bergotte ene artikularen miresle handi bat zelakotz, bekaizgorik gabe ez omen baitzuen irakurri ahal. Alta ephe baten buruan ene bozkarioa erori zen. Alabaina Bergotte-ek etzautan hitzik izkiribatua. Nihauri galdez egona nintzan bakarrik artikulua hori maitatua ukanen zuenez. Egiten nuen galde hortan, Forcheville-ko Andereak ihardetsia zautan ezin gehiago miresten zuela, idazle handi batena aurkitzen. Baina lo nindagolarik errana zautan: amets bat zen. Abantzu guziek egiten ditugun galder ihardesten dute baieste batzun batzuek, jende bat baino gehigorekin ikuskarriratuak, baina biharamunik gabekoak.

Forcheville-ko Andereñoaz den bezainbatean, lastimarekin hura gogoan ukan gabe enindagokeen. Nola? Zuanen alaba, Guermantes-tarren etxean haren ikustea hainbat maite ukanen zuenarena, hauek haren onhartzea bere adixkide handiari ezetsia zauenarena, gero berainik bilatua zuten, dembora iraganik guretako berritzen baititu, bertze nortasun bat haier emaiten, hetaz diotenaren araura, aspaldi danik ikusi ezitugun jendeak, guhaur larruz berritu girenez eta

bertze gustu batzu hartu ditugunez geroztik. Baina Zuanek batzuetan alaba horri bazioean, bere kontra tinkatzean eta besarkatzean: «On da, maite-maitea, hi bezalako alaba baten ukaitea; egun batez, hor izanen enizanean, hire aita gaixoa aiphatzen baldin badine oraino, hirekin eta hire gatik izanen dun bakarrik», Zuanek, bera hil ondoko ezarriz horrela bere alabaren baitan bizi-iraupeneko itxaropen beldurtu eta antsiatu bat, huts egiten zuen diruzain zaharrak bezainbat, ordaintzen duen jantzarisa ttipi eta biziki egonara ona duen baten-dako testamendu bat eginik, eztela harendako adixkide on bat baizik diolarik, baina haren orhoitzapenari leial egonen dela. Egonara biziki ona zuen mahipean oinaz hunkiz aldi berean laket zizazkon diruzain zaharraren adixkideak, baina hori guzia gordeka, itxura ezin hobe batzuekin. Gizon onaren dolua ekharriko du, hartaz arindua sendituko da, baliatuko da ez bakarrik eskuko diruaz, baina ontasunez, utziak dauzkon beribilez, ahalge apur bat emaiten daukon jabe ohia- ren xifrea ezaba-araziko du orotan, eta emaitzaz gozatzea ezta nehoiz emaileaz urrikitzeari batuko. Aita-amodioaren lilluramenduak eztira behar bada bertzearenak baino ttipiagoak; alaba ainitzek eztute aita bere fortuna uzten dauen agurea bezala baizik estimatzen. Gilberte- ren izaitea saloin batean, haren aitaz oraino batzuetan mintzatzeko aldi bat izaiteko orde, oraino ukanen ahal ziren aldi, gero eta bekana- goen hartzeko traba bat zen. Zuanek erranak zituen hitzez ere, ema- nak zituen gauzez, gehiago haren ez izendatzeko ohidura hartu zen, eta haren orhoita, iraun-arazia ezpada, gaztetua behar ukanen zuenak, gertatu zen herioaren eta ahazpenaren lana lehiatu zuela eta bururatu.

Eta etzen bakarrik Zuanen aldera Gilberte-ek ahazpenaren lana apurka bururatzera zeramala: nitan ahazpenaren lan hori lehiatua zuen Albertine-ren aldera. Gutziaren egintza-pean, ondorioz zenetik bertze bat zela uste ukana nuen oren gutietan Gilberte-ek nitan sus- tatua zuen zorioneko gutziarenean, oinaze, gogoeta mingarri andana bat, duela guti oraino ene gogoa hertsatzen zutenak, nitarik joanak ziren, berekin eremanez Albertine-ren alderako orhoitzapen meta oso bat, itxura guzieren arabera aspaldidanik phorroskatuak eta iraungaiz- tuak. Ezen orhoitzapen ainitzek, hari lotuak zirenek, lagundua baldin

baninduten hastapenean nitan haren herioko urrikiaren atxikitzen, ordainez urrikiak berak orhoitzapenak finkatuak zituen. Hala nola nun ene sendimenduko izanararen aldatzeak, ilunki egunetik egunera ahazpenaren barreatze jarraikiez adelatuak dudarik gabe, baina bapatez osoki bururatuak, eman baitzautan hustua izaiteko iduripen hura, ene gogamenen elgartze zati oso bat ekhendua zelakoa - egun hartan lehen aldikotz senditu nuela orhoitzen nizana -, gizon batek buruko zaingorri aspaldidanik higatu bat hautsi denean senditzen duena eta haren orhoiteko zati oso bat ezeztatu edo paralesiatu denean. Albertine enuen gehiago maite. Gehien-gehienik egun batzuez, gure sendikortasuna atzarriz, gauzetara berriz ekhartzen gituzten aro hetarik bat ari zenean, hura gogoan nuelarik izigarriki trixte sendi nintzan. Gehiago etzen maitasun batez oinazkatua nintzan. Horrela zangoa moztua dutenek, aro aldamen batzuez, galdua duten zangoan min dute.

Ene oinazearen itzaltzeak, eta berekin zeraman guziarenak, ttipitua uzten ninduen zure bizian leku handi bat bazadukan eritasun batez sendatzeak ainitzetan bezala. Dudarik gabe orhoitzapenak beti egiazkoak gelditzen ezirelakotz da maitasuna ez betierekoa izaiten, eta bizia zelulen berritze betikoaz eginga delakotz. Baina berritze hori, orhoitzapenendako, hala ere gibelatua da aldatzeko beharretan dena ephe batez gelditzen, finkatzen duen oharpenaz. Eta bihotzminaz emazten gutiziaz bezala denaz geroz, gogoan ukanez handitzen baitugu, ainitz egin behar ukanak errexago bilaka lezake, kastotasuna bezainbat, ahaztea.

Bertze ihardokitze batez, (hala nola nun ohargabeak - Éporcheville-ko Andereñoaren gutiziak - baitzautan bapatez ahaztea egiazkoa eta sendigarria egingen) egia da aroak duela gero eta gehiago ahaztea ekhartzen, aroaren ideia barnatuki aldatu gabe ezten ahaztea. Badira ikuspenerako hutseginak aroan eremuan badiren bezala. Lan egiteko nahikaria zahar baten iraupenak nitan, aro galduaren antolatze-koarenak, edo izaitekotz bizitzen hastekoak, bazematan beti berdin gazte nintzalako lillura; alta Albertine-ren biziko azken ilabete horietan ene bizian jarraikiak ziren gertakari guziez orhoitzeak - eta ere

ene bihotzean jarraikiak zirenez, ezen norbait ainitz aldatu denean, luzazago bizi izan dela uste ukaitera ekharria izaiten da -, urte bat baino biziki luzeago iduri-araziak zauztan, eta orai hainbat gauzen ahazte hori, baztertzen baininduen, hutsune batzuez, zaharrak iduri-arazten zauztan gertakari berri-berri batzuetarik, ene orhoitaren erdian sartzen zelakotz, zatikatua, araugabea - hala nola lanho lodi bat itsaso handian, gauzetako ezagugarriak ekhertzen baititu -, zuen aroan urruntasunetako sendimendua nitan hausten, hemen hertsiturik, hor thirakaturik, eta zautan sinets-arazten egiazki nintzan baino gauzetarik noiz biziki urrunago, noiz biziki hurbilago nintzala. Eta ene aitzinean hedatzen ziren eremu berrietan, oraino ibilia enintzantetan, ezpaitzen gehiago Albertine-rendako ene maitasunaren hatzik izanen, iraganak nituen aro galduetan amaxirendako ene maitasunaren hatzik izana zen baino gehiago, - aldi andana jarraiki bat eskainiz hetan, arte zenbaiten ondotik, aitzinekoa atxikitzen zuenetik jeusek ezpaitzuen ondokoan irauten -, ene bizia agertu zizatan ni berezi berdin eta iraunkor baten habeaz hain gabetua den zerbait bezala, geroan debaldekoa bezain iraganean luzea den zerbait, herioak berdin han edo hemen geldi lezakeen zerbait, bururapenik batere eman gabe, hala nola erretorikan Frantziako ixtorioko ikastaldi hek, gelditzen baitira, egitarauen eta erakaslen gostura, 1850-eko iraultzan, 1848-koan, ala Bigarren Imperioko bururapenean.

Izan daiteke orduan sendi nituen akhidura eta trixtezia gutiago jin zirela jadanik ahazten nuena debaldetan maitatua ukanetik bizidun berri batzuekin laket izaiten hastetik baino, munduko jende oso batzuekin, Guermantes-tarren adixkide xoil batzuekin, bere baitan hain guti ohargarriak. Errexago konsolatzen nintzan behar bada maitatua nuena dembora zenbaiten buruan etzela orhoitzapen hits bat baizik ohartzeaz, nitan debaldeko lan horren berraurkitzeaz baino, dembora gal-arazten baitauku giza-landaretze iraunkor baina bizkarkin batez gure biziaren tapizatzen, ezteusa bilakatuko dena ere hila izanen denean, ezagutu dugun guziarentzat arrotza dena jadanik eta bizkikartean gure zahartasun hitzuntzi, gogoilundu eta aphainduak hari gustatzea bilatzen duena. Albertine gabe bitiztea errex jasanen

zuen izaite berria agertua zen nitan, Guermantes-ko Anderearen etxean elhe lastimatu batzuekin, oinaze barnaturik gabe hartaz mintzatu ahal nintzanaz geroz. Aitzinekotik bertze izen bat ukan behar luketen ni berri horiek, gerta zaitekeen horien ethortzeak, maite nuenarendako zuten axolagabearen gatik, beti laztatua ninduten: lehenago Gilberte-*ez* mintzatzean haren aitak erraiten zautalarik Ozeaniara bizitzera joaiten banintz enuela handik itzuli nahiko, berri-berriki hainbateko bihotz hersturarekin irakurriak nituelarik bierarteko idazle baten orhoitzapenak, gizon gazte zenean biziki maitatua zuen emazte baten ganik biziak berezia izanik, zahartu eta atseginik gabe aurkitzen baitzuen, berriz ikusteko gutziarik gabe. Bada ahazpenarekin oinazearen ekhente abantzu oso bat ekhartzen zautan aldiz, gozaldi bat gertagarri zela erraiten, ni hain lotsagarri horrek, hain ongi-egile horrek, guretako halabeharrak begiratzen dituen ordaingoko ni hetarik batez bertzerik etzenak, eta, mediku gogo-argi eta are gehiago larde-riadun batek baino gehiago ene othoitzak entzun gabe, guk ez nahi ukanik ere, behar den orduko egintza batez, ni zinez zaurituegiaren orde ezartzen baititu. Aldatze hori, bertzela ere, noizean behin egiten du, oihalen higatzea eta berritzea bezala, baina ezkira hortaz ohartzten aitzinekoak bihotzmin handi bat baldin bazadukan baizik, zerbait arrotz eta zaurigarri, berriz horren ez aurkitzeaz ustegabetzen baigira, bertze norbait bilakatuak izaiteko gure miran, haren aitzenekoaren oinazea gehiago bertze norbaitena baizik ezten norbait, urrikalmene-kin aiphatzen ahal den oinazea senditzen eztugulakotz. Baina hainbertze oinazetarik iragana izaitea ere berdin zaiku, ezpaigira jasanak ukaiteaz nahasiki baizik orhoitzen. Berdin, gauaz gure amets-gaixtoak izan daitezke laztagarriak. Baina atzartzean bertze jende bat gira, hari jarraitzen denak lotarik hiltzale batzuen aitzinean ihes egin behar ukananaz guti axolatzen dena.

Dudarik gabe, ni horrek bazadukan aita-nekoarekin oraino harreman zenbait, hala nola adixkide bat, dolu batez ez axolatua, han diren jender hartaz mintzatzen baitzaie bizkitartean behar bezalako trixtezia batekin, eta noiztenka itzultzen baita haren orde jenden hartzeaz kargatua duen alharguna han bere hipen entzun-arazten badar-

raikan gambarara. Egiten nituen oraino nik ere ordu bateko berriz Albertine-ren adixkide ohia bilakatzen nintzanean. Baina norbait berriren baitara ari nintzan oso-oso iragaiten. Ezta bertzeak hilak dirrelakotz haiendako dugun atxikimendua ahultzen, guhaur hiltzen ari girelakotz da. Albertine-ek etzuen bere adixkideari gaizki erraitekorik jeus. Haren izena hartzen zuena etzen haren ondokoa baizik. Ezta orhoitzen denari baizik leial izaiten ahal, ezagutua denaz baizik ezta orhoitzen. Ene ni berriak, aitzinekoaren itzalean handitzen ari zelarik, ainitzetan entzuna zuen Albertine-z mintzatzen; haren bidez, hartarik biltzen zituen ixtorioen bidez, uste zuen ezagutzen zuela, gustagarri zizakon, maite zuen; baina etzen bigarren maileko maitasun bat baizik.

Bertze norbait, haren baitan ahazpenaren lana Albertine-ri zoakonaz lasterrago egin zaitekeena ordu hartan, eta ondorioz utzi ninduen nitan lan horrek egin zuen aitzinatze berriaz berantxago ohartzera (eta hori da ahazte alde batekoa baino lehen bigarren aldi batez dutan orhoitzapena), Andrée izan zen. Eztezoket alabaina Albertine-ren ahaztea arrazoin bakarretako, nagusiko ezpada, bederen arrazoin beharrezko eta baitezpadako bezala ez eman Andrée-ek enekin ukan zuen solasaldi bati, sei ilabete nunbait han ekharria dutanaren ondotik, haren elheak orduan lehen aldian izanak zirenetik hain ezperdinak izan baitziren. Ene gambaran izan zela orhoit niz ordu hartan atsegin nuelakotz harekin erdi haragizko adixkidantza batzuen ukaiten, multxo ttipiko nexka gaztendako nuen maitasunak hastapenean ukana zuen eta orai berriz hartzen zuen elgarrekilakoaren gatik, luzaz haien artean ez zatitua, eta, ordu batez bakarrik, Albertine-ri berari eratxikia, haren heriotzearen aitzineko eta ondoko ilabetetan.

Ene gambaran ginen bertze arrazoin baten gatik ere uzten bainau zuzen-zuzenki solasaldi hori noizkoa zen erraitera. Bizitegiaren gaineratekotik baztertua nintzan amaren eguna zelakotz. Sazerat Anderearen etxera joaiteko dudan egona zen. Baina, Combray-n ere, Sazerat Andereak beti baitzakien jende aspergarri batzuekin zure gomitatzen, amak uste ukana zuen, etzela jostatuko segur izanez, etxera goizik sartuko ahal zela atsegingarri zenik ezer huts egin gabe. Ordu



zeno sartua zen alabaina eta urrikirik gabe, Sazerat Andereak ezpaitzitu-  
en etxean ukan mundua bazuenean hartzen zuen mintzo bereziak -  
amak haren asteazkeneko mintzoa zeritzona - hormatzen zituen jende  
nardagarri batzu baizik. Amak, bertzela ere, ontsa maite zuen, haren  
zorigaitzaz urrikaltzen zen, X...-ko dukesak hondatua zuen senarra-  
ren jostakerien ondorioa, abantzu urte osoan Combray-n bizitzera  
bortxatzen zuena, aste zenbaitekin Parisen bere gusiaren etxean eta  
hamar urtetarik «goxagailutako bidaia bat».

Orhoit niz bezperan, ilabetez geroz ene othoitz errepikatuan,  
eta prinzesak beti galdatzen zuelakotz, Parme-ko prinzesaren ikusten  
izana zela, hunek ezpaitzuen ikustaldirik egiten eta ohian haren etxean  
izena emaiten baitzen bakarrik, baina ama ikustera joan zakidion hi-  
situa baitzen, urhats-arauak hura gure etxera ethor zadin debekatzen  
zuenaz geroz. Ama azkarki gaitzitua itzulia zen: «Urhats makur bat  
egin-arazi dautak, erran zautan, Parme-ko prinzesak doi-doia egunon  
erran datak, haiekin solastatzen ari zian emazten gana itzuli duk ni-  
taz axolatu gabe, eta hamar minutaren buruan, ezpaitzizatan mint-  
zatua, joan nuk hark eskua emana ukan ere gabe. Biziki nahigabetua  
nindian; aldez, athe aitzinean, joaitean, aurkitu diat Guermantes-ko  
dukesa biziki maitagarri izan baituk eta hitaz ainitz mintzatu baitza-  
tak. Zer ideia bitxia ukan dukan hari Albertine-*ez* mintzatzea! Erre-  
pikatu datak haren hiltzea hiretako hainbateko bihotzmina izana zela  
erran daukokala. (Dukesari errana naukon alabaina, baina enintzan  
orhoit ere eta doi-doia nuen aiphatua. Baina jende ohargabetuene-  
k oharpen berezi bat emaiten dauete erraiten ditugun hitz batzuer,  
osoki naturalak iduritzen zaizkunak, eta haien jakin-nahia barnatuki  
sustatzen dutenak.) Baina enuk Parme-ko prinzesaren etxera itzuliko.  
Zozokeria bat egin-arazi dautak.»

Biharamunean bada, amaren eguna, Andrée ikustera jin zi-  
zatan. Etzuen asti handirik, harekin auhaltzera biziki axikia zen Gi-  
sèle-ren bila joan behar baitzuen. «Haren hutsak ezagutzen ditut,  
baina hala ere ene adixkide hoberena da eta harendako atxikimendu  
gehienik dutan jendea», erran zautan. Eta iduri ukan zuen ere beldur  
zenbait ukan zuela haiekin auhaltzea galdeginen ahal nuelako ideian.

Jendez amikatua zen, eta sobera ontsa ezagutzen zuen bertze norbaitek, nik bezala, nahi zuen bezala mintzatzea debekatuz, debekatzen zaukon haien ondoan atsegin bete baten hartzea.

Egia da ethorri zenean, enintzala han; igurikatzen ninduen eta ene saloin ttipitik iragaitera nindoan haren ikustera joaiteko ohartu nintzanean, haren mintzoaren entzutean, bertze ikustaldi bat bazela enetako. André-eren ikusteko lehiatua, ene gambaran baitzen, bertze jendea nor zen ez jakinez, hura ezagutzen etzuen segurki bertze barne batean emana zutenaz geroz, ephe batez saloin ttipiko athean entzuten egon nintzan; ene ikuslea mintzo baitzen, etzen bakarrik; emazte bati mintzo zizakon: «Ho! maite-maitea, hori ene bihotzean da! kantatzen zaukon ahapeka, Armand Sylvestre-ren neutitzak erranez. Ba, beti ene maite-maitea egonen zira egina ahal dautazun guzia izana gatik:

*Hilak lurraren altzoan bakean lo daude.  
Berdin lo daudela gure sendimendu hilak.  
Bihotzaren erlikek ber' erhautsa badute;  
Haien ondar sakratuan ez eman eskuak.*

Apur bat joko zahar da, baina zein pollita! Eta ere lehenbiziko egunetik erranen hal nautzuna:

*Nigarretan emanen 'tuzu, haur mait' ederra...*

Nola, hori eztuzu ezagutzen?

*...Haur horiek oro, gizonak geroan,  
Ber' amets gaztea jada lotua baitute  
Zure begi gurbilen betile goxoetan.*

Ha! uste ukana nuen ordu batez erran nezakeela:

*Hunara jin zen lehen arratsean  
Burgoitasun axola nuen galdu.  
Hari banion: «Maitatuko nauzu  
Ahal ukanen duzun aro guzian.»  
Ontsa lo nintzan haren besoetan.*

Ene ikustaldia André-ri ephe batez gibelatu behar ukanik ere poema uholde hori zein emazteri igorria zen jakin-nahian, athea ideki nuen. Charlus-ko Jaunak errepikatuak zauzkon hartan Morel ezagutu nuen soldado bati eta bere hamahirur egunen egitera zoanari. Etzen gehiago Charlus-ko Jaunarekin ontsa, baina noiztenka ikusten zuen zerbitzu baten galdatzeko. Charlus-ko Jaunak, ohian maitasunari molde gizonarakoago bat emaiten zaukolarik, bazituen ere bere langidurak. Bertzela ere haurzaroan, poeten neurritzak hartu eta senditu ahal ukaiteko, ez leialtasun gabeko neska eder bati baina gizon gazte bati hel-araziak zirela sinestera bortxatua izana zen. Ahal bezain laster utzi nituen, nahiz sendi nuen ikustaldi batzuen egitea Morel-ekin neurrigabeko satifamendua zela Charlus-ko Jaunarendako, ephe batez horrek emaiten baitzaukon berriz ezkondua izaiteko lilluramendua. Eta bertzela ere bere baitan erreginen handi-usteari batzen zaukon mutilena.

Albertine-ren orhoitzapena ene baitan hain zatitua bilakatua zen nun trixteziarik ezpaitzautan gehiago emaiten eta ezpaitzen gutizia berri batzuetarako iraganbidea baizik, harmoniaz aldatze bat prestazen duen notalde bat bezala. Eta ere, sentsuetako burukeria iragankorren ideia oro baztertua izanik, oraino Albertine-ren orhoitzapenari leial bezala, ene ondoan André-ren ukaiteaz Albertine mirakuluz berraurkitua ukaiteaz izanen nintzan baino zoriondunago nintzan. Ezen André-ek erraiten ahal zautan Albertine-ek Albertine-ek berak errana zautan baino gauza gehiago. Bada Albertine-ren alderako galdeak ene gogoan zauden oraino ene maitasuna harendako, gorputzkoa moralekoa bezainbat, jadanik itzalia zenean. Eta haren biziaren ezagutzeko nuen gutizia, gutiago ttipitua izana zelakotz, erkidatuz ha-

ren hemen izaiteko beharra baino handiago zen orai. Bertzalde, emazte batek Albertine-rekin behar bada adixkidantzak ukanak zituelako ideiak etzautan gehiago nik ere emazte horrekin ukaiteko gutizia baikiz emaiten. Hori André-ri erran naukon pherekatzen nuen batean. Orduan, zuela zenbait ilabetekoekin bere elhen akomeatzea den gutienik bilatu gabe, André-ek erran zautan erdi irriño bat eginez: «Ha! ba, baina gizona zira. Eztitugu beraz elgarrekin Albertine-rekin egiten nituen gauza berak osoki egiten ahal.» Eta, horrek ene gutizia handitzen zela uste zuelakotz (segeretu batzuen esperanza errana naukon lehenago adixkidantza batzu ukan nahiko nituela Albertine-rekin ukanak zituen emazte batekin), edo ene bihotzmina, edo behar bada haren aldera sendi nuela uste ukaiten ahal zuen nagusitasunezko sendimendu bat Albertine-rekin adixkidantzak atxikiak nituen bakarria izanik, egin zuen: «Ha! hark eta nik oren onak iraganak ditugu elgarrekin, hain zen pherekaria, hain suharra. Gainera etzuen bakarrik enekin atsegin hartzea maite. Verdurin Anderearen etxean mutiko pollit bat aurkitua zuen, Morel izenekoa. Berehala elgar entzuna zuten. Bere gain hartzen zuen - haren ganik berak ere bere atseginaren hartzeko baimena ukanik, Morel-ek nexka hasi berriak maite baitzituen, eta bide gaixtoan ezarriak zituen orduko, haien uztea - ondartz urrun bateko arraintzarisa ttipi batzuer, zuritzale ttipi batzuer gustatzea, mutiko batez amorosten baitziren baina ezpaitzuten nexka gazte baten aitzin-urhatser ihardetsiko. Berehala nexka haren meneko zen, leku osoki segur batera jin-arazten zuen, han Albertine-ren eskuetan uzten baitzuen. Morel hori gal beldurrez, hortan barne sartzen baitzen ere, nexkak beti obeditzen zuen, eta hala ere galtzen zuen, ezen ondorioen beldurrez, eta ere aldi bat edo biga aski zizazkolakotz, helbide falsu bat utziz ihes egiten zuen. Ukan zuen aldi batez Couleville-en emategi batera bertze nexka baten, eta Albertine-ren ere eremaiteko ausartzia, han laurzpabortzek hartu baitzuten elgarrekin ala bat bertzearen ondotik. Haren jaidura bizia hori zen, Albertine-rena zen bezala ere. Baina Albertine-ek bazituen gero izigarriko urrikiak. Uste dut zure etxean bere jaidura hezia zuela eta berriz hastea egunetik egunera gibelatzen zuen. Eta gero zuretako zuen adixkidantza hain zen handia

nun arranguraten baitzen. Baina nehoiz uzten bazininduen ontsa segur da berriz hasiko zela. Uste dut bakarrik zu utzi ondoan, gutizia ero hortara berriz emaiten bazen, haren urrikiak gero ontsa handiagoak zirela. Salbatuko zinuela itxarotzen zuen, ezkonduko zinuela. Orogen buruan, halako erokeria ogendun bat zela sendi zuen, eta ainitzetan galdez egona niz ez ote zen horrelako gauza baten ondotik, haren familian bere buruaz egite bat ekharria baitzuen, hark ere bere buruaz egina zuela. Aithortu behar dut, zure etxeko egonaldi haste-hasteen, etzuela enekilako bere josteter osoki ukho egina. Baziren haien beharretan zela iduri zuen egun batzu, hainbertzetarano nun aldi batez, kampoan hain errex zelarik, ezpaitzuen eni goraintzi erraiteko etsia hartu ni haren ondoan ezarria ukan baino lehen, zure etxean. Zoririk ezkinuen ukan, hatzemanak izaiter gira. Françoise erosketa baten egitera jautsia izaitiaz baliatua zen, eta zu ez sartua izaitiaz. Orduan argi guziak iraungiak zituen, zure gakoarekin idekiko zinuenean, boitoina hatzeman arteo dembora apur bat gal zinezan, eta bere gambarako athea etzuen hetsia. Igaiten entzun zitugu, enuen neure buruaren antolatzeke astia baizik ukan, jaustekoa. Lehia ontsa debaldekoa, halabehar ezin sinetsi batez zure gakoa ahatzia baitzinuen eta joitera bortxatua izan zira. Baina burua galdu dugu hala ere, hala nola nun, gure jenaren gordetzeko, bi-biek, elgarri aholku galdegin ahal ukan gabe, ideia bera ukan baitugu: zerengaren usainaren beldur girela alegia egitea, biziki maite ginuelarik aldiz. Zurekin ekhartzen zinuen zuhaxka horren abar luze bat, horrek buruaren itzultzera utzi baininduen eta nahasmenaren gordetzera. Horrek etzautan debekatu moldegaizkeria arrazoingabeko batekin zuri erraitea Françoise behar bada berriz igana zela eta idekitzera jinen ahalko zela, zekunda bat lehenago egina nautzularik ibilalditik sartuak baizik ezkinelako gezurra eta gure ethortzean Françoise etzela oraino jautsia (egia zena). Baina zorigaitza, ustez eta gakoa bazinuen, argiaren iraungitzea izan zen, igaiten berriz phizten ikus zinezan beldur izan baiginen; edo bederen gehiegi zalantzatu ginen. Eta hirur gauzez Albertine-ek etzitzen begiak hetsi ahal ukan mesfidantza ukan zinezan beti beldur baitzen eta zergatik

etzuen abiatu baino lehen argia phiztu Françoise-ri galdegin. Ezen Albertine biziki zure beldur zen, eta noiztenka zimarkun, gaixto zinela segurtatzen zuen, ororen buruan hastiatzen zinuela. Hirur egunen buruan hartu zuen zure jabalduratik etzinuela Françoise-ri zerbaiten galdegiteko ideia ukana, eta loa berriz bildu ahal ukan zuen. Baina etzituen bere adixkidantzak enekin berriz hasi, ala lotsaz, ala urrikiz, ainitz maite zininduela baitzion, edo bertze norbait baitzuen maite. Zer nahi den ezkira gehiago nehoiz zerengaz mintzatu haren aitzinean hura gorri-bizi bilakatu gabe eta eskua aurpegira eman gabe gorridura gorde ustez.»

Zorion batzu bezala, badira berantegi jiten diren zorigaitz batzu, eztute gutan hartzen zenbait dembora lehenago ukanen zuten handitasun guzia. Horrelako zorigaitza zen enetako Andrée-ren agertaldi izigarria. Dударik gabe, berri txar batzuek trixtatu behar gituztenean ere, gertatzen da, libertimenduan, solastatzeko joko arautuan, gure aitzinetik iragaiten direla gelditu gabe, eta guk, ihardesteko mila gauzez axolatuak, hor diren jender gustatzeko gutiziaz bertze norbaitetara aldatuak, aldi berri hortan ephe zenbaitez gerizatuak hor sartzeko utzi ditugun eta lillura laburra hautsia izanen denean berraurkituko ditugun gaitzen, oinazen kontra, eztugula haien onhartzeko astirik. Bizkitartean, gaitz horiek, oinaze horiek gehiegi nagusituak badira, ezkira nehoiz ohargabeen baizik mundu berri eta ordu batekoaren eremuan sartzen, han, oinazeari leialegi izanez, ezpaigaitzke bertze norbait bilaka; orduan elheak jokotik kampo egona ezten gure bihotzarekin berehala elgarloan jartzen dira. Baina zenbait demboraz geroz Albertine hunkitzen zuten elhek, airatu den phozoin batek bezala, bere indar gaixtoa galdua zuten. Urruntasuna handiegi zen jadanik; ibiltzale batek bezala, arratsaldez, zeruan hedoi adar baten ikustean, ilargi neurrigabea hori dela dionean, egiten nuen neure baitan: «Nola! hainbat bilatua dutan egia hori, hainbat lotsatua nauena, ezta solasaldi batean erran diren hitz zenbait horiek baizik, osoan goga eztezazkegunak ere bakarrik ezkirelakotz!» Eta gero zinez ustegabeen hatzemaiten ninduen, Andrée-rekin ainitz akhitua nintzan. Zinez, horrelako egia bati emaiteko indar gehiago ukan nahiko nuen;

kampokoa gelditzen zizatan, baina hori zen ene bihotzean leku bat enaukolakotz oraino aurkitua. Nahi ginuke egia seinale berri batzuez agertua izan lakidigun, ez erranaldi batez, hainbat aldiz guhauri erranak ginituenak bezalako errabaldi batez. Gogoetatzeko ohidurak debekatzen du batzuetan egiaren senditzea, haren kontra gerizatzen du, oraino gogoetatik dela iduri-arazten. Ideia bakar bat ezta berekin bere ezeztapena, hitz bat kontrako hitza ekhartzen eztuenik.

Zer nahi den, orai zen, egia baldin bazen, gehiago bizi ezten maitatu baten biziaz egia hori guzia agertzen, barnetarik goiti jiten, gehiago hartaz ezer egiten ahal eztugunean. Orduan (orai maite dugun eta harendako gauza bera gerta laitekeen bertze bat gogoan behar bada), lastimatzen gira. Egiten dugu: «Bizi denak hori guzia gogoan hartzen ahal balu eta hila izanen denean gordetzen dautan guzia nik jakiten!» Baina atherabiderik gabea da. Albertine bizi izan zadin egin ahal ukan baldin banu, eginen nuen aldi berean Albertine-ek ezer etzautala agertua ukanen. «Gehiago maitatuko etzitutanean ikusiko duzu» betierekoa bezalako gauza bera da apur bat, hain egia dena eta hain arrazoingabea, gehiago maite ezparginuke ainitz ukanen ginukeenaz geroz alabaina, baina ukaiteaz axola ezpaigintazke. Osoki gauza bera da ere. Ezen maite eztenean berriz ikusten den emazteak, guzia erraiten baldin badautzu, hura bera eztelakotz gehiago da alabaina, edo etzirelakotz zu: maite zuenak izaiterik eztu gehiago. Hor ere herioa da iragana, oro errex bilakatua du eta oro debalde. Gogoeta horietan nintzan, Andrée egiatia zelako baldintzan jarriz - izan zaitekeena - eta ene alderako zintzotasunera ekharria hain zuzen orai enekin adixkidantzak bazituelakotz, Albertine-ek hastapenean enekin ukana zuen Saint-André-des-Champs-eko itxura horren gatik. Albertine-ren beldur ez gehiago izaiteaz lagundua zen aldi hortan, jenden izaiteak ezpaitu guretako haien heriotze ondoan dembora guti baikirik irauten, eta zenbait urteren buruan erlisione ezeztatuetako jainko hek bezala dira, beldurrik gabe ofensatzen baitira haien izaitean sinestetik geldituak girelakotz. Baina Albertine-ren izaitean Andrée-ek sinesterik ez gehiago ukaiteak ondoriotzat ukan zezakeen haren gaizkidea gerotik behatuz gaizki saltzen zuen gezur baten asmatzeaz (ez agert-

zea hitzemanen zuen egia baten salatzeaz bezain ontsa) etzadin gehiago beldur izan. Beldurrik ez ukaite horrek uzten ote zuen, hori erranez, azkenean, egiaren agertzera, ala gezur baten asmatzera, uste baldin bazuen, arrazoin zenbaiten gatik, zorionez eta urguluz betea nintzala eta bihotzmin eman nahi baldin bazautan? Ene kontra haserretua zen behar bada (zorigaitzean, ezin konsolatua ikusia nindueno gelditua zen haserrea) Albertine-rekin adixkidantza batzu ukanak nituelakotz eta behar bada gutiziatzen zautalakotz - ustez eta horrengatik hura baino fagoratuago estimatzen nintzan - behar bada ez ukana ez agiantzatua etzuen abantail bat. Horrela nuen ainitzetan ikusia biziki eri iduri zutela erraiten, haien itxura onak, eta oroz gainetik bere itxura onaz zuten konzienziak sumintzen zuten jende batzuer, eta, haien gaitzi-arazteko esperanzan, bera biziki ontsa zela erraiten, erienik zenean gora erraitetik gelditu etzen gauza, heriotzeko atxikimendugabea, zoriondunak ontsa izan zaiten eta bera hiltzera zoala jakin zezaten gehiago axolatu etzen egunerano. Baina egun hori urrun zen oraino. Ene kontra haserretua zen behar bada, nik dakita zeren gatik, lehenago errabia bat ukana zuen bezala indar jokoetan hain jakintsuna, gaineratekoan hain jakingabea zen gizon gaztearen kontra, Balbec-en aurkitua ginuena eta gero Rachel-ekin bizi zena, hartaz Andrée elhe gaixto hedatzen ari baitzen, gaitzerranez salatua izaita agiantzatuz haren aitaren kontra haien falsutasuna phorogatu ahal etzuen egintza desohoragarri batzu agertu ahal ukaitekotan. Eta ene kontrako errabia horrek berriz hartzen zuen behar bada, trixte ikusten ninduenean gelditua baitzatekeen. Alabaina, begiak errabiaz dirdiran, gezurrezko lekukotasun batzuez baliz ere, desohoratu, hil, kondena-arazi nahi ukanak zituen haier berer, jakinak ukan baldin bazituen bakarrik trixte, aphalduak, etzauen gehiago gaitzik batere nahi, ongi-eginez haien betetzera prest zen. Ezpaitzen zinez gaixtoa, eta haren jite ez ageria, apur bat barnatua ezpaldin bazen lehenik haren artha goxoen arabera uste zen gixakotasuna, baina izaitekotz jelosia eta urgulua, haren jite herena, barnatuagoa oraino, egiazkoa, baina ez osoki egina, oneziara eta urkoaren maitasunera zoan. Bakarrik izanara berezi batean hobe bat gutiziatzen



duten jende guziek bezala, baina, hura gutiziatik baizik ez ezagutuz, lehenbiziko kondizonea hastapenekoarekin haustea dela ezpaitute hartzen - hala nola zain-ahulak edo morfina hartzaleak, sendatuak bada izan nahi bailukete baina ez bere bitxikeriez edo morfina ez gabetuak, munduari atxikiak diren gogoz erlisioneari emanek edo jitez izpiritu artixtek bakartasuna agiantzatzen duten bezala, baina ez hala ere hori aitzineko bere biziari ukho egite baitezpadako bat bezala itxuratu nahi - Andrée izaite guzien maitatzera prest zagon, baina lehenik ez triunfan bezala haien itxuratzekotan, eta hortako aitzinetik haien aphaltzekotan. Urguludunak ere maitatu behar zirela etzuen hartzen eta haien urgulua amodioaz garhaitu behar zela eta ez urgulu azkar-rago batez. Baina eritasuna atxikitzen duten, maite dituzten eta uzten balute berehala maitatzetik geldituko ziren bide beretarik sendatzea nahi duten eri hek bezela zelakotz zen hori. Baina igerikan ikasi nahi da eta oin bat lurrean atxiki.

Indar jokoetako mutiko gazteari doakonaz, Verdurin-darren iloba, Balbec-eko ene bi egonaldietan aurkitua nuena, erran behar da gainera, eta aitzinatzez, Andrée-ren ikustalditik zenbait dembora ondoan, sarri haren ixtorioa berriz hartuko den ikustaldia, ustegabetze aski handi bat eman zuten egintza batzu gertatu zirela. Lehenik mutiko gazte hura (behar bada maitatua zuela enakien Albertine-ren ohoitzapenez) Andrée-rekin ezkongaitu zen eta ezkondu, hartaz battersere axolatu etzen Rachel-en etsipena izanik ere. Andrée-ek orduan (erran nahi da aiphatzen dutan ikustaldik ilabete zenbait berantago) etzuen gehiago erran miseraule bat zela, eta ohartu nintzan berantago hori etzuela errana hartaz erotua zelakotz baizik eta etzuela nahi uste zuelakotz. Baina bertze gertakari bat ohargarriago izan zen. Mutiko gazte horrek antzertixka batzu eman-arazi zituen berak egin aphaindura eta jantzi batzuekin, gure aroko edergintzan aldapen bat ekharri baitute Dantza-ikuskarri errusoek egina dutenaren heinekoa bederen. Hots juje segurrenek haren lanak handieneko zerbait bezala estimatu zituzten, abantzu jeinu-lan batzu, eta hek bezala gogatzten dut bertzela ere, horrela, neure ustegabeen, Rachel-en aburu izana onhartuz. Balbec-en ezagutua zuten jendek, haiekin ibili behar zuen jenden

jantzietako itxura aphaína ala ez izaiteari behakor bakarrik, bere as-  
tiaren iragaiteari bakaran, zaldi-lasterretan, golf ala poloan, bere ikas-  
taldietan beti ezteusa izana zela baitzakiten eta ere ikastetxetik bere  
burua haiza-arazia zuela (gurasoen nardatzeko, bi ilabetez egona zen  
han Charlus-ko Jaunak Morel hatzemanen zuela uste ukana zuen em-  
ategi handian), haren lanak maitasunez ospea hari utzi nahi zaukon  
Andrée-renak zirela behar bada uste ukan zuten, edo itxura gehia-  
gorekin, bere erokeriek bakarrik markestua zuten fortuna handiare-  
kin, ofizioko jeinudun eta behardun zenbait ordaitzen zuela (jendalde  
aberats mota horrek - arixtokraziarekin ibiltzearen gatik ez oraino  
garbitua eta artixta bat zer den ideiarik batere gabe, bere alabaren  
ezkongai bestako berehala ondoko saloin batean irabazia ixilka em-  
anez bakarrikzeten errepikatzerá jin-arazten duten jokari bat baita  
bakarrik haiendako, edo, behin ezkondua denean, haurrak jin baino  
lehen eta oraino bere abantail guzian delarik, bera alaba haren etxean  
molde egon-arazten duten margolari bat - gogotik uste baitu idaz-  
ten, musika egiten edo margotzen duten jende mundutar guziek bere  
lanak egin-arazten dituztela eta egile baten aiphamenaren ukaiteko  
ordaintzen dutela, bertze batzuek bere deputatu alkiaren segurtatzeko  
bezala.) Baina hori guzia gezurra zen; eta gizon gazte hura lan mira-  
garri horien egilea zen bada. Hori jakin nuenean, aieru batzuen artean  
zalantzan egoitera bortxatua izan nintzan. Ala urte luze batzuetan,  
iduri zuen «abre osoa» izana zen alabaina, fisiologian hondamen zen-  
baitek Oihaneko andere lokhartua bezala losunean zen jeinua atzarria  
zuen; ala bere erretorika urte nahasiko, baxoan gibelatzeko, Balbec-en  
jokoko galtze handietako, haien jantzi itsusiaren gatik bere izaba Ver-  
durin-en leialekin «tramuan» igaiteko beldurreko aldi hartan, gizon  
jeinudun bat zen jadanik, behar bada bere jeinutik baztertua, bere  
gazte jaiduretako khaldan hori athe-pean giltza bezala utzia ukanik;  
ala ere, jeinu gizon jadanik ohartua, eta, eskolan azkena bazen, era-  
kaskleak Zizeronez ohi bezalako gauza batzu erraiten zituelarik, hark  
Rimbaud eta Goethe irakurtzen zituelakotz. Eiki, Balbec-en aurkitu  
nuenean, deusek etzuen aieru hori gogora emaiten, haren griñak ba-

karrik karrosa-zaldien behar-bezalakotasunari eta edarien prestatzeari lotuak iduritu baitzizaztan. Baina ezta kontra-arrazoin ezin ezetsia. Biziki hantustea izan zaitekeen, jeinuarekin batzen ahal dena, eta bizi zen munduan lilluragarri zela bazakien araz dirdiratzea bila zezakeen eta *Affinités électives*-ez ezagutza barnatu bat bazuela phoragatzea bati-terez etzenaz, baina bai izaitekotz laur zaldiekilako karrosa baten gidatzea. Bertzela ere eniz segur lan eder hain berri horien egilea bilakatu zenean ere, han ezaguna zen antzokiez kampo, Verdurin-darren leialak lehen moldean bezala, ezmokinean izanen etzen norbaiti egun on erraitea biziki gustatuko zizakola, horrek phoroga bailezake haren baitan ez zozokeria baina hantukeria, eta ere gauzetako ezagutza zerbait, zozoen gogo motari bere hantukeriaren arautzeko gogo-argitasun bat, haien estimuari atxikia baitzen eta haiendako ezmokinak gogoetatzale baten soak baino diridira biziagoa baitu behar bada.

Nork daki, kampotik ikusirik, gizon antzedun batek, edo ere antze gabeko gizon baina izpirituko gauzen maitale batek, nik behazunez, etzuenez, Rivebelle-en, Balbec-eko Hotelean, Balbec-eko kaian aurkituko zuenarendako, zozo betegin eta handiustenaren itxura ukanen? Khondutan hartu gabe Octave horrendako edergintzako gauzak zerbait hain barneko, bere baitako gune segetretzukoenetan hain bizidun zirela nun ezpaitzukeen hetaz mintzatzeko gogorik ukanen, Saint-Loup-ek eginen zuen bezala behazunez, hunendako erderlanek baitzuten Octave-rendako karrosa-zaldiek zuten ospe bera. Eta gero jokoko jaidura bazukeen, eta atxikia duela diote. Hala ere, Vinteuil-en lan ezezaguna berriz bizi-arazi zuen pietatea Montjouvain-go gune hain uherretik jalgia baldin bada, enintzan gutiago joa izan gure aroko nagusi-lan behar bada ohigabekoenak jalgi direla ez Konkurso jeneraletik, erakaskuntza behar bezalako, akademiako, Broglie-ren arako batetik, baina «phizategietan» eta edandegietan ibiltzetik gogatzaz. Zer nahi den aro hartan, Balbec-en, eni haren ezagutzea, Albertine-ri eta haren adixkider nik ezagun enezan gutizia-arazten zaukuten arrazoi-nak, haren balioarekin berdin ikustekorik etzutenak ziren, eta argian ezartzen ahal ukanen zuten bakarrik «adimenduko» baten (aldi hortan

nik itxuratuaren) eta munduko jenden (multxo ttipiak itxuratuen) artean betierekoa den gaizki-entzuna, jende mundutar batez (golf-eko jokari gaztea) ari denean. Haren antzea enuen batere aitzinetik senditzen, eta ene begietan zuen ospea - lehenago Blatin Andreak zuen mota berekoa - , hek nahi zutena erranik ere, ene nexka adixkideren adixkidea izaitea zen, eta ni baino gehiago haien multxokoa izaitea. Bertzalde Albertine 'ta Andrée, izpirituko gauzetan jujamendu zuzen baten emaitako munduko jenden ahalgabea itxuratuz eta gai hortan itxura falsu batzuer lotzeko duten ixuria, etziren bakarrik zozoa nintzala aurkitzetik urrun horrelako ergel batez jakin-nahia nintzalakotz, baina ustegabetzen ziren oroz gainetik, golf-eko jokari izanaz geroz, ene hautua hain zuzen ezteusenera joana izaitiaz. Belleœuvre-ko Gilbert-ekin adixkidetu nahi izana banintz oraino, golf-etik kampo solasa bazuen mutiko bat zen, Konkurso jeneralean «accessit» bat ukana zuena eta neurtitzak goxagarriki egiten zituena (egiazki bada nehor baino zozoago zen). Edo izaitekotz ene helburua «ikaspen baten» egitea baldin bazen, «liburu bateko», Guy Saumoy, osoki eroa baitzen, bi nexka gazte bortxaz eremanak zituena, «ohargarri» izaiten ahal zizatan norbait bitxi zen bederen. Horiek biak, «haizu» utziko zizatzaten, baina bertzeari, zer gozagarri aurkitzen ahal naukon? «Abre handia»-ren, «abre osoa»-ren moldea zen.

Andrée-ren ikustaldira itzultzeko, Albertine-rekilako bere adixkidantzez egin berria zautan agertzearen ondotik, gaineratu zuen Albertine-ek utzia nindueneko arrazoin nagusia, multxo ttipiko haren adixkidek, eta bertze batzuek ere horrela harekin ezkondua etzen gizon gazte baten etxean bizitzen haren ikusteaz gogatzten ahal zutena zela.: «Badakit bada zure amaren etxean zela. Baina horrek jeus eztu egiten. Nexka gazte mundu hori guzia zer den eztakizu, batzu bertzer zer gordetzen duten, zenbat diren bertzeren aburuaren beldur. Gazte batzuekin izigarriko larderia bazutenak ikusi ditut haien nexka adixkideak ezagutzen zituztelakotz bakarrik eta gauza batzu errepikatuak izan zaiten beldur zirelakotz, eta horiek berak, halabeharrak osoki bertzelakoak erakutsi dauzta, berek nahi zutenaren kontra bada.» Zenbait ilabete lehenago, multxo ttipiko nexkek obeditzen zaukoten

arrazoinaz Andrée-k bazuela iduri zuen jakitate hori munduko baliosena idurituko zizatan. Erraiten zuena aski zen behar bada Albertine, gero Parisen eni emana zena, beti haren adixkideak ikusten nituen Balbec-en - harekin hobekienean izaiteko hainbateko abantaila zela sinesteko arrazoingabekeria ukana bainuen - etzela emaitera utzia argitzeko. Behar bada ere Andrée-rekin konfienxiatzko ene mugimendu batzuen ikusteak, edo Albertine Grand Hotel-ean etzatera zoala zuhurtziarik gabe hari errana ukaiteak zuen egiten Albertine-ek, oren bat lehenago gauza lañoena izana baliz bezala atsegin batzuen hartzen ene uztera prest zelarik behar bada, itzulaldi bat ukana zuela eta xilintxaren joiteaz mehatxua ninduela. Baina beraz, bertze ainitzekin errexa izana zatekeen. Ideia horrek ene bekaizkeria iratzarri zuen eta Andrée-ri erran naukon galdegin nahi naukon gauza bat bazela. «Hori zure amatxiren bizitegi hutsean egiten zinuten? - Ho! ez, nehoiz, desarriñatuak izanen ginen. - Ori, uste nuen, iduri zizatan... - Bertzela ere, Albertine-ek maiten zuen oroz gaintetik horren egitea baserrian. - Nun hori? - Lehenago, biziki urrun joaiteko astirik etzuenean Buttes-Chaumont-etara joaiten ginen, hor etxe bat ezagutzen zuen, edo zuhutzen azpian, nehor ezta; Trianon ttipiko harpean ere. - Ikusten duzu bada, zu nola sinets? Zin egina zinautan, urte bat eztu, Buttes-Chaumont-etan jeus etzinutela egina. - Zuri pena emain beldur nintzan.»

Errana dutan bezala, uste ukan nuen, bakarrik biziki berantago, bigarren aldi hortan, aldiz, aithormenetako egunean, Andrée-ek pena eman nahi ukana zautala. Eta, mintzo zenean, ideia hori berehala ukanen nuen, horren beharra sendituko nuelakotz, Albertine oraino hainbertze maite ukan baldin banu. Baina Andrée-ren elhek etzautaten aski min egiten gezurrezkoak zirela berehala estimatzea entako baitezpadakoa izan zadintzat. Oro har, Andrée-ek ziona egia bazen, eta enuen hastapenean hortaz dudatzen, aurkitzen nuen egiazko Albertine, Albertine-ren hainbat itxura ezaguna ukan ondoan, biziki guti ezperdintzen zen, lehenbiziko egunean, Balbec-eko kaian agertua zuen eta asmatua nuen nexka atsegaletik eta jarraikian hainbat itxura eskainia zautanetik; horrela du hiri batek hurbiltzen zaukonean aldizka bere eraikuntzen moldamena aldatzen, urrunean bakarra

ikusten zen eraikuntza nagusiaren lehertzerano, ezabatzerano, baina azkenean, ontsa ezagutzen delarik eta zuzenki jujatzen, egiazko arauak lehen begi ukhaldiko ikuspegiak emanak zituenak ziren, gaineratekoa, handik iraganak ginena, eztelarik izaite orok gure ikuspenaren kontra goititzen dituen gerizagailuen lerro jarraikia baizik, bat bertzearen ondotik iragan behar direnak, zenbat oinazeren gostuz, bihotzera heldu baino lehen. Bertzela ere, Albertine-ren ogengabea baitezpada sinestearen beharrik ukan ezpaldin banuen, ene bihotzmina ttipitua zelakotz, erran dezaket ordainzka, agerpen hortaz ezpaldin banintzan gehiegi oinazkatua izan, hori gertatu zela zenbait demboraz geroz Albertine-ren ogengabeaz moldatua nuen sinestearen orde apurka jarria zelakotz, nihaur ohartu gabe, beti nitan bazen sinestea, Albertine-ren ogenduntasunean sinestea. Bada Albertine-ren ogengabea gehiago sinesten ezpaldin banuen, hori zen hartan sinesteko beharrik, gutizia suharrik gehiago enuelakotz jadanik. Gutizia du sinesteari bizi emaiten, eta ohian ezpagira hortaz ohartzen, hori da sineste badematen gutizia gehienak eztiarelakotz - Albertine ogengabea zela sinets-arazia zautanaren kontra - guhaurekin baizik bururatzen. Ene lehenbiziko ideia egiaztatzen zuten hainbat lekukotasuner, zozoki Albertine-ren erran xoil batzu hobetsiak nezteen. Zergatik sinetsia nuen? Gizakia-rendako gezurra baitezpadakoa da. Atseginaren bilatzeak bezain egitate handia du behar bada, eta bertzela ere bilatze horrek manatua da. Gezur erraiten da nork bere atseginaren gerizatzeko, edo atseginaren agertzea ohorearen kontra baldin badoa. Bizi guzian gezur erraiten da, maite gituztener ere, oroz gaisetik, behar bada bakarrik. Horiek bakar-bakarrik, alabaina, daukute gure atseginarendako beldur emaiten eta bere estimua gutizia-arazten. Uste ukana nuen lehenik Albertine ogendun zela, eta ene gutizia bakarrak, dudazko lan bateko ene adimenduko indarrak erabiliz, bidez huts-egin-arazia zautan. Bizi gira behar bada eletrikako, lurr-ikharako seinale batzuez inguratua, gogo onez argitu behar ditugunak jitetako egia zer den ezagutzeko.

Erran behar bada, Andrée-ren elhez nintzan bezain trixte izanik ere, ederrago iduritzen zizatan gauzak azkenean ene asmuak lehenik senditua zuenarekin bat izan zaiten, gero lazoki amor emana

naukon hoberako gogo urrikalgarriarekin baino. Nahiago nuen bizia ene asmuen heinekoa izan zadin. Hauk, gainera, lehen egunean ondartzan ukanak nituenak, nexka gazte hek atseginaren sukarrerora, bizioa itxuratzen zutela uste ukana nuenean, eta ere Albertine-ren errientsa ikusia nuen arratsean bazterretxe ttipira nexka gartsu horren sarr-arazten, itxura guzien gatik ere, jeusek gero hez-arazi ahalko ez-tuen abre bat bere kaiolara bultzatzen den bezala, etzirena Bloch-ek errana zautanarekin akomeatzen, lurra hain eder bilakatua zautalarik, hartan erakusten zautanean, ibilaldi guzietan, aurkintza bakoitzean ikhara-arazten ninduela, amodiozko gutziaren orotakotasuna? Halarik ere behar bada, lehenbiziko asmu horiek, hobe zen berriz ere aurki enitzan, egiaztaturik, orai baizik. Albertine-rendako nuen maitasun gutziak irauten zuenean, sobera oinazka-araziko ninduten, eta haien hatz bat baizik gelditua etzadin hobe zen, ikusten enituen gauzez eta bizkitartean ethengabe eni hain hurbil egin zirenez ene betiereko aierua, eta bertze hatz bat ere behar bada, lehenagokoa, zabalagoa, ene maitasuna bera zena. Albertine-ren hautatzea, maitatzea etzena alabaina, ene arrazoinak onhartzen ezpazuen ere, bere itsustasun osoan haren ezagutzea? eta mesfidanza erdi-lokhartzen den orduetan ere, maitasuna eztea haren iraupena eta aldapen bat? eztea gogo-argitasuneko phorogantza bat (maitaleari berari ezin adigarri zakon phorogantza) gutziak, kontrakoenik zaikunera baitoa beti, oinazkatuko gituenaren maitatzera bortxatzen gituenaz geroz? Jende baten goxagarritasunean, haren begietan, haren ahoan, haren kaizuan, sartzen dira segurki zorigaitzekoenak bilakatzen ahal gituzten gauza ezezagun batzu, hala nola nun jende horren gana erakharriak izaitea, horren maitatzen hastea, nahi den bezain ogengabea dela badiogu ere, bertze molde batean haren tradimenduen eta hutsen irakurtzea da jadanik.

Eta, ene erakartzeko, jende baten zati kaltegarri, lanjeros, hilgarriak horrela gauzatzen zituzten xoragarritasun horiek, segere-tuzko phozoin horiekin, lore zitaldun batzuen joritasun bilgarria eta ur phozoindua baino egitetik ondoriorako arau zuzenago batean ziren behar bada. Albertine-ren bizioak berak, nion neure baitan, ene geroko oinazen emaileak, zituen Albertine-ren baitan eginak ara on

eta zintzo hek, harekin gizon batekin bezalako lagungo leial eta gibel-asmurik gabeko beraren ukaiteko lillura emanaz, ara berdineko bizio batek Charlus-ko Jaunaren baitan senditzeko eta izpirituko xorroxtasun eme bat emana zuen bezala. Itsumendu osoenaren erdian oharpena hautespenaren eta xamurtasunaren molde hartan berean gelditzen da, hala nola nun maitasunean hautu gaitzez mintzatzean huts egiten baita, hautua baden orduko, ezpaitaiteke gaitza baizik izan. «Buttes-Chaumont-etarako bidaia horiek etxera haren bila jiten zinenen izan zirena? erran naukon Andrée-ri. - Ho! ez, Albertine Balbec-etik zurekin jina izan zen egunetik, errana dautzutana salbu, etzuen ehoiz jeus egin enekin. Gauza horietaz mintzatzera eninduen gehiago uzten. - Baina, ene Andrée-ñoa, zergatik gezur erran oraino? Halabehar handienaz, ehoiz ezpaitut jeusen jakitea bilatzen, ikasi ditut, xehetasun zuzenenetarano, Albertine-ek egiten zituen mota hortako gauza batzu, zuzen erraiten ahal dautzut, ur bazterrean, xuritzale batekin, zenbait egun doi-doia hil baino lehen. - Ha! zu utzi ondoan behar bada, hori eztakit. Sendi zuen etzuela zure konfianzia ukana ahal, berriz ehoiz etzuela ukanen ahal.» Azken hitz horiek aurdikitzen ninduten. Gero berriz gogoratzen zizatan ziringa aldaxkako arratsa, orhoitzen nintzan hamabortz egun nunbait han lehenago, ene bekaizkeria jarraikian gaiez aldatzen baitzen, Albertine-ri galdegina naukola Andrée-rekin ehoiz adixkidantzarik ukana zuenez, eta ihardetsia zuela: «Ho! nehoiz, Andrée biziki maite dut segurki; badut harendako atxikimendu barnatu bat, baina ahizpa batendako bezala, eta iduriz uste duzun gustu horiek baldin banitu ere, hortako gogoan ukanen nuen azken jendea da. Nahi duzun guziaren gainean zin egiten ahal dautzut, ene izabaren gainean, ene ama gaixoaren hilobiaren gainean.» Sinetsia nuen. Eta bizkitartean, hori etzizatala berdin ikusia zuen orduko gezurtatuak zituen gauza batzuek lehenago eginak zituen erdi-aithormenen arteko kontra-erranen gatik mesfidanzan ezarria izana ezpaninz ere, Charlus-ko Jaunaren adixkidantzen platonixma sinetsia zuen Zuanez orhoitu behar ukanen nuen, hori baieztatzen baitzautan barneko-motx egilea eta baroina korroilan ikusiak nituen arrats hartan berean; gogatu behar ukanen nuen bata bertzearen ait-



zinean badirela bi mundu, bat jende hoberenek, zintzoenек erraiten dituzten gauzez egina, eta horren gibelean jende horiek berek egiten dituzten guziez moldatu mundua; hala nola nun, gizon gazte batez emazte ezkondu batek erraiten dautzunean: «Ho! adixkidantza handi bat badutala harendako osoki egia da, baina zerbait biziki ogengabe da, biziki garbi, ene aitamen orhoitzapenaren gainean zin egin nezake», norк berak behar luke, zalantzan egoiteko orde, itxura guzieren arabera ikuztegitik jalgitzen dela bere buruari zin egin, gizon gazte horrekin ukan duen hitzartze bakoitzaren ondotik hara laster egiten baitu, haurrik ez ukaiteko. Ziringa aldaxkak hilgarriki trixte egiten ninduen, eta ere Albertine-ek gezurти nintzala, hastiatzen nuela uste ukaiteak, errana ukaiteak; eta orok baino lehen behar bada, haren gezurrek, hain ustegabekoak nun ene gogamenera haien biltzea neke baitzizatan. Egun batez errana zautan airekoetako kampakamendu batean izana zela, airekolaria ezagutzen zuela (emaztetarik ene aieruen baztertzeо, gizonez gutiago bekaizti nintzala ustez dudarik gabe); jostagarri zela airekolari horren aitzinean, Albertine-ri egiten zauzkon gizamenen aitzinean Andrée nola miretsia zen ikustea, hala nola nun Andrée-ek nahi ukan baitzuen harekin airekoan itzuli bat egin. Hori bada oso-osoki asmatua zen, Andrée etzen ehoiz aireko kampakamendu hortan izana eta b.

Andrée joana izan zenean, auhaltzeko ordua jina zen. «Ehoiz eztuk asmatuko hirur orenez bederen ikustaldia norк egin dautan, erran zautan amak. Hirur oren khondatzen diat, gehiago duk behar bada, abantzu lehenbiziko ikuslearen aldi berean ethorria zian, Cottard Anderea, eta ikusi ditik bat bertzeran ondotik, higitu gabe, ene ikusle guziak - hogeita hamar baino gehiago ukan ditiat - sartzen eta jalgitzen eta enaik utzi duela oren laurden bat baizik. Andrée hire adixkidea ukan ezpahu, deit-araziko hindutan. - Baina azkenean nor zen? - Ikustaldirik ehoiz egiten eztikan norbait. - Parme-ko prinzesa? - Segurki uste nian baino seme adimendunagoa diat. Hiri izen baten bila-araztea eztuk atsegin bat, berehala aurkitzen baituk. - Atzoko bere hoztasunaz ezta desenkusatu? - Ez, zozo izanen zian, haren ikustaldia desenkusa hori zian hain zuzen. - Hire amatxi gai-

xoak hori biziki ontsa aurkituko zian. Bi orenak hirian mutil-jantzi baten bidez galdegin-arazia omen zian egun bat banuenez. Hain zuzen egun huntan zela ihardetsi zakok, eta igan duk.» Ene lehenbiziko ideia, amari erraitera ausartu enintzana, izan zen Parme-ko prinzesak, haiekin adixkidantza handitan zen eta solastatzea maite zuen jende distiratu batzuez bezperan inguratua, ama sartzen ikustean gordetzea bilatu etzuen nahigabe bat senditua zuela. Eta andere handi alemanen aran zen osoki, Guermantes-tarrek gainera ainitz onhartua zutenean, amultsutasun ximen baten bidez zuzenduko zela uste zen burgoikeria hori. Baina amak uste ukan zuen, eta gero hark bezala uste ukan dut, Parme-ko prinzesak xoil-xoilki etzuela ezagutua, etzuela hartaz artha hartu behar zuela uste ukana, ama joan ondoan zuela nor zen ikasia, ala amak beherean aurkitua zuen Guermantes-ko prinzesaren ganik, ala errexixtroan ezartzeko sartu baino lehen uxerrak haien izena galdegiten zuen ikuslen zerrendatik. Gutxi gixako aurkitua zuen amari erran-araztea edo erraita: «Etzitut ezagutu»; baina, gorte alemanen jendetasunari ala Guermantes-tarren arari ene lehenbiziko erran-moldea baino gutiago egoki etzena, uste ukana zuen ikustaldi batek, gauza ohigabekoa Goientasunaren aldetik, eta oroz gainetik oren andana bateko ikustaldi batek emanen zaukola amari, molde zehar eta berdin onhargarri batean, argipen hori, alabaina gertatu zen gauza.

Baina amari prinzesaren ikustaldiko ixtorioaren galdegiten enintzan berandu, hetaz Andrée gadekatu nahi eta egitea ahatzia nuen eta Albertine hunkitzen zuten gauza batzu gogora jin berriak baitzizaztan. Zein guti nakien, bertzela ere, zein guti nuen betiere Albertine-ren ixtorio hortaz jakinen, gogo bereziki eratxikiko zautan ixtorio bakarra, bederen ordu batzuez gogoaren eratxikitzen berri hasten zizatana! Ezen gizona adin segurrik gabeko izaita hori da, zekunda batzuetan urte ainitzez gazteago bilakatzeko dohaina baduena, eta bizi izana den aroko hesiez inguratua, han baitago igerikan, baina haren heina ethengabe alda laitekeen eta noiz aro baten noiz bertze baten menean ezar lezakeen untzi batean. Andrée-ri izkiribatu naukon berriz itzul zadin. Etzuen aste bat berantago baizik egin ahal

ukan. Ikustaldiko abantzu hastapenean errana naukon: «Ororen bu-  
ruan, Albertine-ek hemen bizi zenean gauza mota hortarik etzuela  
egiten diozunaz geroz, zure ustez, librokiago horien egiteko nau utzia,  
baina zein adixkiderendako? - Segurki ez, ezta batere hori. - Beraz  
gozagaitzegia nintzalakotz? - Ez, eztut uste. Zure uztera bere izabaz  
bortxaturik izana dela uste dut hark xede batzu baitzituen gizatar  
harendako, badakizu, «azen erdian niz» deitzen zinuen mutiko gazte  
hura, Albertine maite zuen eta galdegina zuen hura. Etzinuela ezkont-  
zen ikusiz, beldurtu dira zure etxean egoite ofensagarriaren luzame-  
nak mutiko gazteari haren ezkontzea debeka zezon. Bontemps Ande-  
reak, mutiko gaztea ezpaitzen haren ondoan indar egitetik gelditzen,  
Albertine etxera berriz jin-arazi du. Albertine-ek, ondarrean, bazuen  
bere osaba eta izabaren beharra eta tratua eskuetan emaiten zizakola  
ikasi duenean, utzi zitu.» Nehoiz enuen ene bekaizkerian argipen hori  
gogoan ukana, baina bakarrik Albertine-ren gutziak emaztendako eta  
ene begirantza, Bontemps Anderea ere bazela ahazia nuen, ama has-  
tapenetik larri-arazia zuena guti berantago bitxi aurki baitzezakeen.  
Bederen Bontemps Anderea beldur zen, ezkontzen ezpaldin banuen,  
udare bat egarriko bezala atxikitzen zaukon ezkongai ukangarri hori  
gaitzi zezan. Ezen Albertine-ek, Andrée-ren amak lehenago uste uka-  
na zuenaren kontra, ezkongai burjes on bat aurkitua baitzuen oro  
har. Eta Verdurin Anderea ikusi nahi ukana zuenean, segetuz mint-  
zatua zizakonean, hura abisatu gabe arratsaldiz hara joana nintza-  
lakotz hainbat gaitzitua izana zenean, haren eta Verdurin Anderearen  
artearen izana zen azpikeriak helburutzat zuen hari ez Vinteuil Ande-  
rearen baina Albertine maite zuen ilobaren aurki-araztea, hunendako  
Verdurin Anderea, haien gogo-moldean osoki sartzen ezten familia  
batzuen aldetik ustegabetzen duten ezkontza batzuek badematen sati-  
famenduarekin, etzen ezkontza aberats bati atxikia. Bada ehoiz enuen  
gogoan berriz ukana hari esker Albertine-ek lehen aldian besarkatua  
ninduen ernatzalea behar bada izana zen iloba hori. Eta Albertine-ren  
goganbeharrez eraikia nuen egitura guziaren orde edo haren gaintetik  
bertze bat ezarri behar zen, ezpaitzuen behar bada baztertzen, emaz-

ten gostuak eztuelakotz emazteak ezkon daiten debekatzen. Ezkontza hori ote zen zinez Albertine-ren joaiteko arrazoina, eta bere alderako amodioz, ez ote zuen bere izabaren meneko zela ez iduri ukaiteko, edo harekin ezkontzera ene bortxatzeko hori erran nahi ukana? Ohartzen ari nintzan egintza bakar batek arrazoin ainitz badituelako sistema, bere adixkidekilako harremanetan bakoitzari harendako zela ethorria sinestera uzten zaukonean Albertine horren alde baitzen, etzela hartzen den ikuspegiaren arabera egintza batek hartzen dituen molde ezperdinen halako itxurapen bat baizik. Albertine ene etxean haren izabari nahigabe eman zezokeen egonara falsu batean zela ez nihauri aldi bakar batez erranik sendi nituen ustegabea eta ahalge mota, etzen senditu nituen lehenbiziko aldia izan, ez azkena. Zenbat aldiz gertatu zatan, bi jenden arteko adixkidantzen eta badematzaen gaitzaldien hartzea bilatu ondoan, heren baten entzutea bapatez bere ikuspegi-tik hetaz mintzatzen, harreman oraino handiago batzu baititu hetarik batekin, gaitzaldiaren emailea behar bada izana den ikuspegia! Eta egintzak horrela dudazkoak gelditzen badira, nolaz elizatezke jendeak berak hala izan? Albertine holakoarekin ala halakoarekin ezkontzea bilatua zuen maltzur bat zela zioten jenden entzutean, ene etxean zerraman bizia nola ikusiko zuten asmatzea ezta neke. Bizkitartean, ene ustez bitima bat izana zen, bitima bat ez behar bada osoki garbia, baina aldi hortan bertze arrazoin batzuen gatik ogendun, aiphatzen etziren bizio batzuen gatik.

Baina oroz gainetik norberak hau erran behar du: alde bate-tik, gezurra ainitzetan nortasuneko berezitasun bat da; bertze aldetik, hori gabe gezurti elizatezkeen emazte batzuen baitan, bere bururaren zaintze natural bat da, bertan asmatua, ondotik gero eta hobekiago antolatua, bapateko lanjer eta bizi ororen suntsitzeko gai lizatekeen horren kontra: maitasunaren. Bertzalde, izaite adimendunak eta sendikorrak emazte apha-lago eta sorgor batzuetara emaiten baldin badira beti, eta haier atxikiak baldin badira, ezta halabeharraren ondorioa, maitatuak eztirelako phoroguk ezpaditu bere ondoan horrelako emazte baten atxikitze-ko orori ukho egitetik batere sendatzen. Horrelako

gizonak oinazkatuak izaiteko beharretan direla baldin badiot, gauza zuzen bat erraiten dut, oinazkatuak izaiteko behar hori - nahibagatarik erran-nahi batean - egia horien ondorio osoki adigarri bat bada-giten aitzinetikako egiak baztertuz. Khondutan hartu gabe, jitez oso-osoak bekan izanez, azkarki adimendun eta sendikor den norbaitek, orotara borondate guti ukanen duela, ohiduraren jostagailua izanen dela, eta ondoko minutan oinazkatua izaiteko beldur horrena, betiereko oinazetara dohatzen duenarena, eta beraz eztuela hartaz maitatua ezten emaztea nehoiz utzi nahiko. Hoin maitasun gutiz askietsia izaitiaz norbait ustegabetuko da, baina sendi duen maitasunak emaiten ahal daukon oinazea itxuratu behar lizateke izaitekotz. Gehiegi deitoratu behar ezten oinazea, zorigaitzeko maitasunak, joaiteak, maite baten heriotzeak emaiten dauzkuten inharrosaldi izigarrietan hastapenean aurdikitzen gitzuten paralesia gaitzaldietan bezala izaiten baita, baina haien ondotik ginarriak berriz emeki emeki bere malgutasunaren, biziko gemenaren hartzera ari baitira. Gainera, oinaze hori ezta ordainaldirik gabe izaiten. Jende adimendun eta sendikor horiek orotara gezurrera guti ekharriak dira. Hunek are gehiago ustegabeen hatzemaiten ditu nun, biziki adimendunak izanik ere, gertagarri diren gauzen munduan bizi baitira, guti ihardokitzen baitute, emazte batek egin berria dauen bihotzminean bizi baitira, hark nahi zuenaren hautemaite argian baino gehiago, jitez borondateduner eta geroari ihardokitzeko iraganaz nigar egiteko orde horren beharra dutener emana zaien hautemaitea. Beraz jende horiek trompatuak sendi dira zer gatik jakin gabe. Hortik emazte bierartekoak, maite zutela ikusteaz uzte-gabetzen ginenak, mundua aberasten daue emazte adimendun batek eginen zuen baino ontsa gehiago. Haren elhe bakoitzaren gibelean gezur bat hautemaiten dute; han izan dela dion etxe bakoitzaren gibelean, bertze etxe bat; egintza bakoitzaren, jende bakoitzaren gibelean, bertze egintza bat, bertze jende bat. Zein eztakite dudarik gabe, horren jakiteko gemenik ez tute, jakitera heltzeko ahala elukete behar bada. Emazte gezurte batek, joko ezin errexago batez, horren aldatzeko nekerik hartu gabe, jende andana bat bairatzen ahal du, eta gehiago

dena, hori aurkitu behar ukanen zuen hura bera. Horrek guziak egi-ten du, adimendun sendikorraren aitzinean, haren bekaizkeriak sun-  
datu nahi lituzkeen barnatasunez eta haren adimendua eratziki gabe  
eztiren ez egina den mundu bat. Bereziki horietarik ezpanintzan ere,  
orai Albertine hila zenaz geroz, haren biziko segetua ikasiko nuen  
behar bada. Baina horrek, norbaiten bizia bururatua denean baizik  
gertatzen ez tiren segetu agertze horiek, ez tutea phorogutzen nehork  
ez tuela, ororen buruan, gero ko bizi batean sinesten? Agertzen diren  
segetu horiek egiak baldin badira, haren egintzak agertzen diren  
emaztearen erresuminen beldur izan behar ginuke, zeruan berriz aur-  
kituko den eguneko, bizi zenean eginen zuen bezainbat, haren segetu-  
tuaren atxikitza bortsatuak uste ginelarik. Eta segetu agertze ho-  
riek gezurrezkoak baldin badira, haien gezurtatzeko emaztea gehiago  
hor ez tzelakotz, hilaren haserrearen oraino gehiago beldur izan behar  
ginuke zeruan sinestea baldin baginu. Baina nehork ez tu hortan si-  
nesten.

Hala nola nun izaiten ahal baita egoitearen eta ene uztearen  
artean gaitzaldi luze bat gertatua zela Albertine-ren bihotzean, baina  
ene uztea haren izabaren gatik izan zela, ala gizon gazte haren ga-  
tik, eta ez behar bada nehoiz gogoan ukanak etzituen emazte batzuen  
gatik. Enetako larriena izan zen Andréé-k, Albertine-ren bizimoldez  
gehiago ezer gordetzeko etzautalarik alta, zin egin zautala mota hor-  
tako jeusik etzela hala ere izana alde batetik Albertine-ren, eta bertze-  
tik Vinteuil Andereñoaren eta haren adixkidearen artean (horiek eza-  
gutuak zituenean Albertine-ek etzituen bere gostuak ezagutzen, eta  
horiek, gutiziatzen den moldean huts egiteko beldur hartaz, gutiziak  
berak bezainbat huts egin-arazten baitu, gauza horien etsai handitzat  
zadukaten. Izan daiteke, berantago, haien gostuekin zuen berdinta-  
suna ikasia zutela, baina orduan Albertine sobera ezagutzen zuten, eta  
Albertine-ek hek, elgarrekin horren egiteaz amets egiteko ere).

Ororen buruan Albertine-ek zer gatik utzi ninduen enuen beti  
gehiago hartzen. Emazte baten aurpegia nekez hargarri baldin bada  
eremu higikor horri guziari, ezpainer ohar etzaieitezkeen begiendako,  
are gehiago orhoitarendako, lanho batzuek aldatzen badute gizartean

duen lerroaren araura, han gauden goratasunaren araura, zein erridau lodiagoa oraino den zabaldua ikusten ditugun egintzen, eta xede gorderen artean! Xede gordeak eremu barnatuago batean daude, hautemaiten ez tugunean, eta bertzela ere ezagutzen ditugunetik bertze egintza batzu sortzen dituzte, eta ainitzetan haiekin kontramolde osoan. Zein demboretan ezta izan gizon publikorik, bere adixkidez saildu batentzat hartua, eta falsukeriak egin dituela aurkitzen dena, Estatua ebatsi duela, aberria traditu? Zenbat aldiz jaun handi bat urte bakoitz ebatsia den berak hazia duen intendantaz, gizon on bat zela zin eginen zuenaz, eta behar bada hala zenaz! Bada, bertzeren xede gorderen gainera zabaldua den erridau hori, zenbat ezin zilatuagoa bilakatzen den jende horrendako maitasuna baldin badugu! Ezen gure zentzua iluntzen du eta ere, maitatua dela sendi baitu, hori gabe harendako balioa ukanen zuenari bapatez balio emaitetik, hala nola fortunari, gelditzen den emaztearen egintzak. Behar bada ere baderama zati batean fortunaz alegia erdainu horren egitera, sofri-araziz gehiago ukaiteko itzaropenean. Tratukeria ere gaineratekoarekin nahas daiteke; eta ere haren biziko egintza on batzu, nehoi salatu eztuen maitaldi bat agertua izan zaikun beldurrez, hala ere ainitzek ezagutuko zutena behar bada haren ezagutzeko gure gutizia suhar bera ukan balute izpirituko libertate gehiago atxikiz, delako emaztearen baitan aieru gutiago phiztuz, batzuek behar bada ezagutu duten maitaldia - baina ezagutzen ez tugula segur girena eta nun aurki ez jakinki. Eta gurekin egonara ezin argitu baten ukaiteko arrazoin guzieren artean, behar dira jiteko berezitasun horiek sarr-arazi jende bat eremaiten baitute, ala bere abantailez ez axolatuz, ala herraz, ala libertatearen amodioz, ala jende batzuek gogatzeko dutenaren beldurrez, uste ginuenaren kontrakoaren egitera. Eta gero hor dira ingurumeneko, erakaspeneko ezperdintasunak, horietan sinetsi nahi ez tugunak, biak elgarrekin solastatzen girenean, elhetarik ezabatzen ditugulakotz, baina berriz hor baitira bakarrik girenean, bakoitzaren egintzen eremaiteko ikuspegi hain kontrakoan nun aurkintza egiazkorik ezin gerta baitaiteke.

«Baina, ene Andréé-ñoa, oraino gezurra diozu. Orhoit zaite

(zuhaurek aithortua dautazu, bezperan telefonatua dautzut, orhoit zirea?) Albertine-ek hainbat nahi ukana zuela, eta jakin behar enuen gauza bat bezala eni gordez, Vinteuil Andereñoa hara jin beharra zen Verdurin-darren goizaldira joan. - Ba, baina Albertine-ek etzakien batere Vinteuil Andereñoak jin behar zuela. - Nola? Zuhaurek errana dautazu, zenbait egun aitzinean, Verdurin Anderea aurkitua zuela. Bertzela ere, Andrée, elgar engana dezagun debalde da. Paper bat aurkitu dut, goiz batez, Albertine-ren gambaran, Verdurin Andereak goizaldira ethor zadin lehiatzen zuena.» Eta hitz hori erakutsi naukon Françoise-ek alabaina eni ikus-arazteko behar zena egina zuena Albertine-ren gauza guzien gainean ezarriz hura joan baino zenbait egun lehenago, eta hor uzteko, beldur niz, haren gauzak mihatuak nituela Albertine-ri sinets-arazteko, hasteko paper hori ikusia nuela hari jakin-arazteko. Eta ainitz aldiz nihauri galdez egona nintzan Françoise-ren amarru hori etzenez Albertine-ren joaitan ainitzetako izana, ezer etzautala gordetzen ahal ikusten baitzuen, eta etsitua sendi baitzen, garhaitua. Paperra erakutsi naukon: *Urrikirik eztut batere, sendimendu hoin familiakoz osoki desenkusatua...* «Badakizu bada, Andrée, Albertine-rek beti errana zuela Vinteuil Andereñoaren adixkidea, harendako, alabaina, ahizpa bat zela, ama bat. - Baina billet hori gaizki hartua duzu. Verdurin Andereak bere etxean Albertine-ri aurki-arazi nahi zaukon, etzen batere Vinteuil Andereñoaren adixkidea, ezkon-gaia zen, «azen erdian niz», eta Verdurin Andereak zirtzil harendako zuena familiako sendimendua da, iloba baitu alabaina. Uste dut alta Albertine-ek gero jakin duela Vinteuil Andereñoak jin behar zuela, Verdurin Andereak gainera jakin-arazia ahal zaukon. Bere adixkidea berriz ikusiko zuelako ideiak atsegin emana zaukon segurki, iragan goxagarri bat orhoit-arazten; baina zenbat zorion zinueen zuk ere, leku batera joan behar bazinu, Elstir han dela jakiteaz, baina ez gehiago, hainbertze ere ez. Ez, Albertine-rek ezpazautzun erran nahi zer gatik nahi zuen Verdurin Anderearen etxera joan hara biziki jende guti gomitatua zuen errepikaldi bat bazelakotz da, haien artean Balbec-en aurkitua zinuen iloba hura, Bontemps Andereak nahi baitzuen Albertine-rekin ezkont-arazi eta Albertine-ek nahi baitzuen harekin



mintzatu. Zirtzil bat pollita zen... Eta gero ezta hoinbertze argipenen bilatze beharrik, gaineratu zuen Andrée-k. Jainkoak daki Albertine zenbat nuen maite eta zein jende ona zen, baina oroz gainera berrogei egunetako sukarra ukana zuenaz geroztik (gu guziak ezagutu gituzunetik urte bat lehenago), egiazko burubero bat zen. Egiten zuenaz bapatez higuntzen zen, behar zen aldatu, eta minutan berean, eta zergatik berak etzakikeen. Orhoit zirea Balbec-era ethorri ziren lehen urteaz, ezagutu gituzun urteaz? Egun batez berari igorr-arazi du Parisera deitzen zen depexa bat, haren malen egiteko astia ukan badugu dodoietarik da. Etzuen bada joaitako arrazoinik batere. Eman dituen estakuru guziak gezurrezkoak ziren. Paris ordu hartan nardagarri zen harendako. Guziak oraino Balbec-en ginen. Golfa etzen hetsia, eta hainbat gutiziatua zuen joko-sari handiko entseuak etziren ere bururatuak. Hark zuen segurki ukanen. Zortzi egun baizik etzen igurikatzeko. He bada, lauhazkan joan da. Geroztik hortaz ainitzetan mintzatu nako. Berak zion zergatik joana zen etzakiela, herrimina zela (herria Paris da, gogoari emazu itxurarik baduenez), Balbec-en etzela gustatzen, uste zuela bazirela hartaz trufatzen ziren jende batzu.» Eta Andrée-ek erraiten zuenean hau egia zen, gogoetako ezperdintasunek argitzen badituzte lan ber batek holako edo halako jendearen baitan badematzan iduripen ezperdinak, sendimenduetako ezperdintasunek maite etzituen norbaiti zerbaiten sinets-arazteko ezina, badira ere egintza baten arrazoinak diren nortasunetako ezperdintasunak, nortasun baten berezitasunak. Gero argipen hortaz gogatzetik gelditu nintzan eta banion neure baitan bizian egiaren jakitea zein neke den.

Ohartua nindeen bada Albertine-ek Verdurin Anderearen etxera joaiteko zituen gutizari eta gordekeriari, eta enuen huts egina. Baina orduan gauza bat horrela egina denean, bertzeak, ezpaitutugu haien itxurak baizik, gordetzen dira, eta eztitugu iduri zapal batzu baizik iragaiten ikusten hetaz diogularik: gauza hori da, hura da; emazte haren gatik da, edo bertze baten. Horren arrazoina Vinteuil Andereñoak ethorri behar zuela iduritua zizatan, are gehiago nun Albertine-ek, aitzinera eginez, aiphatua baitzautan. Eta berantago Vinteuil Andereñoaren han izaiteak etzaukola atseginiak batere emaiten eni zin

egitea etzuen ezetsia? Eta hemen, gizon gazte hortaz mintzatzean, ahatzia nuen gauza huntaz orhoitu nintzan: guti lehenago, Albertine ene etxean bizi zenean, hura aurkitua nuen eta Balbec-en zuen ohi-duraren kontra moldera, ezin gehiago maitagarri izana zen, enekin gixako ere, ene ikustera jiten utz nezan othoiztua ninduen, arrazoin ainitzen gatik onhartua enuena. Orai hartzen nuen bada, laño-lañoiki, Albertine etxean bizi zela jakinez, enekin ontsa jarri nahi ukana zuela haren ikusteko errextasun guzien ukaiteko eta eni haren ekhentzeko, eta zirtzil bat zela egina nuen. Bada, zenbait dembora berantago, gizon gazte haren lehenbiziko antzertiak jokatuak izan zizaztanean, etxera jitea hainbat nahi ukana baldin bazuen Albertine-ren gatik zatekeela uste ukaiten jarraiki nintzan; eta hori ogendun aurkitzen nuen batean, orhoitu nintzan behin Doncières-ra joana izan baldin banintz, Saint-Loup-en ikustera, Guermantes-ko Anderea maite nuelakotz zela egiazki. Egia da etzela gertaldi bera: Saint-Loup-ek Guermantes-ko Anderea ez maite ukanez, ene xamurtasunean bazen behar bada falsutasun apur bat, baina tradimendurik ez batere. Gero gogoan ukan nuen gutiziatzen duzun ontasuna eskuan duenaren aldera senditzen den xamurtasunean, senditzen dela ere ontasun hori baldin badaduka berarendako maitatuz ere. Orduan behar da zuzen-zuzena tradimendura eremanen duen adixkidantza baten kontra dudarik gabe gudukatu. Eta beti hori egin dutala uste dut. Baina hortako behar den indarririk ez zutenendako, ezin erran daiteke haien baitan jabe denarendako alegia erakusten duten adixkidantza amarru huts bat dela; zintzoki senditzen dute 'ta, horren gatik, suhartasunekin erakusten, hunek, tradimendua egina denean, egiten baitu senar edo maitale trompatuak erraiten ahal duela sumindura balditu batekin: «Entzun bazinitu zirtzil horrek goratik egiten zauztan atxikimenduzko aithormen nasaia! Norbaiti bere ontasunaren ebastera jin daitela, onhartzen dut oraino. Baina lehenik bere adixkidantzaz haren segurtatzeko behar debruzkoaren senditzea, ezin asma daitekeen itsuskeria eta gaixtakeriako hein bat da.» Ez bada, ezta hor gaixtakeriako atseginik, ez eta osoki gogo-argizko gezurrik ere.

Albertine-ren omenezko ezkongaiak egun hartan erakutzia

zautan mota hortako atxikimenduak bertze desenkusa bat bazuen oraino, Albertine-rendako maitasunaren erathorri xoil bat baino batzunagoa izanez. Gutidanik baizik etzakien adimendun bat zela, etzen hala aithortzen, etzuen hala aiphatua izan nahi. Lehen aldikotz, indar-jokoez edo besta egitez bertze balioak baziren harendako. Ni Elstir-ez, Bergotte-ez estimatua izaiteak, Albertine behar bada idazleak jujatzen nituen moldeaz eta nihaurek haren ustez idatziko ahal ukanen nuenaz hari mintzatua izaiteak, egiten zuten harendako (hala zela azkenean ohartzen zen gizon berriarendako) adixkidantzan izaiteaz atsegin ukanen zuen norbait ohargarri bilakatua nintzala bapatez, bere lan-xedeak konfienxian erran nahi ukanen zauzkona, behar bada Bergotte-ri aitzinera nezon galdegin. Hala nola nun ene etxera jitearen galdatzean zintzo baitzen, adimenduko arrazoin batzuek Albertine-ren leinuru batekin batean zintzotasunetik ezartzen zuten adixkidantza baten eni erraitean. Etzen dudarik gabe hortako ene etxera jiteari hainbat atxikia zela, eta horren gatik ooren uztera. Baina azken arrazoin hori, halako suhartasun goren batera bi lehenbizikoen goititzea baino gehiago egiten etzuen, berak etzakien behar bada; eta bertze biak baziren egiazki, egiazki izana ahal zen bezala Albertine-ren baitan, joan nahi ukana zuenean, errepikaldiko arratsaldean, Verdurin Anderearen etxera, haurzaroko adixkide batzuen berrikusten ukanen zuen atsegin osoki onesta, ezpaitziren harendako bera haiendako zen baino biziodunagoak, haiekin solastatzen, haier erakusten, Verdurindarren etxean izaiteaz beraz, ezaguna zuten nexka ttipi beharduna orai saloin aiphatu batera gomitatua zela, Vinteuil-en musikaren entzuten behar bada ukanen zuen atsegina ere. Hori guzia egia baldin bazen, Vinteuil Andereñoari mintzatu nindakonean Albertine-ren begitartera jina zen gorridura heldu zen jakin behar enuen ezkontza xede horren gatik gorde nahi ukana zautan goizaldi hartaz egina naukolakotz. Goizaldi hortan Vinteuil Andereñoaren berrikustez atseginik batere ukanen etzuela Albertine-ek ez zin egin nahi ukaiteak ene pairamena handitua zuen ordu hartan, ene aieruak azkartuak zituen, eta gauza ogengabe batendako ere, behar bada hain zuzen gauza ogengabe bat zelakotz. Gelditzen zen alta André-k Albertine-rekilako bere adix-

kidantzez errana zautana. Bizkitartean behar bada, zoriondun izan enindadintzat eta hura baino gorago sendi ahal enindadin Andrée-k osoan asmatzen zituela sinisterano joan gabe ere, uste ukan nezakeen oraino Albertine-rekin egiten zuena apur bat handiegitua zuela, eta Albertine-ek Andrée-rekin egina zuena gibel-asmuz ttipitzen zuela ere apur bat, gai hortaz zozoki erranak nituen mugabide batzuez maltzurki baliatuz, Andrée-rekin zituen adixkidantzak etzirela aithortu behar zautanean sartzen uste baitzuen eta gezurrik gabe ukha zezazkeela. Baina zergatik uste ukan hark zuela Andrée-ek baino lehen gezur erraiten? Egia eta bizia ontsa neke dira, eta hetarik gelditzen zizatan, oro har ezagutzen enituelarik, iduripen bat hartan trixtezia behar bada akhiduraz oraino gainditua zena.

Albertine-ren alderako axolagabe osora hurbiltzen ari nintzala ezagutza ukanik orhoit nizan hirugarren aldia (eta azken aldi hortan osoki heldua nintzala senditzerano), egun batez izan zen, Andrée-ren azken ikustalditik luzaz berantago, Venezian.

Amak eremana ninduen aste zenbaiten iragaitera eta - edertasunetik izaiten ahal baita, gauza umilenetan bezala, baliiodunenetan - jastatzen nituen han lehenago Combray-n hain usu sendituak nituen bezalako bihotz-hunkidurak, baina doinuz aldatuak modu osoki bertzelako eta aberatsago baten araura. Goizeko hamar orenetan ene kampakoko leihoen idekitzera jiten zirenean, banakusan gartzen, San-Hilarioko arbelak dirdiratzean bilakatzen ziren harbizi beltzaren orde, San-Markoko Aingeru urrezkoa. Abantzu begietan ezin jarria egiten zuen iguzki batez dirdira bizian, bere beso zabal-zabalduez bazegitan, oren erdi bat berantagoko Piazzetta-n izanen nintzaneko, bozkariozko agiantza bat behin borondate oneko gizoner iragartzeaz kargaturik izana ahal zena baino segurragoa. Etzanik nintzano enezakeen hura baizik ikus, baina mundua ezpaita iguzki-orratz zabal bat baizik hartan zati iguzkitu bakar batek den orenaren ikustera uzten gituena, lehenbiziko goizetik beretik gogoan ukan nituen Combray-ko saldegiak,

elizako plazan, igandetan hestera baitzoazen mezara ethortzen nintzanean, merkatuko lastoak aldiz azkarki usaintzen zuelarik iguzki jadanik beroan. Baina bigarren eguneko, atzartzean ikusi nituenak, ohargarri izan zizatanak (horiek ene orhoitean eta gutizian Combray-ko orhoitzapenen lekua hartua zutelakotz), Veneziara lehen jalgitaldiko iduripenak izan ziren, egunorotako bizia ezpaitzen han Combray-n baino gutiago egiazkoa: Combray-n bezala igande goizetan baginuen bestan zen karrika batera jausteko atsegina, baina karrika hura oro zafirrezko ur batean hartua zen, aire ezti batzuez hoxtua, eta margo hain iraunkor batekoa nun ene begi akhituek, ahul zadin beldur izan gabe atsedean hartzeko, bere soak hartan berma baitzezazketen. Combray-n Xoriaren karrikako jende onak bezala, hiri berri hortan ere biziliarrak jalgitzen ziren bada karrika handian bat bertzearen ondoan lerrokatuak ziren etxetarik; baina zolara itzal apur bat igortzen zuten etxen jokia, Venezian, hargorritz eta jazpazko palazio batzuer emana zen, athe uztaituen gainetik hetan jainko bizardun baten buruak (etxaitzinetako lerroa hautsiz, Combray-n athe bateko mailuak bezala) ondorioz ilunagotzen zuen bere leinuruaz ez lurraren beltzarana, baina uraren urdin miragarria. Piazza-n, berrikeria saldegiko oihalak eta ile-mozlearen ikurrak Combray-n hedatuko zuten itzalaren orde, Berphizteko etxaitzin baten goi-zizelkadurak bere oinetan lauzadura iguzkituan ereiten dituen lore ttipi urdinak ziren, ez, iguzkiak azkarki joiten zuenean, etzirelakotz, Combray-n bezala Venezian, ur-hodiko bazterrean ere, itzalkari batzuen beheitzera bortxatuak. Baina laur gangailetakoen eta leiho gothiketako abarxken artean hedatuak ziren. Bertze hainbertze erranen dut gure hotelekoaz, haren azpi-haben aitzinean amak kanalari behatuz igurikatzen ninduen lehenago behar bada Combray-n erakutsiko etzuen pairu batekin, han, nitan ezarriz gero ondoriorik ukana etzuten itxaropen batzu, ezpaitzautan zenbat maite ninduen erakutsi nahi. Orai sendi zuen bada bere hoztasun ageriak ezer etzuela gehiago aldatuko, eta nasaiki bazematan xamurtasuna erier gehiago ezesten eztiren janari debekatu hek bezala zen, sendatzen ahal eztirela segur izaiten denean. Eiki, izaba Léonie-ren gambarako leihoa, Xoriaren karrikaldean, bertzeak ez bezalakoa

egiten zuten berezitasun xumeak, haren arau-ezperdina auzoko bi leihoen arteko urruntasun ezperdinaren gatik, zurezko leiho-mahiarren goratasun handiegia eta kampak leihoen hesteko erabiltzen zen barra bihurkatua, erridau-estekak berexen eta bazterturik atxikitzen zituen satin urdin hotz-hotzaren bi hegalak, hori guzia bazen ere Veneziako hotel hartan, entzuten nituelarik hara bazkaltzeko sartuko giren egoitza urrundik ezagun-arazten dauzkuten hitz hain bereziak eta errankorrak, eta berantago gure orhoitean gelditzen direnak egoitza hori ordu batez gurea izana zelako lekukotasun bat bezala. Baina horien erraiteko lana, Venezian, utzia zen, ez Combray-n eta leku gehienetan bezala gauza lañoener, itsusiener ezpada, baina etxaitzin bateko uztai-hautsi oraino erdi-arabari, moldadura erakustoki guzietan eta ederlaneko liburu iduriztatu guzietan berremana baita, ertaroan etxe-ederlaneko nagusi-lanetarik bat bezala; urrun-urrundik eta Saint-Georges le Majeur doi-doia iragana nuenean, ikusia ninduen uztai-hautsi horri ohartzen nintzan, eta arku hautsien oldeak emaiten zaukon haren ongi-ethorritzko irriñoari so gorago eta abantzu ez aditu baten ikustatea. Eta harbizi margo ezperdinekilako azpi-haben giblean ni igurikatuz ama irakurtzen ari zelakotz, begitartea enetako haren ilena bezain erdiragarria zen xuri bateko bualeta tulazko batean hartua, sendi bainuen amak lastozko xapelaren gainetik ezarria zuela gutiago hoteleko jenden aitzinean «jantzia» iduri ukaiteko, eni gutiagotz doluan, gutiagotz trixte, abantzu konsolatua zela erakusteko baino; ni ez berehala ezagutua ukanik, gondolatik deitzen nuen orduko ene aldera igortzen zuelakotz bihotzaren zolatik bere amodioa, jasanen zuen gauzarik etzen lekuan baizik gelditzen etzena, eni ahal bezain hurbila egiten zuen bere behako suharraren hegian, goitiagotu nahi baitzuen, bere ezpainen aitzinatzean, besarkatzen ninduela iduri zuen irriño batean, eguerdiko iguzkiak argiztatu uztai hautsiaren irriño begiratuagoaren azpian - horren guziaren gatik, leiho hark hartua du ene orhoitean, gurekin batean, gure ondoan, joiten ari zen oren berezi batean, guretako eta haiendako bera zenean, bere parte ukan zuten gauzen ezertasuna. Eta leiho-gurutzeak diren bezain molde miragar-

riez beteak ukanik ere, leiho ospetsu hark atxikia du enetako harekin ilabate bat bidaian iragana ukanen ginuen gizon jeinudun baten itxura etxekotua, han guretako adixkidantza bat egina ukanen zuenarena, eta gero, leiho haren moldadura erakustoki batean ikusten dutan aldi bakoitz, ene nigarrak atxiki behar baldin baditut, hori da xoil-xoilki eztautalakotz gehienik hunkitzen nauen gauza erraiten: «Biziki ontsa orhoit niz zure amaz.»

Eta leihoa utzia zuen amaren bila joaiteko, aire beteko be-roaren uztean banuen bada behin Combray-n ene gambarara igaiten nintzanean hartzen ninduen hoxturako sendipena; baina Venezian it-sas-haizeko aire batek zuen atxikitzen, ez gehiago mail hurbilekilako mailadi zurezko ttipian, baina harbizizko mailen gain noble ordu oroz iguzki urdin-berde baten zimiztaz dirdiratueta, eta Chardin-en ikas-taldi baliagarri lehenago ukanari, Véronèse-rena gaineratzen zaukote-netan. Eta Venezian ederlan batzuek, gauza miragarriek dutenaz geroz guri biziko gauzen iduripen ohituen emaiteko egitekoa, hiri horren berezitasunari itzuri egitea da, margolari batzuen Venezia (berex dit-zagun Maxime Dethomas-en lan mireskarriak) zati aiphatuenean ezthetika hotz batekoa delako estakuru-pean, agerian itxura urrikal-garrienen, haren edertasun ezin handiagoa agerian eztenen baizik ez ezartzea, eta, Venezia berezitasun eta egia gehiagoren emaiteko, Au-bervilliers-en iduritik emaita. Edergile handienetarik batzuen ogena, margolari gaixtoen Venezia falsuari kontra egite ontsa natural batez, campi lañoetako, rii ttipi utzietako Venezia, egiazkoagoa iduritu baitzizaien, bakarrik atxikiak izaitea izan zen.

Arratsaldean hari lehen ikustaldi baten egitera nintzan ainitzetan joaiten, ezpaldin banintzan amarekin jalgitzen. Han errexago aurkitzen nituen alabaina xende xoilaren motako emazte hetarik, su-phizteko egileak, harian perla sartzaleak, berinetako ala dentelako lan-gileak, xala beltz listun handiekileko langilesa ttipiak, haien maitat-zea deusek ezpaitzautan debekatzen, Albertine zati handitan ahatzia nuelakotz, eta bertze batzu baino gutziagarriago aurkitzen baintuen, hartaz oraino apur bat orhoitzen nintzalakotz. Nork zautan zuzen er-

ranen ahal ukanen, bertzela ere, Venezi-arsez banegien bilaketa gartsu hartan zer zen hetarik beretarik, Albertine-tik, Veneziako bidaiaz ene lehengo gutiziatik? Den gutieneko gure gutiziak, notalde bat bezain bakarra izanik ere, bere baitan onhartzen ditu gure bizi guzia hetan jarria den nota funtsekoak. Eta batzuetan, hetarik bat ekhertzen baginu, entzuten eztuguna bizkitartean, gogoan eztuguna, haren ondolik gabiltzan gauzari jeusetan lotzen eztena, ikus ginezake alta gauza horren alderako gure gutizia guzia ezeztatzen. Bazen haien argitzea bilatzen enuen gauza ainitz Veneziarsen bila laster egitean nuen hiotz-hunkiduran.

Ene gondolak kanal ttipiak hartzen zituen; Orienteko hiri hortako bihurtunetan gidatua ukanen ninduen jeinu baten mixteriozko eskuak bezala, iduri zuten, aitzinatzen ari nintzan arau, bide bat idekitzen zautatela, zatitzen zuten auzoalde baten erdi-erditik, nahi bezala marratu ilderreka mehe batez, mairu leiho ttipiekilako etxe gorak doi-doi baztertuz; eta mirazko gidariak erhien artean ezkarri bat atxikia ukan balu eta iragaitean argitua ukan banindu bezala, aitzinean dirdira-arazten zuten bere bidea idekitzen zaukoten iguzki arrai bat. Kanal ttipiak orduan bereziak zituen egoitza behardunen artean, hori gabe meta tinki bat eginen baitzuten, sendi zen plaza bat ere etzela erresalburirik izana. Hala nola nun elizako ezkilategia ala baratzetako treilak erreka ginetik zut baitzuden, urak gañditu hiri batean bezala. Baina, elizetako baratzetako bezala Kanal Handiak bazegien aldakuntza berari esker, itsasoak hain ontsa onhartzen zuen bide, errebide handi ala ttipi ofizioaren egitea nun, canaletto-aren alde bakoitzean, elizak igaiten baitziren auzoalde zahar jendez bete 'ta behardun bat bilakatua zen uretik, parropia xume 'ta ainitz ibili batzu bezala, gainean ekhartzen zutelarik bere beharren seinalea, jende ttipi ainitzen ibiltzekoa; kanalaren idekitzeak zeharkatu baratzek uzten baitzituzten bere ortso eta fruitu ustegabetuak urerano herrestatzen, eta bapatez moztu berria baliz bezala haren harri pikorkatua larriki arraildua zen etxeko harresi hegian, haur ustegabetu batzuek eta bere plomua atxikiz zangoak zuzen beheiti dilindan zut uzten baitzituzten, bi zatiak berriki baztertu diren eta itsasoa artetik iragaitea utzi duten



zubi higokor batean jarririk dauden itsasturien moldean. Batzuetan eraikuntza ederrago bat agertzen zen, hor gertatzen baitzen ideki berria ginukeen untxi batean ustegabeko zerbeit bezala, bolizko templo ttipi bat bere molde korinthiarrekin eta harresiburuan alegoriako gizaiduriarekin, bazabilan gauza ohikoen artean apur bat arroztua, ezen lekua egiten baginakon ere, kanalak begiratzen zaukon zutaberiak baitzaxikan baratzeki saltzalen kaia baten itxura. Iduri zizatan handitzen zela oraino kampoan ez izaiteko nuen gutizia, baina gero eta gehiago segetuzko zerbaiten zolarano sartzekoa, ezen aldi bakoitz aurkitzen nuen ene alde batean edo bertzean jartzera jiten zen zerbeit berri, eraikuntza ttipi ala ustegabeko campo, bazatxikatela lehen al-dian ikusten diren eta haien ofizioa eta erabiltzea oraino ontsa hartzen ez-tiren gauza ederren itxura ustegabetua. Oinez itzultzen nintzan calli ttipi batzuetan gaindi, jende ttipiko nexka batzu geldiarazten nituen Albertine-ek behar bada egina zuen bezala eta hura enekin izan zadin nahi ukanen nuen. Bizkitartean etzaitzkeen hek berak izan: Albertine Venezian izana zenean, haur batzu zatezkeen oraino. Baina behin izan ondoan, lehenbiziko erran-nahi batean eta lazakeriaz, bakarra bezala asmatua nuen gutizia bakoitzari leialtasunik gabe, itxura berdintsuko gauza bat bilatua nuelakotz, eta ez berraurkituko nuela uste enuen hura bera, orai beti nituen bilatzen Albertine-ek hek berak ezagunak etzituen emazte batzu, lehenago gutiziatuak nituenak enituelarik ere gehiago bilatzen. Eiki gertatzen zizatan oraino usu, gutiziako bortiztasun ezin sinetsi batekin, Méséglise-ko edo Parisko nexkaño batez orhoitzea, munho baten oinean, goiz batez, Balbec-eko ene lehenbiziko bidaian, ikusia nuen nexka esneketariatz. Baina ondikotz! Orduan ziren bezala nintzan hetaz orhoitzen, erran nahi da orai segurki gehiago etziren bezala. Hala nola nun behin eremana izana banintzan gutizia bat bakarra zelako iduripenaren alda-araztera begietarik galdua nuen nexka komentuan ikasi baten orde bertze bat berdintsua bilatuz, orai ene gaxtetasuna edo Albertine-rena durduz-tua zuten nexken berraurkitzeko, gutiziaren berezitasuneko ideiar-i behar naukon salbuespen bat gehiago onhartu: bilatu behar nituenak

etziren orduan hamasei urte zituztenak, baina gaurregun hamasei urte zituztenak, ezen orai, jendearen baitan bereziena zen eta huts egina nuenaren eskasean, maite nuena gaztetasuna zen. Ezagunak nituenen gaztetasunik etzela gehiago ene orhoitzapen sutsuan baizik banakien, eta etzirela hek, orhoitak itxuratzen zauztanean hetarano heltzea hainbat gutzizatzen banuen ere, bildu behar nituenak, nahi banuen zinez urteko gaztetasunaren eta loren uzta egin.

Iguzkia oraino zeruan gora zen Piazzetta-n amaren aurkitzera nindoanean. Gondola bati hel egiten ginaukon. «Hire amatxi gaixoak zenbat maitatuko zian handitasun hain laño hau! erraiten zautan amak palazio dukala erakutsiz itsasoari beha eraikileak emana zaukon gogoarekin eta leialki bazatxikanarekin duke itzalien igurikatze ixilean. Maitatuko zian ere margo gorraxta horien ezta, faxoinik gabe dukalakotz. Hire amatxik zenbat maitatuko zian Venezia, eta naturakoarekin zein gehiagoka ar daitekeen nolako lañotasuna zian aurkituko edertasun horietan orotan, gauzez hain beteak nun ezpaitie antolamendurik batere behar, diren bezala eskainiak baitituk, palazio dukala bere seialdetako moldean, Herodes-en palaziokoak direla diokan zutabeak, Piazzetta-ren erdian, eta, gutiago oraino lekuratuak, bertze leku baten eskasez bezala hor ezarriak, Saint-Jean-d’Acre-ko zuthabeak, eta zaldi horiek San-Markoko balkoian! Hire amatxik ukanen zian duken palazio gainean etzaten iguzkiaren ikustean mendi baten gainean bezainbat atsegin.» Eta amak zionean bazen alabaina egia zati bat, ezen, hotelera gure eremaiteko gondola Kanal Handiari goiti zoalarik, so ginauden heian artean ginoazen palazioen lerroari bere sahets gorraxtetan argiaren eta orenaren itxuratzen, eta haiekin batean aldatzen, gutiago egoitza berezi eta eraikuntza aipatu batzuen moldean, arratsean untzi ttipi batean etzaten iguzkiaren ikusteko haren oinera joaiten den harbiziko itsas-ezponda batenarenean baino. Hortakotz, izakako bi aldetan jarri egoitzek naturalezako gune batzu gogoratzen zituzten, baina bere lanak giza-idurimen batekin eginak ukanen zituen naturaleza batekoak. Baina aldi berean (Veneziak abantzu itsaso betean badematzan iduripen beti hiritar batzuen berezitasunaren gatik, itsas-gorapena eta beherapena egunean bi aldiz sen-

di-arazten diren uhainetan, eta aldizka itsas-goran estaltzen, eta itsas-aphalean agertzen baitituzte palazioetan kampoko mailadi handizki ederrak), Parisen karrika handietan, Oihanean, modako ethorbide zabal orotan egina ukanen ginuen bezala, arratseko argi erhaustatuan iragaiten ginen emazte aphainenenen ondotik, abantzu oro atzerritarrak, ur gaineko bere karrosako kuxinetan guriki emanak, lerroa hartzen baitzuten, han ikustera joaiteko adixkide bat bazuten palazio baten aitzinean gelditzen, andere hura han zenez galdegiten, eta ihardesprenaren igurikatzean zer gerta ere bere karta prestazen baitzuten han uzteko Guermandes-ko hoteleko athean egina ukanen zuten bezala, bere bida-liburuan palazioa zer arotakoa zen bilatzen, zer estilokoa, ez inharrosiak izan gabe, uhain urdin baten gainean bezala, ur dirdiratu eta jazartuaren zurrumiloaz, godolaren eta harbizi ozenaren artean tinkatua izaitiaz haztoratzen baitzen. Eta horrela ibilaldiak ere, bakarrik ikustaldi batzuen egitera joaiteko eta karta izkina batzuen plegatzeko, Venezian hirurkoitzak ziren eta bakoitzak, harat-hunarat mundutar xoilek han hartzen baitituzte aldi berean erakustoki batean ikustaldi batera eta itsasoan ibilaldi baterako moldea eta gozagarria.

Kanal Handiko palazioetan batzu hotel bilakatuak ziren, eta, aldakuntzako gostuz ala berriz aurkitua ginuen eta amak gomitatua zuen Sazerat Anderearendako ikustatez - bidaiatzen den aldi bakoitz aurkitzen den ezagutza ustegabeko eta behargabekoa -, nahi ukan ginuen arrats batez gurea etzen hotel batean eta jatekoa omen hobea zela ziotenean auhaltzea entseatu. Amak godolaria ordaintzen zuelarik eta sartzera zoalarik Sazerat Anderearekin aitzinetik atxikia zuen saloian, begi ukhaldi bat eman nahi ukan nuen ostatuko sala handira bere harbiziko zuthabe ederrekin eta lehenago guzia harresi-margazki, geroztik gaizki berrituez estalia zenera. Bi mutil itzultzen dutan italiaraz solastatzen ari ziren:

«Zaharrek bere gambaran jaten ote die? Nechoiz ezkie abisatzen. Nardagarri duk, ehoiz eztakiat haien mahia begiratu behar diatanez (*non so se bisogna conservar loro la tavola*). Eta gero, jausten badituk hainbat gaixto eta hartua aurkitzen badie! Holako oihanzain batzu onhar daiten hoin hotel aphainean eztiat hartzen. Eztuk hemengo

jendea.»

Erdainu hori izanik ere, mutilak jakin nahiko zuen zer behar zuen mahiari buruz deliberatu, eta igangailu-mutilari galdegitera zoen estaiara berri bila joan zadin noiz ere, astirik ukan gabe, ihardespena emana izan baitzizakon: andere xaharra sartzen ikusia zuen. Neke-rik enuen ukan, urten metatzeak bademan trixteziako eta akhidurako itxura izanik ere eta haren aurpegia hartzen zuen halako negal bat, legen gorri bat, bonetaran azpian, W...-ren etxean egina zen zaia motzean, baina, ez ezagulendako etxezain zahar baten idurikoan, Villeparisis-ko markesta. Halabeharrak egin zuen, zutik, harresi-margazki baten ondarkinen ikhertzen ari nintzan lekua, gertatzen zela, harbizizko harresi ederren sahetsean, zuzen-zuzena Villeparisis-ko Anderea jarri berria zen mahiaren gibelean.

«Beraz Villeparisis-ko jaunak ezetik jausten luzatuko. Ilabete bat hemen direnaz geroztik, ez tie bat bertzea gabe aldi batez baizijan», erran zuen mutilak.

Galdez nindagon nor ote zen harekin bidaiatzen zen eta Villeparisis-ko Jauna deitzen zuten haren ahaidea, ikusi nuelarik, epe zenbaiten buruan, mahira aitzinatzen eta haren ondoan jartzen bere maitale zaharra, Norpois-ko Jauna.

Adin handiak ahuldua zuen haren mintzoko doinua, baina emana zaukon aldiz elheari, lehenago begirunez hain beteari, egiazko neurrigabe bat. Horren arrazoina bilatu behar zen behar bada gauzatze-ko dembora handirik etzuela sendi zuen eta mutiritasunez eta kharrez are gehiago betetzen zituen handi-nahi batzuetan; behar bada ere, hartan sartzeaz ezin-egonean zen politikatik bazter utzia izanik, uste baitzuen, bere gutizia xintxoan, erretretan ezarr-araziko zituela, haien kontra igortzen zituen kritika ezin bortzitzagoen bidez, ordainduko zituela segur zenak. Horrela dira ikusten politikari batzu hartan barne ez tiren gabinet batek etzuela hirur egunenik segur izaiten. Gehiegi lizateke, bertzela ere, Norpois-ko Jaunak diplomaziako hizkuntzaren ohitzak osoki galduak zituela uste ukaitea. Gaia «afera handiez» zen orduko, ikusiko da, ezagutua dugun gizona izaiten zen berriz, baina gainerateko demboran batez edo bertzeaz mintzatzera ixurtzen zen

haier gaitz handirik egiten ahal ukan gabe emazte batzuen gainera botatzen dituen lauretan hogei urteko zahar batzuen bortiztasun ahi-tuarekin.

Villeparisis-ko Andereak atxiki zuen, zenbait minutaz, iraganaz berriz orhoitzetik oraira igaitea zaharraroko akhidurak neke bilakatua daukon emazte zahar baten ixila. Gero, elgarrekilako maitasun baten luzamena hetan agertzen den galde osoki gauzetakoekin:

- Salviati-tarren etxean izan zirea?

- Bai.

- Bihar igorriko dutea?

- Kopa nihaurek ekharria dut. Auhail-ondoan erakutsiko dautzut. Ikus ditzagun janariak.

- Eman duzua ene Suez-etako Moltsako manua?

- Ez, Moltsako oharpena ordu huntan petrolako balioetan hartua da. Baina lehiatzeko arrazoinik ezta, merkatuko xedeak ezin hobeak direnaz geroz. Horra jatekoen zerrenda. Sartzeko badira ar-raingorriak. Nahi duzua har ditzagun?

- Nik, ba, baina zuri, debekatua zaizu. Galda ezazu ordainez risotto-tik. Baina egiten eztakite.

- Eztu horrek jeus egiten; Mutil, ekharzkizu lehenik Ande-rearendako ar-raingorriak eta enetako risotto bat.

Berriz ixil luze bat.

«Oizu, egunkari batzu ekhartzen dauzkitzut, Corriere della Sera, Gazzetta del Popolo, eta bertze. Ba ote dakizu diplomaziako mugimendu batez azkarki mintzo direla haren lehenbiziko pekatza-lea Paléologue lizatekeena, Zerbian ageriki eskasa baita? Lozé-z ordaindua lizateke behar bada eta Konstantinopoliz-ko kargua hornitu behar lizateke. Baina, lehiatu zen Norpois-ko Jauna garraxki gainerat-zera, hein hortako embaxada bateko eta ageri-agerian baita Britainia-Handiak beharko duela beti, zer ere gerta dadin, deliberamenduetako mahian lehenbiziko lekua ukan, zuhur lizateke jakinak diren gizon batzuer hel egitea, burua beheiturik sarean eman lezaketen eskola gazteko diplomata batzu baino hobeki tresnatuak baitira gure lagun

britaniarraren etsaien arte guzier ihardokitzeko.» Azken elhe horiek Norpois-ko Jaunak erran zituen zalutasun sumindua heldu zen oroz gainetik egunkariak, haren izenaren erraiteko orde berak gomendatua zauen bezala egin zezaten, «fagoratu handi» bezala embaxadore-gai gazte bat emaiten baitzuten. «Jainkoak daki adineko gizonak urrun direnez, nik dakita zein jukutria bihurtzeko ondorit, lagun berri guti edo aski ahalik gabeko batzuen leku eta karguan jartzetik! Ainitz ezagutu dut entseguzko araren aldeko diplomata delako hetarik guzietarik, bere itxaropen guzia ezartzen baitzuten lehertzeko luzatzen enuen entseguzko balon batean. Ezta dudarik batere, gobernuak baldin badu esku nahasi batzuetan Estatuko uhalen ezartzeko zuhurtzia eskasa, eginbidearen deiar soldado-gai batek ihardetsiko duela: hemen. Baina nor daki (eta Norpois-ko Jaunak iduri zuen bazakiela biziki ontsa nortaz mintzo zen) elizatekeenez berdin jakitatez eta trebetasunez betea den ohitu zenbaiten bila joanen ziren egunean? Ene ustez, bakoitzak ukan dezake bere ikusteko ara, Konstantinopoliz-ko karguak eluke onhartua izan behar Alemaniarekin ditugun eragozpenen erregelamendua egin ondoan baizik. Deusik eztugu nehoi zor, eta ezin onhartua da, sei ilabate guzietz, enganiozko jukutria batzuen bidez eta guharen nahigabea, nik dakita zein quitus-en eskatzea, beti aitzinera ezarria emaitzaxka biltzale batzuen gazeteria batez. Horrek bururatu behar du, eta naturalki balio handiko eta bere frogak emanak dituen bat, emperadorearen beharria, erran badirot, balukeen gizon batek, nor nahi baino gehiagoko larderiaz balia lizateke gerlari bururapen emaiteko.»

Auhaltzea bururatzen ari zuen jaun batek agurtu zuen Norpois-ko Jauna.

- Ha! baina Foggi printzea da, erran zuen markesak.

- Ha! zuzen nor erran nahi duzun eztaikit, egin zuen hasperez Villedu-ko Andreak.

- Bana osoki bai. Odon printzea da. Zure andere gusi Doudeville-ren koinata bera.

- Ha! Odon, margazki egiten zuen hura da?

- Baina ez batere, N... duke handiaren arreba ezkondua duena da.

Norpois-ko Jaunak hori guzia erraiten zuen bere ikasleaz khexu den erakasle baten doinu aski gozagaitzean eta, bere begi urdinekin Villeparisis-ko Anderea itzatzen zuen.

Printzeak kafea hartua ukan zuenean eta mahia utzia, Norpois-ko Jauna zutitu zen, lehiarekin haren gana abiatu eta, maiestatzeko jestu batekin, baztertu zen, eta, berak gibelara eginez, Villeparisis-ko Andeareari aitzineratu zaukon. Eta printzea haien ondoan zutik egon zen minuta gutietan, Norpois-ko Jauna etzen ephe batez bere begi urdinaz Villeparisis-ko Andeareari so egitetik gelditu, maitale zahar baten lausenguz ala larderiaz, eta oroz gainetik gustatuak zitzaizkon, baina lotsatzen zuten behar ez bezalako elhetara eman etzadin beldurrez. Printzeari zuzen etzen zer bait erraiten zaukon orduko, solasa zuzentzen zuen eta markesta herabetu eta obedientaren begier so jartzen zen, soaz lokharr-arazle baten indar jarraikiarekin.

Mutil bat ethorri zizatan amak igurikatzen ninduela erraitera, haren gana joan nintzan eta Sazerat Andearen ondoan desenkusatu Villeparisis-ko Andearearen ikusteak jostatua ninduela erranez. Izen hortan, Sazerat Anderea histu zen eta aldixartzera zoala iduri ukan zuen. Bere baitaratzea bilatuz:

- Villeparisis-ko Anderea, Bouillon-go Anderaurena? erran zautan.

- Ba.

- Ez ote nuke zekunda batez ikusten ahal? Ene biziko ametsa da.

- Etzazula beraz demborarik gal, Anderea, auharia bururatua ukaiten ezpaituko beranduko. Baina nolaz zaizu hoinbertze ohargarri izaiten ahal?

- Baina Villeparisis-ko Anderea, lehen ezkontzaz Havré-ko dukesa zen, aigeru bat bezain ederra, debru bat bezain gaixtoa, ene aita ero-arazi duena, hondatu eta berehala gero utzi. He bada! harekin ari izana ahal da azken lerroko neska batzu bezala, egina ahal du ukan

behar ukan dutala, nik eta ene familiakoek, Combray-n ttipiki bizi izan, orai aita hila denaz geroz, ene konsolamendua da bere aroko emazte ederrena maitatua ukan duela, eta nehoiz ezpaitut ikusia ukan, halaz ere eztitasun bat izanen da...

Sazerat Anderea ereman nuen, bihotz-hunkiduraz ikharan, ostaturano eta erakutsi naukon Villeparisis-ko Anderea.

Baina begiak behar denetik bertze norapait itzultzen dituzten itsuek bezala, Sazerat Andereak etzituen soak Villeparisis-ko Anderea auhaltzen zen mahian gelditu, eta, salan bertze gune bat bilatuz:

- Baina joana dateke, erraiten dautazun lekuan eztut ikusten.

Eta beti bilatzen zuen, hain aspaldi danik haren idurimenean bizi zen ikuspen hastiatuaren, adoratuaren ondotik.

- Baina ba, bigarren mahian.

- Ezpaitugu gune beretik abiatuz khondatzen. Nik, egiten dutan bezala, bigarren mahia, han, jaun zahar baten ondoan, atxo konkor, gorrailldu, ezin itsusiago bat dena da bakarrik.

- Hura da!

Bitartean, Villeparisis-ko Andereak Norpois-ko Jaunari galdeginik Foggi printzea jarr-araz zezan, solasaldi goxo bat egin zen hiruren artean, politikaz mintzatu, printzeak erran zuen etzela gabinetaren zoriaz axolatua, eta aste on bat Venezian egonen zela oraino. Uste zuen arte hortan minixterioko gaitzaldirik etzela izanen. Foggi printzeak uste ukan zuen hastapenean politikako gauza horiek etzutea Norpois-ko Jauna hunkitzen, ezen hau, ordu arteo hainbat mutiriki mintzatua zena, eman zen bapatez aingeruen moldeko ixil batean, iduri baitzuen, mintzoa berriz jiten bazen, Mendelssohn-en edo César Franck-en kantu garbi eta beharrira gozo batean baizik etzaitkeela zabal. Printzeak gogatzten zuen ixil hori zor zizakola Italiar baten aitzinean, Italiako aferez mintzatu nahi eztuen Frantzes baten begiruneari. Printzeak osoki huts egiten zuen bada. Ixila, axolagabeko itxura Norpois-ko Jaunaren baitan egonak ziren ez begirunearen seinalea baina afera handi batzuetan sartzerako aitzin-joko ohikoa. Markesak etzuen handizki nahi, alabaina, ikusia dugun bezala, Konstantinopoliz baino



jeus gutiagokorik, afera alemanen erregelamendua aitzinean eginik, hortako Erromako gabinetari eskuaren bortxatzea gogoan baitzuen. Markesak eztimatzen zuen, alabaina, haren aldetik erresumarterako hedamen bateko egintza bat izan zaitekeela behar bada ere haren bizi guziko koronamendua, behar bada ere ohore berri batzuen, haier ukho egina etzauen ofizio neke batzuen hatsarrea. Ezen zahartasunak lehen-lehenik zerbaiten hasteko ezinduak egiten gitu, baina ez guti-ziatzeko. Eztute heren aldi batean baizik biziki zahar bizitzen direnek gutiari ukho egina ukaiten, egintza utzia behar ukan duten bezala. Hain usu ontsa heltzera entseatu ziren balio arineko bozkatze batzue- tara eztira gehiago presentatzen ere, hala nola Errepublikako presi- dentarena. Askietsiak dira atheratzeaz, jateaz, egunkari irakurtzeaz, bizi izanik badiraute.

Printzea, gostura markesaren ezartzeko eta herkide bat bezala estimatzen zuela erakusteko, oraiko Konseiluko presidentaren ondo-koak izan zaitezkeenez mintzatzen hasi zen. Egitekoa nekea ukanen zuten ondokoak. Froggi printzeak emanak ukan zituenen minixtro gai iduritzen zizazkon politikako gizonen hogeia izen baino gehiago, embaxadore ohiak bere begi urdinetara betespalak erdi-beheititurik eta mugimendu bat egin gabe entzun zituenak, Norpois-ko Jaunak ixila hautsi zuen azkenean eta, embaxadetako solasa hogeia urtez hazi behar zuten hitz hauen erraiteko, eta gero, ahatziak izan zirenean, «Ja-kin bat» edo «Testis» edo «Machiavel» sinatzen zuen norbaitek berriz atherako baitzituen egunkari batean, hartara eroriak ziren ahazpenak berak emaiten baitaie hartan berriz ustegabegarri izaiteko balioa. Be-raz Foggi printzeak hogeia izenez goiti emanak zituen gizon elkor bat bezain diplomata geldi et ixiliaren aitzinean, Norpois-ko Jaunak bu-rua apur bat goititu zuenean eta, ondorio gotorrenak ukanak zituzten diplomaziako solasak eginak izan ziren moldean, nahiz aldi huntan ausartzia azkartu eta laburtasun gutiagoko batekin, xorroxki galde- gin zuen: «Nehork ez ote du Giolitti Jaunaren izena erran?» Hitz ho-rietan, Foggi printzearen ezkatak erori ziren: murmurika zerutar bat entzun zuen. Berehala gero Norpois-ko Jauna hasi zen gauza batzuez

eta bertzez mintzatzen, etzen harrabots zenbaiten egiteko beldur izan, hala nola Bach-en aire ezin ederrago bat bururatua delarik, jendea ez-tenean goratik mintzatzeko, jantzitegira bere soinekoen bila joaiteko beldur. Haustura ageriago egin zuen oraino printzea othoiztuz haren gizamenak Haien Maiestate Errege 'ta Erreginaren oinetan ezar zitzen haien ikusteko aldia ukanen zuenean, abiatzeko erranaldia, musikal-di baten bururatzean hitz hauen oihukatzea denaren molde berekoa zena: «Belloy-ko karrikako Auguste karrosazaina.» Foggi printzearen sendimenduak zuzen zer izan ziren ezta kigu. Dudarik gabe loriatua zen nagusi-lan hau entzuna ukanik: «Eta Giolitti Jauna, nehork ez ote du haren izena erran?» Ezen Norpois-ko Jaunak, haren baitan adinak gaitasun ederrenak iraungiak edo nahasiak zituelarik, zahartzean hobetuak zituen aldiz «ospeko aireak», musikari zahartu batzuek bezala, gainerateko guzian beharapenean, biltzen baitute, gambarako musikako, ordu arteo etzuten trebetasun betegin bat.

Dena den Foggi printzea, Venezian hamabortz egunen iragaita xedatzen zuelarik, egun berean Erromara sartu zen eta zenbait egun berantago Erregez entzunaldian onhartua izan Printzeak, jadanik errana dugula uste dugu, Zizilian zituen ontasun batzuetako. Gabinetak ahal bezala uste ukanen zen baino luzazago iraun zuen. Erori zenean, Erregek Estatuko gizon batzu konsultatu zituen gabinet berriari eman behar zen buruzagiaz. Gero Giolitti Jaunari hel egin zuen, eta hunek onhartu. Hirur ilabete berantago, egunkari batek khondatu zuen Foggi printzearen ikustaldia Norpois-ko Jaunarekin. Solasaldia emana dugun bezala ezarria zen, ezpada «Norpois-ko Janak xorroxki galdegin zuen» erraiteko orde, irakurtzen zela «errana zuen ezagutzen zakon irriño xorrotx eta xoragarrierakin». Norpois-ko Jaunak estimatu zuen «xorroxki» hitz horrek bazuela jadanik diplomata batendako indar lehargarri bat eta gaineratze hori den gutienik behar gabekoa zela. Galdegina zuen bada Orsay-ko kaiak gezurta zezan, baina Orsay-ko kaiak etzakien buruz nora eman. Alabaina, ikustaldia argira emana zenetik, Barrère Jaunak Parisekin egunean aldi andana batez telegrafiatzen zuen Quirinal-ean ofiziala etzen embaxadore baten izaiteaz deitoratzeko eta gauza horrek Europa osoan emana zuen

khexuaren jakin-arazteko. Khexu hortarik etzen, baina embaxadorek ikustate sobera bazuten Barrère Jaunaren gezurtatzeko mundu guzia sumindua zela segurtatzen zauelarik. Barrère Jaunak, ezpaitzuen bere gogamena baizik entzuten, jendetasunezko ixil hori baimen batentzat hartzen zuen. Berehala Parisera telegrafiatzen zuen: «Solastatu niz oren batez Visconti-Venosta markesarekin, eta b.» Haren segetariak ezinduak ziren.

Bizkitartean Norpois-ko Jaunak bazuen osoki bere aldeko egunkari frantzes biziki zahar bat eta 1870-an ere, herri aleman batean Frantziako embaxadoregai zenean, zerbitzu handi batzu eginak zauzkona. Egunkari hura (bereziki lehen artikulua, sinadurarik gabea) miragarriki idatzia zen. Baina gogoia mila aldiz gehiago atxikitzen zuen, lehen artikulua hori («premier Paris» ziotena dembora urrundu hetan eta, gaurregun, eztakigu zergatik «argiratzalearen hitza» izendatua) aldiz gaizki moldatua zelarik, mugarik gabeko hitz errepikaldi batzuekin. Bakoitzak senditzen zuen orduan bihotz-hunkidura batekin artikulua «sustaturik» izana zela. Behar bada Norpois-ko Jaunak, behar bada orduko bertze nagusi handi zenbaitek. Italiako gertakariez aitzinetik baten emaiteko, derakutsagun Norpois-ko Jauna 1870-ean egunkari hortaz nola baliatu zen, debaldetan idurituko da, gerla izan zenaz geroz hala ere; eragin handiarekin, gogutzen zuen Norpois-ko Jaunak, oro baino lehen jendearen gogoia adelatu behar dela baitzen haren errankizuna. Haren artikulua, hitz bakoitza hetan arautua baitzen, eriaeren heriotzea berehala jarraikitzen zaien elhe hobera eman haien idurikoak ziren. Behazunez, gerlaren deklaratzeko bezperan, 1870-ean, armadara deitzea abantzu bururatua zenean, Norpois-ko Jaunak (naturalki itzalean egonez) uste ukana zuen egunkari aiphatu hari argitzale-buruaren hitz hau igorri behar zaukola:

«Iduriz gehien-gehienik uste da burupe duten bilkuretan, atzoz geroz, arratsalde erditan, izanara, erran gabe doa, asaldagarri denik ukan gabe, seriosa bezala ikusten ahal lizatekeela eta ere, alde batzuetarik, aldigaitzekoa estimatua izan laitekeela. Norpois-ko markes Jaunak solasaldi batzu ukanak omen ditu Prusiako minixtroarekin diren aharra gai guzien ikhertzeko, horrela mintza badaiteke,

bermetasun eta akomeamenduko gogo batean, eta molde osoki garbi batean. Zorigaitzez berria eztugu ukan, moldizkitzen ezartzen dugun orduan, Haien Hobetasunak aburu bereko jarri ahal direla diploma-ziako tresnatzat balia daitekeen erranbide batean.»

*Azken orenean:* «Satifamendurekin ikasi da ontsa jakinak diren bilkuretan, ezialdi arin bat egin dela iduriz frantzes-prusiar harremanetan. Munta berezi-berezi bat emaiten omen lizateke Norpois-ko Jaunak «unter der Linden» Angeleterrako minixtroa aurkitua ukaiteari, harekin hogeit bat minutaz solastatu baita. Berri hau satifagarri bezala hartzen da.» («Satifagarri» hitzaren ondotik parenthesietan gaineraturik izana zen erran-nahi bereko hitz alemana: *befriedegend.*) Eta biharamunean argiratzale-buruaren hitzean irakurtzen zen: «Iduri luke, Norpois-ko Jaunaren malgutasun guzia izanik ere, mundu guziari laket baitzako hari gizamen emaita, Frantziaren zuzenbide lege ezin baztertuen zaintzen jakin duen gemen trebearentzat, hauste bategi ez zuela, hala erraiteko, baztertua izaiteko zoririk abantzu batere.»

Egunkaria etzaitkeen egon horrelako hitz bat ohar batzuez jarraik-arazi gabe, Norpois-ko Jaunak igorriarik, erran gabe doa. Ikusia da behar bada aitzineko orrialdetan embaxadorearen modu hautetsietarik bat»kondizionala» zela, diplomazioako literaturan. («Munta berezi-berezi bat emaiten omen lizateke», «munta berezi-berezi emaiten omen da»-ren orde.) Baina oraia, ez bere erran-nahi ohikoan, baina «optativo» zaharrenean harturik, etzuen Norpois-ko Jaunak gutiagomaite. Argiratzale-buruaren hitzari jarraiki oharrak hauk ziren:

«Nehoz ezto jendeak gogo jabaldura hoin miragarria erakutsi. (Norpois-ko Jaunak hori egia izan zadin nahi ukanen zuen bada, baina kontrakoaren beldur zen.) Debaldeko nahasmenduez akhitua da eta satifamendurekin ikasi du Haren Maiestatearen gobernuak behar denaren egitea bere gain hartuko lukeela gerta laitekeenaren arau. Jendeak eztezala gehiagokorik galda. Haren odol hotz ederrari, gaineratuko daukogu oraino berri bat jendearen aburuaren segurtatzeko, beharra baliz, ontsa egina. Badiote, alabaina, Norpois-ko Jaunak, osasun arrazoinez aspaldi danik Parisera arthamendu ttipi baten

egitera jin beharra baitzen, Berlin utzia lukeela han egoitea ezpaitzuen baliagarri estimatzen.»

*Azken orenean:* «Haren Maiestate Emperadoreak goiz huntan Compiègne utzia du Pariserendako, Norpois-ko markesarekin, Gerlako minixtroarekin eta jendeak huntan konfienxia berezi bat baduen Bazaine marexalarekin solastatzeko. H. M. Emperadoreak desmeztua du Albe-ko dukesa bere koinatari eskaini behar zaukon auharia. Delibero horrek eman du orotan, ezaguna izan den orduko, iduripen bat bereziki ona. Emperadoreak lerroan ikusi ditu tropak, hauen khartsutasuna ezin errana baita. Erreximendu batzu, emperadoreak Parisera ethorri diren orduko emana izan den deitzeko manu batean, zer gerta ere, Rhin-eko aldera abiatzeko prest daude.»

Batzuetan ilunabarrean hotelera sartzean sendi nuen lehengo Albertine hura, nihaurendako ezin ikusia, hor zela alta nihauren zolan hetsia barneko Venezia bateko «berunetan» bezala, gertaldi batek batzuetan haren estali gogortua lerra-arazten baitzuen iragan hortarako idekitze baten emaiterano.

Behazenez horrela arrats batez ene diru-balioetako merkataria-riaren eskutitz batek ideki zituen ephe batez enetako Albertine nitan han bizi zen presondegiko atheak , baina hain urrun, hain barna, nun ezin hurrandua baitzizatan. Hura hilez geroz harendako diru gehiago ukaiteko eginak nituen diru-jokoez enintzan axolatua. Dembora iragana zen bada; aitzineko aroko zuhurtzia handi batzu hunek gezurtatuak zituen, lehenago Thiers Jaunari gertatua zizakon bezala burdinbidea nehoiz etzela ongi heltzen ahalko zionean; eta hetaz Norpois Jaunak «haien balioa etzela biziki gora dudarik gabe, baina diru kapitala bederen ehoiz etzela balioz ttipituko» errana zaukun titek ziren, ainitzetan gehienik jautsiak zirenak. Diru-balio segurtatu angelesen eta Raffineries Say-endako bakarrik, behar zizaztan balio merkatarier hain ezperdintasun handi-handiak ordaindu, intres eta balio gibelatu batzuekin batean, nun burutaldi batez guziaren saltzera deliberatu bainintzan, eta amatxiren ganik ondorez ukana nuen

eta Albertine bizi zenean oraino banuen bortzetarik baten baizik doidoia jabe bapatez gertatu. Combray-n hori jakin zen bertzela ere gure familiarik eta ezagunetarik gelditzen zirenetan, eta Saint-Loup-eko markesarekin eta Guermantes-tarrekin nindabilala baitzakiten, elgarri erran zuten: «Horra nora deramaten handieriako ideiek.» Ontsa ustegabetuak izanen ziren han Albertine bezain lerro xumeko batendako, abantzu amatxiren pianoko erakasle ohiaren, Vinteuil-en gerizatu batendako, nituela diru-joko batzu eginak. Bertzela ere, kasta indiar batean bezala ezagutzen zazkon irabaziez bakoitza betiereko ordenatua den Combray-ko bizi hortan, ideiarik ezin egina ukan zen Guermantes-tarren munduan nagusi zen libertate handi hartaz, ezpaitzen han fortunari muntarik batere emaiten, behardun izaitea berdin gogagaitz estimatua izan baitzaitkeen, baina ez batere, gizarteko lerroa hunkitzen etzuelakotz, urdaileko eritasun bat baino ttipigarriago zela. Combray-n uste zatekeen, aldiz, Saint-Loup eta Guermantes-ko Anderea noble hondatu batzu zatezkeela, jauregi bahitu batzuekin, dirua mailegatzan nauenak, aldiz, hondatua izan banintz, lehenbizikoak izanen zirelarik, debaldetan, laguntza emaitera jiten. Ene hein bateko hondamenaz den bezainbatean, are gehiago nahigabetua nintzan nun ene jakin-nahi veneziarrak gutiz geroz bilduak baitziren nexka gazte gazte berineria saltzale baten baitan, lore larruantze batekoa begi xoratuer emaiten baitzauen iranja margo lerro bat osoa, eta egun bakoitz haren ikusteko halako gutizia nun, amak eta nik Venezia laster utziko ginuela sendituz, deliberatua bainintzan haren ganik ez berexia izaita haizu utziko zautan irabazpide baten hegitea hari Parisen. Haren edertasun hamazpi urtekoa hain zen noblea, hain arraia, joan baino lehen ukan behar zen egiazko Titien bat baitzen. Eta gelditzen zizatan fortuna gutia aski izanen zena haren tentatzeko bere herria utz zezan eta ni bakarrarendako Parisen bizitzera jin zadintzat?

Baina, diru-balioetako merkatariaren eskutitza bururatzen ari nuelarik, hartan «Zure balio gibelatuez artha hartuko dut» erraiten zuen hitz batek orhoitu zautan itzuli bat abantzu berdin gogo falsuz ofiziokoa, Balbec-eko emazte mainatzaleak Aimé-ri Albertine-az

mintzatzean erabilia zuena: «Nik nuen arthatzen», zuen errana. Eta gogora nehoiz itzuliak etzizaztan hitz horiek «Idek hadi» batek bezala arr-arazi zituzten presondegi-zokoko guntzak. Baina ephe baten buruan harresietan hetsiaren gainera berriz hetsi ziren - haren gana ez joan nahi ukaiteaz ezpainintzan ogendun haren ikustera, hartaz berriz orhoitzera gehiago heltzen enintzanaz geroz, eta jendek gure-tako izaiterik eztutenaz geroz hetaz dugun ideiatik baizik - baina ephe batez, berak alta etzakien utzia izaiteak hunkigarriago bilakatua zautanarena: zimizta baten artean gutzizatua nuen haren orhoitzapenaren lagungoaz gau eta egun oinazkatua nintzan dembora jadanik urrundua. Bertze aldi batez, San Giorgi de Schiavoni-n, apostoluen ondoko arrano batek, eta molde berean xoilki itxuratuak, orhoitzapena atzarri zuen eta abantzu Françoise-ek haien berdintasuna agertu zautan eta Albertine-ri nork emanak zauzkon ehoiz jakina enuen bi erhaztunek eman oinazea.

Arrats batez alta, halako gertaldia izan zen nun iduritu baitzen ene maitasunak bersortu behar ukanen zuela. Gure gondola hotleko mailetan gelditu zen orduan, athezainak eman zautan depexa bat telegrafako mutila eni ekhartzera jadanik hirur aldiz izana zena, ezen ukan behar zuenaren izena ez zuzen izanez (langile italiarren moldegaizkerien azpian enea zela hartu nuena alta), ukan delako baia galdegiten zen telegrama enetako zela bada segurtatzen zuena. Ene gambaran izan orduko ideki nuen, eta begi ukhaldi bat eman ez hitz gaizki kopiatuez bete zena idazki bati, irakurri nuen hala ere: «Adixkidea, hila uste nauzu, barka ezatazu, bizi-bizia niz, ikusi nahi zintuket, zurekin ezkontzaz mintzatu, noiz itultzen zira? Xamurki. Albertine.» Orduan gertatu zen, kontrako moldean, amatxirendako egin zen gauza bera: egiazki ikasia ukan nuenean amatxi hila zena enuen hastapenean bihotzminik batere ukana. Orai ene gogoan Albertine etzenaz geroz enetako gehiago bizi, bizi zelako berriak etzautan uste ukanen nuen bozkarioa eman. Albertine etzen enetako gogoeta andana bat baizik izana, gorputzeko heriotzearen ondotik bizi egona zen gogoeta horiek nitan bizi zireno; aldiz, orai gogoeta horiek hilak

baitziren, Albertine etzen batere enetako bere gorputzarekin berphizten. Eta bizi zelakotz bozkariarik enuela ohartzean, enuela gehiago maite, zentzordatua izan behar ukanen nuen, bere buruari mirail batean so eginez, bidaiako edo eritasuneko ilabete batzuen ondotik, ile zuriak eta bertze aurpegi bat, adineko gizon baten edo agure batena, badituela ohartzen den norbait baino gehiago. Horrek zentzordatzen du, erran nahi baitu: nintzan gizona, mutiko gazte ile horia eztela gehiago, bertze norbait nizala. Ez ote da bada aldakuntza bat berdin handia, ginen niaren heriotze bat berdin osoa, ni berri horren ordainkatze berdin betegina, aitzinekoaren lekua lekua hartua duen aurpegi zimurtu, perruka zuri bat ginetik duenaren ikustea? Baina ezta bertze norbait bilakatua izanik, urteak iraganik eta aroen jarraikitze ordenuan gehiago atsekabetzen, aro ber batean aldizka kontramoldeko izaitte batzu, egun bakoitz aldizka izaiten giren gaixtoa, sendikorra, urguria, oiesa, abantailnahigabea, handinahia izaitteaz arsekabetzen den baino gehiago. Eta haren gatik atsekabetzen ezkiren arrazoina berbera da, itzalia den nia - ephe bateko azken aldi hortan eta nortasunaz ari denean, betikotz lehenbizikoan eta jaidurez ari denean - ezpaita hor lehenbizikoaren, ordu hortan, edo hemendik goiti, zu osoa den bertzearen deitoratzeko; oiesak bere oieskeriaz irri egiten du oiesa baigira, eta ahazlea ezta bere orhoit ezkasaz trixtatzen, ahatzi baitugu hain zuzen.

Albertine-ren berphizteko ahalik gabe izanen nintzan nihau-ren berphizteko, ordu hartako niaren berphizteko hala nintzalakotz. Biziak, ethengabeko lan ezin ttipiagoez munduko itxuraren aldatzea duen bere ohiduraren arau, Albertine-ren heriotze biharamunean etzautan errana: «Bertze bat izan hadi», baina, aldapenari berari ohartzera uzteko aldapen sobera ezin hauteman batzuen bidez, abantzu oro berritua zuen neure baitan, hala nola nun ene gogoa bere nagusi berriari - ene ni berriari - jadanik jarria baitzen, aldatua zela ohartu zenean; azken huni zen atxikia. Albertine-rendako ene maitasuna, ene bekaizkeria, ikusi da, gogamen elgartze batzuen bidez, sendimendu ezti edo mingarriezko gogorrune batzuen arraikatzeari lotuak ziren, Vinteuil Andereñoaren orhoitzapenari Montjouvain-en, Albertine-ek



lephoan emaiten zauztan arratseko musu ez tier. Baina sendimendu horiek ahulduak ziren arau, itxura hertsagarri edo ezti batez margotzen zituzten sendimenduetako eremu handiek berriz bartuak zituzten itxura hits batzu. Ahazpena oinaze 'ta atsegineko une nagusi batzuez jabetua izan zen aldiko, ene maitasunaren ihardukitzea garhaitua zen, Albertine enuen gehiago maite. Hartaz orhoitzera entseatzen nintzan. Aitzin-sendimendu zuzen bat ukana nuen, Albertine joan eta bi egun berantago, hura gabe berrogei-ta zortzi oren bizi ahal izanik laztatua izana nintzanean. Lehenago Gilberte-ri izkiribatzen naukonean bezala zen eta neure baitan banionean: horrek bi urtez jarraikitzen badu, eztut gehiago maitatuko. Eta, Zuanek Gilberte berriz ikus nezan galdegina zautanean, hori hil bati abegi egitea iduritua baldin bazizatan, Albertine-rendako heriotzeak - edo heriotzea zela uste ukana nuenak - egin zuen Gilberte-rendako haustura luzeak egin zuen lan bera. Heriotzea ezta hor ez izaita bezala baizik ari. Haren agertzean ene maitasuna hotzikharatua zen mustroak, ahazpenak, uste ukana nuen bezala, iretsia zuen bada azkenean. Bizi zelako berri horrek etzuen bakarrik ene maitasuna iratzarri, eninduen bakarrik axolagabera ene itzultzea jadanik zenbat aitzinatua zen ohartzera utzi, baina ordu berean lehiamen bat egin-arazi zaukon hain bapatekoa nun gibelera behatuz galdez egon bainintzan behin kontrako berriak, Albertine-ren heriotzeak, etzuenek, kontra moldera, haren joaiterean lana burura eremanez, ene maitasuna goratu eta hunen beherapena gibelatu. Bai, bizi zela jakiteak eta hari batua izan ahalak bapatez hain baliosa egiten zautalarik, galdez nindagon Françoise-ren hitz-erdiek, hausturak berak, eta heriotzeak berak (asmuzkoa baina egiazkoa zela sinetsia) etzutenek ene maitasuna luzatua, hainbat dute emazte baten ganik gure berexteko bertzen indarrek eta halabeharrak berak hari gure estekatzea baizik ez egiten. Orain kontrakoa zen gertatzen. Bertzela ere hartaz orhoitzera entseatzen nintzan, eta behar bada enea izan zadintzat seinale baten emaita aski nuelakotz, jin zizatan orhoitzapena neska jadanik azkarki lodi batena izan zen, zukuta, haren aurpegi histuan jalgitzen ari baitzen jadanik, hazi bat bezala, Bontemps Anderearen

orrazea. Andrée-rekin edo bertze batzuekin egina ahal zuenak eninduen gehiago hunkitzen. Hain luzaz ezin sendatua uste ukana nuen gaitzaz enintzan gehiago oinazkatua, eta ooren buruan hori aitzinetik ikusten ahalko nuen.

Eiki maitatu den batez urriki ukaitea, gelditzen den bekaizkeria gorputzeko eritasun batzu dira bulharreriararen edo odoleko minbiziaren arau berean. Bizkitartean gorputzeko gaitzetan berezi behar dira garbiki gauzetako egile batek emanak dituenak, eta gorputzean bakarrik adimenduaren bitartez eragina dutenak. Oroz gaintetik helarazteko lokailutzat erabiltzen den adimenduko zatia orhoita baldin bada - erran nahi da emalea ezeztatua denean edo urrundua -, hain bortitza izan dadin oinazea, hain barnatua iduri soinera ekharri nahasmendua, gogamenak baitu soinkiek eztuten berritzeko indar bat edo izaitekotz begiratzeko ezin bat, ontsa bekan da aitzin-ustea ez ona izaiten. Minbiziak hartua den eria hila izanen den dembora beraren buruan, ontsa bekan da alhargun bat, aita ezin konsolatu bat eztirela sendatuak izaiten. Sendatua nintzan. Ordu huntan hain hantua berrikusten nuen eta maitatuak zituen neskak bezala segurki zahartua zen neska horrendako behar ote zen ene atzoko orhoitzapena, biharko itxaropena zen nexka arraiari ukho egin, ezpainaukon gehiago sos bat eman ahal ukanen, bertze edozeini baino gehiago, Albertine ezkontzen baldin banuen, «Albertine berri» horri ukho egin, «*ez Ifernuek ikusia zuten bezalakoa*», «*baina leial, baina burgoi eta doi bat ohil ere*»? Hori zen orai Albertine lehenago izana zena: Albertine-rendako nuen maitasuna etzen gaztetasunarendako nuen debozionearen molde iragankor bat baizik izana. Nexka gazte bat maite dugula uste dugu, eta eztugu ondikotz! haren begitarteak ordu bateko haren gorria leinurutzen duen ozkorri hura baizik haren baitan maite. Gaua iragan zen. Goizean depexa hoteleko athezainari itzuli naukon hutseginez emana zautatela erranez eta etzela enetako. Erran zautan orai idekia zenaz geroz nekeak ukanen zituela, hobe zela atxik nezan; berriz sakelan ezarri nuen baina nehoiz ukana ezpanu bezala eginen nuela nihauri hitzeman. Behin betikotz gelditua nintzan Albertine-ren maitatzetik.

Hala nola nun maitasun hori, Gilberte-rendako nuen maitasunaren arau uste ukana nuenetik hainbat urrundua izan ondoan, itzuli bat hain luzea eta hain mingarria egin-arazia ukan ondoan, sartzen baitzen azkenean hori ere, Gilberte-ren maitasuna bezala, hortan salbuespen egin ondoan, ahazpenaren orotako legean.

Baina orduan gogoeta egin nuen: Albertine-ri atxikia nintzan nihuri baino gehiago; orai eniz gehiago hari atxikia dembora batez haren ikustetik gelditu nizalakotz. Herioaz nihauren ganik ez berexia izaiteko gutizia, hil eta berriz phiztekoa, gutizia hori etzen Albertine-ren ganik choiz ez berexia izaiteko gutizia bezala, bazirauen beti. Baina hura baino baliosagoa nintzala uste ukaiteari lotua zena hori, hura maite nuenean, neure burua gehiago maite ukaiteari? Ez, hori lotua zen, haren ikustetik geldituz, haren maitatzetik gelditua izanari, eta nihauren maitatzetik ez gelditua izanari nihaurekin ene egunorotako loturak etzirelakotz hautsirik izanak Albertine-rekilakoak egin izanak ziren bezala. Baina neure gorputzarekilakoak, nihaurekilakoak eginak baldin baziren ere...? Eiki berdin izanen zen. Gutan biziaren amodioa uzten eztakigun atxikimendu zahar bat baizik ezta. Horren indarra iraupenean datza. Baina hausten duen herioak sendatuko gitu hiltze-gabearen gutiziatzetik.

Barazkal-ondoan, Venezian han-hemenka bakarrik ibiltzera joaiten enintzanean, amarekin jalgitzeko prestatzen nintzan, eta, Ruskin-ez banagien lan bateko ohar batzu hartuko nituen kaier batzuen hartzeko, ene gambarara igaiten. Izkinak sarr-arazten zauzkon harresiko bihurtunen bapateko jokoan, senditzen nituen itsasoak manatzen zituen mugak, lurr-erremuaren xuhurtasuna. Eta igurikatzen ninduen amaren gana joaiteko, Combray-n kampo leiho hetsiek begiratu ilunbean iguzki hurbil-hurbilaz gozatzea hain on zen oren hortan, hemen Berphizteko margazki batean baino gehiago Palazzo batean ala galera batean eraikia zenez ezkinakien harbizko mailalde gainetik behera, kampo ezin ederragoko hoxtura bera eta sendimendu bera emanak ziren leiho beti idekien aitzinean higitzen zen itzal-oi-halari esker, hetarik ethengabeko aire-laster batean itzal ephela eta

iguzki berdatsa baitzoazen igerikako eremu batean bezala, gogoratzen baitzituzten uhainen hurbiltasun higikorra, argidura, aldakor-tasun dirdiratzalea. Gehienetan San-Marco-ra nintzan abiatzen, eta are gehiago atseginekin nun, hara joaiteko gondola behar zelakotz lehenik, eliza ezpaitzitan eraikuntza xoil bat bezala agertzen, baina barekin San-Marco-k enetako osotasun ezin moztu eta bizidun bat egiten zuen itsasoko eta uda-hasteko urean bidaia baten burua bezala. Bataio-harri lekura sartzen ginen, biek lauzadako mozaika harbiziz eta berinazkoak oinazpikatuz, horrek emaiten baitauko elizari, gure aitzinean ginituela aroak haien azal ideki eta gorraxtak doi-doia uztaitu dituen arku zabalak, margo horren frexkotasuna errespetatu duen lekuan, gaitzeko hobixken ezkoa bezalako gai ezti eta bigun batean eraikia izaiteko itxura; gaia gogortu duen lekuan eta edergilek argaldu eta urrez aphaindu dutenean aldiz, Kordobako larru zenbaitetan egi-na, Veneziako Ebanjelio gaitzekoaren jostura baliosa izaiteko itxura. Krixtoen bataioa itxuratzen duten mozaiken aitzinean luzaz egon behar nuela ikusiz, amak, bataio-harriko lekuan jausten zen hoxtasun hormatua sendituz, xala bat egozten zautan soingainetara. Balbec-en Albertine-rekin nintzanean, uste nuen argiki gogatzten eztuten hainbertze jenden gogoia betetzen duten lilluramendu arinegiak agertzen zituela, enekin holako margazki baten ikusten ukanen zuen atseginaz - ene ustez jeusetan etzazana - mintzatzen zizatanean. Gaurregun, segur niz norbait berezirekin gauza eder baten ikusteko ezpada, bederen harekin ikusia ukaiteko atseginak izaitea baduela. Ordu bat ethorri da enetako hartan, bataio-harri lekuaz orhoitzen nizanean, jondoni Johanek Krixto urperatzen duen Jordaneko uhainen aitzinean, gondolak Piazzeta-ko aitzinean igurikatzen ginituelarik, ezpaitzata orobat erdi-ilunbe hotx hartan, ene sahetsean, emazte bat izan zadin bere doluko oihalez jantzia Venezian Carpaccio-ren *Santa Ursula*-n ikusten den adineko emaztearen suhartasun errespetuzko eta gartsuarekin, eta matela gorri, begi trixtekilako emazte hori, bere oihal beltzetan, San-Marco-ko aldare-aitzin eztiki argitu hortarik nehork enetako nehoiz jalgi-araziko ahal eztuena, han berredirenen dutala segur nizana mo-

zaika batek bezalako bere leku begiratu eta ezin aldatua baduelakotz, ene ama izan dadin.

Carpaccio-k, izendatu berria dutana eta, San-Marco-n lan egiten enuenean, gogotikenik ikustera joaiten ginazkon margolaria, berphizter zuen egun batez ene baitan Albertine-ren maitasuna. Lehen aldiko ikusten nuen *Di Grando patriarka debruek hartu bati debru-iraizten*. Hartan khebide gora batzu agerian ezarriak diren zeru miragarri, gorri-argi eta ubelari beha nindagon, haien molde ahozabalduek eta tulipa batzuen bezalako idekitze gorriak Whistler-en hainbat Venezia gogoratzen baitituzte. Gero ene begiak bazoazen zurezko Rialto zaharretik harroinburu urreztatuez aphaindu harbizizko palazioekilako XV-garren mendeko Ponte Vecchio hartara, berriz Kanalera itzultzen ziren han untziak eremanak baitira mutiko gaxte batzuez soineko gorraxtetan, luma-kukuruxta batzu gainetik dituzten xanoetan, Sert, Strauss eta Kessler-en *Josepen* leienda xoragarri hartan zinez Carpaccio gogoratzen zuen bat bezala-bezalakoak. Azkenik, margazkia utzi baino lehen ene begiak berriz itzuli ziren ordu hartako bizi veneziarreko gertakariak ihaurri badiren ur bazterrera. Ikusten nituen bizar mozlea bere nabalaren xorroxten, beltza bere barrikaren eremaiten, mahometanoen solasaldiak, jaun noble veneziarrenak urre-zilharrezko jantzi zabaletan, damas-oihalezkoetan, balusa gerezi-kolorezko xanoetan, bihotzean senditu nuenean bapatez ausiki arin bat bezala. *Calzako Lagun*-etarik baten bizkarrean, batasun hartan barne diren lagundi airosaren ikurra lepho-ingurukoan edo mahungan marrazkitzen duten urre 'ta perlazko broderiaterik ezagungarri, Albertine-ek enekin karrosa idekian Versailles-era jiteko ezarria zuen soingainekoa ezagutua nuen, ene etxetik joanen zen ordutik hama-bortz bat orenek berexten nindutela aieru ukaitetik urrun nintzan arrats hartan. Beti orotako prest, abia zadin galdegina naukonean, bere azken ezkutitzean «gaua erortzen ari zenaz geroz eta elgar uztera ginoazenez geroz bietan ilunabarrekoa» deitu behar zuen egun trixte hartan, soingainetara emana zuen Fortuny-ren bizkarreko luze bat biharamunean berekin eremana zuena eta ene orhoitzapenetan geroztik

ehoiz ikusia enuena. Bada Carpaccio-ren margazki hortan zuen Veneziako seme jeinudunak hartua, *Calzako lagun* horren soingainetarik zuen atheraia hainbat emazte paristarrenetara egozteko, hauek segurki etzakitelarik, nik hunarano jakina enuen bezala, haren modela bazela jaun multxo batean, *Patriarche di Grado*-ko aitzin-gunean, Veneziako Akademiako sala batean. Guzia berriz ezagutua nuen, eta, soingaineko ahatzia itzuliak baitzauztan hari so egiteko arrats hartan Versailles-en Albertine-rekin abiatuko zenaren begiak eta bihotza, epehe zenbaitez gutizia eta gogoilundurazko sendimendu nahasi eta laster ezetzatu batez hartua izan nintzan.

Azkenik egun batzu baziren amarekin Veneziako erakustokiak eta elizak aski izaiten etzizaizkunak eta horrela ginen aroa bereziki ederra zen egun batez, Zuan jaunak haien itxurapenak emanak zauztan «Bizioak» eta «Bertuteak» Combray-ko etxeko ikas-lekuan oraino dilindan zatezkeenen berriz ikusteko, Paduarano aitzinatu; Arena-ko plaza iguzkitara iragan ondoan, Giotto-ren kaperan sartu nintzan han ganga osoa eta harresi marrazkien zola hain urdinak baitira nun egun arraiak hark ere alharzea ikuslearekin iragan duela iduritu baitu, eta ethorri dela epehe batez itzalean eta hoxturan bere zeru garbiaren ezartzera, zeru garbi argiaren urrezadurez arindua izaitezaz doi-doi ilunduagoa, egun ederrak hausten dituzten arte laburretan bezala, hedoi bat ere ikusi eztelarik, iguzkiak bere soa epehe bateko bertze norapait itzulia ukanik, zerua, eztiago oraino, iluntzen denean. Harri urdinezatura eremana den zeru hortan lehen aldikotz ikusten nituen aingeru batzu hegaldaka zabilzan, Zuan Jaunak ezpaitzauztan emanak Bertute 'ta Bizioen itxurapen batzu baizik, eta ez Birjinaren eta Krixtoren ixtorioa badematen harri margazkiak. He bada, aingeruen hegaldatzean berraurkitzen nuen Garitatearen edo Gutiziaren jestuek emana zautaten egintza zinez egiazko baten iduripen bera. Bere esku ttipiak hainbat gartsutasun zerutarrekin, edo bederen haur batzuen zuhurtzia eta oharpenarekin hurbildurik ere, aingeruak Arena-n egiazki izan diren hegaztin mota berezi batekoak bezala itxuratuak dira, bible 'ta ebanjelioko aroetako ixtorio naturalean izana datekeenekoak.

Izaitte ttipi batzu dira sainduen aitzinean hegaldakatzea huts egiten eztutenak, hauk badabiltzanean; batzu badira beti hauen gainera igorriak, eta egiazko kreatura batzu baitira eta zinez hegaldaka, ikusten dira goiti joaiten, bihurgune batzuen hartzen, errextasun handienarekin «looping» batzuen egiten, burua beheiti oldean lurrera oldean, phizuko legen kontrako ara batzuetan egoitera uzten dituzten hegalen indarraz handizki lagunduz, eta itzali diren xori mota batzu gogorra-arazten dituzte eta Garros-ko ikasle gazte batzu airean moturrik gabe, Berphizteko edergintzako eta ondoko aroetako aingeruak baino lehen, hauen hegalak ezpaitira ikur batzu baizik eta ohiki hauen egonara hegalik gabe lizatezkeen jende zerutarrena baita.

Hotelera sartzean emazte gazte batzu aurkitu nituen, gehienak Austriakoak, Veneziara bazethorrenak lore gabeko udalehen horren iragaitera. Bat bazen aurpegia Albertine-renaren idurikoa etzuen, baina larruantzeko frexkotasun beretik gustatzen zizatan, behako berdin irrikoi arinetik. Laster senditu nuen Albertine-ri hastapenean erraiten nauzkon gauza berak niozkola, biharamunean eninduela ikusiko, Verona-ra zoala erraiten zautanean, bihotzmin bera gordetzen naukola, eta berehala Verona-ra joaiteko gutizia banuela nik ere. Horrek etzuen iraun, berriz Austriara abiatu behar zuen, enuen berriz ehoiz ikusiko, baina jadanik, amorosten hasten denean izaiten den bezala nahasiki bekaizti, haren begitarte xoragarri eta mixteriozkoari so egitean hark ere emazteak maite zituenez galdez nindagon, Albertine-rekin batean zuenak, larrantzearen eta begien argi hura, jende guzia biltzen zuen zintzotasun amultsuaren itxura hura, eta batere hunkitzen etzuten bertzeren egintzen ezagutzeaz, gezur haurkeriazkoenen gibelean aldiz gordetzen zituen berarenez baino gehiago ez axolatua izaiteari lotua zenak, horrek guziak egiten zituenez emazteak maite dituen emaztearen morfologiako berezitasunak. Horrek zauztana haren baitan, zer gatik zen nihaurek arrazoinez hartu ahal ukan gabe, bere erakharrindarra emaiten, ene goganbeharrak egiten (erakharrria nintzalako arrazoin barnatuagoa behar bada, sofri-araziko duenera baderamanaren gatik), ikusten nuenean hainbat atsegin eta bihotzmin emaiten, hala

nola ikusten ezitugun otantzako indarrak eta leku batzuetako airean hainbat aldixar sendi-arazten dauzkutenak? Ondikotz, choiz enuen jakinen. Haren begitar-tean irakurtzera entseatzen nintzanean, erran nahiko naukon: «Erran behar ukanen zinautan, giza-ixtorio natu-raleko lege baten ezagun-arazteko baliagarri idurituko zizatan», baina etzautan ehoiz erranen; bizio horren idurikoarendako hastio berezi bat goraki aithortzen zuen, eta hoztasun handi bat bazatxikan bere adixkide emazterekin. Zerbait gordetzeko bazuelako phorogua zen ere behar bada, horren gatik irri egina zaukotela edo hastiatu-rik izana zela behar bada, hartaz hori sinets zezaten baztertzeko hartzen zuen itxura, ukhaldiak eman dezteeten jendez ihiziek duten urruntze ager-garri hura bezala zen. Haren biziaren berri jakiteaz den bezainbatean, ezin zen; Albertine-rendako ere zenbat dembora emana nuen zerbait jakin baino lehen! Herioa behar izana zen mihien laxatzeko, hain zuen Albertine-ek bere bizimoldean, andere gazte horrek bezala ere, begirune zuhurretik atxikitzen! Eta oraino, Albertine-ez ere, zerbaiten jakiteaz segur nintzana? Gero, gehienik gutiziatzen ditugun bizi mo-duk orobat bilakatzen zaizkigun bezala, haren ondoan bizitzera, ahal bezainbat hari gustatzera uzten ginituelakotz guhaurek jakin gabe gu- tizia-arazten zauzkun jendearen maitatzetik gelditzen bagira, berdin da adimenduko jakin-nahi batzuez. Matela horien lore-hegal arinki gorraxtatuen azpian, begi xurpail horien argi goizekoa bezala iguzki gabean, behin ere erranak izan etzizaztan egun horietan gordea zen gutizia motaren ezagutzean banakusan jakitatezko balioa, joanen zen dudarik gabe Albertrine batere gehiago maite ukanen enuenean, edo andere gazte hori batere gehiago maite ukanen enuenean.

Arratsean bakarrik jalgitzen nintzan, *Mila eta bat gauetako* norbait bezala auzoalde berri batzuetan gertatzen nintzan hiri enkan- tatuaren erdira. Ontsa bekan zen enuela ene ibilaldietako halabehar- rez aurkitzen gida-liburu batek, bidaiari batek ere aiphatua etzautan plaza ezezagun eta zabal zenbait. Karrikaxka ttipi, *calli* batzuen sarean sartua nintzan. Arratsera, iguzkiak gorraxta bizienak, gorri argienak emaiten dezteen bere khebide gora ahozabalduekin, baratze oso bat



da etxen gainean loratzen, margo berexkuntza hain ezperdinekin nun erranen baitzen Delft edo Haarlem-eko tulipa maitale baten baratzea, hiriaren gainean landatua. Bertzela ere etxen hurbiltasun ezin handiagoak leiho bakoitzatik kadre bat egiten zuen kozinera bat han ameskerian so zagona, nexka gazte bat, jarririk, itzalean asmatzen zen sorgin begitarte batekilako atso zenbaitez ileak orrazta-arazten zituen, - etxe behardun ixil eta calli-en hertsitasunaren gatik hurbil-hurbil bakoitzatik elgarren ondoan ezarri ehun margazki holandesen erakustaldi bat. Batzu bertzeren kontra tinkatuak, *calli* horiek bere marrez alde orotara mozten zuten kanal eta urmaelaren arteko Venezia zatia, itxura ezin zenbatu, mehe 'ta xehe horien araura krixtaildurik izana baliz bezala. Bapatez, karrikaxka horietarik baten buruan, badiduri gai krixtailduan hedamen bat egin dela. *Campo* zabal eta ederr-eder bat, karrixkaxka horien sarean, handitasun hori segurki asmatu ahal ukanen enaukona, ene aitzinean hedatzen zen, palazio xoragarriez inguratua, ilargiaz xurpail. Bertze hiri batean karrikak hara doazen, bidatzen zituzten eta erakusten dautzuten eraikuntzalde hetarik bat zen. Hemen, karrikaxketako gurutzatze batean espesuki gordea iduri zuen, hara gauaz norbait eremaiten den ipuin orientaletako palazio hek bezala, argitu baino lehen berriz etxera eremana izanik, ezpaitu berriz aurkitu ahal ukan behar han ametsetarik baizik izan ezteela azkenean sinesten duen egoitza mirazkoa.

Biharamunean abiatzen nintzan ene gauazko plaza ederraren bila, hartzen nituen oro elgar iduriak ziren *calli* batzu eta den xehetasun gutienaren emaita onhartzten etzutenak, eni hobeki bidearen galarazteko ezpada. Batzuetan ezagutzen nuela uste nuen seinale ez argi batek asma-arazten zautan agertzen ikusiko nuela, kalostratua bezala zagon lekuan, bakartasunean eta ixilean, plaza eder urrundua. Ordu hartan, *calle* berri baten itxura hartua zuen jeinu gaixto batek nihaurek nahi gabe gibelera itzul-arazten ninduen, eta bapatez Kanal Handian aurkitzen nintzan. Eta amets baten orhoitzapenaren eta egiazko zerbaitenaren artean ezpaita ezperdintasun handirik, galdez nindagon aitzinean ez ote zenez lo nindagonean gertatu, krixtailtze

veneziar bateko zati ilun batean, palazio handiez inguratu plaza zabal bat ilargitara luzatu gogoetatzeari eskaintzen zaukon duda bitxi hori.

Baina plaza batzu baino ontsa gehiago, emazte batzuen ez betiereko galtzeko gutuziak, Venezian nitan bazatxikan nahasmendu bat sukarraldi bilakatu zena amak abiatuko ginela deliberatu zuen egunean, noiz ere egun azkenean, gure malak jadanik gondolez garara joanak zirenean, hotelean igurikatu atzerritarren errexistro batean irakurri bainuen: «Putbus baroinesa eta laguneria». Berehala, gure joaiteak huts-egin araziko zauztan haragiko atsegin oren guzitako sendimenduak atzarri zuen neure baitan ara iraunkorrekoa zen gutuzia hura, sendimendu baten heinera goititu, eta gogo-ilundura uher batean itho; amari galdegin naukon gure abiatzea zenbait egunez gibela zezan; eta ephe batez ere ene othoitzari behatzeko eta ez ere seriozki hartzeko ukan zuen itxurak atzarri zuen ene zain udalehen veneziarrak sustatuetan, obeditzera bortxatua izanen nintzala bada asmatzen zuten aitamek ene kontra bazegiten zimarku ustezkoari ihardokitzeko gutuzia zahar hura, gehienik maite nituener abreki nahi nuenaren harr-araztera bultzatzen ninduen gudukatzeko borondate hura, haier amor eman-araztera heldua izanen nintzalarik, hek nahi zutenaren onhartzekotan. Amari erran naukon enintzala abiatuko, baina hark, enuela hori seriozki erraiten ez iduri ukaitea artexago zela uste ukanez, etzuen ihardetsi ere. Serios zenez ala ez ikusiko zuela erran nuen berriez. Athezaina jin zen hirur eskutitzen ekhartzera, biga harendako, bat enetako bertze guzien erdian ene paperuntzian ezarri nuena estalgari behatu ere gabe. Eta, ondotik ene gauza guziekin garara abiatu zen orena ethorria izan zenean, edateko bat ekharr-arazi nuen zabalzara, kanalaren aitzinean, eta han jarri nintzan, iguzki etzateari beha, hotelaren aitzinean gelditu untxi batean musikari batek *Sole mio* kantatzen zuelarik.

Iguzkia jausten ari zen. Ama etzatekeen orai garatik biziki urrun. Sarri joana izanen zen, Venezian bakarrik izanen nintzan, ene gatik penatua zela jakiteko trixteziarekin bakarrik, eta ene konsolatzeko hura hor izan gabe. Treinaren orena aitzinatzen ari zen. Ene ba-

kartasun ezin baztertua hain zen hurbila nun iduri baitzizatan jadanik hasia zela eta osoa. Ezen bakartua sendi nintzan, gauzak arrotz bilakatuak zizaztan, gogo jabaldurarik aski enuen pilpiran zen ene bihotzetik jalgitzeko eta hetan gelditasun zerbaiten sartzeko. Aitzinean nuen hiria Venezia izaitetik gelditua zen. Haren berezitasuna, haren izena, harrietan sarr-arazteko kuraiarik gehiago enuen gezurrezko alegia batzu bezala iduritzen zizaztan. Palazioak iduritzen zizaztan bere zati xoilenetara ttipituak eta harbizi ainitz bertze guzien berdinak, ura hidrogena eta azotazko antolamendu bat, betierekoa, itsua, Veneziaz aitzinekoa eta hartarik kampokoa, Dogez eta Turner-ez jakiterik gabea. Eta bizkitartean nolana hiko leku hori bitxi zen hara heltzen den eta oraino zu ezagutzen etzituen lekua bezala, utzi den eta jadanik ahatzia zituen lekua bezala. Nihaurez enezakokeen gehiago ezer erran, haren gainean jartzera ezer utz, nihauren baitan tinkatzen ninduen, enintzan gehiago jaiten zuen bihotz bat baizik, eta antsiarekin *Sole mio*-ren aitzinatzeari jarrikitzen zena. Gogoia etsipenekin lotzen ahal nuen Rialto-ko uztaidura berezi ederrari, agerian denaren bieratekotasunarekin agertzen zizatan ez bakarrik hartaz nuen ideia baino zubi ttipiago bat bezala, baina hartaz nuen ideiarik jokari bat bezain arrotz, perruka horia eta jantzi beltza ukanik ere, badakigularik bada bere izantzaz eztela Hamlet. Horrela ziren palazioak, Kanala, Rialto-a, bere nortasuna egiten zauen ideiaz buluzirik eta bere gauzazko gai arruntetan urtuak. Baina aldi berean leku bierarteko hori gutiago urrundua iduritzen zizatan. Itsas-untzitegiko ur-golkoan, jakitatezko gai baten gatik han ere - lur-zabaldura -, bazen gauzetako berezitasun hura, iduriz gure herrikoak bezalakoak izanik ere, arrotzak, bertze herri batzuetara baztertutak agertzen diren gauzen berezitasun hura; sendi nuen eskualde hain auzoko hura, hara untziz oren batez helduko nintzana, lurraren uztaidura bat zela Frantziakotik osoki bertzelakoa, uztaidura urrundu bat, bidaiako jokoaren gatik, ene ondoan estekan gelditua eta urrun nintzala hobeki baizik sendi-arazten etzautana; hala nola nun Itsas-untzitegiko ur-golko horrek, aldi berean guti ohagarriak eta urrunak, betetzen baininduen, haurr-haurrean,

Deligny mainuetara ama lagundu nuen lehen aldian, senditu nuen desgustu eta lazta nahasketa hartaz; eta han, zeruak ez iguzkiak esaltzen etzuten ur iluneko gune ametsetako hartan, eta bizkitartean, gambaraxka batzuez inguratua izanez, senditzen baitzen giza-soinez beteak ziren barnatasun ezin ikusi batzuer lotua zela, nihauri galdez egona nintzan barnatsun hek, karrikatik asmatzera uzten etzizutzen etxola batzuez hilkorrendako gordeak, ez ote ziren hastapena hor zuten itsaso hormatuetara sartzea, lurburuak hetan hartuak baitziren, eta gune hertsu hori ez ote zenez lurburuko itsaso idekia; eta leku bakartu, izaiterik gabeko, hormatu, enetako adixkidantzarik gabeko hortan, *Sole mio* kantua entzuten zen ezaguna nuen Veneziaz deitoratze bat bezala, eta iduri zuen lekukotako hartzen zuela ene zorigaitza. Haren entzutetik gelditu behar ukanen zen dudarik gabe ama oraino batu nahi ukan banu eta harekin treina hartu; behar zen abiatzen nintzala zekunda bat galdu gabe deliberatu. Baina hain zuzen ezin nuena hori zen; geldi-geldia nindagon, ez bakarrik zutitzeko ahalik gabe, baina ere zutituko nintzala deliberatzeko. Ene izpiritua, hartu behar zen deliberoaren ez itxuratzeko, osoki hartua zen *Sole mio*-ko aire zatien hedatzeari jarrikitzen, gogoz kantariarekin batean kantatzen, aireak hartuko zuen oldearen aitzinetik ikusten, harekin hari jarraikitzen, harekin gero berriz erortzen. Dudarik gabe, baliogabeko kantu horrek, mila aldiz entzunak, eninduen batere hunkitzen. Eginbide bat betetzen banu bezala bururano deboki entzunez nehoi enezokeen atsegin eman ez nihauri ere. Erromanzako aire zati batek ere, aitzinetik ezagutzen bainituen, etzautan azkenean behar nuen deliberoa emaiten ahal; ontsa gehiago, aire zati horietan bakoitza, bere aldian iragaiten zenean, delibero horren baliagarriki hartzeko traba bat bilakatzen zen, edo izaitekotz ez abiatzeko delibero kontrakora bortxatzen ninduen, joaiteko orena iragan-arazten baitzautan. Hortik *Sole mio*-ren entzun arte hori, bere baitan atseginik gabea, trixtezia barnatu, abantzu etsipenezko batez betetzen zen. Sendi nuen bada egiazki, hor higitu gabe egonez ez abiatzeko deliberoa nuela hartzen; baina nihauri erran gabe: «Eniz abiatzen», molde zuzen hortan ezin zizatana, eta bertze huntan egingarri bilakatzen: «*Sole mio*-ko zati bat entzunen dut

oraino»; egingarri baina ezin gehiago mingarri, itxurazko mintzara horren erran-nahi egiazkoa ikusten bainuen eta «Eztut oro har zati bat gehiagoren entzutea baizik egiten» erraiten nuen batean, banakien horrek erran nahi zuela: «Venezian bakarrik egonen niz.» Eta trixtezia horrek zuen behar bada, halako hotz zurruntzale batek bezala, kantu horren goxagarritasuna egiten, goxagarritasun etsitua baina lilluratzalea. Kantariaren mintzoak indar eta ospe abantzu ginarrietako batekin igortzen zuen nota bakoitza bihotz betean joitera heldu zizatan. Aire zatia beherera heldua zenean eta kantua bururatua zela iduri, Kantariak etzuen aski eta berriz gainerik hasten zen bere bakartasunaren eta etsipenaren goraki kantatzeko beharra ukan behar balu bezala aldi bat gehiago. Eta haren musikarendako ene oharpenaren ikustate zozo batez, banion: «Enindaike oraino delibera; oro baino lehen aire hori gainerik berriz has dezagun gogoz.» Eta ene bakartasuna handitzen zuen, hartara erortzen baitzen, minutaz minuta osoagoa egiten zuela, eta laster ezin aldatua..

Ama etzatekeen garatik urrun. Sarri joana izanzen zen. Eta hura gabe egonen nintzan Venezia zen jadanik ene aitzinean hedatzen. Etzadukana gehiago etzen bakarrik ama, baina ezpainuen gehiago jabaldura aski ene gogoaren uzteko aitzinean nituen gauzetan gelditzera, hauk nitarik jeusen edukitzetik ethendu ziren; ontsa gehiago, Venezia izaitetik gelditu ziren, nihaurek bakarrik ukana banu bezala palazioetako harrietan eta Kanaleko urean arima bat sarr-arazia.

Horrela nindagon geldi-geldia, borondate urtu batekin, delibero ageririk gabe; ordu horietan dudarik gabe hori jadanik hartua da: gure adixkidek berek aitzinetik ikusten ahal dute ainitzetan. Baina guk, ezin egin dezagu, hori gabe hainbat oinaze gutarik baztertuak lizatezkeelarik.

Baina azkenean, aitzinetik iragar daitekeen izar adarduna jalgitzen dena baino gune ilunago batzuetarik, - ohidura okituak duen zaintzeko indar ezin asmatuzkoari esker, azken orduan nahasmendura egozten duen olde bapatekoari esker - ene egintza jalgi zen azkenean: lauhazka abiatu nintzan eta heldu, athexkak jadanik hetsiak, baina ordu zeno amaren aurkitzeko bihotz-hunkiduraz gorritua, ez nigar

egiteko indar eginez, uste baitzuen enintzala gehiago ethorriko. «Bidakik, erran zuen, hire amatxi gaixoak erraiten zian: «Bitxi da, nehor ezta ttipi hori baino ezin jasanagorik edo gixakoagorik.» Bidean ikusi nituen Padua edo Verona treinarene atzinera jiten, abantzu gararano guri goraintzi erraiten, eta urruntzen ari ginelarik, berriz, hek joaiten etzirenak eta bere bizia berriz hartuko zutenak, itzultzen bat bere alhorretara, bertzea bere mendixkara.

Orenak baziragatzan. Ama etzen idekiak bakarrik zituen bi eskutitzen irakurtzera lehiatu eta entseatu zen nihaurek paperuntzia berehala athera enezan hoteleko etxezainak emanak zautan eskutitzaren hartzeko. Bidaiak sobera luzeak, akhigarriegiak aurki nitzan beldur zen beti, eta ahal bezain berantero gibelatzen zuen, azken orenetan eni zerbaiten egin-arazteko, arraultze egosiak zabalera ezarriko zituen ordua, egunkariak emanen zauztana, eni erran gabe erositu zuen liburu paketa barreatuko zuena. So egin naukon lehenik amari, ustegabeturik irakurtzen ari baitzen, gero burua goititzen zuen, eta haren begiek iduri zuten aldizka orhoitzapen berezi, ezin elgar akomeagarri, eta elgarretara hurbil etzazkeen batzuetan gelditzen zirela. Bitartean ezagutua nuen Gilberte-ren izkirioa ene estalgiaren gainean. Ideki nuen. Gilberte-ek iragartzen zautan bere ezkontza Robert Saint-Loup-ekoarekin. Erraiten zautan hortaz Veneziara telegrafiatua zautala eta ihardesterik ez ukana. Orhoitu nintzan nola errana zautaten telegrafetako zerbitzua han gaizki egin zela. Nehoiz enuen haren depexa ukana. Etzuen behar bada sinetsi nahiko. Bapatez gauza bat senditu nuen burumunetan, han orhoitzapen moldean jarria zena, bere lekuaren husten eta bertze bati uzten. Azkenik ukana nuen depexa eta Albertine-rena uste ukana nuena, depexa hura Gilberte-rena zen. Gilberte-ren izkirioko berezitasun ez biziki jitezkoa, lerro bat idazten zuenean, gaineko lerroan hitzak azpimarratzen zituztela iduri zuten *t*-etako marren agerr-araztea baitzen gehienez, edo gaineko lerroko erranaldiak mozten zituztela iduri zuten *i*-etako titen berdin, eta aldiz gainean zituzten hitzetako buztan eta sifoasen artekatzea azpiko lerroan, osoki natural zen telegrafako langileak gaineko lerroko *s* eta *y*-en kuxkulak irakurriak ukan zituzan Gilberte-ren hitza bururatzen zuen

«ine» bat bezala. Gilberte-ren *i*-ko tita goiti igana zen geldipundu baten egitera. Haren *G*-ek aldiz *A* gothika bat iduri zuen. Hortarik kampo bizpahirur hitz gaizki irakurriak izan zaiten, batzu bertzetan hartuak (batzu, ere, ezin adituak idurituak zizaztan), hori aski zen ene hutseko xehekerien argitzeko, eta etzen beharrezkoa ere. Zenbat hizki du hitz batean irakurtzen ohargabea eta oroz gainetik aitzinetik gaztiatua den norbaitek, eskutitza jende berezi baten ganik delako ideiatik abiatzen denean? Irakurtzean asmatzen da, egiten; oro has-tapeneko huts batetik dathor; ondotik diren hutsak (eta ez bakarrik ezkutiz eta telegramen irakurtzean, ez bakarrik irakurraldi orotan), diren bezain ohigabeak iduritzen bazazko ere abiagune bera ez-tue-nari, guziak naturalak dira. Sinesten dugunaren zati handi bat, eta azken ondorioetarano horrela da, burugogorkeria eta fede on berdin batzuekin, hastepenetako huts batetik dathor.

«Ho! ezin sinetsia duk. Entzuk, ene adinean deusetaz eztuk ustegabetzen, baina segurtatzen deat eskutitz hunek emaiten dautan berria baino igurikatu gabekoagorik ezer eztela. - Entzun bada zuk ere, ihardetsi nuen, zer den eztakit, baina den bezain ustegabekoa izan dadin, eztaiteke hunek ikasten dautana bezainbat izan. Ezkontza bat da. Saint-Loup-eko Robert-ek du Gilberte Zuan ezkontzen. - Ha! er-ran zautan amak, bertze eskutitzak iragartzen dautana datekek beraz, idekia eztiatanak, hire adixkidearen izkirioa ezagutu baitiat.» Eta amak irriño bat egin zautan, ama galdua zuenaz geroztik, oinaze, orhoitzapen ukaiteko gai ziren eta hek ere bere hilak bazituzten giza-kiak hunkitzen zituen gertakari orok, zen meha izanik ere, harendako hartzen zuen bikotz-hunkidura arinarekin. Beraz amak irriño egin zautan eta mintzo ezti batekin mintzatu zizatan, beldur izan baliz be-zala, ezkontza hori arinki aiphatuz, Zuanen alabaren eta alhargunaren baitan, semearen ganik berextera zoan Robert-en amaren baitan atzar zezazkeen sendimendu gogoilungarrien ez ezagutzeaz, hauer amak emaiten baitzauen oneziaz, enetako haien oneziaren gatik adixkidant-zaz, bere haur, ezkontide 'ta ama baten hunki-erretasuna. «Ustegabe-garriagorik deus aurkituko etzinuela erraiten nautzunean arrazoin nuena? erran naukon. - He bada bai! ihardetsi zuen mintzo ezti bate-

kin, nik diat berri ustegabegarriena, ezteat erranen handiena, ttipiena, haren ganik hori baizik eztakiten jende guziek badagiten Sévigné-ren aiphamen horrek hire amatxi gohainditzen baitzian «belar biltzea den gauza pollita»-k bezainbat. Ezkituk jende guziaren Sévigné horren biltzerano jausten. Eskutiz hunek iragartzen dautak Cambremer ttipiaren ezkontza. - Ori! erran nuen axola gabean, norekin? Baina zer nahi den senargaiaren nortasunak ezkontza horri ekhentzen dauko jadanik baldigarri den guzia. - Nun eztaukon emazte-gaiarenak emaiten. - Eta nor da emazte-gai hori? - Ha! berehala erraiten badeat, mereximendurik eztuk, hea, bila ezak apur bat», erran zautan amak, oraino Turin-en ezkinela ikusiz, gogoaren alhatzeko zerbait utzi nahi baitzautan. «Baina nola nahi duzu jakin dezatan? Legrandin eta haren arreba satifatuak badira, ezkontza ospetsu bat dela segur izan gaitezke. - Legrandin eztakiat, baina ezkontza iragartzen dautan jendeak badiok Cambremer-ko Anderea loriatua dela. Ezkontza ospetsua dela hori erranen dukanez eztakiat. Eni, emaiten dautak erregek artzaintsak ezkontzen zitien aroko ezkontza baten itxura, eta oraino artzaintsa bat baino gutiago zian artzaintsa, baina bertzela xoragarria. Hire amatxi baldituko zian eta laket izanen zizakean. - Baina azkenean emazte-gai hori nor da? - Oloron-go Andereñoa duk. - Handi-handi iduritzen zata eta ez batere artzaintsa, baina nor izaiten ahal den eztut ikusten. Guermantes-tarren familian zen titulu bat da. - Hain zuzen, eta Charlus-ko Jaunak emana dakek, haurtzat onhartzean, Jupien-en ilobari. Hark dik Cambremer ttipia ezkontzen. - Jupien-en iloba! Ahal ote da! - Bertutearen saria da, Sand Andearearen elhaberri baten bururapene-ko ezkontza bat», erran zuen amak, «Bizioaren balioa, Balzac-en elhaberri baten bururapene-ko ezkontza bat», nuen gogatu. «Ororen buruan, erran naukon amari, gogoetatuz, aski zuzen da. Horra Cambremer-tarrak bere oihaal-etxea nehoiz han landatuko zutela itxarrotzen etzuten Guermantes-tarren alderdi hortan lotuak; gainera, neskak, Charlus-ko Jaunak haurtzat hartuak, diru ainitz ukanen du, Cambremer-tarrek berea galdua dutenaz geroztik baitezpadakoa zen gauza; eta oro har alaba-ordea da eta, Cambremer-tarren ustez, odoleko printze batendako dadukaten norbaiten egiazkoa itxura guzien



arabera, alaba baxtartara. Etxe abantzu erregetiar bateko baxtart bat, hori beti ahaidego ohoragarri bat bezala harturik izana da noblezia frantsesaz ala atzerritarraz. Gutarik hoin urrun igan ere gabe, Lucinge-tarretara, sei ilabete baino gehiago eztu, orhoit zira Robert-en adixkidearen ezkontzaz, gizartean izaiteko zuen arrazoin bakarra, hutsez ala egiaz, printze nagusi baten alaba naturala zela uste ukaitea zen nexka gazte harekin.» Amak, Combray-ko kastak gogoan bazatxikatzan batean, horrek eginen baitzuen amatxik ezkontza hortaz gaitzitu izan behar ukanen zuela, oro baino lehen bere amaren aburuaren balioa erakutsi nahiz, gaineratu zuen: «Bertzela ere, nexkañoa betegina da eta hire amatxi maiteak etzian bere onezia handiaren, barkakortasun mugagabearen beharrik ere ukanen Cambremer gaztearen hau-tuarentzat ez larde izaiteko. Orhoitzen hiza nexka hori zein ikustateduna aurkitua zian, badik aspaldi, bere zaiaren berjost-arazteko sartua zian egun batez? Orduan etzen haur bat baizik. Eta orai, nahiz adinez biziki goititua eta mutxurdin, bertze emazte bat duk, mila aldiz beteginagoa. Baina hire amatxi begirada batez horri guziari ohartua zian. Barneko-motx egile baten iloba Guermantes-ko dukea baino «nobleago» aurkitua zian.» Baina amatxiren laudatzea ere baino gehiago, amak behar zuen harendako hor izan etzadin «hobeki» aurkitu. Haren xamurtasunaren helburu gorena hori zen, azken bihotzmin bat haren ganik baztertzen balu bezala. «Eta bizkitartean, uste duka hala ere, erran zautan amak, Zuan aitak - ezagutu eztukana, egia - gogatu ahal ukan balik ukanen ziala egun batez arrasemabixi ala arralababixi bat bere baitan Moser amaren («Egunon xaunak» erraiten ziana) eta Guise-ko dukearen odola nahasirik ukanen ziana! - Baina ohar zite, ama, diozun baino biziki ustegabegarriago dela. Ezen Zuan-dar-rak biziki ontsa ziren jendeak ziren eta, haien semeak zuen fortunarekin, ezkontza on bat egina ukan balu, hunen alabak ederr-eder bat eginen ahal zuen. Baina emazte ordaindu bat ezkondua zuenaz geroz oro lurrera eroria zen. - Ho! ordaindu bat, badakik, jendea gaixtoa zian behar bada, nehoiz eztiat oro sinetsi. - Baietz, ordaindu bat, bertze egun batez eginen daukitzut agerpen... familiako batzu.» Bere ametserian galdua, amak zion: «Hire aitak agur nezan ehoik onhar-

tuko etzian emazte baten alabak Villeparisis-ko Anderearen iloba ezkontzen, hire aitak, hastapenan, ikustera joan nindakion onhartzen etzian andere bat enetako mundu distiratuengi batekoa aurkitzen zialakotz!» Eta gero: «Cambremer-ko Anderearen semea, harendako guri gomendio bat eman behar ukaiteak Legrandin hainbat lotsatzen zialarik ezkinituelakotz aski «aphain» aurkitzen, gure etxera zerbitzuko mailaditik baizik nehoiz igaitera ausartuko etzian gizon baten alabarekin ezkontzen!... Hala ere, hire amatxi gaixoak arrazoin zian, orhoit hiz, arixtokrazia handiak burjes ttipi batzu ofensatuko zitian gauza batzu egiten zitiala zionean, eta testamendua Aumale-ko dukearen fagoretan egin-araz zezontzat Condé-ko printzearen ohaideari eginak zazkean aitzin-urhatsez Marie-Amélie erregina ttipitua iduritzen zizakekala. Orhoit hiz, gaitzitua zian Agaramundeko etxeko alabek, egiazko saindu batzu izan zirenak, mendez geroz Corisande izena ekharria ukan zezaten Henri IV-garrenarekin andere arbaso baten adixkidantzaren orhoitez. Burjesian ere egiten diren gauzak dituk behar bada, baina gehiago gordetzen dituk. Uste duka horrek jostatuko ziala, hire amatxi gaixoa!» zion amak trixteziarekin - ezen amatxi hatarik baztertua izan zadin oinazkatzen ginituztenak, biziko bozkario lañoenak ziren, ipuin bat, antzerti bat, horiek baino gutiago, «imitazione» bat, jostatuko baitzuten. «Ustegabetua izanen zela sinesten duka! Segur nuk alta horrek hire amatxi ofensatuko ziala, ezkontza horiek, penagarri izanen zizazkeala, uste diat hobe dela jakinak eztitzan», egin zuen berriz amak, ezen, edozein gertakariren aitzinean, maite zuen uste ukaitea amatxik iduripen osoki bere baitako bat hartua ukanen zuela haren jitearen berezitasun miragarriari bazatxikana eta ohigabeko munta bat bazuena. Lehenago aitzinetik ikusiko ahal etzen gertakari trixe ororen aitzinean, gure adixkide zahar baten zorigaitza edo hondamena, helgaitz publiko zenbait, erite bat, gerla bat, iraultza bat, amak zion bere baitan hobe zela behar bada amatxik hortaz ezer ikusia etzezan, bihotzmin gehiegi emanen zaukola, etzuela behar bada jasanen ahal. Eta solasa hauek bezalako gauza gaitzigarri batez zenean, amak, maite eztituztenek berek baino gehiago sofritu dutela uste ukaitea laket zaien jende gaixtoen bihotzeko mugimen-

duaren kontra moldekoaz, etzuen onhartu nahi, amatxirendako zuen xamurtasunean, trixte, ttipigarri den jeus gertatu ahal izan zakidion. Amatxi beti asmatzen zuen gertatu behar ukanen etzuen gaitz ororen damuetarik ere gorago bezala, bazion bere baitan amatxiren heriotzea, oro har, zerbait on izana zela behar bada, hortara etsitzen jakinen etzuen jite hain nobletik aro hautako ikuskarri hoin itsusia baztertuz. Hoberako gogoia iraganeko filosofia baita. Izan diren gertakariak, gerta zaitezkeen guzien artean, ezagutzen ditugun bakarrak izanez, egina duten gaitza ezin hutsegina iduritzen zaiku, eta berekin ez ekharri ahal eztuten ongi gutiaz, haier dauegu ohore emaiten, eta uste dugu hek gabe etzela gertatua izanen. Aldi berean amak nahi zuen hobeki asmatu amatxik berri horien jakitean senditua ukanen hartua ukanen zuela eta gure izpiritu harena baino gutiago gorendako ezin asmatua zela uste zuen ere. «Uste duka! erran zautan lehenik amak, hire amatxi gaixoa zenbat ustegabetua izanen zian!» Eta sendi nuen amak min zuela hari ez ikasi ahal ukaiteaz, amatxik ikas ahal etzezan urrikituz, eta amatxik sinetsiko ahal etzituen gauza batzu biziak ager zitzanean zuzengabeko zerbait aurkituz, horrela gibeletik ikusiz hunek jendez eta gizarteaz eremana zuen ezagutza hutsezkoa egiten zuela eta ez osoa, Jupien nexkañoaren ezkontza Legrandin-en ilobarekin amatxiren orotako ideien aldatzeko gai izanik, airekoetan ibiltzeko eta hariarik gabeko telegrafiako egintzara, amatxik ezin zela uste ukana zuena, heldua izaiteko berria - amak hel-arazia ukan ahal balauko - bezainbat. Baina ikusiko da amatxiri gure jakitateko ongien ezagun-arazteko gutuzia hori sarri ontsa berkoiegia iduritu zizakola amari.

Ikasi nuena, hori guzia ezpainuen ikusi ahal ukana Venezian, izan zen Forcheville-ko Andereñoa Châtellerault-eko dukeaz galdeginik izana zela eta Silistrie-ko printzeaz, Saint-Loup-ek Entragues-ko Andereño, Luxembourg-eko dukearen alabaren ezkontzea bilatzen zuen bitartean. Huna zer gertatua zen. Forcheville-ko Andereñoak baitzituen ehun miliun, Marsantes-ko Andereak gogoan ukana zen hauteko ezkontza bat zela haren semearendako. Nexka gazte hori xoragarria zela erraiteko hutsa egin zuen, aberatsa ala beharduna zenez etzakielata batere, etzuela jakin nahi, baina doterik gabe ere, gizon gazte

behakorarrendako horrelako emazte baten ukaitea zorion bat izanen zela. Ausartzia ainitz zen gaineratekoan begiak hets-arazten zauzkoten ehun miliunez bakarrik gutiziatua zen emazte baten aldetik. Berahala hartu zen bere semearendako zuela gogoan. Silistrie-ko prinzesak orotan zer nahi oihu egin zuen, Saint-Loup-en handitasunetan hedatu zen, eta goraki erran zuen Saint-Loup-ek Odette-ren eta judu baten alaba ezkontzen baldin bazuen, Saint-Germain baster-hiririk etzela gehiago. Marsantes-ko Anderea, bere buruaz zen bezain segur izanik ere, etzen urrunago joaitera menturatu eta gibelera egin zuen Silistrie-ko prinzesaren oihuen aitzinean, eta hunek berehala galdea egin zuen bere semearendako. Beretzat Gilberte-ren begiratzeko baizik oihu egina. Bitartean Marsantes-ko Anderea, gaizki heltze batean ez nahiz gelditu, behehala Entragues-ko Andereño, Luxembourg-eko dukearen alabaren aldera itzulia zen. Hogei miliun baizik ez ukanez, hau gutiago egoki zizakon, baina erran zuen jende guziari Saint-Loup batek etzezakeela Zuan Andereño bat ezkon (etzen gehiago Forcheville-ko Andereñoa aiphatzen ere). Dembora zenbait berantago, norbaitek ohargabea erranik Châtellerault-eko dukeak Entragues-ko Andereñoarekin ezkontzeko gogoia zuela, Marsantes-ko Anderea, nor nahi baino punttalakurloa baitzen, bateriez aldatu zen, Giberte-ren gana itzuli, galdea Saint-Loup-endako egin-arazi zuen, eta ezkongai bestak berehala egin ziren.

Ezkongai besta horiek mundu ezperdinenetan erran-merran bizi batzu sustatu zituzten.

Amaren adixkide batzu, Saint-Loup etxean ikusia zutenak, ethorri ziren haren «egunean» eta galdegin zuten ezkongai ene adixkidea zen hura zenez bada. Jende batzu, bertze ezkontzari zoakonaz, bazoazen etzela Cambremer-Legrandin-egiten erraiterano. Hori ithurburu onetik zadukaten, ezen markesta Legrandin sortuak gezurtatua zuen ezkon-xedeak agertuak izan ziren eguneko bezperan berean. Nihaur galdez nindagon zergatik Charlus-ko Jaunak alde batetik, Saint-Loup-ek bertzetik, guti lehenago ukana baitzuten eni izkiribatze aldia, aiphatuak baitzauzaten bidaia xede hain adixkidetasunezkoak eta haien egiteak zeremonia horiek baztertuak

behar ukanen zituenak, etzautaten ezer errana. Hortik ondorioztatzen nuen, gauza mota horietaz azkenerano atxikitzen den segetua gogoan ukan gabe, uste nuen baino gutiago nintzala haien adixkidea, horrek, Saint-Loup-i behatzen zaukonaz, penatzen baininduen. Zergatik beraz, arixtokraziaren adixkidantza, hein bereko, «lagunetik lagunerako» itxura komedia bat zela ohartua izanik, nintzan baztertua izайтеaz ustegabetzen? Charlus-ko Jaunak Morel hatzemaña zuen «emazten etxe» hartan - han gero eta gehiago gizonak hornitzen baitziren -, eta «etxekandere-ordeak», *Le Gaulois*-en irakurle handiak berri mundutarrak aztertzen baitzituen, etxekandere horrek, nehoiz gerla bat baliz «hartua» ez izайтеaz segur izайтеko aski zipotea izan nahi zuelakotz mutiko gazte batzuekin gelditu gabe xampanña edatera jiten zen jaun lodi, jadanik biziki gizenari mintzatuz, erran zuen: «Saint-Loup ttipia «holakoa» omen da eta Cambremer ttipia ere. Gaixo emazteak! Zer nahi den, ezkongai horiek ezagutzen badituzu, igorri behar zaizku, nahiko duten guzia aurkituko dute hemen, eta ainitz diru irabazteko bada horiekin.» Hortan jaun lodiak, nahiz bera «holakoa» zen, oihu egin zuen, apur bat handi-ustea izanez, Cambremer eta Saint-Loup bere gusi Andorvilliers-tarren etxean aurkitzen zituela ihardetsi, emazten maitale handiak zirela eta «holakoaren» osoki kontrakoak. «Ha!» bururatu zuen etxekandere-ordeak doinu dudakor batean, baina phogurik batere ukan gabe, eta gure mendean bizimoldetako gaitzakeriak erran-merranen zozokeria gaitzerrailea kontraktzen zuela segur. Ikusi enituen jende batzuek izkiribatu zautaten eta bi ezkontza horietaz «zer gogutzen nuen» galdegin, antzokian emazten xapelen goratasunaz edo zikologiazko elhaberriaz inkesta bat idekia ukan balute bezalako molde ber-berean. Eskutitz horier ihardesteko kuraiarik enuen ukan. Bi ezkontza horietaz jeusik enuen gogutzen, baina mugagabeko trixtezia bat sendi nuen, zure bizi iraganeko bi zati, zure ondoan estekatuak, eta behar bada auherki egunetik egunera aithortu gabeko itxaropen bat hetan jartzen denak behin betikotz urruntzen direnean bezala, atzerri batzuetara joaiteko, bandera klaxkatze batean, untzi batzu bezala. Hortan barne zirenek berek ukan zuten bere ezkontzarendako aburu bat ontsa naturala, gogoan bere ezkontza zu-

tenaz geroz eta ez bertze batzuen. Nechoiz etzuten aski nausa ukana segeretuzko narrio batean jarriak ziren «ezkontza handi» horiendako. Eta Cambremer-tarrek ere, etxe hain zaharrekoak eta nahikariak hain xumeak zituztenak, Jupien-en ahaztean eta Oloron-go etxearen gaitzeko handitasunez bakarrik orhoitzean lehenbizikoak izanen ziren, salbuespen bat gertatua izan ezpaliz ezkontza hortaz gehienik lausengatua izan behar ukanen zuen jendearen, Cambremer-Legrandin-go markestsaren baitan. Baina jitez gaixtoa, bere familiakoen aphaltzeko atsegina bere buruaren ospatzekoaren aitzinean ezartzen zuen. Beraz, semea ezpaitzuen maite eta laster erren-gaia hastioan hartua ukanik, erran zuen zorigaitz bat zela Cambremer batendako, ororen buruan, nork zakien nundik atheratzen zen, eta hortzak hoin gaizki lerrokatuak zituen jende batekin ezkontzea. Cambremer gaztea behazunez Bergotte eta Bloch ere bezalako idazle batzuekin ibiltzera emana izaitiaz den bezainbatean, gogatzten da bada ezkontza hoin distiratu batek etzuela handi-usteago haren bilakatzeko ondorioa ukan, baina orai Oloron-go duke, egunkariak zioten bezala «printze soberanoen» ondokoa zela sendituz, nor nahirekin ibili ahal ukaiteko bere handitasunean aski sinesten zuen. Eta noblezia ttipia bazterrera utzi zuen burjesia adimendunarendako, Goeintasunetara emaiten etzen egunetan. Egunkarietako ohar horiek, Saint-Loup-i zoakonaz oroz gainetik, eman zaukoten ene adixkideari, ukanak zituen arbaso erregetiarrak izendatuak baitziren, handitasun berri bat baina ene trixtatzea baikiz egin etzuen, bertze norbait bilakatua baliz bezala, Robert Azkarraren ondokoa, hain dembora guti lehenago ni zolan hobeki izan nindadin karrosako izkin-alketxean jarria zen adixkidea baino lehen. Gilberte-rekin haren ezkontzaz - bezperan hetarik bakoitzaz gogatzten ahal nuenetik bapatez, ene eskutitzean, osoki bertzelakoa agertua baitzen, ximiako gogortze bat bezain ustegabekoa - aierurik gabe izanak oinazka-arazten ninduen, egiteko ainitz ukana zuela gogatu behar ukanen nuelarik eta bertzela ere munduan ezkontzak horrela bapatez egiten direla, hutsegina duen antolamendu baten ordainkatzeko. Eta bi ezkontza horiek, bere ukhaldiaren bapatekotasunaz, behargabeaz eman zautaten trixtezia, etxez aldatze bat bezain iluna, bekaizkeria bat

bezain kharatsa, hain barnatua izan zen, nun berantago orhoitu baitzautaten, zentzugabeki hortaz ohore eginez, ordu hartan berean izan zenetik osoki kontrakoa izana zelakotz, aitzin-sendimendu bikun, hirurkun eta laurkun ere bat.

Gilberte-ri oharrrik batere emana etzaukoten munduko jendek itxura larriki axolatu batekin erran zautaten: «Ha! hark du Saint-Loup-eko markesa ezkontzen» eta emaiten zaukoten ez bakarrik gertakari paristarrez jakin-nahitu jende batzuen behako, baina ere ikastea bilatzen duten eta bere behakoaren barnatasunean sines-ten dutenena. Gilberte baizik ezagutua etzutenek aldiz Saint-Loupi so egin zaukoten oharpen ezin handigoarekin, galdegin zautaten (doi-doia ezagutzen ninduten jende batzu ziren ainitzetan) aitzinera nezteen eta gizongaiari aitzineratzetik itzultzen ziren bestako bozkarioez beteak eni erranez: «Bere baitan biziki ontsa da.» Gilberte segur zen Saint-Loup-eko markes izena Orléans-ko dukearena baino mila aldiz handiago zela, baina oro baino lehen izpiritua bere adinekoena baitzuen, etzuen bertzek baino gutiago zuela iduritu nahi ukan, eta *mater semita*-ren erraitea laket izan zizakon, horri gaineratzen zaukola osoki izpirituduna zela iduri ukaiteko: «Enetako aldiz ene *pater*-a da.»

«Parmeko prinzesak omen du egina Cambremer ttipiaren ezkontza», erran zautan amak. Eta egia zen. Parmeko prinzesak aspaldidanik ezagutzen zituen, egintzetarik, alde batetik gizon aphaina aurkitzen zuen Legrandin, bertzetik prinzesak Legrandin-en arreba zenez bada galdegiten zaukonean solasa aldatzen zuen Cambremerko Anderea. Prinzesak bazakien Cambremerko Anderearen urrikia arixtokrazia gorako lerrotik kampo gelditua izanik, han nehork ezpaitzuen onhartzen. Parmeko prinzesak, Oloron-go Andereñoarendako ezkongai baten aurkitzea bere gain hartua zuenak, Charlus-ko Jaunari galdegin zaukonean Méséglise-ko Legrandin izendatzen zen (horrela zuen orai Legrandin-ek bere burua deit-arazten) gizon gixako eta argitu bat nor zen bazakienez, baroinak ez ihardetsi zuen lehenik, gero bapatez orhoitzapen bat itzuli zizakon, gau batez bagon batean haren ezagutza egina zuen eta bere karta utzia zaukon bidaiari batena. Irriño arin bat ukan zuen. «Hura bera da behar bada», erri zuen bere

baitan. Solasa Legrandin-en arrebaren semeaz zela ikasi zuenean, erran zuen: «Ori, zinez ustegabekoa lizateke! Bere osabarenetik balu, ororen buruan elizateke ene izitzeko, senar hoberenak egiten zituztela horiek errana dut beti. - Nor horiek? galdegin zuen prinzesak. - Ho! Anderea, argi nezazuke bada usuago elgar ikusten baginu. Zurekin solasta daiteke. Zure Goientasuna hain da adimenduna», erran zuen Charlus-ek bizkitartean urrunago joan etzen konfidentzia behar batez hartua. Cambremer izena gustatu zizakon, nahiz ahaideak etzituen maite, baina Britainiako laur baroin-herrietarik bat zela bazakien eta bere alaba-ordearendako hoberenik itxarotzen ahal zuen guzia; izena zaharra zen, errespetatua, bere probinzian jendakia azkar batzuekin. Printze bat ezin izanen zen eta bertzela ere ez gutziagarri. Behar zena hori zen. Gero prinzesak Legrandin jin-arazi zuen. Zenbait demboraz geroz, hau soinez hein batean bertzelakaturia zen, eta aski bere abantailetan. Bere soinararen lerdentasunari begitartea deliberatuki sakrifikatzen daukoten eta Marienbad-etik gehiago higitzen eztiren emaztek bezala, Legrandin-ek hartua zuen zaldizkoe-riako aitzindari baten itxura arindua. Charlus-ko Jauna phizutua eta emekitua zen arau, Legrandin lerdengo eta zaluago bilakaturia zen, arrazoin ber baten ondorio kontrakoa. Lastertasun horrek bazituen bertzela ere zikologiako arrazoin batzu. Han sartzen ez handik atheratzen ikus zezaten nahi etzuen leku txar batzuetara joateko ohidura hartua zuen, lehiaka sartzen zen. Parme-ko prinzesa Guermantes-tarrez, Saint-Loup-*ez* mintzatu zizakonean, beti ezagutuak zituela erran zuen, Guermantes-ko jauregitarrak *izenez* beti ezagutu ukaitez eta ene izabaren etxean Zuan *bera*, Saint-Loup-eko Andere-gaiaren aita aurkitu ukanaz halako nahasketa bat eginez, bertzela ere Combrayn haren emaztearekin ez alabarekin ibili nahi etzuen Zuan. «Berriki bidaiatua niz ere Charlus-ko Jaun, Guermantes-ko dukearen anaiarekin. Solasa berainik hasi du, beti seinale ona dena, horrek erakusten baitu eztela ez larri ez handi-nahi bat. Ho! hartaz erraiten den guzia badakit. Baina eztitut ehoiz gauza horiek sinesten. Gainera bertzeren biziari behatzea eztago eni. Sendikor bat dela iduritu zait, bihotz ontsa ikasi bat.» Orduan Parme-ko prinzesa Oloron-go Andereñoaz



mintzatu zen. Guermantes-tarren ingurunean Charlus-ko Jaunaren bihotzeko nobletasunaz hunkia izaiten zen, beti ona izana zen bezala, nexka gazte behardun eta goxagarri baten zoriona egiten baitzuen. Eta Guermantes-ko dukeak, bere anaiaren aiphamenaz oinazkatua, entzutera uzten zuen hori, zen bezain eder izanik ere, biziki naturala zela. «Ontsa entzun-arazten nizanez eztakit, gauza hortan oro natural da», zion arteziaren bortxaz moldegaizki. Baina haren helburua nexka gaztea anaiak berea aithortzen zuen haur bat zela seinalatzea zen. Aldi berean horrek Jupien argitzen zuen. Parme-ko prinzesak ixtorio hori entzutera eman zuen Legrandin-i erakusteko oro har Cambremer gazteak Nantes-ko Anderaurena bezalako norbait ezkondu zuela, ez Orléans-ko dukeaz ez eta Conti-ko printzeaz gutietsiak izan etziren Luis XIV-garrenaren baxtart hetarik bat.

Parisera berriz ekhartzen ginduen treinan amarekin aiphatzen ginituen bi ezkontza horiek ondorio aski ohargarriak ukan zituzten hunarano ixtorio huntan agertuak izan diren jende batzuen baitan. Lehenik Legrandin-en baitan; Charlus-en hotelean tarrapatant sartu zela erraitea debalde da, osoki han ikusia izan behar ezten etxe gaizki aiphatu batean bezala, eta ere aldi berean bere kuraiaren erakusteko eta adinaren godetzeko - gure ohidurak jarraitzen baitzaizku gehiago jeusetako baliatzen etzaizkun lekuetan ere - eta nehor abantzu etzen ohartu Charlus-ek hari egunon erraitean igorri zaukola hautemaiteko, are gehiago argitzeko neke zen irriño bat; irriño hori bi gizonen badagitenaren berdina zen iduriz - eta agiazki zuzen-zuzena kontra-moldekoa - lagunarte onean elgar ikusteko ohidura dutenean, halabeharrez leku txar batean elgar aurkitzen badira (behazunez Elysée-an, han Froberville-ko jeneralak, lehenago Zuan aurkitzen zutenean, baitzuen Zuani ohartzean Grévy Jaunaren etxean irriskutan jartzen diren Laumes-ko prinzesaren etxeko bi ohituen so irkaitzekoa eta gogaidetasun mixteriozkoa). Baina aski ohargarri izan zena, berak ukan zuen hobetze egiazkoa zen. Legrandin-ek bazatxikatzan ez ageriki ontsa aspaldidanik, eta haurr-haurrean Combray-n lanarten iragaitea nindoan demboran berean, arixtokraziako adixkidantza batzu, gehien-gehienik udaleku agor baterako gomit bakar zenbait

emaiten zaukotenak. Bapatez, ilobaren ezkontza ethorria zen elgarrekin gauza berex horien juntatzera; Legrandin-ek ukan zuen munduko lerro bat gibeletik ikusiz bakarrik bereziki baina minki harekin ibiliak ziren jende batzuekin zituen adixkidantzek halako azkartasun bat eman zaukotena. Aitzineratzen zizeela uste zen andere batzuek erran zuten hogei urtez geroztik baserrian haiekin hamabortz egun iragaiten zituela, eta hark zauela emana saloin ttipiko aro-neurkin ederra. Ustegabeen harturik izana zen orai ahaidetuak zituen duke batzu ageri ziren «multzo» batzuetan. Bada, munduko lerro hori ukan zuen orduko, hortaz baliatzetik gelditu zen. Etzen hori bakarrik, orai onhartua zela jakina baitzen, gomitatua izaiteaz atseginek etzuelakotz gehiago senditzen, hori zen luzaz haren baitan burkide izanak ziren bi bizioetan, gutienik naturalak, handi-usteak, lekua jitezkoagoa zenari uzten zaukolakotz, naturaren aldera halako itzultze bat bederen seinalatzen zuenaz geroz. Dudarik gabe eztira ezin akomeagarriak, eta bazterr-hiri baten ikherraldia egin daiteke dukesa baten saloin-bestatetik jalgitzean. Baina adineko hozteak Legrandin hoinbertze atseginen metatzetik baztertzen zuen, jakinki baizik ez atheratzera eremaiten, eta atsegin naturalak harendako aski gogo hutsezkoak egiten zituen ere, oroz gainetik adixkidantzazkoak, dembora hartzen duten solasetakoak, eta bere bizia abantzu osoki jende xehearekin baitzeraman, guti uzten zaukon mundu handiko. Cambremer-ko Anderea bera Guermantes-ko dukesaren amultsutasuneko aski axolagabea bilakatu zen. Hau, makestsarekin ibiltzera bortxatua, ohartua zen, jende batzuekin - erran nahi da azkenean aurkitzen diren gaitasunez eta hetara jartzen den hutsez nahasiak direnekin - gehiago bizitzen denean aldi bakoitz gertatzen den bezala, Cambremer-ko Anderea neure aldetik guti estimatzen nituen, baina dukesari ohargarriak iduritu zizazkon adimenduz eta jakintzaz hornitua zela. Ilunabarretan Cambremer-ko Anderearen ikustera usu jin zen beraz, eta harekin luzaz egoitera. Baina hunek Guermantes-ko dukesaren baitan bazela uste zuen xoragarritasun miragarria ezeztatu zen hartaz bilatua zela ohartu zen orduko. Ikustatez hartzen zuen atseginez baino gehiago.

Aldakuntza ohargarriago bat agertu zen Gilberte-ren baitan, Zuan ezkonduaren baitan gertatua zenaren araukidea eta aldi berean ezperdina. Eiki, lehenbiziko egunetan Gilberte etxean jende hautatuenaren ukaiteaz zoriondun izana zen. Haren ama haier atxikia zen adixkide minak etzatezken ondorearen gatik baizik gomitatzen, baina hek baizik han etziren egun batzuez bakarrik, berex hetsirik, jende aphainetarik urrun, eta Guermantes-ko prinzesaren edo Parmeko prinzesaren eta Bontemps Anderearen edo Cottard Anderearen elgar hunkitzeak, bi bolbora jauzkorrenak bezala, ixtripu ezin antolatatu batzu eman ahal balitu bezala. Hala ere, Bontemps-tarrak, Cottard-tarrak eta bertze, nahiz elgarren artean auhaltzeaz nahigabetuak, burgoi ziren «Saint-Loup-eko markestsaren etxean auhaldu gira» erran ahal ukaiteaz, are gehiago nun batzuetan ausartzia haiekin Marsantes-ko Anderearen gomitatzerano eremaiten baitzen, egiazko andere handi agertzen zena, ezkata eta lumazko aireztagailu batekin, ondorearen abantailean. Hel egiten zauenean baizik ehoiz ikusten eztiren jende begiratuen laudorio egiteko axola hartzen zuen bakarrik noiztenka, gaztiapen horren bidez igortzen baitzauen Cottard, Bontemps eta holakoen motako entzule oner bere agur garaziadun eta burgoiena. Baina Gilberte-ek, orai harendako oroz gainetik bere senarraren eta Guermantes-tarren adixkide bat bainintzan (eta, behar bada Combray-z geroz, dohatua baininduen, gauzer halako edo holako abantaila bakarrik emaiten eztauegun baina motaz mota lerrokatzen ditugun adinean, gero galtzen ezten ospe handiaz), arratsaldi horiek enetako ez egokiak estimatzen zituen eta abiatzen nintzanean erraiten zautan: «Zure ikusteaz biziki kontent izana niz, baina zaugi izaitekotz etzi, ikusiko dituzu ene izaba Guermantes, Poix-ko Anderea; egun amaren adixkide batzu ziren, amari atsegin emaiteko.» Baina horrek etzuen ilabete zenbait baizik iraun, eta biziki laster guzia azpitik gora aldatua izan zen. Hori ote zen Gilberte-ren bizi gizartekoak behar zituelakotz Zuanenak ukanak zituen kontramolde guziak erakutsi? Dena den, Gilberte etzen dembora gutiz geroz baizik Saint-Loup-eko markesta (eta laster gero, ikusiko den bezala (\*), Guermantes-ko dukesa), zen neke 'ta distiratuenera heldurik, ustez eta Guermantes izena orai ha-

ren baitan esmail beltzaran urrez tatu bat bezala jarria zen, eta norekin ere baitzabilan, jende guziarendako Guermantes-ko dukesa geldituko zela (hutsezkoa zen gauza, nobleziako titulu bat, molsako bat bezain ontsa, igaiten baita galdatzen denean eta eskaintzen denean jausten), «Ene izenak, uste dut, gehiago erraitetik libro uzten nau» dion opereta bateko jokagai baten aburua beretuz, hasi zenean hainbat gutiziatua zuenarendako agerian erdeinuaren erakusten, Saint-Germain bazterr-hiriko jende guziak zozoak zirela erraiten, ezin ibilgarriak, eta, hitzetik egintzara iraganez, haiekin ibiltzetik gelditzen.

Ezin suntsitua iduritzen zaikun guzia hondamenera doa; munduko lerro bat, bertze gauza oro bezala, ezta behin betikotz egina, baina imperio baten boterea bezain ontsa ordu oroz berreraikitzen da betiereko jarraitzen den kreazione mota batean, horrek argitzen baititu, mende erdi batean zehar, ixtorio mundutarreko edo politikako bitxikeria ageriak. Munduaren kreazionea ezta hastapenean gertatu, egun oroz egiten da. Saint-Loup-eko markestsak zion bere baitan: «Saint-Loup-eko markestsak niz», bazakien bezperan dukesen etxetan hirur auharietakoa eza emana zuela. Baina hein batean haren izenak goratzen baldin bazuen etxean onhartzen zuen ingurumen ahal bezain guti arixtokraziakoa, kontrako mugimendu batez markestsak onhartzen zuen ingurumen horrek aphaltzen zuen ekhartzen zuen izena. Deusek ezta horrelako mogimenduer ihardokitzen, izen handienak azkenean erortzen dira. Zuanek etzuenaz egutua Frantziako etxeko prinzesa bat, haren saloina, nor nahi han onhartua zelakotz, azken lerrora eroria zena? Laumes-ko prinzesa Goientasun horren etxean ephe baten iragaitera joana zen egun batez, ezpaitzuen han jende esteusik baizik aurkitu, ondotik Leroi Anderearen etxean sartzean Zuani eta Modène-ko markesari errana zauen: «Adixkide herrian berraurkitzen niz azkenean. X...-ko kondesaren etxetik nathor, han etzen hirur begitarte ezagunik.»

Gilberte-ren ezagutza aro hortarik berantago baizik egina ez-tuten jende batzu, haren ondoko hastapenetan usu entzuna dutenak, Guermantes-ko dukesa hori, hain errex ikusiko ahal zuen mundu hortaz trufatzen, etxean ingurumen hortako jende bakar baten ez

onhartzan, eta bat, distiratuena ere, han menturatzen bazen, hari sutturera agerian aharrasi egiten, gibeletik ikusiz gorritzen dira berek mundu handian ospe zenbait aurkitua ahal ukanik, eta nehoiz elaitzke ausart bere ahultasun aphaigarri horien erraitera, betidanik, bere naturako goratasun baitezpadako batez, horien endelgatzeko ahalgabe zela uste zuten emazte bati. Entzuten dute dukez hainbat gogo-bizitasunekin nausitzen, eta ikusten, gauza errankorragoa, nau-sa horiekin hain osoki bere bizimoldearen berdintzen! Zuan Andereño-tik Forcheville-ko Andereñoa, eta Forcheville-ko Andereño-tik Saint-Loup-eko markesta eta gero Guermantes-ko dukesa egin zuen gertakariko arrazoinen bilatzea eztukete gogoan. Eztute behar bada gogoan ere gertakari hori Gilberte-ren geroko egonararen argitzeko etzela eman zuten arrazoinaz baino gutiago ukan zituen ondorioez baliatuko, bilaunekin ibiltzea ezpaita Zuan Andereñoaz egina izanen zen molde osoki berdinez asmatua jende guziak «Andere Dukesa», eta aspertzen duten dukesa horiek «ene gusia» erraiten daukoten andere batez. Gogotik erdeinatzen da hartara heldu ahal ezten gauza bat, edo aldebat ukan dena. Eta erdeinu hori oraino ezagutzen ezkinituen jendetan hartua dela iduritzen zaiku. Behar bada, urten lerroa gibelera igaiten ahal baginu, urratuak aurki ginezazke, nornahik baino sukarrarotukiago, hain osoki gordetzera edo garhaitzera heldu diren hutssez nun estimatzen baititugu horietaz berak ehoiz hunkiak izaiteko ez bakarrik ahalik gabe, baina ere bertzeren baitan ehoiz desenkusatzeko, horien asmatzeko gai izaiteko eskasean. Bertzela ere Saint-Loup-eko markesta berriaren saloinak berehala hartu zuen bere aldebateko itxura (ikuspegi mundutarrean bederen, ezen ikusi da zer nahasmen-duek behar zuten oraino han gertatu). Ikuspegi hori bada huntan ustegabegarria zen: orhoit ziren oraino Parisko gomitaldi aphainenak, Guermantes-ko prinzesarenak bezain distiratuak, Marsantes-ko Andere, Saint-Loup-en amarenak zirela. Bertze aldetik, Odette-ren saloina azken demboretan, mugagabeki gutiago ontsa estimatua, etzela aberaskeriaz eta aphaintasunez gutiago lilluragarri izana. Saint-Loup-ek bada, emaztearen fortunari esker, ongi izaiteko gutiziatzen ahal zuen guziaren ukaitez zorionean, etzuen gogoan hari musika onaren

egitera joile batzu jiten ziren auhari on baten ondotik gozoan izaitea baizik. Eta ordu batez hain burgoi, hain handi-nahi agertua zen gizon gazte horrek bere aberaskerian barne izaitera gomitatzen zituen bere amak onhartuko etzituen lagun batzu. Gilberte bere aldetik Zuanen hitzaz baliatzen zen: «Gaitasunaz axola guti dut, baina andanaren beldur niz.» Eta Saint-Loup bere emaztearen aitzinean belhaurikatua, maite zuelakotz eta aberastasun ezin handiago hori zor zaukolakotz, berenen hain berdinak ziren gustu horier kontra egitetik begiratzen zen. Hala nola nun Marsantes-ko Anderearen edo Forcheville-ko Anderearen gomitaldi handiek, urtez eta urtez bere haurren jartze distiratuaren xedetan emanak oroz gainetik, ezpaitzuten Saint-Loup-eko Jaun-Anderen gomitaldirik batere ekharri. Bazituzten zaldi ederrenak elgarrekin zaldiz ibiltzeko, iot ederrena itsas-itzuli egiteko - baina bi gomit baizik etziren eremaiten. Parisen arrats oroz hirurzpala adixkide ukaiten ziren auhaltzeko, nehoiz ez gehiago; hala nola nun gibelamendu ustegabeko eta bizkitartean natural batez, amen bi gaitzeko xoritegietan bakoitza ohantze ixil batez ordaindurik izana baitzen.

Bi ezkontza horietaz gutienik baliatu zena Oloron-go Andereño gaztea izan zen, elizako ezkont-egunean jadanik berrogei egunetako sukarrak hartua, elizara nekez herrestatu baitzen eta aste zenbaiten buruan hil. Hil-mezuko hitzak, guti berantago, Jupien-ena bezalako izen batzuekin nahasten zituen abantzu Europako handien guziak, hala nola Montmorency-ko bizkonde 'ta bizkondesena, Haren Erret-Goientasun Soissons-ko kondesarena, Modène-Este-ko printzearena, Edumea-ko bizkondesarena, lady Essex-ena, eta b., eta b. Ahaidetasun handi baten ukaitea da guzia. Orduan, delako casus fœderis jokoan sartzen baita, bilauntsañoaren heriotzeak doluan ezartzen ditu Europako familia printzetar guziak. Baina gizalde berrietako jende gazte 'ta egiazko lerroak ezagutzen eztituztenek, Oloron-go Marie-Antoinette, Cambremer-ko markeksa sortze goreneko norbaitendako har zezaketenaren gainera, ontsa huts gehiago egiten ahal zuten hil-mezu horren irakurtzean. Horrela, Frantzian zehar egin ibilaldiek Combray-ko herrialdea apur bat ezagun-arazia zaueten-ber, Méséglise-ko L. Andereak, Méséglise-ko kondeak Guermantes-ko dukearan ondo-ondoan mezu

emaiten zutela ikusiz, etzuten ustegaberik batere senditu ahal ukanen: Méséglise-ko aldeak eta Guermantes-ko aldeak elgar hunkitzen dute. «Herrialde bereko noblezia zaharra, behar bada gizaldez eta gizaldez ahaidetua, erran ahal ukanen zuten elgarri. Nork daki? Guermantes-tarren abar batek du behar bada Méséglise-ko kondan izena.» Bada, Méséglise-ko kondeak etzuen Guermantes-tarrekin ezer ikustekorik eta etzen ere Guermantes-ko aldean barne, baina Cambremer aldean, Méséglise-ko kondea, aitzinatze lasterrez, bi urtez baizik Legrandin de Méséglise egona etzema, Legrandin gure adixkide zaharra zenaz geroz. Gutxi zen dudarik gabe, titulu falsuz bada titulu falsuz, Guermantes-tarrendako hori baino gozagaitzago izan zaitekeenik. Lehenago Méséglise-ko konde egiazkoekin ahaide izanak ziren, eta hetarik etzen gehiago emazte bat baizik gelditzen, jende gutxi ezagun eta aphaletu batzuen alaba, bera Mirougrain eresia zaukon ene izabaren etxetiar gotor aberastu batekin ezkondua eta Ménager izendatua, orai bere burua Mirougrain-go Ménager deit-arazten zuena, hala nola nun haren emaztea Méséglise-ko sortua zela erraiten zenean, gogutzen baitzen Méséglise-en sortua zaitekeela izaitekotz eta Méséglise-ko zela haren senarra Mirougrain-go bezala.

Bertze titulu orok nahigabe gutiago emanen zauen Guermantes-tarrer. Baina arixtokraziak bere gain horien hartzen badaki, eta bertze ainitz oraino, baliagarri estimatua den ezkontza bat, zein ere aldetik izan dadin, joko bat denaz geroz. Guermantes-tarren itzalean, gizaldi hortako zati baten, eta jarraikiko zakon osoarendako Legrandin hala izanen da, Méséglise-ko konde egiazkoa.

Irakurle gazte gutxi jakin oro egitera oraino ekharria izanen zen bertze huts bat, Forcheville-ko baroin eta baroinesak Saint-Loup-eko markesaren aitama eta aitamaginarreba bezala, erran nahi da Guermantes-ko aldetik, mezu emaiten zutela sinestea izanen zen. Bada alde hortarik etzuten egite beharrik Guermantes-tarren ahaide Robert zenaz geroz eta ez Gilberte. Ez, Forcheville-ko baroin eta baroinesa, itxura falsu hori izanik ere, andere esposaren alderdian agertzen ziren, eta ez Cambremer-koan, ez Guermantes-tarren gatik, baina Jupien-en gatik, gure irakurle ikasiagoak baitaki Odette haren lehen gusia zela.

Charlus-ko Jaunaren fagore guzia haren alaba onhartuaren ezkontzatik landa Cambremer-ko markes gaztearen aldera itzuli zen; hunen gostuek, baroinaren berdinak zirenak, Oloron-go Andereñoaren senartzat hautatua ukan zezan debekatua etzutenaz geroz, etzaukoten alhargun izan zenean naturalki gehiago estima-araztea baizik egin. Etzen hori markesak Charlus-ko Jaunarendako lagun goxagarri bat egiten zuten bertze gaitasun batzu etzituelakotz. Baina gizon balio handiko batez ari denean ere, bere etxekotasunean onhartzten duenak gutiesten eztuen gaitasun bat da eta bereziki errexa whist-ean jokatzten baldin badaki. Markes gaztearen adimendua ohargarria zen, eta han haur bat baizik etzen Féterne-en erraiten zen bezala, «osoki bere amatxiren aldekoa» zen, berdin khartsua, berdín musikatzalea. Haren berezitasun batzu berritxuratzen zituen ere, baina horiek imitatzez, familia guziak bezala, ethorkiz baino gehiago. Horrela emaztea hil eta zenbait dembora berantago, Léonor izenpetu eskutitz bat ukanik, harena zela orhoitzen enintzan izen ttipia, nork izkiribatzen zautan hartu nuen bakarrik azken hitza irakurria ukan nuenean: «Ene zinezko adixkidantzan sinets ezazu.» Zinezko horrek bere lekuan ezarria Léonor izen ttipiari gaineratzen zaukon Cambremer izena.

Treina Parisko garan sartzen ari zen amarekin bi berri horietaz mintzo ginenean oraino, bidea sobera luze iduri izan etzakiditan, nahi ukanen baitzituen bidaiako bigarren zatiko begiratu eta ezpaitzautan Milan-en ondotik baizik ikastera utziak. Ama berehala itzulia zen harendako zinez bakarra zen ikuspegira, amatxirenera. Errana zuen lehenik bere baitan amatxi ustegabetua izanen zela, gero trixtatua izanen zela, hori baitzen gertakari hoin ustegabegarri batean bakarrik atsegin ukanen zuela, eta amak, amatxi atsegin batez gabetua izan zadin ezin onetsiz, nahiago baitzuen guzia hoberenean zela sinetsi, berri hori hari bihotzmin baizik emanen ahal etzaukotenenerarik izanez. Baina doi-doia ginen etxean sartuak, amak jadanik norberekoiegi oraino aurkitzen zuelarik biziak dakhartzan ustegabeko guzietan amatxi barne izan zadin ez ahal ukaiteko urriki hori. Nahiago ukan zuen oraino amatxirendako etzirela hala izanen ahal uste ukan, ezpaitzizuten haren aitzin-ikuspenak ageriki aithortzen baizik. Nahi ukan zuen



hautetan amaxiren asmuko dohainen baieztamena ikusi, amaxik uste ukana ginuena baino izpiritu oraino barnatuagoa, ikusle argiagoa, zuzenagoa bazuelako phorogua. Beraz amak, mireste hutseko ikuspegi hortara jiteko, etzuen berandu gaineratzeko: «Eta bizkitartean, nork daki hire amaxi gaixoak etzianez onhartuko? Hain zian barkakorra. Eta gero, gizarteko lerroa jeus etzian harendako, jitezko ikustatea zian nahi. Orhoit hadi bada, orhoit, bitxi duk, biak gustatuak zizazkean. Villeparisis-ko Anderearen lehenbiziko ikustaldi hura gogoan duk, handik itzulia izan zenean eta Guermites-ko Jauna zein ar-runt aurkitua zian errana zaukunean, Jupien horiendako aldiz zenbat laudorio. Gaixo ama, orhoit hiz? aitaz erraiten zian: «Alaba bat baldin banu, eman nezoke, eta alaba hobea da oraino. Eta Zuan nexkañoa! Erraiten zian: Xoragarria dela diot, ezkontza eder bat eginen duela ikusiko duzue. Gaixo ama, hori ikus ahal baleza, zein zuzen asmatua dian! Azkenerano, ez hor izanik ere, gogo-argitasuneko, oneziako, gauzen estimu zuzeneko ikaspenak emanen dauzkuk.» Eta amaxi he-taz gabetua ikusteaz oinazkatuak ginen bozkarioak biziko bozkario ttipi xume guziak baitziren, jostatuko zuen jokari baten doinua, maite zuen janari bat, elhaberrilari hautatu baten liburu berri bat, amak bazion: «Nola ustegabetua izanen zian, horrek nola jostatuko zian! Zein eskutitz pollita ihardetsiko zian!» Eta amak bazarraikan: «Uste duka, Gilberte Guermites-tarren etxean onhartua izan zadin hainbat guti-ziatzen zian Zuan gaixo hura, etzukana zorionean izanen alaba Guermites bat bilakatzen ikusten ahal balik! - Bere izenaz bertze batean, aldarera Forcheville-ko Andereño bezala eremana? - Ha! egia, enian gogoan. - Horrek du egiten enizala «gaixtoño» horrendako bozkariatzen ahal; harendako hain ona zen aitaren izenaren uzteko kuraia ukan duelako gogamen horrek. - Bai, arrazoin duk, oro har, jakina ukan eztezan hobe duk behar bada.» Hilendako, biziendako bezainbat, gauza batek bozkario gehiago ala bihotzmin gehiago eginen zauela ezin dezakegu jakin! «Saint-Loup-tarrak Tansonville-en biziko omen dituk. Zuan aitak, hainbat nahi ziana bere aintzira hire aitaxi gaixoari erakutsi, behin ere asmatu ahal ukanen ziana Guermites-ko dukeak usu ikusiko ziala, oroz gainetik semearen ezkontza desohoragarria ika-

sia ukan balik? Azkenean, hi Saint-Loup-ekin Tansonville-ko elhorri gorraxtez, lilez eta lirioez, hainbat mintzatu hizana, hobeki adituko hau. Jabea hura izanen duk.»

Horrela zoan gure jateko salan, adixkide duten lampako argiaren azpian, ez herrietako zuhurtziak baina familietakoak, gertakari zenbait hartuz, heriotze, ezkon-xede, ondore, hondamen, eta orhoitarren berina loditzalearen azpira emanez, bere bizitasun guzia emaiten daukoten solasaldi hetarik bat, berexten baititu, gibelatzen eta leku eta aroko gune ezperdin batzuetan itxuratzen, bizi izan eztutenendako, eremu ber batean elgarrekin urtuak iduri dutenak: zenduen izenak, helbide jarraikiak, fortunaren ethorkiak eta aldakuntzak, jabegoen aldamenak. Zuhurtzia hori ez ote da, iduripenetako bixitasun zenbait eta egiteko bertute zenbait atxiki nahi bada, ahal den bezain luzaz haren ez ezagutzea egoki den Museak asma-arazia? baina ezagutu eztutenek berek bizi ondarrean probinziako eliza zaharraren barnean aurkitzen dutena, jasan zituzten halabehar guzien asmatzera baino aldareko zizelkadurek badematen betiereko edertasunera gutiago sendikor senditzen diren oren batean, bilduma berezi batera iraganez, kapera batera, gero erakustoki batera, gero berriz elizara itzuliak izanik; edo sendimen ukaitera baino lauza abantzu gogoetatzale bat oinazpikatzen dutenean, Arnauld edo Pascal-en azken erhautsaz egina; edo xoil-xoilki, probinziarsa frexko baten aurpegia behar bada azmatuz, zurezko belhaun-alkiaren burdin-horizko plakan, jaunttoaren edo norbait denaren alaben izenen irakurtzean, filosofiako eta edergintzako muse goragoek onhartzten eztuten guzia, egian oinarritua ezten guzia, gertakizunekoa den baina bertze lege batzu agertzen dituen guzia bildua duen Musea: Ixtorioa baita.

Amaren andere adixkide ohi batzu, hein batean Combray-tarrak, haren ikustera jin ziren Gilberte-ren ezkontzaz solastatzeko, ezpaitzituen batere lilluratzen: «Forcheville-ko Andereñoa nor den badakizu, xoil-xoilki Zuan Andereñoa. Eta ezkontzan lekuko Charlus-ko «Baroina», bere burua izenda-arazten duen bezala, bere abantaila hor aurkitzen zuen Zuanen jakin eta ikusian lehenago jadanik ama ordaintzen zuen zahar hura da. - Baina zer diozu? ihardesten

zuen goraki amak, Zuan, lehenik ezin gehiago aberatsa zen. - Bertzeren diruaren behar ukaiteko etzela hainbertze sinetsi behar da. Baina emazte horrek zer du bada horrela bere maitalen atxikitzeko? Lehenaz ezkondua izaiteko bidea hatzeman du, gero hirurgarrenez eta bigarrena abantzu hiltxobitik atheratzen du lehenetik edo bertze batetik ukana duen alabaren lekuko balia dadin, ezen andanan nola jakin? berak hortaz ezer eztaki! Hirurgarrena diot, hirur ehungarrena erran behar lizateke. Gainera badakizu eztela zu eta ni baino gehiago Forcheville, senarrarekin ontsa doa hori ezpaita bada aitorenseme. Ontsa goga dezakezu neska horren ezkontzeko eztela jukutre bat baizik. Edozein Dupont edo Durand Jaun bat omen da. Orai Combray-n auzaphez erradikal bat ezpaliz, erretora agurtzen ere eztuena, gauza xorroxki jakinen nuen. Zeren, ontsa hartzen duzu, ezkondeiak egin direnean egiazko izena eman behar izan baita. Biziki pollit da, gazetendako edo mezu eskutitzak igortzen dituen paperlariarendako, bere buruaren deit-araztea Saint-Loup-eko markes. Gaitzik eztu nehoi emaiten, eta atsegin emaiten ahal badee jende on horier, zertan jenatzen ahal nau? Bere buruaz mintza-arazia duen emazte baten alabarekin ehoiz ezpainiz ibiliko, besoa bezain luzeko markestsa izaiten ahal da bere sehiendako. Baina errexixtro-izendegikoetan ezta gauza bera. Ha! Sazerat ene gusia lehen axuant baliz oraino, izkiribatuko naukon, ezkon-deiak noren izenean egin-araziak zituen erranen zautan eni.»

Aro hortan bertzela ere Gilberte aski usu ikusi nuen, berriz harekin adixkidetua bainintzan: ezen gure bizia, bere luzetasunean, ezta gure adixkidantzen bizian neurtua. Aro zati bat iragan dadila eta ikusten dira berriz agertzen (politikan minixterio zahar batzu, antzokian berriz jokutzen diren antzerti ahatzi batzu bezala) lehengo jende beren artean berritu adixkidantza batzu, ethentzezko urte luze batzuen ondolik, eta atseginekin berrituak. Hamar urteren buruan batek sobera maitatzeko zituen arrazoinak, bertzeak burupe garratzegi baten ezin jasaitekoek, arrazoin horiek izaiterik eztute gehiago. Ikustateak bakarrik badirau, eta Gilberte-ek lehenago ezetsiko zautan guzia, errexiki emaiten zautan, gutiziatzen enuelakotz behar bada. Ezin onhartua iduriatua zizakona, ezin egina, aldamen horren arrazoina behin ere

elgarri errana ukan gabe, ene ikustera jiteko beti prest zen, ene uzteko nehoiz ez lehiatua; traba ezeztatua zelakotz: ene maitasuna.

Apur bat berantago joan nintzan bertzela ere Tansonville-en zenbait egunen iragaitera, ikasia nuelakotz Gilberte zorigaitzean zela, Robert-ez trompatua, baina ez mundu guziak uste zuen moldean, berak ere oraino behar bada uste zuenean, erraiten zuenean bederen. Itzuli horrek aski jenatzen ninduen, Parisen bainuen nexka gazte bat alokatzen nuen bizitegi ttipi batean etzaten zena. Bertze batzu oiha-nen usainaz edo aintzira baten murmurikaz bezala, banuen ene sahet-sean haren loaren beharra, eta, egunaz, beti ene ondoan ukaitekoa, ene karrosan. Ezen maitasun bat ahazten ahal bada ere, jarraikiko zakon maitasuna molda dezake. Aitzineko maitasunaren barnean be-rean egunorotako ohidura batzu baziren jadanik, eta haien ethorkiaz guhaur orhoitzen ezkinenak; lehen egun bateko antsia batek zauzkun suharki agiantza-araziak, gero molde geldu batean onhar-araziak, er-ran-nahia ahatzia dauegun ohidura batzu bezala, maitearen egoitzara bererano edo gure etxeko haren egoitzara karrosan itzultze hek, haren atheraldi guzietan han guhauren edo hartan konfienzia dugun nor-baiten izaitea: gure maitasuna hetan iragaiten den bide handi molde berekoen iduriko ohidura horiek guziak eta bihotz-hunkidura gartsu bateko sumendian behin urtuak izan zirenak. Baina ohidura horiek emaztearen ondotik badiraute, emaztearen orhoitzapenaren ondotik ere. Gure maitasun guzien moldea ezpada, elgarrekin aldizkatzen di-ren gure maitasunetarik batzuen bilakatzen dira bederen. Eta horrela ene egoitzak behar ukana zuen, Albertine ahaziaren orhoitzapenez, ene oraiko maitea han izan zadin, ikuslarier gordetzen nauena eta lehenago Albertine-ek bezala ene bizia betetzen zuena. Eta Tanson-ville-ra joaiteko, behar ukan nuen, zenbait egunendako, ene adixkide-tarik eta emazteak maite etzituen batez bere burua zaintzera utz zezan.

Baina nork bere alderako amodioa hor zen, bertzeren enga-natzeko gutizia, nork bere buruaren egitekoa, tradimenduen ezagutza bertzela ere ez osoa, enganatu jende guziena dena, are gehiago nun Robert, Charlus-ko Jaunaren egiazko iloba bezala, irriskutan ezart-zen zituen emazte batzuekin erakustera emaiten baitzen, munduak

eta oro har Gilberte-ek ere haren ohaideak uste zituenak... Munduan aurkitzen zen ere etzela aski jenatzen, etzuelarik arratsaldietan aztale-  
tik uzten gero berekin zeraman horrelako emazte bat, Saint-Loup-eko  
Anderea ahal zuen bezala sartzera utziz. Irriskutan horrela ezartzen  
zuen bertze emaztea etzela egiazki haren ohaidea erranen zuena, gaixo  
batendako hartua izanen zen, ageriaren aitzinean itsua. Baina zori-  
gaitzez egiara bidaturik izana nintzan, bihotzmin mugagabeko bat  
eman zautan egiara, Jupien-ek ohargabeen erran hitz batzuez. No-  
lakoa etzen ene baldidura izana noiz ere, Tansonville-ra abiatu baino  
ilabete zenbait aitzinean, Charlus-ko Jaunaren berri hartzera joanik,  
bihotzeko nahastura batzu agertuak baitziren haren baitan ez gogan-  
behar handi batzu eman gabe, eta bakarrik aurkitua nuen Jupien-i  
Saint-Loup-eko Andereak hatzemaña zuen eskutitzeria amoros eta  
Bobette izenpetu batez mintzatzean, ikasia bainuen baroinaren lan  
orotako gizonaren ganik Bobette izenpetzen zuen jendea etzela ai-  
phatua dugun arrabitari-gazetalariak eta Charlus-ko Jaunaren bizian  
egiteko aski handi bat ukana zuenaz bertzerik! Jupien-ek etzuen su-  
mindurarik gabe aiphatzen: «Mutiko hori on iduritzen zizakon bezala  
artzen ahal zen, libro zen. Baina hara behatu behar etzuen alderdi  
bat baldin bada, baroinaren ilobarena da. Are gehiago nun baroinak  
bere iloba seme bat bezala maite baitzuen; senar-emazten berextea  
bilatua du, ahalgegarri da. Eta debuzko amarru batzu erabili behar  
ukan ditu, nehor ezpaita jitez Saint-Loup-eko markesa baino gauza  
horien kontrakoagoa. Eztua bere ohaidendako aski erokeria egin! Ez,  
musikari txar horrek baroina egina duen bezala utzia ukan dezan, zi-  
kinki, erran daiteke, bere egitekoa du. Baina ilobaren aldera itzultzea!  
Egiten eztiren gauza batzu badira.» Jupien bere suminduran zintzo  
zen; moralik gabeak deritzeeten jendetan, moraleko sumindurak bert-  
zetan bezain azkarrak dira eta gaiez dira bakarrik apur bat aldatzen.  
Gainera, bere bihotza zuzenki hunkia eztuten jendeak, baztertu behar  
diren atxikimenduen, ezkontza gaitzen estimatzean, maite denaren  
hautatzeko libro bagine bezala, maitasunak bademan lilluramendu  
ezin goxoagoaz eztira axolatzen eta maite den jendea hain osoki eta  
bakarki hartzen duenaz, nun gizon batek kozinersa bat edo bere adix-

kide hoberenaren ohaidea ezkonduz badagien «zozokeria» baita bere bizian zehar badagikeen egintza poetiko bakarra.

Gogoan hartu nuen berexte bat gertatzer zela Robert eta haren emaztearen artean (hori zeren gatik zen Gilberte oraino ohartu gabe) eta Marsantes-ko Andereak, ama maitale, handi-nahi eta filosofoak, zuen gauza akomeatua, baketzea bortxatua. Beti elgar gurutzatuz doazen odolena nahasteak eta ondorena ttipitzeak ordu oroz jaiduretan, abantail-nahietan bezala, bizioak eta irriskutan ondorena jartzeak berlora-arazten dituen inguruetakoa zen. Gemen berarekin zituen lehenago Zuan Anderea, Jupien-en alabaren ezkontza gerizatuak, eta Gilberte-rekin bere semearen ezkontza egina, berarendako horrela baliatuz, etsi mingarri batekin, Bazter-hiri osoa hartaz goza-arazten zuen zuhurtzia ethorkiko hartaz beraz. Eta etzuen behar bada ordu batez Robert eta Gilberte-ren ezkontza lasterrez egina, Rachel-ekin hauts-arazteak baino gaitz eta nigar gutiago emana zaukona segurki, bertze lilitto batekin - edo behar bada berarekin, Rachel-en ahaztean Robert luze itzana baitzen - behar bada haren salbamendua izanen zen amoreka berri bat has zezan beldurrean baizik. Orain hartzen nuen Guermantes-ko prinzesaren etxean Robert-ek erran nahi ukana zautana: «Zorigaitza duk Balbec-eko hire adixkideñoak ukan eztezan amak nahi dian fortuna, uste diat biek elgar ontsa entzunen ginikala.» Erran nahi ukana zuen nexka Gomorrha-koa zela bera Zodomak-koa bezala, edo behar bada, ezpazen oraino hortan, etzizazkon gustatzen molde berezi batean eta bertze emazte batzuekin maitatzen ahal zituenak baizik. Gilberte-ek ere Albertine-ek zehetasunak emaiten ahal ukanen zautan. Beraz, gibelera itzultze bakar batzuetan salbu, ene adixkideaz zerbaiten jakiteko nahia galdu ezpaldin banu, hartaz galdekatu ahal ukanen nuen ez bakarrik Gilberte, baina haren senarra. Eta oro har gauza berak (erran nahi da emazteak maite zituelakoak) zaukun Robert-i eta eni Albertine-ren ezkontzeko gutizia emana. Baina gure gutziaren arrazoinak, helburuak bezala ere, kontrakoak ziren. Ene-tako, horren ikasteaz ukana nuen etsipenetik zen; Robert-endako satisfamendutik; nik ethengabeko zaintze bati esker bere gostura eman zadin debekatzeko; Robert-ek hortaz baliatzeko, eta nexka adixkide

batzu ekhar zezazkontzat utziko zaukon libertateari.

Jupien-ek horrela dembora biziki gutira igan-arazten bazuen Robert-en gostu haragikoeak hartua zuten bide berria, lehenbizikotik hain kontrakoa, Aimé-rekin ukan nuen solasaldi batek eta azkarki zorigaitzean ezarri ninduenak erakutsi zautan Balbec-eko mahi-nagusi ohiak kontra-molde hori, gizakoi izaite hori, biziki gorago igan-arazten zuela.

Solasaldi horren gertaldia Balbec-en irraigaiten izana nintzan egun batzuetakoa izana zen, Saint-Loup bera, permisione handi bat bazuena, hara ethorria baitzen, lehen aldi hortan urhats bakar batez uzten etzuen bere emaztearekin. Miretsia nuen nola Rachel-en eragina sendi-arazten zen oraino Robert-en baitan. Luzaz ohaide bat ukana duen gizon ezkondu batek daki bakarrik ostatu batean sartu baino lehen bere emaztearen soigainekoaren hartzen, harekin behar den ikustatearen ukaiten. Atxikimendu hartan ukana du senar on batek behar duen ikaspena. Haren ganik ez urrun, enearen ondoko mahi batean, Bloch-ek, unibersitateko gazte handinahi batzuen erdian, hartzen zituen itxura falsuki gosturako batzu, eta bere adixkide bati azkarr-azkarki oihi egiten zaukon, karta ageri-nahian hari eman ez bi ur pitxer aurdiki zituen jestu batekin: «Ez, ez, adixkide maitea, mana ezazu! Bizian ehoiz eztut janari hautatzen jakin! Ehoiz eztut manatzen jakin!» errepikatu zuen urgulu guti zintzo batekin, eta berehala, gormandizarekin literatura nahasiz, «molde osoki itxurapenezko batean» solasaldi bat edertzen ikustea maite zuen xampana botoila bateko hautua eman. Saint-Loup-ek, harek, manatzen bazakien. Gilberte jadanik haur-behartuaren ondoan jarria zen (etzuen gero hari haurr egin-araztetik gelditu behar) hotelean elgarren ohean haren ondoan etzaten zen bezala. Etzen bere emazteari baizik mintzo, gainerateko hotelak harendako izaiterik etzuela iduri zuen, baina mutil batek manu bat hartzen zuen orduan, hurbil-hurbila zenean, bere begi argiak lasterrez goititzen zituen eta bi zekunda baizik irauten etzuen so bat hari igortzen, baina bere gogo-argitasun lehiatuan iduri zuen, bere adixkider erranen zezteen ohar jostagarri ala bertze batzuen egiteko mutil-jantzi edo komis bati luzaz ere so egitean, hoteleko edozein ohi-

tuek ukanen ahal zuen jakin-nahi eta bilaketa mota osoki bertzelako bat agertzen zuela. So ttipi labur horrek, abantailnahi gabea, mutila bere baitan ohargarri zizakola erakusten zuena, behatuko zaukotener agertzen zauen senar ezin hobe horrek, lehenago Rachel-en maitale suhar horrek bere bizian bazuela bertze gunee bat eta eginbidez hartan zabilana baino ezin gehiago lakegarriagoa iduritzen zizakona. Baina etzen hortan baizik ikusten. Begiak jadanik ezer ikusia etzuen Gilberte-ren gana itzuliak zituen berriz; artetik adixkide bat aitzineratzen zaukon eta gero bazoan harekin ibiltzera. Aimé bada orduan aro ontsa urrundugo batez mintzatu zizatan Villeparisis-ko Anderearen bidez Saint-Loup-en ezagutza egina nuenaz, Balbec hortan be-rean.

- Baina ba, Jauna, erran zautan, osoki ezaguna da, ontsa aspaldi badu badakitala. Jauna Balbec-en zen lehen urtean, markes Jauna igangailu-mutilarekin hetsi zen, Jaunaren amatxi Anderearen argazki batzuer molde emaiteko estakuru. Muttikoak deitoratu nahi zuen, gauzaren ithotzen munduko neke guziak ukan ditugu. Eta Jauna oizu, Jauna orhoit dateke bazkariz ostatura Saint-Loup-eko markesarekin eta hartaz haizolbe bat egiten zuen ohaidearekin jin den egunaz. Jauna orhoit dateke Markes Jauna joan zela haserre gaitzaldi baten eztakurua emanez. Eztut dudarik gabe erran nahi Andreak arrazoin zuela. Hunek bortitzak ikus-arazten zauzkon. Baina egun hartan Jaun markesaren haserre alegiazkoa zela eztautate gogotik ekhenduko eta Jaunaren eta Anderearen urruntzeko beharretan zela.» Egun hartako bederen, badakit bada Aimé-k ezpazuen jakinean gezur erraiten, osoki huts egiten zuela. Robert hartan zen izanara sobera gogoan nuen, gazetalariari emana zaukon mazelakoa. Eta bertzela ere Balbec-endako berdin zen: edo igangailu-mutilak gezur errana zuen, edo Aimé-k zuen erraiten. Hori uste nuen bederen; enezakeen segur-tamenik ukan: ehoiz ezta gauzen alderdi bat baizik ikusten, eta horrek hainbertze bihotzmin emana ukan ezpalauta, enetako Saint-Loup-en etxera mutilaren lasterraldia hari eskutitz baten ereman-arazteko eta haren ihardespeneren ukaiteko bide errex bat izana zelarik, harendako hori gustatua zizakon norbaiten ezagutzaren egitekoa izanean eder-



tasun zerbait aurkituko nuen. Badagigun egintza ezteusenari, bertze norbaitek egintza osoki ezperdin batzu lotzen dauzko. Segur da Saint-Loup eta igangailu-mutilaren arteko gertaldia, izan baldin bazen, etzizatala ene eskutitzaren igortze ohi bezalakoa hartua iduritzen, Wagner-en Lohengrin-go birazkakoa ezagutzen elukeen norbaitek Tristan-go aitzin-musika aitzinetik ikus lezakeen baino gehiago. Eiki gizonentzat, bere sentsuetako eskasaren gatik, gauzek eztute dituzten berezitasun ezin zenbatuen andana hertsu bat baizik eskaintzen. Margotuak dira begiak baditugulakotz; sentsuak ehunka baginitu, zenbat bertze izen elukete merexi? Baina ukan lezaketen bertzelako itxura hori hartzeko errexago emana zaiku bizian guzia zela uste ginuen zati bat ezagutzen daukogun gertaldi den ttipiena denaz ere, eta bertze batek etxeko bertze aldean ideki eta bertze ikuspen batera bademan leiho batetik bezala ikusten duenaz.

Aimé-k huts egin ukana elukeen aldian, Saint-Loup-en gorridura Bloch lift igangailu-mutilaz mintzatua zizakonean, etzen behar bada bakarrik hunek «laift» ahozkatzen zuenetik heldu. Baina segur nintzan Saint-Loup-en zikologiako aldakuntza etzela aro hartan hasia eta orduan oraino bakar-bakarrik emazteak zituela maitea. Bertze seinale batean baino gehiago, gibeletik ikusiz Saint-Loup-ek Balbec-en erakutsia zautan adixkidantzan ezagun ahal ukan nuen. Etzen emazteak maitatu zitueno baizik zinez adixkidantzako gai izan. Horren ondotik, zenbait demboraz bederen, gogoia zuzenki eratxikitzen etzaukoten gizoner, axolagabe bat erakustera emaiten zauen, zatiz zintzoa uste dut, biziki idor bilakatua baitzen, eta handiegitzen zuena ere emazter baizik behatzen etzauela sinets-arazteko. Baina orhoit niz hala ere egun batez Doncières-en, Verdurin-darren etxera auhariz nindoalarik eta Charlie-ri molde apur bat luzatuan so egin berria zaukolarik, errana zautala: «Bitxi duk, ttipi horrek Rachel-en gauza batzu baditik. Etzaik ohargarri? Gauza berdinak baditiela aurkitzen diat. Zer nahi den enaik horrek hunkitzen ahal.» Eta hala ere haren begiak hedoiertzean galduak luzaz egonak ziren, karta jokaldi batean berriz hasi edo hirian auhaltzera abiatu baino lehen, behin ere eginen eztela uste den baina haren gogo-mina senditzen den urrungo bidaia

hetarik bat gogoan denean bezala. Baina Robert-ek Rachel-en zerbait aurkitzen baldin bazuen Charlie-ren baitan, Gilberte-ek, hark, Rachel-ez zerbaiten jakitea bilatzen zuen, bere senarrari gustatzeko, hark bezala bere iletan zeta gorri-bizi, ala gorraxta, ala horizko xintreak ezartzen zituen, berdin orraztatzen zen, senarrak oraino maite zuela uste baitzuen eta hartaz bekaizti baitzen. Ordu batzuek Robert-en maitasuna egona zela gizon baten eta emazte baten maitasuna berxten dituen mugetan, hori izan zaitekeen. Zer nahi den Rachel-en orhoitzapenak etzuen eretze hortan ezthetikako egiteko bat baizik. Eztu itxurarik ere bertze egiteko batzu ukan zezazkeela. Egun batez, Robert izana zizakon gizonaz jantz zadin galdegiten, eta ile xerrenda luze bat dilindan utz zezan, eta bizkitartean hari so egitea aski izana zizakon. Hala ere Rachel-i atxikia gelditua zen eta artharekin baina atseginik gabe ordain-arazten zaukon hitzemana zuen gaitzeko arranda, horrek ezpaitzuen hura Robert-i egitate itsusien egitetik debekatu. Rachel-en alderako eskuzabaltasun hortaz Gilberte etzen oinazkatua izanen harekin maitasunik batere gehiago etzoan agintza baten betetze etsian hartua zela bakarrik jakina ukan balu. Baina maitasuna, hori zen aldiz Robert-ek Rachel-endako sendi zuela alegia egiten zuena. Homossexualak munduko senar hoberenak lizatezke emazten maitatzeko komedia egiten ezpalute. Gilberte etzen bertzela ere deitoratzen. Robert Rachel-ez maitatua, hain luzaz maitatua izana zela uste ukanak zaukon gutizia-arazia, zauzkon harendako ezkontza ederrago batzu bazterrera utz-araziak; iduri zen hura ezkonduz halako amor-emaite bat egina zaukola. Eta egiaz, lehenbizian, goxagarriaz eta ederraz bi emazte alta hain ezperdinen arteko gomparatze batzu etziren Gilberte xoragarriaren fagoretan izan. Baina gero hau senarraren estimuan handitu zen Rachel ikus arau ttipitzen ari zelarik.

Bertze norbaitek bere burua ukhatu zuen: Zuan Andereak. Gilberte-rendako ezkontza aitzinean Robert jadanik inguratua baldin bazen, alde batetik Rachel-ekilako bizi ethengabe Marsantes-ko Anderearen deitorek salatuaren, bertzetik Guermentes-tarrek haren aitari beti emana zaukoten eta haren ganik ondoreturik izana zen ospearen urrezko korona bikunaz, Forcheville-ko Andereak aldiz ezkontza dis-

tiratuago bat nahiago ukanen zuen, behar bada printzetarra (erret-familia behartuak baziren eta dirua - bertzela ere lauretan hoge miliun hitzemanak baino azkarki ttipiagoa gertatu zena - onhartuko zutenak Forcheville izenak garbiturik), eta mundutik urrun ereman bizi batez suhi bat balioz gutiago ttipitua. Etzuen Gilberte-ren borondatea garhaitu ahal ukana, mundu guziari saminki zinkurina egina zuen, suhia irainduz. Egun batez, oro aldatua zen, suhia aingeru bat bilakatu, etzen gehiago hartaz ebaska baizik trufatzen. Hori da adinak Zuan Andereari (Forcheville-ko Andere bilakatuari) utzia zaukolakotz ordaindua izaiteko betidanik ukana zuen gostua, baina, mireslen ihes egiteaz, hortako bideak ekhendua. Egun bakoitz nahi zuen lephogatina berri bat, zaia berri bat diamantez josia, beribil aberatsagoa, baina fortuna guti zuen, Forcheville-ek abantzu gutia xahutua ukanik, eta bazuen alaba bat - zein arbaso izraeldarrak zuen Gilberte hortan matatzen? - maitagarria, baina itsuski zikoitza, dirua senarrari neurtzen zaukona, naturalki amari ontsa gehiago. Bada, bapatez gerizatzalea usnatua zuen, gero Robert-en baitan aurkitua. Etzadin gehiago lehenbiziko gaztaroan izan, hori etzen balio gutikoa baizik emazteak maite etzituen suhi baten begietan. Bere amaginarrebari galdatzen zaukon gutia zen, bere 'ta Gilberte-ren artean halako edo holako eragozpena errex zezan, Morel-ekin bidaia baten egiteko baimena haren ganik ukan. Odette-ek hortara lan egina zuenean, berehala errubis miragarri batek sarizatzen zuen. Hortako behar zen Gilberte bere senarraren aldera emaileago izan zadin. Odette-ek hori pheredikatzen zaukon are gehiago gartsuki nun berak baitzuen emaitza hortaz abantaildua izan behar. Horrela Robert-i esker, berrogei-ta hamar urtetako mugan (hiruretan hogeietakoan zioten batzuek), auhaltzera zoan mahi bakoitza, agertzen zen arratsaldi bakoitza aberaskeria ezin sinetsi batez distiraraz zezakeen, lehenago bezala gehiago ordainduko eta ere onhartuko etzuen «adixkide» baten beharrik ukan gabe. Sartua zen beraz, iduriz betiko, azken kastotasuneko aroan, eta nehoiz etzen hoin aphaizana.

Etzen bakarrik gaixtakeria, behartua izana denaren gorromioa aberastua duen eta bertzela ere bere lerroetako ezperditasuna (Char-

lus-ko Jaunaren jitean zen hori, eta gehiago oraino hitzetan) sendi-  
arazia daukon nagusiaren kontra, gehiago baroinaren oinazka-arazte-  
ko Charlie Saint-Loup-en aldera bultzatua zuena. Abantail-nahia zen  
ere behar bada. Ukan nuen Robert-ek ainitz diru emaiten zaukolako  
iduripena. Combray-ra abiatu baino lehen Robert aurkitua nuen ar-  
ratsaldi batez, eta haren maitaleztat hartzen zen emazte aphain baten  
ondoan bere burua agerian emaiten zuen batez, harekin bat eginez,  
jenden aitzinean haren zaian inguratua, hari atxikia izaiten zen mol-  
deak gogoratzen zautalarik, zerbait zaintsuago, jauzikariago batekin,  
Charlus-ko Jaunaren baitan, Molé Anderearen aphainduren barnean  
hartua bezala, ohartua ahal nindakon arbasoen ganikako jestu baten  
halako errepikatze nahigabeko bat, harena etzen alderdi emakoi ba-  
ten ikurrina, baina, nahiz zuzenbiderik gabe, horrela agerian erakus-  
tea maite zuena, gerizatzale ala eder aurkitzen zuelakotz, ustegabetua  
izana nintzan, etxerakoan, mutiko hura, ontsa gutiago aberats zenean  
hain eskuzabala, zein xuhur bilakatua zen ikustean. Jabe den gauzari  
baizik ez atxikia izaitea, eta hain bekan zuen urrea barreatzen zuen  
batek ukana duena metan atxiki ukaitea, gauza bat aski orotakoa da  
dudarik gabe, baina bizkitartean hor molde bereziago bat hartzen  
zuela iduritu zizatana. Saint-Loup-ek etzuen fiakra baten hartzea on-  
hartu, eta tramuko korrespondentzia bat atxikia zuela ikusi nuen. Du-  
darik gabe hortan Saint-Loup-ek erabiltzen zituen, helburu ezperdin  
batzuetako, Rachel-ekilako adixkidantzan bilduak zituen dohainak.  
Emazte batekin luzaz bizi izana den gizon gazte bat ezta ezkontzen  
duena lehenbizikoa duen mutiloia bezain ez trebatua. Ikusi behar  
zen bakarrik, Robert-ek bere emaztea ostatuan barazkaltzera ereman  
zuen aldi bakarretan, haren soinekoen hartzeko zuen molde trebe 'ta  
errespetuzkoa, janariaren manatzeko eta zerbitza-arazteko zuen an-  
tzea, jaka berriz jantzi baino lehen Gilberte-ren mahungen xabalt-  
zeko hartzen zuen artha, hunen senarra izan baino lehen luzaz emazte  
baten maitalea izana zela gogoan hartzeko. Molde berean, Rachel-  
en menaiako gauza xeherenetan ari izan behar ukanik, alde batetik  
hunek etzuekakotz hortan ezer ezagutzen, gero bere bekaizkeriaren  
gatik sehierian eskupe ukan nahi zuelakotz, jarraiki ahal ukan zuen,

emaztearen ontasunen buru izaiten eta menaiaren arthan, Gilbert-ek behar bada atxikitzen jakinen etzuen eta gogotik uzten zaukon egintza trebe 'ta ezagule hura. Baina oroz gainetik den gutieneko goitiatzez Charlie-ren abantail-arazteko egiten zukeen, hura oro har aberaski ordainduz Gilberte ohartua eta hortaz oinazkatua izan gabe. Behar bada ere, uste zuelakotz arrabataria diru xahutzalea zela «artixta guziak bezala» (Charlie horrela izendaten zen sineste 'ta urgulurik gabe eskutitzez ez ihardestiaz desenkusatzeko, eta artixten zikologia ezagunekoak zirela uste zuen akatsez). Nihaurek moralaren aldetik osoki orobateko aurkitzen nuen norbaitek bere atsegina gizon baten ala emazte baten ondoan aurki zezan, eta aurkitzen ahal zen lekuan bila zezan sobera natural eta gizatar. Beraz Robert ezkondua izan ezpaliz, Charlie-rekiko haren atxikimenduak etzautan bihotzminik batere eman behar ukanen. Ontsa ohartzen nintzan bizkitartean senditzen nuena berdin bizia izanen zela Robert donado gelditua izan baliz. Bertze nor nahiren ganik, egiten zuena orobat izanen zizatan. Baina nigar egiten nuen lehenago Saint-Loup ontsa bertzelako batentzat atxikimendu hain handi bat ukana nuela gogoan, eta ontsa sendi nuelakotz, haren ara berri hotz eta iheskorretarik, etzautala gehiago itzultzen, gizonak, hari gutizia batzuen emaitako gai bilakatuak zirenez geroztik, ezpaitzaukoten adixkidantzarik eman-arazten ahal. Hori nola sortua ahal zatekeen emazteak hainbat maitatuak zituen mutiko baten baitan nun ikusia bainuen bere buruaz egin zezan beldurtzerano etsitua «Rachel quand du seigneur»-ek utzi nahi ukana zuelakotz? Charlie eta Rachel-en artean zen eitea - enetako ezin ikusia - izan ote zen Robert bere aitaren gostuetarik osabarenetara iragaitera ereman zuen bidea, azken hunen baitan ere aski berant gertatua zen zikologiako aldamenaren bururatzeko?

Batzuetan alta Aimé-ren elheak khexatzera heldu zizaztan; Robert-ek orhoitzen nintzan urte hartan Balbec-en; igangailu mutilari mintzatzean bazuen hari ez ohartzeko molde bat Charlus Jaunarena ainitz orhoitzen zautana gizon batzuer mintzo zizaienean. Baina Robert-ek hori Charlus-en ganik ukan zezakeen, Guermantes-tarren soineko goratasun eta egonara batetik, eta ez batere baroinaren gustu berezietarik.

Horrela zuen Guermantes-ko dukeak, gustu horiek batere etzituena, ukondoaren itzultzeko ara zaintsu bera, hunen inguruan dentelazko mahunga bat xifritzen balu bezala, eta ere mintzoaren doinu zorrotz alegiazko batzu, oro Charlus-en baitan bertze erran-nahi baten emaitera ekharria izanen zizaien arak, berak bertze bat eman zauenak, jende batek bere berezitasunak erakustera emaiten baititu ezagugarri nortasun gabeko eta ethorkiko batzuen bidez, bertzela ere berezitzun zahar batzu baizik eztirenak behar bada jestuan eta mintzoan geldituak. Azken hypothesisia huntan, ixtorio naturaleko mugan dena, elizateke Charlus-ko Jauna narrio batez hunki Guermantes bat, eta zazitiz Guermantes-tarren arrazako berezitasun batzuen bidez erakustera emaiten zuenaz izendatzen ahal zena, baina Guermantes-ko dukea lizateke, gaizkira eman familia batean, ethorkiko gaitzak hain ontsa aldaratua duen izaite ohi ez bezalakoa nun haren baitan utziak dituen seinale ageriek hor erran-nahi oro galtzen baitute. Orhoit nintzan Saint-Loup Balbec-en ikusia nuen lehen egunean, hain ile horia, gai hain balios eta arraroaz egina, bere begitako bakuna aitzinean aira-araziz, itxura emakarako bat aurkitua naukola, orai hartaz ikusten nuenaren ondorioa etzena segurki, baina Guermantes-tarren garazia berezia, dukesa ere hartan moldatua zuen Saxe-ko porzelanaren finezia. Orhoit nintzan ere enetako zuen atxikimenduaz, horren erraiteko zuen ara xamur, sendimendukoaz, eta banion neure baitan horrek ere, bertze norbait bairatu ahal ukanen zuenak, orai ikasten nuenetik osoki bertze zerbait erran nahi zuela orduan, osoki kontrakoa ere. Baina hori noizkoa zen? Balbec-era itzulia nintzan urtekoa bazen, nolaz etzen aldi bakar batez igangailu mutilaren ikustera jina, etzizatan ehoiz hartaz mintzatua? Eta lehenbiziko urteaz den bezainbatean, nolaz zaitkeen hartaz axola, orduan Rachel-ez suharki amoros zen bezala? Lehen urte hartan, Saint-Loup berezia aurkitua nuen, egiazko Guermantes-tarrak ziren bezala. Bada uste ukan nuen ere baino bereziagoa zen. Baina asmu zuzenik hartaz ukana eztugun gauza, bertze batzuen ganik bakarrik ikasia duguna, gure arimari horren jakin-arazteko biderik batere eztugu gehiago, orena iragana da; gauzen egiarako bideak hetsiak dira; ezkaitezke beraz aurkitzeaz goza, berantegi da. Gainera,

zer nahi den, izpirituz hartaz gozatu ahal ukaiteko, bihotzmin sobera emaiten zautan. Dudarik gabe Charlus-ko Jaunak Parisen Verdurin Anderearen etxean errana zautanaz geroztik, enuen gehiago dudatzen Robert-en kasua jende onest andana batena zela, eta adimendunenetan eta hoberenetan harturik ere. Nornahiren ganik ikastea orobat izanen zizatan, nornahiren, Robert-en ganik ezpada. Aimé-ren hitzek uzten zautaten dudak histen zuen Balbec eta Doncières-ko gure adixkidantza guzia, eta nahiz enuen adixkidantzan sinesterik, eta nehoiz ez Robert-endako zinez senditua ukanik, igangailu mutilaren eta han Saint-Loup eta Rachel-ekin barazkaldua nintzan ostatuko gauzez berriez gogatzean, indar baten egitera bortxatua nintzan ez nigar egiteko.

(\*) Proust-en elhaberriko azken liburu osoan (ikus: IV. *Aro berredirena*) Guermantes-ko duke 'ta dukesa bizi agertuko dira. Saint-Loup 14-ko gerlan hilen da «Guermantes-ko duke» bilakatua izan gabe 'ta beraz haren alhargun Gilberte «dukesa». Azken liburu hori, ez osoki betegina, gehienez aitzinekoa baino lehenago egina zen (*Itzultzailearen oharra*).

\*  
\* \* \*  
\*

*2015eko urrian inprimatua*  
*Achévé d'imprimé en octobre 2014*  
*Leitzaran grafikak*  
*ISBN : 979-10-93099-03-3*  
*Bertsio numerikoa eta hiztegiak :*

**www.tipirena.net**

*ZTK argitaletxea*  
*Haritzeta bilduma*